

LATXAGA

NAPARROA
EUSKAL
ARROBIA

EDITORIAL EDILI

SAN SEBASTIAN

cAIDA» ARGAZKIAK


Autor: José M.º San Sebastián LATXAGA) Edita: EDILI - San Sebastián
Imprime: Gráficas ESET - Seminario Vitoria Depósito Legal VI 74? - 1973
I. S. B. N. 84-300-5844-3

*Ugainborda'ko
nere amona Maria Zugarramurdi'ri,
Bera'n bere magalean,
gure euskera eztia ikasi nualako,
lan au esker onez, opa diot.*

ARGIBIDEA

ITZAURREA	9
KANPION'EN ERRAONDO'KO TXISTULARIAREN BER- PIZTEA	21
TAFALLA TA BERE EUSKAL GOGOA	25
LEKUNBERRI AITZ TA ORLEGI TARTEAN	31
AOITZ, NAPAR IRI ZARRA	37
OROZ-BETELU TA BERE ARIZTEGIAK	43
OLAZTI, URBASA'KO BIDEAN	49
LEITZE TA BERE EUSKAL NORTASUNA	55
LEITZA BERRIA TA PATXI ARRAZOLA	59
ALSASU AURRERAPENAREN BIDEAN	65
ALSASUA TA BERE EUSKAL ZALETASUNA	69
LIZARRA, EUROPA'KO KULTURA BIDETAN	74
LIZARRA, NAPARROA'KO BULARRA	83
LIZARRA TA BERE EUSKAL BIZIA	87
ETXARRI ARANAZ ETA SAN ADRIAN'GO ERROMERIA	93
LAKUNTZA TA BERE PERTZA	99
ARBIZU BERIAIN PEAN	105
IRUÑA'KO ERRESUMA	115
IRUÑA, NAPARROA'KO BURUA	119
IRUÑA GAUR, IRI NAGUSIA	129
IRUÑA IRIAREN EDERTASUNA	135
EUSKERA AINTZIÑAKO IRUÑA ZARREAN	141
EUSKAL KULTURA IRUÑA'N LEN	147

EUSKAL KULTURA IRUÑA'N GAUR.	155
AURITZ BERRI, ERRI TXURIA.	171
AURITZE TA AUÑAMENDIKO AIZE OSASUNGARRIAK.	177
ABAURRE GAINA, NAPARROA'KO "FAR-WEST".	183
URDIAIN ETA JOSE MARIA SATRUSTEGI ERRETORA.	188
BURLETA TA ARG AIBAI INGURUAK.	195
ELIZONDO BAZTAN'EN.	200
OLAGUE BELATE'KO BIDEAN.	207
GARAIOA TA AEZKOA'N EUSKERAREN ESNATZEA ..	213
GARRALDA TA EUSKERAREN BERPIZTEA AUÑAMEN- DIN.	217
URETA'KO JAUREGIA, MEZKIRIZ AURREAN	223
EAURTA TA AXURI BELTZA DANTZA.	229
EUGI UR BAZTERREAN.	235
BIANA NAPARROA'KO BEGIA.	241
OTSAGI, AUÑAMENDIKO LOREA.	247
MUSKARIA EBRO IBAIAREN ZAINDARI.	259
AITA JORGE RIEZU'KOA TA NAPAR EUSKAL KAN- TAK.	266
EUSKAL KULTURA AURRERA BIDEAN.	271



ITZAUREA

Iñor ez bedi arritu liburu oni egiten diozkadan goresmen itzak irakurritakoan. Naparroa'ren ederra aundiestea bidezko izanez geroz, berezko zait. Nere familia-izenak ango jatorrikoa naizela salatzzen bait du. Liburu onen egillearena dan era berean: donostiar, baña Berako "Ugain bordan" azitako napar aurrider.

Bai! nere gurasoak ere, aitareen aldetik, Naparroa zaarreko erri baten deitura zeukaten. Basaburua ta inguruko mendialdean dau-den Erasun, Saldixe, Labayen-Beinza, JJrroz Donamaria, Zubieta... mugakide mamitik dator nere askazia. Olazu Garoba ta Ezkurra erre-kek miazkatzen dizkie oñarriak gure sortetxeai.

Gora-bera iraulgarriagoak, ordea, iñarrosten dituzte errialde ta gizonak. Gerrate ta urritasunak, ots: bizi-maña ta ekonomia da as-tintzaille bizkorrena. Ontatik Naparroa zerbait ikusia da menderez-•mende, aunditasunetik amildegira eroriaz. Batik-bat eta besteak beste XIV garren gizalditik XX garren ontaraño erorialdi gaitzak ezaguturik ditu : gerrate, legorte, izurte... mota guzietarik. Odol-ustu ta ondasunez murriz il urren zala zirudien. Baiñan mirariz edo, ez al du alperrik Aralar'ko San Migel goi-aingerua zaindari, berriz berpiztu ta indartu zaigu ta gaur-egun Naparroak etorkizunari ke-mentsu ta baikor begiratzan dio.

1680 garren urtean ez zebillen Naparroa'ko jende xea oso eroso. Errixka anitz eta anitz suntzitzen joan ziran, beste zenbait jende ta bizi-lagunez arintzen. Ez bait zegon etxealdetan senide guzientzat bizi biderik. Amerika'runtz abidura artu zuten batzuek; besteak tokiz aldatu ziran Naparroan eta Euskal-Erria'ren mugaren barruan. Naparroa'ko mendialdetik Gipuzkoa'ra igitzea ez zan ain nekeza. Au egin zuten nere asabak 1733 urtean Naparroa'ko Labain'dik Gi-puzkoa'ko Berastegi'ra etorriaz. Onela agertzen da Aitorenseme "hidalgi" agirietan. Orduan Naparroa'ko erreinutik Gipuzkoa'n ko-katzeko bearrezko bait zan errigizon eskubideak izateko. Era ortan gure napar jatorria biurtu zan giputz! Baiñan, zorionez, beti eus-kaldun. Ori bera aspaldidanik gertatu zaie familia askori urteen buruan. Ez goaz 1200 urtean aurretik arabar, bizkaitar, giputz eta napartar oro bat euskaldunetaz ezer esatea. Elkarrekin bizituak giñan eta bai jipoi zorrotzak arturik Santxo Gartzez'en denboran (925) Mairuen aurka burrukan Gezaltza'Muez'ko ballara ta gazte-luan. Anzuola'ko erria urtero festaburuz oroitzen da gertakizun artaz... ots egiñez: Erretira! Atzera Etsai beltz]

Pozkida aldiak ere ezagutu genituen, alaber, Santxo Aundi, Santxo Jakintsu, Gartzia ta gañerako napar-errege pean geundela-rik. Emengo lurralde ta itsasegiraño izan zuten jabetasuna guziok

dakigu: Donostia, Getari, Ernani, Durango, Bayona... dira lekuko. Errixka txikienetan ere aztarna utzi ziguten : Arano, Altzo, Astigarribia, abar eta abar. 1200 garren urtean, giputzok, nere ustez zoritxarrez Gaztelania'ko erregeren agindu pean jarri giñalarik, Naparroa'ko lege ta itzaletik urruntzen joan giñan. Eskerrak odolez, oituraz ta izkeraz urbil geundela naiz sarri elkarren artean guduan etsai antzo.

Azkenik, Gaztel-Erregetzak Naparroa menderatu zuanean eta gero España'ko agintaritza batu zalarik Austria ta Borbon jatorriko erregeen pean Naparroa argaltzen joan zan. Gipuzkoa'runtz eramán zituzten lantegi asko: ola, errementari ta izkillutegiak. Onela galdu ziran Eugi, Orbaizeta, Orokieta, Errezuma... ta beste zenbait ola ta lantegiak. Napar langille anitz Gipuzkoa'ra aldatu ziran lan-sari billa burni-ola eta baita marinel edo arrantzale biurtzeko.

Ameriketa'rako joera artzeko ere Gipuzkoa, Laburdi eta Bizkaya'n Naparroa'ko mendi-zelaietan baño erreztasun eta aukera oberik arki zezatekean.

Jendea tokiz aldatze onek jarraitu du XX mende ontan ere. Nekazaritza ta abere zaintzaren ez bearrak, Maastien ondamena, Fíloxera dala-ta: ainbat eta ainbat beste ziogatik napar odolak itsas-aldeko euskal erriak indartu ditu.

Auek sortutako industri-lantegi aundiak beso bearrean zeuden. Bestela ere Euskal-Erria'k bearrezko du Naparroa, lurrez, ogi eta ardoz orni gaitzan gure gosea asetzeko. Naparroa dugu "bizkar-ezur" eta LATXAGAK esaten digun bezela Naparroa da euskaldunen arrobía.

Latxaga idazle bipilla gidari arturik gabiltzan bidez-bide gure asabaok izerdiz eta odolez blaitutako lurralde, zelai eta malkarretan. Ikus itzagun Naparroatik zear ibilliaz, mendi ta zabaldi, baso ta oianetan ainbat ikusbegi eder, zer nai ikuskizun bikain, eliza, prailategi, gaztelu ta jauregi. Eta geiago balio duana azter zagun

gizona: orain bizi dana ta antziñan izen ona utzi diguten oroitzapena. Emakumezko eta etxeakoandre maratzanak : joskin, irule, sukaldari, ama-maitale: Oro langille, nekazari, artzai, unai, olagizon pake-lanean; eta soldadu-gudalari azkar gerrate burrukaaldian. Errege ta buruzagiak aintzat artzekoak ditugu baiñan areago elizgizon santu, maisu jakintsu ta aleun eta aleun gizaseme apal bere erakutsi ta onegiteaz erria altxa zutenak.

Aantzi gabe Naparroa'n ain ugari sortu izan diran musikazale, oleskari ta ertilari goitarrek.

Zenbat auzo, ballara aundi ta txiki, erri, errixka, iri, goiko ta beko, aintzi-gibel jarriak! Zenbat etxalde jaundegi ta jauregi, gaztelu, eliza, otzit-etxe ta saildutegi ezin konta añakoak ditugu Naparroa'n! Agiri zaar eta larrutxi ta paper erroletan sail izugarriak azaltzen zaizkigu. Guziok giza-aberaska oparoa eratzen dute. Erletegi zaratsatu ta biziena. Asko galdu ta suntsiturik daude aspal-didanik. Leen giartsu, eta gaur lekaru eta eremu legor biurturik, erio-isiltasunean.

Bizirik ba'leude ta etxe ta gizakumez beterik beren lantresnaz ez litzake munduan eskualde aberatsago ta trinkoagorik arki al izango. Euskal leku ta toki izenez jantzirik dago Naparroa.

Errialde ta lurak euskeraz bataiatu zuten gizonak ez ba'lute jatorrizko mintzoa galdu; eta ez ba'lira gogoz aldatu a zer nolako indarra emanen zioten gure izkuntzari.

Naparroa'ko toki izenen iztegia biltzeko dago oraindik. Eta zeruko izarren pare disdiratzaille dan Galaxia ontan sartzen gaitu Latxaga idazle argi, bidezkeri aspergaitz eta so-egille sakonak. Berrogei atal inguru dituan liburu ontan iparretik egora, eta sortalde-tik sartaldera zabaldurik dauden errialdeak erakusten dizkigu. Begiluze, maitasunez ibillia da Orreagatik Ebrorano... euskal doñuaz dantza araziaz. Hermilio Oloriz zanak kantatu zuan arabera. Gure kontatzailleak astiro bazterrak ikusmiratu ditu Jakintza eta kondairaren argitara. Iruña iri nagusiari egiten dio omen, bearrik, baiñan esango nuke leku xume ta apalenak dituala kutunago eta zenbat eta zenbat ez dizkigu begi aurrean ipintzen pinpirinpin! Ildakoentzat ere ba'du gorasarre. Nolako izan ziran agertzen digu, beintzat. Eta

gaur egun dirautenak mardul eta etorkizunerako zitu oberik eskeintzen dutenok aren espiritu ta biotza pozez betetzen dute eta baita ere gurea, naski. Itxaropena suspertzen bait digute erorialdiko naigabeetatik altxatuaz. Gora, bai biotza\

Ez dezakegu oraindik garaille irrintzirik oiukatzerik. Azken arnasean egonagatik, ordea, Naparroa'n egundaño euskera bizi da.

Indar berritzen ari ote dan nabaritzen dugu. Eta berri on au, albiste pozgarri au da Latxaga adiskideak edatu nai duana. Orain-tsu-orain Granadako irakasle jakintsu dan Jose Maria Sanchez Carrion'ek gai bera darabil "El vascuence en la Provincia de Navarra". Principe de Viana'k 1970 urtean, argitaratutako liburuan.

Kanpion txit argidotarraren ^Erraondo'ko Danbolinteroaren^ ipuia alderantzian azaltzen digu. Alegia berriro entzuten asia dala Naparroa guzian eta txistu ta danboliña joaz euskaltasuna piztu eta gure barrua alaitu dezakegula. Ez gaitezen izan beti llanturu, eros-taz ari. Nigarmalkoak igurtziaz, doñu pozgarria entzunez jalgi gaitezela plazara, orok dantzara "Detxepare" banapartarraren deia jasorik:

EUSKARA JALGI ADI PLAZARA

Liburuetan ikasitakoa baño geiago Latxaga apaiz jaun zintzo eta ibilkari gazte eta zaluak begiz-begi ikusia duana kontatzen digu.

Bazter gutxi utzi ditu bere oñaz zapaldu gabetanik. Beti erne eskutuan dauden gauzak nabaritzeko.

Alduide, Aezkoa, Saraitsu eta inguruko bazterrak nola xeatzen dizkigun gure idazleak irakurtzen ari naizela, neronek orain 50 urte oñez egindako txangoa gogora arazi dit.

Tolosarrok Naparroa'ko mugakide urbillenetakoak izan gaituzu. Erbestean Tolosa Naparroa barruan dagoala askok uste izan dute. Egia da gazte-gaztetandik Areso, Araiz, Leiza, Lekunberri ta Larraun'go txokoak etxeko zitzaizkigula. Noizik beinka Basaburura, Belate, Otzola eta Ultzama'raño ere bizpairu eguneko txangoak egi-tera ausartzen giñan. Gogoan dut udako oporraldi batzuetan Lekunberri'tik oñez abiatuaz Ultzama, Alduide ta Orreaga'tik barrena Erronkari'raño iritxi giñala. Añemendira igoaz egin genduen itzu-

lia. Aste bi osoan ibilli ta gero. Ordukoa da 1930- "Pyrenaika" aldizkarian argitaratu nuan idaz-lana. Beronen zati batzuek emen berrargitaratzea ontzat artuko al didazute:

"IVere gaurko solasa, mendiari buruz baño geiago da gizonezkoek mendian itzi dituan urratz, lantegi, erri, etxe oitura ta abar aztertzer a txikia. Azalatik, arinki, bederen, bi errialde aldeatzeko ustea dakart. Europarrak biak: "Schwarzwald" Alemania'koa ta gure OIANBELTZ, au da, Irati oian, baso ta inguruko lurraldeak Euskal-Errian. Alduide ospetsua, Auritz, Aezkoa, Orbaizeta bere burnizko pillota lekuarekin. Petiriberro antziñan omen aundikoa, inguru guziko sorkin biltokia izan bait-zan.

Aien Schwarzwald ta gure Oianbeltz'ek ez dute antzik ize-
nez bakarrik. Elkarren artean beste kidetasunak arki ditzazkiegu.

Toki-izenak, basoan lodia; etxeen gallurrak, jantzi, langintza eta eguraldi giroa. Artze-ibar emen eta "Baerental" an; Feldberg eta Eiaramendi; Neustadt eta Iriberrri. Schwarzwald'en gure Irati ta Ezka'n bezela zuait-enborrak ugoldetan karraiatzen dituzte. "Flo-
esserie" eta "Almaditza" gauza berdiñak.

"Ha.uenstein"Alemania'ko erririk txikiena ta gure Abaurre Ari-
be eta Itzaltzu... alatsu.

Schwarzwald eta Oianbeltz'eare basoa nagusi. Eta ala bedi
anitz urtez. Basoa errenta bait da. Zuaitzek lurra eutsi arazten dute
aitz-sola estaldurik. Baso-oianak elurren urtutzea neurtzen dute itu-
rri eta errekek beti berdin gizenduaz.

Basoen etekiñak, garai artan Baden'en bakarrik 20 milloi mar-
kotik gora jotzen omen ziran. Zenbat ote emengoak ?

Zaindu itzagun basoak ta batez ere gure Oianbeltz! Basoa iñaur-
kiña bait da eta: kanta zaarrak dionez.

"Basoaren ederra
Aizean dabil orbela".

Iruña Oianbeltz'etik gertu dago Freiburg Schwarzwald'dik
bezela. Biak dute ez oso urrun ibai eder bana. Ebro bata, Rhin
bestek. Au iparraruntz dijoa; ura berriz egoaldera.

Iruña antziñan iri aundi ta ospetsu izan zan, Erresuma aberats eta indartsu baten iri burua... Etorkizunak, zer ote dio estaltzen?..."

Nere orduko idaz-lana luzexkoa zan ez zaituztet geiago aspertu nai. Guzia ezagutu gura lukeanak aitatutako Pyrenaica aldizkarian irakurtzea du. Orduan Freiburg'ek zuan Unibersidadea aipatzen nuan. Gaur, zorionez, esan bearra dago Iruña ez dala atzean gelditu. Eta Naparroa'ko Ikastetxe nagusia zutik eta irmo iñork uste ez zuanean guziok arriturik utzi gaitu. Bego anitz urtez!

Schuiarzivald'eko arkaitz tarte estuenean "Hoerden" deritzan lekuan onoko idazkun au irakurtzen da arrian koskatua:

Ex rupe fracta

Haec Via facta

("Arkaitz auek txikitu ta bidea egin")

"Aetate peracta

Haec ferrea tracta"

(Geroxeago ekin berriro ta burnibidea).

Naparroa'ko Oianbeltz eta baso ta arrobi guzietan bideak auserki idiki dituzte. Orain kultura bideak zabaldu bear dira. Auek arri ta burnizko bideak baño gogorrago ta iraunkorrago bait dira.

Au dugu Latxaga idazle argiak Liburu onen bitartez egin nai duana.

Naparroa'ko jeo-politika, ekonomia, kondaira ta Edestiaren berri zeatzak ematen dizkigu. Onekin batera erti irudiak, etxegintza, pintaketa ta plastiko eder lanetan iñor baño obeki jantzia dago gure jaun erretora ta begi jakintsuz zoko-moko guziak ikusi ta aztertutak ditu. Etorkizunangan uste onez gañezka. Zerbaitengatik Naparroa'ko arma arriaren pitxi baliosuena "esmeral" arri berdea dugu itxaropenaren ikurr...

Luma eskuan zeukala ez ditu aantzi Latxaga'k berak baño leen euskeraz idatzi zuten letradunen lanak. Aitzitik gogoan artuak ditu gallenenak. AXULAR bat Naparroa'ko Vrdazubi'n sortua naiz Laburdi'ko Sara'ko errian bizi izana. Nork ez daki GERO'ren egillea euskal idazleok maisu aunditzat daukagula?.. Aren ikasle Dr. Etxeberri midikua saratarra berez orobat eredutzat artu bear dugu "ES-KUAL HATSAPENAK" liburu jori ta aberatsa utzi zigulako. Bida-soa aldean medikuntzan jarduna zan besteak beste.

Aita MENDIBURU Oiartzun'en jaioa Iruña'n bizi izan zan mai-zenik; eta Naparroa'ko euskal lurretan Kristo'ren azia ere.tsn. Eten gabe mixiolari gartsu gisan bidez-bide ibilli zebillen beti... Aren aztarrenak napar eliza askotan arkitzen dira. Eta apaiz-etxe zaarretan auts tartean arki ditezke oraindik Mendiburu'ren "Otoiz-Gai" Uburuak. Idazle ta ibilkari ezik mintzalari garaienetako izan omen zan giputz- seme napar biurtua.

Garai artako genuen Mikelestorena apaiz lesakarra, liburuaren egille bere eliztarrentzat janari.

Ori bera bururatu zitzaion egitea Elkano erreter Joakin Lizarraga'ri "Platikak" deritzan liburua moldatu zuanean. Denbora artan (1800) Iruña'ko uaska guzian (cuencá) euskeraz mintzatzen ziralara gauza jakiña da.

Emezortzigarren gizaldian (1700) egiña Alesson aita Jesuita Biana'n sortuak Felipe erregeri opa izan zion euskal itzneurtu batzuek ezagutzen ditugu. Eta baita ere Benegas Iruña'ko apezpiku jaunak eratutako sariketa batean autatuak izan ziranak.

Geroztik eta batik bat XIX garren gizaldian gertakizun lazgarrien kariaz galbidean sartuak giñan. Gerrate, izurte, legorte ta ez jakitez euskera ugolde ortan itotzen zijoan. Ez jakin norena litekean errurrik aundiena. Ez dezagun astirik gal nigar malkoz eta arrenguraz... Goian dago erriak piztu ta erne ditzaken Jaun bakarra.

Ark bidalia ta erbestetik etorria, uste gabea, gureganatu zan Luziano Bonaparte printze aundia... ainbeste kalte egin zigun Napoleon'en illoba. Ordainez edo, aretxek miatu zizkigun gure "Oian-beltze'ko bideak".

Iñor gutxik, ikazkin eta mandazaiñak ezik toki aietan zebillen garaiean 1850 inguruan Bonaparte printzeak arakatu zituan bazter aiek.

Aundiki onek euskera aintzat artu zuan guri nardagarri zitai-gunean. Latxaga'k arrazoiz eskatzen du Arturo Campion'i omenaldi berezi bat egitea au izan zalako Naparroa'ko euskeltzalerik lenengo eta aundiena. Eta Campioni batera, Iturralde Suit Landa, Aran-zadi Oloriz, Ansoleaga, Obanos. Etxaide, Azkona. Beunza, Tirapu... eta Asociación Euskera de Navarra elkargoa osatu zuten gizon erri-zale guzoi. Baiñan bidezko litzake, orobat euskaltzale danon aurre-lari izan zan Luziano Bonaparte printzeari Naparroa ta Zuberoa'ren mugan, Ori'mendiko lepoan antzirudi bat eraikitzea edo gutxienez arri bat bertan ipiñiaz gañera Intxauspe, Duvoisin, Etxenike, Eli-zondo, Mendigatxa. Otaegi, Samper, Uriarte eta laguntzaille izan zituanen izenak.

Geroztik Naparroan sortu ziran idazle gotorrak Bi bakarrik ai-patuko ditut emen nere lana ez luzetzegatik. Oriek dira ildakoen ar-tean, bizi diranak urrengo baterako uztea obe bait da, Enrike Zubiri "Manexaundi^ eta J. Permin Irigaray "Larreko". Lore eta zitu ederrik utzi digutenak, igarotako negu beltzean ernegarri izan zaiz-kigunak.

Gizaldi onen asieran euskeltzale lana geldirik zijoan erdalke-riaren gaitza gero eta geiago edatuaz, berriz.

Zer zituan beaztoporik makurrenak ez goaz epaitzera. Nere-kiko, gudateal gaitz guzien bilduma danal Gauden isilik erra ta zauriak oztu ta senda ditezen. Gerora Historiak emango du iritzia.

Jauzika, eroriaz, zilipurdi egiñez, auldu eta akituta XX gizal-diko azken laurdenera iritxi gera.

Zer geldituko da euskaldungoaz Naparroa'n XXI eunkiaren asieran? "Ai posteriori l'ardua sentenza" italiar olerkariak zionez.

Etorkizunak erantun latza emango al digu. Latxaga ezezkoan

dago. Nola nai dala ikusi ta sumatutakoak zeñen ederki azaltzen dizkigun zeorrek antzemango diozu guziak irakurri ondoren.

Atalik onenak aukera bear ba'genitu ez genuka asmatzen jakingo. Guziak bait daude arretaz eta txukun idatziak gaiez eta xee-tasunez ornitu ta borobilduak. TAFALLA eta bere Euskal-GOGOIA; AOIZ, napar IRI ZAARRA; OROZ-BETELU ta BERE ARIZTE-GIAK; OLAZTI, ALSASUA, URBASA, LIZARRA NAPARROA'-ko BULRRA; SAKANA, ETXARRI, LAKUNTZA; ARBIZU, UR-DIAIN. IRUÑA NAPARROA'ko IRI NAGUSIA'ri dagokion ATAL SAILLA.

Gero BURLETA, BAZTAN eta ELIZONDO; OLAGUE, AEZ-KOA, GARRALDA ABAURREA, SARAITSU, EAURTA ta OTS-AGI barne; ERROIBAR, ESTERIBAR, EUGI, AURITZ eta ORREA-GA otsaundikoa...

Zertarako jarrai! Bukatzeko BIANA eta MUSKARIA bakarrik gorapaituko ditut. Atsegiñen eta begikoenak azken oriek bait zaiz-kit. Bear bada ausartenak diralako "pan-euskaltasunaren" irudi edo amets!

Odei tartean dabillen Poesi utsa otel..? Itz lauz egiña eta lu-rraan oñarritua, bai beintzat.

Mamiz eta gaiez NAPARROA EUSKAL ARROBIA eta esmoari gagozkiola Dr. J. Etxepare'k egindako "BERIBILLEZ" liburua oroi arazten dit. Biok Euskal-Erria zear egiñak eta gauza askotan aldera genitzakenak. Latxaga'ren idaztankera ulerreza da, susper-garria eta onetxengatik euskaldun guzien artean edatzea merezi du.

Errialde ta Gizonek illargiak bezela goraldi ta beraldiak izan oi dituzte, erori-aldi ta altxa aldiak. Kondairegilleak, esate batera-ko A. Ubieto jakintsuak aldaketa orien politika ta ekonomiari bu-ruzko zergatiak igartzen dizkiote.

Oraingo jende aldatzea Gipuzkoa eta Bizkai'tik Naparroa'n burni, peper eta beste lantegiak iraitzeko ezaugarri zorrotza da. Tafalla, Muskaria, Alsasua, Iruña, Lizarra eta Leiza'n gertatzen ari danak ez al digu naikoa adierazten?

Latxaga'k adimenez argi, biotzez zabal Naparroa'ko Euskaldun Arrobia" mezu ederra eskuratu digu. Baikorregi eta garaille goizta

*dala norbaitek esango du. Jende goibel eta ezari emanak esnatzeko
oiu eta irrintzi sarkorra entzun arazi duala ezin uka. Zingurin eta
etsipenez ez bait deus aurreratu ta erabakitzen.*

Eragozpenai ta adur txarrai aurpegi emanez, agian BAI

ÁNTONIO M.^a LYBAYEN.

Tolosa 1972 - Azaroa

KANPION'EN ERRAONDO'KO TXISTULARIAREN BERPIZTEA

Naparroa'ko euskal kabi batean igaro nuen nere aurtzaroa; Ugainborda'n, Bera'ko baserrian, ain zuzen. Nere gmona Maria'ren magaletik asi nintzan euskera gure izkuntza ezia zurpatzen. Baserri xuri ortan begiak iriki bezin aguro, euskal giroaren arnasa gartsua artu nuen. Nere animaren euskal nortasuna Suspela, Alzate ta Dornaku auzoetan goizetik gaba arte Larun, Labiaga ta Aiakoarri mendiak ikusten nituela, joan zan zuzpertzen. Inguruko beste baserritako aurrekin arremonak egunero izaten nituen; izen aiek ezin ditut aztu, jakiña Premosa, Malkorra, Zigardiberea ta abar. Nere euskal izatea txoko zoragarri ortan sortu zan. Txoriarentzat zugaitza bezela, neretzat mendi bazter oiek ziran.

Aurrak baserrietan eguneroko aginduak egin bear izaten dituzte ta Ugainborda'n etzegon aurrik, ni besterik. Alzate'ra bidaltzen ninduten mandatoak egitera Loribaita'ko Mariarengana edo Basilin dendara. Baserriko aurrak, kalean danak agurtu ber eta bereala danak ezagutzen ninduten. Nornaikin aspergabeko solasetan jarduten nintzan. Kaleko nere adiñeko aurrekin itz gutxi izaten nituan, erderaz mintzatzen ziran geienak eta ni euskeraz bakarrik. Izkuntza berdiña ez mintzatze orrek, arrituta uzten ninduen, euskera gurea eta nerea zala uste bai nuan.

Udaran gatzetxo nintzala beti amonarengana ioaten nintzan ta igande atsaldetan, Labiaga ta Santa Barbara mendi gaiñera igotzea oso atsegin zitzaidon. Andik ondo entzuten nuan Lesaka

ta Bera'ko eresia, ia beti erdal doñuak joaz, neretzat arrotzak zira-nak eta, egitan, miñ ematen zidaten. Ikusten bai nuen ura etzala gurea.

Garai artan, Kanpion'en Erraondo'ko azken txistulariaren ipuia, ez bein, askotan baizik irakurri ondorean, betiko zaurituta gelditu nintzan. Ipui orrek gure ergelkeria ikusi arazi zidan; zeñen azkar gurea uzten degun bestena artzeko, naiz gurea gauzik bere-xiena izan. Nere euskal zaletasuna ipui orrek era bat esnatu zidan. Kcmpion'en lan ori irakurri ezkerotik gaur arte, orduan artu nuan miña etzait joan. Ikusten bai nuen nere inguruan, Bera'n bertan gertatzen zala, Kanpion'ek esaten ziguna; euskaldunak beren bu-ruari arrika emanaz, euskara galduaz.

Gaztea nintzalarik, nere miñ ori barrenecm neramala, Napa-rroa'ko Auñamendi aldia ezagutzeko gogoa sortu zitzaidan. Uste nuen Euskalerri zarra antxe ezagutuko nuela. 1957'garren urtean nere asmoa bete nuen. Donibane Garazi'tik Iruña'raiño oñez atera nintzan. Bide ortan arkitzen diran euskaldunekin mintzatu nai nuen. Bazter politak ikusi nituen, aize garbiz artu ala birikak bete, gure edesti zarraren ipuiak entzun ugari, baita naiko lotsatuta atera ere. Luzaide'ko aiton batek esan zidan, "pena da euskaldun usaia gal-tzia". Auritz'en andre bat oiuka zebillen, "erderakin noranai joan gaitzke". Auritz berrin gizon eldu bateri entzun nion, "gaztiak ez dute euskera mintzatu nai". Gerendiain'en (Biskarret) gazte batek zion, "Emen ez da euskeraz egiten". Erro'n, oso arpegi illunakin, crndre zar batek esaten zuan: "Euskerak ez du yeustako balio". Azkenean, Erraondoko txistulariaren antzera ba nuen aritz zar baten ondoan aspergabeko negaraldi bat egiteko gogoa. "Galdu zaigu gure Euskalerria", zion nere biotzak. Geroztik elurte gogorrak izan dira gure mendietan, baita udaberriak ere ugari. Urte asko igaro ditut erbestean ikasten, eta etxera, Gipuzkoa'ra etorri ezkerotik, apaiz lanetcm nenbillen eten gabe. Astean bein egun bat bear lasaitzeko ta astelenetan Napoxroa'runtz joaten nintzan, orain amar urte ezkerotik; kaban artutako aizeak deitzen, nunbait. As-telenero bide jakin ori artzen nuen eta udaretan baita aste osoak igaro ere. Urte batean oñez egin nituen eunta irurogei kilometro,



bestean eunda ogei... Ezin egon Naparroa'ko aizeak artu gabe. Ango euskal aztamak billrtu naian nenbillen. Baita gero ta geia-go ta aberatsagoak arkitu ere. Bearrezkoa bezela iduritu zitzaidan ikusiak idaztea ta, jakiña, euskeraz ezagutu araztea. Azkenean oartu nintzan Naparroa osoa euskal kulturari buruz arrobi galanta baten antzekoa zala. Ibilli ezkerro, nunai arkitzen nituan gizonak, emakumeak, gazteak, aurrak, euskal gogoa ta zaletasuna agertzen zutenak; bestetan gure kultura ezagutzeko gosea; noiz-beinka baita indarra ta jabetasuna ere.

Ikusitakoak, diran bezela agertu nai ditut liburu ontan. Orre-gatik, nere lana arrobi baten antzekoa izango da; gaia egitazkoa, ezin ohea, lana aurrera dijoana, arria agertzen asten dan bezelakoa. Asiera onek garrantzi aundia dauka; ederrena lenengo arri ori arkitzea da, sendoa, gogorra ta ugaria. Askotan, jakiña, arrobia aunditu danean, aberastasun onekin danak zoraturik da-

biltz, baiñan ez dituzte ezagutzen, asierak, urruti daudelako; az-tuta dauzkate, baiñan gauza aundien oñarriak dira.

Nere lan ontan lenengo urratsak, egitazkoak, zoragarriak, Taíalla'n eman nituan. An konturatu nintzan zerbait arrigarria ger-tatzen ari zala Naparroa'n. Gero jakin nai izan nuen nola jaio ziran ikastolak. Asierak oso ezberdiñak izan dira, baiñan danak bearrez-koak, politak. Ba daude xetasun asko jakinbearrak eta poz aundia ematen digutenak. Uste degu alegia, gertakizun guzti oien berriak zer esan nai aundia daukatela etorkizunari buruz. Ainbeste euskal kulturaren langillen izenak ezagutu arazi bearrak ditugu; ezin dira aztuta utzi. Errudun izango giñake.

Nere azkeneko berriak Auritz'en, Larreko zanari egindako ome-naldian jasoak dira. Bitarte labur ortan gauza aundiak eta arriga-rriak gertatu dira Naparroa'n. Bat batean ikusi degu euskal nor-tasuna esnatzen, euskera era bat indartzen. Ez dira geiago lenago-ko garaiak, aiek joan ziran. Esan dezakegu, pozik beterik, Kan-pion'ek, 197 urtean idatzitako[^] ipuian euskera galdutako Naparroa erdalduna malkoz urturik dijoakigula betirako, eta Erraondoko azken txistularia berpiztuta arkitzen degula lan ontan. Emen eunka txistulari berriak ikusiko ditugu Naparroa'ko ta Euskalerriko men-diak eta erriak alaituaz, gaiñera euskeraz mintzatzen. Nere liburu ontan'Erraondoko azken txistulariaren beste alderdia nabaituko de-zute. An euskera uztea, emen eustea,- an negarra ta miña, emen berpiztea.

Esnatzea dan bezin zoragarria, egun sentiaren lenengo argia ikusita biotza lasaitzen zaigun bezela, alaxe agertu nai nuke emen Naparroa berri baten jaiotza, benetan euskalduna ta euskalzalea.

Bai, gaur egun Erraondoko txistularia berpiztu da. Ikusi zeu-rek...



TAFALLA TA BERE EUSKAL GOGOA

Naparroako Erribera gaiñean, Alaitz mendiaren azpian, Orbako ballara inguruan aukeratuko dezute Tafallako iria. Naparroako iri aundi ta ederrenetakoa da, Naparroa erdiko iri burua egiten duana. Lurralde aberatsak ditu, Zidakos ibaiak bustitzen dituanak. Iri osoa, Santaluzia mendi ertzetik asi ta zelairaño zabaltzen da.

Naparroako erreinu zaarra osatzen asi zanean, amargarren gizaldian, Alaitz eta Orbako euskal napar artzaiak beren artaldeekin bazter auetan ibiltzen ziran bazkatzen. Tudelako moruak estu xamar zebiltzanean beren artean, gaztelu bat altxatu zuten eta aren inguruan bizitzen jarri ziran.

Nabas de Tolosako burruka nagusian, 1212 urtean naiko azkar ibilli ziran eta erregeen laguntza berexiak artu zituzten.

Lurrak irauliz eta goldetuz, Tafalla asko aberastu zan, eta 15garren gizaldian, 1419 urtean ospatutako periak asi ziran egiten. Gizaldi ontan. Naparroako erregeak beren egonaldietako, jauregi eder bat altzatu zuten.

Amaseigarren gizaldian, Santa Mariko ta San Pedron parrokiak altxatu zituzten, baita beste jauregi eder asko ere. Garai ortan eliz-gizon idazle anitz izandu zan.

Azkeneko gizaldian, Enparantza berria ta Erriko-etxea jaso zituzten. Olategiak ere ugaritu ziran, arto ta olio-errotak, eta abar. Garai berdiñekoa da trenbidea.

Gaur, Naparroako industri zabalkundea ementxe dioa. Jarri berriak dira Luzuriagak eraman dituen olategi ikusgarriak.

Orain Taíallak 7.000 bizilagun baiño geiago du.

Garantzi aundiko ikusmirak ditu. Santa Mcrriko, aldare nagusia ikuste arren bakarrik, Tafallan sartzea merezi du. Antxieta gipuzkoarrak egiña da, amaseigarren gizaldian. Zoragarria da, nere irtiz berak egindako lanik ederrena, Zumaya ta Jakakua baiño obeagoa. Amabijiñcrren bizitza agertzen da, dan dana Gurutze batekin burutua ta gurutze azpian Jesus illobira daramatela.

Azkeneko zati onen berdiñak, neurri txikiagoan baditu egiñak Antxietak Tolosan Santa Klarako sagraioan eta Orexakoan. Elizan bertan badu Antxietak egiña, eskubiko aldare batean ikusgarritzko Gurutze eder bat. Arpegi ura ikusita, ezin da aaztu geiago. Antxe dauka jarria Antxietak bere sillua.

Benetan ederra ere, Menkos itsas gizon nagusiak 18garren gizaldian egindako Rekoletasen lekaime etxea. Eliz barrenean auke-ratzen da Roland de Moisen aldare nagusia, 16garren gizaldikoa, Oliba lekaide etxetik ekarria. Esku lan bikaiña da, zillar, antzez landutakoa.

Aldi ontan, Tallan jaio dan euskal giroa ezagutzera etorri naiz. Jakindu nuen ikastola ireki zutela ta oso garrantzi aundiko berria zala iduritu zitzaidan. Amets bat da ikustea Erribera gaiñean, Naparroa erdian orrelako erri aundi batean, euskal ikastola bat ire-

kitzia. Onek esan nai du, bizirik dagoela oraindikan euskal arnasa. Kaputxino probinzial baten bidez dakigu, emezortzi garren gizaldiaren asieran, Taíallako kaletan euskeraz mintzatzen zala errian. Orrenbesteko gizalдитan euskera galduta gero, oiaindik euskal suaren garrak irauten du, euskal sena ez da il, bizi da. Ara nik ikusitako miraria.

Sanseberinoko aurtegian, ikasurte ontan asi da euskal ikastola, bederatzi aur txikirekin. Garzaingo Nekane Zelayeta da andereñoa. Egunero lau ordu sartzen ditu aurrekin euskera erakusten. Orrela eman diote asiera ikastolari.

Andereñoak berak, astero iru egunetan, atsaldeko 6,30-7,30-tara, euskera erakusten die neska-mutillai. Berrogeiren berr biltzen dira. Ta egun beretan gauean 8-9-tara gizon emakumeei, amarren bat badatozte. Ikastalde auk Eskolapiotako ikastetxean izaten dira.

Euskal kultura aldeko ekintza berexi onek bere langilleak izan-



du ditu. Aspalditik datozte asmo auek, gaur írutuak ematen asi diranak. Azkeneko guda aurretik, napar euskalzale talde indartsu bat ba zegon, gogor lanean ari zana. Kanpion, Iturralde ta Altadil napar jator auen lanak, Taíallan izandu zituzten ondorengoak. Guda ondorean euskal giroak lo egin bear. Berriro, guraso talde bat asmo berri batzuekin asi zan laean. Ta ara nun datozten Luzuriaga Olategi berriakin gipuzkoar euskalzale batzuek. Auek lengoakin elkartuta eman diote azkeneko bultzada euskal giro berri oni. Urmeneta jaunak ta Prinzipede Bianak babestuaz asi da ikastola. Migel Arraras, Doxandabaratz, German Kabarbayen tolosarra ta beste jaun askok leengoak ta oraingoak elkarturik euskal ikaskintzari indarra ta kementa eman diote.

Berri guzti oek entzunez, pozez nenbillen, baiñan badago geiago... Taíallako bazterrak ondo ezagutzeko bi adiskide jatorrek lagundu ninduten. Bata, Joakin Menkos Gendulaingo jauretxearen nagusi berria, Real Defensako Markesa. Ez da nolanaiko naparra. Berak dio: Naparroaren alderdi berexi bat, bere euskal bizia ta kutsua dala. Ikaskintza berexiak antolatzeke beti prest dago gizon argi au, batez ere, erriaren jakintza aberasteko ta kultura ekintza oien bidez euskal jakintza ezagutu arazitzeko.

Beste laguna, Tafallako dantzari ta txistularien zuzendaria, Koldo Martin Zerezeda Alzorri da. Orain dala bost urte asi omen ziran lanean, Jabier Murillo, Orkoyendar apaizaren laguntzarekin. Gaur apaiz au Figarol errian dago ta an ere dantzari talde bat osatu du. Emen ogei dantzari dituzte ta bost txistulari. Ogei dantza ikasita, bi orduko saioa egin dezakete. Gaiñera aur txistulari talde batekin asiak dira. Txikilandia izena eman diote berari.

Koldok alaxe agertzen zuen euskalerrri-maitasuna: "Orain dala bost urte, etzegon ezertxore Taíalkm, zuk ez dakizu nolako aberastasuna dan gure erriaren euskal etorkizunari begiratuaz, igandero gure aur txiki guztiak txistuaren soinua entzunez oetik jeikitzea. Asieratik usai ori sartzen zaie ta gero azkarrago esnatuko dira".

Euskal kontzientzi au nola jaiotzen dan gaur, galdetu nion. Ara erantzuna: "Gure abizenak euskaldunak badira, gure mendiak nortasun berexi bat balinbadute, txistuaren soinua atsegin balinba-

zaigu, euskal kutsu jotor boten jabe gerala oartzen gera. Gero gure kulturari begiratuaz aunitz ikasten degu. Euskalzaleak lanean jarri ezkerro, erriak pozik jarraitzen du".

Taíallatar jator auek, mendizale elkarte bat osatzen ari dira. Alaitz izena emanen diote. Mendizale elkarte onek gaiñera euskal kulturaren alde lan egiñen du.

Euskalzale guztiak pozteko aíña berríak ba dira. Gure AMA LURRAK, nun nai euskal usaia gordetzen du. Lur orrek, euskalza-leen laguntza bear du, euskal usai goxo ori zabaltzeko.



m^m

LEKUNBERRI AITZ TA ORLEGI TARTEAN

Larraun napar baillarako erri nagusia da. Donostiatik Iruñera dijoan errege-bidearen ertzean dago. Tokia ezin erosoago ta ederragoa. Aralar mendia aurrez aurre agertzen zaigu Gipuzkoako mugaraiño. Ingurucm belaze zabalak, basoak ezin konta ala, guztietan pagoa errege. Atzean, bizkar konkorr bat bezala arkaitz galanta, illearen modura piñu batzuk dituela. Larraun erreka ertzean dijoa Irurtzun aldera. Iturriak nun nai daude.

Eliza, errege-bidetik aruntzaxeago ikusten degu. Eliz inguruan erri-zaarra. Errege-bide ondoan Lekunberri berria dago, an bai ostatu galanta. Udarako ezin ohea da toki eroso ta alai au.

Eliza, ederra, zaarra, erromaniko-gotiko bitartekoa, dan dana arri landuaz egiña, gaztelu baten antzekoa, batez ere dorrea. Antziñako sarrera ta atzeko leioak gorde ditu. Ederrak dira, iduriz beateak, danak zerbait esan nai dutela.

Orain dala gutxi, eliz barrena berritu dute ta izan leiken ederenetakoa gelditu da, gusto aundiaz egiña. Atzeko zirrikitu zaarrak ere agertu dizkigute berritze ontan. Erretaula 17-garren gizaldikoa da, Ameriketako arte lanen antza ba du, Mexikotarren batek egiña balitz bezala. San Joan Bataiatzaillearen iduria erdian dago, bere izena darama elizak. Bataio-pontea zabala du, gotikoa. Ate ondoan jarri dute bataio ta ur bedeinkatua artzeko balio duela. Amaseigarreneko Amabirjina bat ere, bere semea eskutan duela eserita dagoena jarri digute agirian arrizko orman. Eliza gaurko kristau elkarteen billeratako antolatua dago. Orren apain, garbi ta argi, oso gutori Naparroan.

Eliza aurrean, erriko kale zaarrena dago. San Juan kalea deritza. Txikia da, etxe zarrak ditu, gotiko garaikorik ba da. Izen auetxek dituzte; Marigarzenea, Gallarzene, Apezetxea (ezker); Iribesenea, Borraganea, Mitxansenea, Alkatenea (eskubi). Etxe geienak, napar etxe sendo oietakoak dira. Donostiatik Iruñera berebillean goazela, bide ertzean ortxen dago erri sarreran, danen agirian eta ezin aztu dezakeguna "Antonea". Etxe zabala, bi zati galantarekin, dorre bat erdian duala.

Gaurko erri paketsu onek garai batean izan zituen bere buru-austak.

1460-garren urtean etxe geienak erre egin zituzten tolosarrek.

Orain 120 familia bizi dira ta 600 bizilagun gutxi gora beera. Baillara osoaren salerosle geienak, emen daude, baita sekretarioa, sendagillea, albaiterua ta abar, ere.

Bertako ta inguruetako gazteei lana emate arren, ola berriak egiten ari dira. Jainkoari eskerrak mendi baztarretan sartzen dituzte, erria ito gabe. Badago erradiadore ola 30 langillerekin eta suizegaztandegia beste amarrekin. Taldetxo bat Leitzeko olategi nagusira joaten da lanera egunero. Gaiñerakoan lurgintzatik bizi dira, beiak dituzte esnea kentzeko. Hotel eder bat ba dago, ostatuak eta arangelak ugari.

Euskal-giroa nun zegoen orain arte? Ba oso eroria. Mutil eta neska guztiak erderaz mintzo dira, aziak ere beren artean erderaz, zaarrak zaarrekin batzuetan euskaraz. Ori dana Euskalerriko biotzean gertatzen da.

Urtetan etzan itz bat euskeraz entzuten. Eskoletan dana erderaz. Jakiña denbora gutxin euskeraren bizia egiña zegoen. Negargarria ta mingarria zan, San Migeletik jeixterakoan eta erri ontara sartzerakoan gazteek beren artean euskeraz tutik ere etzutela egiten. Aldaketa onen arrazoia galdetu ezker, erantzuna prest zegoen: "euskera zertarako". Gaur gauzak asko ari dira aldatzen.

Erretore zaarra il zan, Goian bego. Berria etorri da, Basaburuko semea, ezin jatorragoa ta argiagoa, Migel Alberro bere izena. Lekunberrira etorri ta aste gutxitara, berri pozgarri bat etorri zitzailgun; illetako meza bat euskeraz eman zuela. Orduantxe asi zan



euskera berpizten. Elizkizunetan gero *ta* geiago sartu du euskera. Gaur meza batzuk bi izkuntzetan ematen ditu, bestetan euskal abes-
tiak sartzen ari da.

Beste pauso zail bat eman zuen erretore jator onek. Meza nagu-
siaren garaian, Klarisetako lekaime elizan beste meza bat izaten
zan berantien-tzat (beraneantentzat). Orrela, kanpotarrek bere le-
geak jarri nai zituzten. Ura kenarazi zuen gure On Migelek.

Udarako kanpotar oiek indarra izaki ta bertakoak aiei begira.
Jakiña, euskera zertarako? batzuen galdera. Aien neurri berdiñean
besteak bizi nai.

Aurten erri zoragarri ontatik berri ezin ohea artu degu. Ikastola
ireki dute. Ez al da gauza ederra 600 bizi lagunuen erri batean ikas-
tola irekitzia? Nun dago Euskalerrian beste 600 laguneko erri bat
bere ikastolarekin?

Erretorak bere etxean gela bat eman die eta antxe ireki
dute aurten ikastola. 22 aur dotoz egunero. Pakita Agirre an-

dereñoa Leitzeoxra da. Aur oieri, beren etxetan, geienak erdaraz egiten die. Bat bakarrik mintzatzen zan garbi gure izkuntzan. Ez da orren errax izandu aurak ikastolara bidaltzea. Guraso batzuentzat oraindik euskeraz egitea politika da. Dana dala asi da, ta gurasoek illabetero 100 pezeta ordaintzen dute, gaiñerakoa Diputazioako Prinzipe de Bianak egiten du.

Aurtengo udaran, gazteak saiatu dira beste gauza aundi bct aurrera ateratzen: baillarako eguna.

Naparroako Larraun baillaran, su berri bat piztu da. Aurten leenengo aldiz baillara osoko eguna ospatu dute. Jaí orren gai, auxe aukeratu dute Larraun bat, 12 errik bat.

Lekunberriko gazteak bi urtez Elizondon izandu dira "Baztandaren Biltzarra" ikusten. Bai egun zoragarria igaro, eta bai asmo berriak Larraun aldera ekarri ere. Andik etorrira auxe zioten gazteek: "Erri bakoitza bere aldetik ibilli bearrean, zergatik ez gera denok elkartzen eta batera lanecrn asten".

Pentsatu ta asi. 12 erriren artean, jai bat antolatu eta egin dute. Aukeratu zuten eguna, igandea, zan, iraillaren 13. Amabi erriak Lekunberrin bildu ziran.

Jai onen gai aipatuenak auetxek izandu dira Aurretik, Lekunberrin orri batzuk banatu dituzte, etxe guztien euskal izenekin. Danak ezagutu ditzazten ta atarian jarri. Izen asko aaztuak zeuden. Txistulariak erriz erri ibilli dira goizean.

Amaiketan Meza elkartua dandana euskeraz. Denentzat bazkaria. 225 lagun bildu ziran bazkaltzen; 75 pezeta ordaindu zan.

Bertsolariak bertakoak, Udabeko Oresa ta Errazkingo Arginarena. Atsaldeko bostetan sokatira ta korrikalariak. Iribasko gazteek ango ingurutxoa atera zuten oso poliki. Gero Gipuzkoako abeslari talde bat. Ondorean dantza. Aur txiki guztiak euskal jantziekin ibilli dira kalean.


Leenengo urtea izandu da ta uste baiño obeto atera zaie. Gazte denek lana ondo bete dute. Batez ere Arruiz, Aldaz, Baraibar, Uitz, Iribas, Lekunberrikoak egiñaalak egin dituzte.

Orrelako egun batek elburu asko bctutzen du. Dana dala, ooxzten dira lur berexi batean bizi dirala eta lur orrek izen bat duela

eta ez nolanaiko nortasuna. Ekintza onekin Baillararen nortasuna obeto ezagutu dute eta maitatu.

Jaiekin asten dira, baiña gero oartzen gauzarik ederrena elkartasuna dala ta batasunaren bidez korapillo latz asko askatu ditezkeala. Nai ta naiez Baillararen problemei begira arkitzen dira, danak alkartuta eta oso borondate onaz. Nola Larraungo Baillara esnatu ta bizi berri bat eman?, da orain egiten duten galdera gazte jator auek.

Leenago Baztan aldea zala, gaur Larraun, gero beste baillarak izanen dira. Naparroa osoa esnatzen ari zaigu. Argi bizi bat datorkigu Naparroa aldetik. Ezagutu dezagun. Txalo bero bat merezi du.



AOITZ, NAPAR IRI ZAARRA

Bost Auzi barruti daude Naparroan, oietcrtik bcrf AOITZ da. Iruñeko atectn dauden erriak eta Zankotza, Lumbier, Erronkari, Zaraitzu eta Auritz erriskak ere epai gaiak zuzentzeko, Aoitza jocrtea, beartuak daude.

Iria, Ircrti ibai basatiaren gaiñeko cddean dago, bizkctr batecm. Beran berriz, galtzara zaarra, Artzibar ta Aezkoara dfjocm, iru begiko zubi gotiko eder baten barrena. Gour, goiko aldetik, egiña dago errege-bidea; Iruñea aldera olategiak daude, goruntz, berriz, egurasketa ta frontoia. Ortik bidea igotzen da bi arkaitz tartecm barrena igaro arte. Toki oni Pontxe Alkuna deitzen diote. Andik zelaí ta mendi zoragarriak ikusten díra. Zuloagak margoztu zuen bazter zoragarri au.

Naparroako iri zaarrenetakoa degu, garrantzi aundikoa aspal-diko garaietan. Mendi baillaretako ateak gordetzen zituen alde batetik, bestetik Naparroa-erdiko zelaia. Karlos III nafar erregek, iri ontako semeak zaldun izendatu zituen. Amabosgarren gizaldian, emen bertan pakea lortu zuten Naíarroako bi zcrti erdibituak, Agramontesak eta Beamontesak. Eginkizun zoragarri au iriak jaso zuen bere armarricm ta ortarako bi ezpatak batean ipiñi zituzten.

Garai zaarreko kutsua du iri onek. Eliza dorre lodi batekin gaiñeko aldean dago, sartaldera berriz etxeak, ederrak, arrizkoak, zcrrak, karrika estuetan eratuak. Etxe sarrerak cmi landuzkoak, ateak zurazkoak, lodiak, burnizko iltzeakin, gaiñean armcrrriak ugari. Ez dago bi etxe berdiñik. Jauregi eder bat ere bai, Santa Klarako markesena, 16'garren gizaldikoa.

Eliza, gerrarako zegoan antolatua, gaztelu baten antzera. Eliza barrena zabala, zati batekoa. Dorrea erromanikoa da, gaiñeron-tzekoa amaseigarren gizaldikoa, Korua, garai berdiñekoa, zillararren antzera landutakoa.

Ikusgarria, berriz, erretaula nagusia da. Emezortzigarren gizaldian konpondua, baiña 16'garrengoa arte lan asko du, gure gipuzkoar artista ospetsu Antxietarenak. Gauza asko dago oraindik beretik, batez ere apostoluak, gizon sendoak, su ta garra dariotela. Erromako Sistina elizan dagoen Adanen antza aundiko iduri bat ba dago. Migel Angelen estilokoa, ta Antxietak egiña. Ama Birjina bat bere aurrarekin, arpegi zabal eder ta argiakin, orma batean dago; au ere Antxietarena da. Beste gurutze bat ba da, Kamon Aznarrek dionez, Espaiñian dauden artelanetan, oso gutxi bezala Greziako arte lanekin neurtu leikeena, ezin ohea. Alakoxea zan, geure gipuzkoar Antxieta.

Amabosgarren gizaldiko Ama Birjiña gotiko bat eserita; aurrarekin aldaretxo batean dago; aurdun emakumeak beregana joaten dira.

Bataiopontea, 14'garren gizaldikoa, Nafarroan dan ederrena dauka eliza onek. Nafarroako ta Aoitzko armarriak burniz egiñak jarriak dituzte aldare inguruan.

Termitekin lan aundia dute eliza ontan, inguruan dituzte kabiak. Egunen batean tellaturaiño igoko dira.

Iru milla gizaseme bizi dira Aoitzen. Bi Lantegi zaar zeuden; egurzerra eta egur-errategi edo destileria alkola egiteko, eta bi indar ola.

Gaur asko ugaldutako dira olak. Kautxo ta zeta oletan 250 langilek lan egiten dute. Beste iru errediza ola txiki ireki dituzte orain berriro.

Iri onek baso eta laborantza gutxi du. Leenago ardo anitz egiten zuten, gaur gutxi. Etxe geienak berea ba zuten.

Etxe berri asko egin dute; orain amar urte 120 ta aurten 140.

Etxe zarrak utzi ta berrietara doaz geienak. Etxe zarrak ez dituzte maite, berrien atzetik dabiltz. Etxe berri auek toki asko izan arren, pillaka egiñak daude. Diputazioak, kamineruentzat egin

ditu etxe erosoak, lorategi ta belar xeeaz inguratuak.

Iri au udarako ezin ohea da; aize osasungarria, eguzki goxoa, bertan mendi "Zabalea" piñuzbetea, berean ibai ederra naiko urakin, lurrak gariakin ta urrutian Sinai antzeko Izaga mendia, arratsaldetan urdiñez jazten dana.

Errian sartuta, euskal izenak nun nai ikusten dira; bar Leku ona, Beti-jai, írontoi Toki-eder. Lurrak ere euskal izenak daramazkite; Isabaldea, Mendiburu, Angiro-erreka, Legarrea, Urrutea, Reparazea. Gizon kaska zuri bati, "burubeltz" jarri zioten izena oraín dala gutxi. Nunbait euskal-usaia ezin baztertu.

Izenak euskaldunak, baiña euskaldunik ezin aurkitu.

Ba al dago euskal girorik iri onetan? Auxe galdetzen nuen nik. Beti erantzun berdiña; "Ori ez dakigu emen zer dan". Bizpairu al-diz izan arren, saiatu nintzan zeozer jakiten. Galdetu nien apaizei ta jende ikasiei, euskal zaletasunik ote zegoan. Beti gauza berdiña entzun bear: "Batere ez, emen ez dago ezer".

Azkeneko aldian, Daniel Orexako gazte batekin nintzala, ibi-llaldi luxe xamar bat oiñez egiteko asmotan, sartu giñcm ta bidean dio nere gazte onek: "ez nuke erri ontatik joan nai, norbaitekin euskeraz mintzatu arte". Galdetu nion saltzailleari euskaldunik ba ote zan eta bere senarra ala zala esan zigun, berez USETXIKOA (Esteribar). Gogoz mintzatu zan gurekin euskeraz. Bi andre gipuzkoar an ezkondata bizi zirala adierazi zigun; aiengana agindu bat egitera jocm bearra zegoela. Jocm giñcm eta bi etxeko andre aiek Usurbilgo apaiz baten arrebak izaki, Zarautzen apaiz dagoen Erraimun Aginagaren arrebak alegia! Ura poza gurea, bai cmdre aiena ere. Euskeraz mintzatuz erriko kale guztietan barrena ioan giñctn. Aoiztar asko agurtu genuen bidean. Bi cmdre oien senarrak esaten zizuten erdaraz: "Euskera maite degu, baiña gure emazteek aurrei ez die erakusten. Aita ta ama bakarrik esaten dakite". Topo egiten degu okillearekin, Jabier Sarries bere izena. Poza artu zuen ta euskeraz zekizkien guztiak esan zizkigun. "Gurutze Santuaren" euskeraz egiten egondu zcm kale erdían. Iñoren laguntzarik gabe, an balio du euskaldun izateak.

Bi gipuzkoar etxekoandre aiek deitu ginduzten, beren íamilie-



kin batera ofaldu genezan. Aiek gizaseme jatorrak. Atera zizkiguten amar urteko ardo zaarrak, Aoit bertakoak "Zabaltza" etxean egin-dakoak, ezin obeak. Zabalza etxe ontako illoba jesuitak Meza berria eman zuenecm bazkarian berak ainbat urte zituen ardoa atera omen zuten.

Guk uste gabeen, kafe artzera beste etxe batera, deitu ginduzten eta antxe bilduta zeuden erriko euskaltzale ta euskaldun geientxuenak, danak ez. Gaueko ordu biak arte egon giñan solasean. Amaseiren bat bildu giñan. An entzun genituenak!

Leenengo galdera au egin genuen. Izan al da emen beiñere

euskalgirorik? Azkeneko gerra arte oso aundia, berek ziotenez. Ba omen ziran eundik gora euskaltzale. Abesti, dantza ta txistua ikas-teko ta euskeraz egiteko biltzen ziren. Ba zituzten iru dantza talde ta itzaldiak maiz euskal kulturari zegozkienak. Gañera Aoitzetarrak euskal kultura inguruetako errietan zabaltzen ibilli ziron. Zankotza ta Auritzeraño dantzak erakustera joaten ziran. Gero erori zan ekai-tza ta ...isilaldia etorri gaur arte; egiaz oso luzea.

Orain dala bost urte asi zan berriz dantza talde bat. Aiunta-mentuak ukatu zien laguntza. Gaur berriz bere gain artu ditu.

Erru aundiak dituzte apaiz erdaldunak bidali dituztenak, baita maisuak ere. Oiek Euskalerriaren usairik ez dute beiñere artu, be-rea etzalako.

Gaur zer?, galdetu nien. "Ikastola nai degu", azkar esan ere. "Emen moda da aurrei izen euskaldunak jartzea, baiña orrekin ba-karrik ez degu ezer egiten". "Apaiz euskaltzale baten bearra degu asteko. Ez dago besterik". "Guk ez dakigu nundik nora jo. Erri on-tan gauza orri nork eltzen dion garrantzi aundia du. Beldurra degu danok".

Giza-seme napar, gazte ta zaar, jator auek entzuten ez giñan aspertzen. Merezi dute ba gure laguntza.

Aoitzko euskal napar talde oni Arturo Kanpionek entzun balie, ori poza artuko zuen!

Jose Agerre naíar euskaltzale jatorrak, emengo ilerrian dauka ilobia euskeraz idatzita.

Iri ontan egon ondoren, bizpauru egun geroago, Danielek esa-ten zidan: "Aoiizko euskaldun aiek ezin ditzaket aaziu. Euskalerria-rentzat Naparroa ez da galdua, pixtuko da berriz".



OROZ - BETELU TA BERE ARIZTEGIAK

Dana mendiz inguratuta, Iraty ibaiaren ondoan aurkituko dezute erri polit au. Orrengatik daukd ain ondo bere izena jarria; Oroz-Betelu, "mendiz josita" esan nai du. Urrizgain (1.018 m.), Bixkasun (966 m.), Meyurru (1.072.), eta Murubixkar (966 m.), tontorrak agirian daude. Aoitx aldetik sartu ezker, erreka, aitz eta lur leorra artez betea ikusiko dezute; erritik Auñamendi aldera joan ezker, berri, mendiak aritz eta pagoz beterik, berde kolore ederrez jantziak.

Erriak, etxeak zabal eta ederrak ditu, geienak aintzina garai-koak. Eliza egi batean, agirian; kaleak, goitik ibairaino dñjoaz. Etxe-tarteen barrena ANAKO erreka kantari.

Aezkoa aldera, erritik iru kilometrotara, auzo eder bat dago; bere izena Olalde. Burni olak zeuden garai zaarretan, gero paper-olategia ta gaur argi indar ola galante. 33 familia bizi dira. Bertako parrokia, San Migel eliza berrian daukate.

OROZ-BETELUN gaur 460 bizilagun bizi dira. Geienak langi-ueak dira. Armario olategicm (45 lcmgille); besteek argi indar olategian eta basoan lana egiten dute. Ba dira lurgintzan ari diranak ere.

1845'garren urtea arte, Artzibarko erria zan. Geroztik askatasun osoa eskuratu du.

Ezin diteke erri ontatik joan bi gauza ikusi gabe. Alde batetik Elizak daukan aldare nagusia, Juan de Uizik 17'garren gizaldiaren asieran egina; iduri onenak ool lanak, oso fiñak leenengo errenkadan dauzka. Eliza bera oso ederra da, arri landuz egina, 16'garren gizaldian geiena. Dorrea ta atea 13'garren gizaldikoak ditu. Orain berriro aterpe eder bat jarri diote ta aurrean loretegi bikaina. Baz-

tarreko aldare batean ba da San Antonen iduri bat, 16'garren gizaldiaren asierakoa, oso gustokoa zaidana. Nortasun aundikoak eta ederrak ditu arpegia ta bizarra.

Eri ontako beste ikusgarria, aritz basoak edo ariztiak dira. Dala dala, Nafarroan diran ederrenak eta batzuek diotenez, Europan leenengoak. Bear diran bezela garbi eukitzearren, urtero 1400 m.³ aritz egur kendu bearrak dituzte. An bertan ere ba dira zuaitz landare baratzak; ezin obeak, Diputazioak zaintzen ditu.

Ez dira gaurkoak; orain dala berreun urte, antxe zeuden eta orduko landareei esker, gaurko basoak egin dira. Baso ta baratze tartean dijocm Iraty ibaia zoragarria da, batela artu bearra dago alde batetik bestera igarotzeko. Gainera ibaia amorraiz bete beterik dago. Orain dala bizpairu urte, konponketa batzuk egiteko, ibaia ustu zuten eta iru kilometro terdin lau tonelada amorrai jaso.

Ez dago gaizki. Ale batzuk ba omen zituzten 5 kilo.

Baso oien bidez erritarrek, aurrerapen aundiak dituzte urtero. Sendagillea, ura eta argia, Erriak ordaintzen ditu; gainera eliza konpondu dute, "Iturri-alde" frontoi berria egin, kaleak apaindu, mueble olategi berria jartze arren 8 milloi aurreratu. Orrela pozik egon ditezke. Ura, edaririk onena bezin goxoa dute; "Aizkolan" iturritik datorkie.

Euskal kutsu aundia dauka erri onek, bainan euskera galdu-rik dago. Orain dala berrogei urte egiten zan, gaur ez dakite. Adi-ñezko gizon bati galdetu nion zerengatik etzuen euskeraz ikasi. "Oso trakets egiten zitzaidalako", esan ere. Gainerakoan euskal izenaz bazter guztiak bataiatuak daude; izen batzuek berexiak eta izkuntza aldetik aberatsak. Erritarrek ez dakite zer esan nai duten.

Ara etxe batzuenak: Putzan, Makurra, Ten, Zertelo, Erneta, Iringua, Txirula, Gizon, Endari ta abar. Oraindik ibai erdian gelditzen dan lurrai "zaidu" deitzen diote eta toki bustiari "ezki"; soro ezpel etsiei "izpulka", Mendi aldapan dauden arñ puskatuei "txintxila".

Euskal giroa, nola esnatu? Lcm ortan asi da erriko erretore argi ta langillea. Benito Urtasun jaunak, erriko ta Artzibarko izenak jasotzen cni da. Urte ontan Oroz-Betelu ta Artzibarko gaia artuaz liburuxka bat idatzi du.



Eri ontakoa degu Garmendia familia, Nafarroan euskal kulturaren abeak izan diranak.

Udara igarotzeko, erri au bezin toki eroso, paketsu ta merke gutxi. "Txirula"-etxean kanpotarrak artzen dituzte. Ez dezute iñun billatuko beste tokirik ain merke ta garbirik dagoenik. An izandutakoak oroituko zerate askotan.

Oroz-Betelu ta Artzibar barrena oinez ninjoala, familia bat bakarra arkitu nuen egiaz eta biotzez, aspalditik euskaltzale benetakoa eta gorriak ikusitakoa. Sendi onekin topo egiten zaila izandu zitzaidan. Azkeneko aldian Oroz-Betelun nintzala, bere etxean zeuden. Erriko erretorari esan nion, mesedez joateko eta urrengo egunean arreman baten aukera eskatzeko. Gaixo zeudela ta atzera ezezkoakin otorri zitzaidan. Berriz ordua eskatzeko esan nion eta azkenean ordu erdibaterako ontzat artu zuten gure agurtza.

Garmendia jauregi ederrean, eliz inguruan bizi dira. Sarreran,

euskeraz idatzirik zegoan: "Ongi etorriak" eta mailladiko ate gainean:

"Adiskideak barnera
Etsaiak, okerrak eta
mingaina luzeak kanpora".

Senar-emazteak pintatzen ari ziran. Agurtu ondoren nere leenengo galdera auxe izan zan. Zer egin dezute zuek, Nafarroan, euskal kulturaren alde? Erantzuna interesgarria eman zigun. "Gure aita Leopeldo Garmendia, biotz biotzez asi zan lanean. S. Aranaren idazkiak irakurrita esnatu zan. Gero lagun batzuk bildu zituen; Iruñe ta Nafarroa barrena euskaltzaleen asmoak zabaltzen asi ziran. Gurasoak etxean euskal anderéñoa jarri ziguten gure izkuntza ikasteko eta Oroz-Betelun asi giñan euskeraz mintzatzen. Gudako ekaitza etorri zan eta arekin zigorra. Iges egin genduen. Nere anaia Migel Joserren euskal lanak orduan galdu ziran. Milla-ka fitxetan Aezkoako berriak jasoak zituan. Orduzkeretik erbestean ibilli gera; Frantzian, Ipar Ameriketan eta Mexikon. Orain berriz etxean".

Nere bigarren galdera. Ze lan egin dezute Oroz-Betelun euskal kulturaren alde? Bai garbi esan ere; "Oso gutxi". "Asi giñan kantu ta dantzak erakasten baina etziguten arrera onik egin. Gerra aurretik, emengo langilleak beste asmoak zituzten buruan. Gu aientzat, erriko aberatsak giñan".

Andre Karle Garmendia, erriko eskolan aurrerazalarik, asi zan marrazten; gero Iruñean. ZIGA napar margolari trebearen ikasle izan zan. Gero geiago ikastera Parisa igo ta bere gaurko senarra an ezagutu zuan. Higinio Blat margolariarekin ezkondu ondoren, ia egunero pintatzen ari dira. Bere senarrak, Erromako sari nagusia altxatua dauka.

Gure gerra ondorean alde egin zuten. Frantzia barrena ibilli ziran, gero Ipar Ameriketan ta azkenean Mexiko'n, Ermosillako ikastetxe nagusian biek amabost urte egin zituzten erakasle bezela. Udaro espetxera joaten zan emakumei margozten erakustera.

Asko margoztu du gure Karlek; marrazkiak Parisera bidaltzen zituan eta margoak, berriz, Ipar Ameriketara.

Orain dala sei urte oster a Naparrora etorri zaizkigu. Baditu bi alaba, bat margolaria ta bestea goi maillako dantzaren erakaslea.

Bere lurra maitera, itzuli ezkerotik, Naparrako edestia margozteko asmoa dauka ta lan ortan oso aurreratua dabil. Naparroko edestiaz ez du zernai egiten. Naparroko ekintza sendoenak margozten ditu bere nortasuna egitaz agertzen dutenak. Berak dion be zela, "Naparroaren alde, zer bait egin nai dut".

Nai bakarrik ez: asko egiten ari dala, esan dezakegu. Begitik sartu nai du errian Naparroko griña, maitasuna ta ezaguera.

Oliba lekaide etxearentzat, Garzia Ramírez erregearen irudia margozten asi zan. Gero Eneko Aritza'rena egin zuan.

Lanak artzen zituan egitazko arpegiak billatzen. Lagunak, beren semeak margozteko eskeintzen zizkieten. Berak ba zuan lana, oartu arazten, mutil politak etzitula nai, gizon egiñak eta sendoak baizik. Bear zituan gizasemeak billatzen. etzitzaion lana errexa izan



Beste lauki edo kuadroa. Aoiz'ko pakeari egiña dauka. Su ta anai artean odol dario zebillen Napccrroa. Azkeneon, 1429'garren urtean agorraren 17'an pakea lortu zuten Madalen erregiñaren bi-tartez. Ordutik, bi ezpatak jarri zituzten Aoiz'ko armarrarian. "Aoizko Pakea", eman dio izena bere margoari. Margoa Iruñan zegola ja-kin zuten Aoizko errikoetxeakoak ta ikustera joan ziran. Gero, pa-kea, eroria dagoen San Erroman baseliza inguruan gertatu zalako. berriz altxa dute ta urtero erromeria cntolatu.

Berak egindako azken lana, Amaiur'ko azken gudari naparte-rreri buruz; tamalgarria, gogorra ta ikaragarria da. Odola ta sua zabaldu, ta gudari batzuek Napar ikurriña zutik eskuetan oraindik daukatela. Auxe da arrigcrrrizko irudia ta Ncrrparroarentzat benetan mingarria ta esanai aundikoa. Bere lan au egin ondorean, joan dan urtearen bukaeran, Iruñako denda baten agertokicm ipiñi zuan erriak ondo ikusi zezan. Asko dira, gogotik ikustera etorriak. Orain berriz, Orreagako burruka nagusia bukatu du.

Irudiak ondo ematen zaizkio gure Karle'ri, bizitasun ta indar aundikoak egiten ditu, gaiñera oso garbiak. Berari esker Naparro-ko edestiaren ekintza ezagunenak margoztuak izango ditu. Berak egindako bilduma au garrantzi aundikoa ta balio duna degu.

Orain berriz asmo zoragarri bat etorri zaio burura. Bere jaure-gian, bere margoekin, Naparroko edestiaren museo bat egin nai die, danak Naparroko bizia, nortasuna ta edertasuna, bear bezela, ezagutu dezaten.

Ikusten degunez, bere odolan daramazki, gure Karle'k, bere Naparroa ta artea. Berari esker, Naparroko edestia artearen mailla-ra jaso gelditzen da ta orrela Euskalerrria ezagutu arazten du. Edertasuna ta Naparroa batean agertzen ditu. Karle'n bitartez, Na-parroaren zaña zarrak ikusten ditugu, indartsu ta berri.

Esaten nuan bezela, andre au ez da nolanaikoa. Naigabe uga-ri izan ditu inguruan ta etxean, danez gain atera da, bere sinisme-na sendoaren bitartez. Gutxi al da emakume batentzat, sinismena, aberriaren maitasuna ta artea bere bizitzan iruak bat egítea ta al-kartzea? Naparroko katean sortutako lore eder bat degu gure Kar-le Garmendia. Ixillean, eten gabe *lanecm* ta otoitzean dabilkigu. Be-rak utzitako emaitza oso aberatsa izongo da, ikusi nai dutenentzat.



OLAZTI, URBASAKO BIDEAN

Ziordia eta Alsasu: tarte ortan dago erri eder du. Errege bide nagusia, erritik bertatik barrena igaro dijoakio. Ez bakarrik errien erdian, baita Urbasa ta Alzania mendi tartean ere arkitzen degu. Trenbide nagusia Eliza atzetik barrena dijoa. Burunda ibaiak, Iruiñeruntz daramazki urak.

Eliza, gain batean degu. Aurrean, beerago, Urbasaruntz erri zaarreko etxeak; Alsasuruntz Klinkler lagunartea, auntzaxeago Porlan olak eta langilleen etxe batzuk. Errege bidetik Urbasa aldera, berriz, auzo ta etxe berriak.

Amabostgarrengo Eliza, orma lodiekin gudako indarkerietako antolatuta dago. Aldare nagusian, erretaula ederrenetako bat arkitzen degu. Antxietaren eskolakoa. Bere egillea, Diego Mayora gipuzkoarra, Segurakoa. Erdian jarrita daukaten San Migel iduria bi-

kaina da, eta oso onak Azken Aíaria eta Gurutzetik Jesusen Jeistaldiaren zur lanak. Berdintsuak dira Amabirjinaren zur lanak ere.

Amazazpigarren gizaldiko zillarrezko Gurutze eder bat, ba dauka Eliza onek. Garai bereon Andres Salinas bordadoreak edo azpatzaileak, Eliza ontarako, apaiz jantzi ederrak egin zituen.

Elizak arrizko aterpe zabal bat du ta andik erri osoa ederki ikusten da. Orain dala 100 urte 800 bizilagun, gaur berriz 500 sendi 2.300 biztanlerekin bizi dira.

Zimentu olategian 500 langille daude, joan dan urtean jarritako "Prefabricados" olategian beste 280 langille ta bi arrobi ba dauzka OLAZTIK. Aspaldiko garaietan erri onek ba zituen olak; Bioko zabalko aitz meatzetik burnia ateratzen zuten.

Gaur iakintza aldetik, erdimailako ikastaroak errian bertan egiten dituzte. 85 ikasle dijoazkie. Dana dala, 200 gaztetatik 85 eskolatuak dira. Auxe da Naparroa berriaren gazteria.

Jaunari esker, Olaztitar amona batekin topo egin nuen; benetan andre argia, bere izena Teresa Etxaiz Lazkoz. Aspaldiko oitura zaar asko eman zidan. Biziki mintzo da. Kutxa eder baten antzekoa degu, barrena betea dauka. Izketan asten danean utzi egin bear zaio. Ara berak esan zizkidanak: Errogatibetarako, iru baseliza omen zeuden eta iru egunetan egiten zituzten. Aundiena Belengo Andra Mariarena, bestea Donostina (S. Sebastian), irugarrena "SANEZTAN" (Doneztebe) Olaztin zaarrek euskaraz esaten duten bezela. Belengo Andra Mariaren eliza barrendik dana urratuta dago. Andra Mariaren iduri polita, gotikoa, 14'garren gizaldikoa, Donostiako baselizon daukate iasoa. Errogatibetan iduri au ibaira eramaten omen zuten andreek eta an arpegia bustitzen zioten.

"SANEZTANEN" baseliza erori zan. Donostirena berriz, berri-tu dute. Guk ikusitakoan, kamioi aundiz inguratuta ta ormetaraiño atzeko aldetik arri xeeja jarrita zeukan.

Arrunt utzita dagoen Belengo Andra Mariaren baselizak ba dauka zer esan aundia, inguruko bazter guzti aietarako. Amona onek dion bezela, orain dala berrogei ta bost urte, San Juan bezperan suak pizten omen zituzten gauean eta ondoren txokolatea egin ta jan. San Juan egunean goizeko laueta neska mutillak BA-

TUEKO iturrira biltzen omen ziran berriz txokolatea egin ta jateko. Andik egunsentiakin Belen izeneko baselizara zetozen, danak kantari, mutillak gari landareak korapillean zituztela bidean neskak bere crrtean trabatu ta erortzeko. Kantari zijoazen eta leenengo errepika orrela asten omen zan, "San Juan ta Madalena, biek sagar billa joan ziran". Goizeko seitian Meza zuten Belengo elizan, Aiuntamentuko gizonak bertaraño etortzen zirala ta ondoren aureskua. Gazte sail ederra biltzen omen zan. Danak San Juan egunean, egunsentiaren iintza biltzera zetozen. Amezkoako gazteak ere biltzen omen zircm beren zaldi ta guzti; auek bide luzea zuten, Urbasa mendian barrena etorri bear. Belengo iturri au Zapardai azpian dago.

Meza nagusia, San Juan egunean, parroikiko elizan zuten eta andreek arrosak eramaten zituzten bedeinkatzera; gero etxera ekarri ta begiko miña kentzeko balio zutenak. Erriko enparcmztcm Aiuntamentuak gizon guztiei ogia ta ardoa ematen zien.

Belengo baseliza gaur oso utzita dago. Leenago aldare nagusi bat omen zuan, azkeneko urte auetan ostu dutena. Baseliza onen inguruan, orain eskola berriak egitera dfjoaz eta merezi luke berritzea eta bertara Belengo Andra Mariaren iduria ekartzea. Oitura zaar aiek betiko utzi egin bear al dira? Batzuri gutxienez eutsi egin bear litzaioke. Ni izan ezkerotik bota egin dute.

Zer esan aundia dute gure erriaren aintzinako garaiaik ondo ezagutzeko. San Juan eguneko iintza biltze orrek, jentillen garaiko oiturak dirala esan nai ote digu. Aintzinako garaitako kutsua daukate oitura oiek. Kristau sinismena sartu aurretik zeuden ugaritasun gurtze edo kultoen aztarnak aukeratzen ditugu. Udako eguzki betearen jaiak, udako ura ta su berriak maitasunaren lortzea; dannen azpia, ugaritasunaren sinismena ta ekintzak. Ze lanak leenengo kristauentzat, oitura oiei giro berri bat emateko.

Azkeneko gerratea arte ba zan txistularirik erri eder ontan. Erriko enparantzan igandero txixtua jotzen zuten. Baltasar ta Fakundo izan ziran azkenekoak.

Teresa Etxaizen gazte garaian, egun bat izaten omen zan "Gaiztana mozte" izenekoak. Egun ortan bakarrik gaztaina bilteko

aukera izaten omen zuten. Elizako kanpaia jo ta danak korrika zijoazen.

Beste oitura polit bat izcrten zuten neskek, "Errezka" izenekoa. Etxe batera lana egitera, biltzen ziran neskak, adibidez irutera. Gaueko amaiketan, mutillak sartzen uzten zituzten eta danak dantza saio bcrf egiten zuten.

Etxez etxe abestutzera ateratzen ziran Santageda egunecm. Olaztiko kanta *zaarra auxe* zan.

"Nork esan du ze pasatu dan munduan Santagedari
lendabiziko azotazuekin, bularra kendu zioten.

Santiri martiri maitia, errukiaz betea,
alkanzatuko degula, osasuna ta pakea".

Dirua kentzeko bertsoak auk dira:

"Santageda maiageda, arramaiuan saga.
Axreri ez pezuan katua, limosna orekin,
ezin beteko zakua".

Joan ziran oitura guzti auk.

Zer dio Euskal giroak?

Gure azken gerrateaz gero, arrunt eroria zegoen. Zaarrak, bai, euskeraz mintzatzen dira beren artean, gaiñerakoek dana erderaz. Beiei oraindik euskeraz egiten die; "atzera, gorri, ta abar". Errian dauden bi apaizak erdaldunak dira. Erretorak esaten zidan: "Kristau Ikasbideko mutilletatik batek bakarrik ere ez daki euskeraz". Eskoletan galdu da euskera. Erderaz bakarrik egiten zien eta umeak artara jarri dira.

Baina Jaunari esker pozgarrizko gertakizun bat gertatu da. Ikastola ireki dute. Oso polita da asiera. Maria Milagros Lopez de Goikoetxea, andre gazteak, aur txikiak ditu eta orain dala bi urte aditu zuen susmurrua Alsasun ikastola irekitzera zijoazela.

Aurrak artu eta joan zan. Alsasura iristerakoan lagun batekin topo egin zuen eta esan zion zertara zetorren. Bai besteak ere escm, Alsasun etzegoela olakorik eta ia berak ez al zekien euskeraz, galdetu zion. Baietz escm Maria Milagrosek. Besteak orduan, bera as-teko Olaztin, erantzun zion. Baita asi ere. Erritar emakume gazteen

artean berak bakarrik daki euskeraz. Amona zaitzen egon zan urte askotan eta amonakin euskeraz egin bear.

Ikastola osatzeko, Mikaela Ayerdi, neska Ataundarra, azkene-ko 30 urte auetan Olaztin bizi danakin elkartu da. Bi neska auek etxez etxe laguntza billa asi ta 1969'garren urteko ikastaroan 27 aurrekin asi ziran. Ikastolari kanpotarrak bertakoak bainan arrera ohea egin zioten. Euskaldun asko ari ziran esanez, "euskara zertarako". Aiuntamentuak gelak eskeiñi zizkien eta Diputazioko Prinzi-
pe de Vianak babesar.

Bigarren urtean ikastaro ontan, Estaduak parbulario bat ireki du eta bertako zuzendaria aurren gurasoei esan zien, "aurrak ez ba zituzten erdal parbularia bidaltzen etzituztela gero erriko eskolatan artuko". Lantegi nagusiko agintariek ere langileei adierazi ziren parbularia eramateko aurrak. Bost gurasok bakarrik atera zituzten ikastolatikan beren aurrak. Guraso geienak euskal kontzien-
tziari eutsi diote. Orain ikastolan 30 aur dira.

Guk ere esan dezakegu, Josepa Ayerdi, Mikaela andereñoaren amak zion bezela: "Au poza. Oraingoan utziko al digute euskal-
dun bezela bizitzen".





LEITZE TA BERE EUSKAL NORTASUNA

Nortasun aundiko erria degu. Arrazoiz zion euskaldun zaar bategu: "Leitzeko arri aundia, Iruñeko pare". ORIXEK ere "Euskaldunak" bere olerki liburu nagusian agertzen digu Leitzaren nortasuna: "Zelaia betez dator, Leitzar arranditsu". Leitzar bati entzun nion ateraldiak zerbait esan nai du. "Sardina zaarraz zenbat trago ardo artu bear zan erakutsi zidan; bat brasen jartzean, bestea itzultzean, irugarrena leirotik kanpora botatzerakoan".

Erria, Oialde mendi magalean arkitzen degu. Mendiak nunai ageri dira; gaineko aldean Oialde, Gurutz ta Okabio. Urak ere erreka eder batzuen bidez dihoaz itsasora. Erri ontako Tardoa mendian jaiotzen da Urumea; Leizaran ibaia, berriz, Gorritzaran eta Erasote errekek osatzen dute. Urak, alai ta garbi dihoaz erreka barrera. Basoak nunai ikusten ditugu ta zuaitzak Euskal Errian diran ederrarentakoak dira. Soroko gaiztain aundiak Leitzera joaterakoan merezi du aldioro gure agurra. Benetan ikusteko modukoak dira Leizelarreko izaiak. 58 izai, luzeenak 47 metro. Ondo gordeta daukate. Orain dala urte mordoxka bat, Munita zuaitz maitale ospetsuak esan zien nola inguruak itxi ta zurezko mailladiak egin. Aren esanak ontzat artu dituzte. Barzelonako Gaudin "Sendi Saindua" elizaren antzeko bataiatu ditu norbaitek izai oiek. Errian bertan degu, berriz, Euskal Erriko gaiztainen aiton zaarra, Iruineko bidean azkeneko etxe ondoan. Badu zazpi metrotako gerria. Merezi du ondo zaintzea ta bear dan bezela apaintzea. Mendiak oso aundiak, zuaitzak ikusgarriak eta erria berak napar euskal kutsua du. Eli-

za gain gainean dago; elizapean erria degu ondo eratua, zabala ta etxe ederrez omitua. Bere inguruetako bost auzoetan (Gorritzaran, Arkiskillalde, Erasote, Erreka, Sakulu) larogei ta amar baserri. Ikus-tekoa erri onek duan enparantza ederra; alde batean erriko etxea, arkupe eta guzti, aurrean Baleztana íamiliaren jauregia eta Torre etxea, ertze batean írontoi irekia. Eliza ere arri landuz egina da. Orain dala gutxi, barrua berritu dute. Argi ta garbia ikusi genduan.

Euskal nortasun aundia dauka erri onek. Nunai napar euskara jatorra egiten da. Emen bizi da Astaizaga baserrian, etxekocmdre idazlaria, Mikaela Labaien. Gerra aurretik aldizkarietan argitaratzen zituan bere idatz lcmak. Gaur José Mcmuel Lasarte apaizak idazten du euskaraz; bere azken lana Prinzipe de Bianan agertua, Patxi Arrazolari buruz. Badegu beste euskal intelektual gazte bat ere; Franzisko Zabaleta, etnologi lanak burutu eta euskeraz idazten dituana.

Izcm du bere bersolaririk ere. Beni oso ona, eta Zumeta. Euskal jolasetan txapeldun dira, batez ere bertako aizkolariak. Dcmak ezagutzen ditugu erri ontako semeak: Otermin, Gartziarena ta As-tibia. Leengo garaietan Patri izan zuten. Aurten ere aizkolarien txapelketa Leitzen egin da. Aizkolarien erri buru bezela agertzen zai-gu erri au. Bertan egiten dituzten aizkorak, Euskal Errian oso eza-gunak dira. Erriko mendietan burnia ta egurra ugari bai zituzten, aspaldiko garaian ola zaarrak jaio ziran. Aietatik bi gelditzen zaiz-kigu: Erbiti ta Perurena. Bietan, aizkorak eskuz egiten dituzte. Bi ola zaarren izen oiek esan nai aundikoak dira. Erbitin etxean 30 aizkora egiten dituzte egunero. Bere ortan iraun bear luteke bi ola zaar oiek, aspaldidcmik esku lana nola egiten den ikusteko. Ortan irauteko agintarien laguntza eskaini bear litzaieke. Erri ontakoa genduan Sukunza korrikalaria ere, oso ezaguna.

Inguruetako erri guztietan ezagunak zircm Leitzeko txistulariak ere. Orexako etxeko andre batek esaten zidan: "Gu txiki giñala iru mutil koxkor zetozen erriko jaietara beren txistuak joaz. Arrituta gelditzen giñan aiek ikusita. Ura gauza polita. Galtza txurik-dei-tzen genien". Leitzarra zan Ebaristo Elduayen txistularia. Aren bi-dez Olazaranek, Leitzeko ingurutxoa liburuetara jaso zuan. Leitzek

ba du bere dantza zaarra ta berexia; ingurutxo deitzen diogu. Urtean askotan dantzaten dute. Festa bigarreanean dantzaten dute zaarrek. Arratsaldean, aurrena, abeslariak izaten dira, ondoren ingurutxo.

Etzan arritzekoa, Orixe euskaltzain egiteko, orrelako euskal napar erri berexia ta jatorra aukeratzea. 1959ko azaroaren 22an Leitzen egín zuten Orixe euskaltzaindikoa ta aitzaki onekin euskal jaia ezin ohea antolatu ta eskiñi zioten. Ekintza onek Leitzeren Napar nortasuna are geiago zuzpertzen du. Orrelako jokabideak daramakite barrenean indarra.

Ez da arritzekoa, erri onek maitemindu bat izatea, giro, indar ta txertu berri bat eman diona. Patxi Arrazola degu. Bere lanak aipatuaz, idatz lan bat eskeniko diogu. Zor guztien opari bat bezela izan ditezela gure itzak.





LEITZA BERRIA TA PATXI ARRAZOLA

Gaur Leitzako erriak, 2.325 biztanle ditu. Lenagoko aberastasunei berriak erantsi dizkiete. Azkeneko amar urte auetan era bat aldatu zaigu. Industria giroan sartu da zearo. Ba ditu, olategi onenetakoa, bigarren malleko ikastetxeak, liburutegi, jan gela ta biltokiak ezín obeak. Naparro osoan Leitzari gauza arrigarri bateri bezela begiratzten diote.

Erri au zerbait ba da, Patxi Arrazolari zor dio. Eskertsu betiko legoke. Gipuzkoar gizon argi ta trebe au, euskalzale purrukatua genuan. Leitza ezagutu ezkerotik maitatu zuna benetan.

Orain dala 15 urte asi ziran Leitzan, erriaren etorkizunari begiratuaz, gora berak jaiotzen. Lan biderik etzegon bertan ta gazte guztiak ba zijoazten alde. Orrela, erria indarra galtzen zijoan. Orduko alkatea Fermin Lizarraga, Nikolas Buldain erretore jaunengana bere kezka oiek agertzera joan zan. Lantegi berrin bateri arrera egin bearko zitzaiolakoan gelditu ziran. Ortarako lurak eskeñi bear, baita argia ta ura. Papelera bat egiteko asmoakin aurreratu zan Patxi Arrazola. Urangaren papeleratik zetorren, berria egitera. Eun langille artu zituan asieran. Ioan dan urtean 1970'an il danean, 1.140 langille lanean ari ziran. Nortasun aundiko gizon onek ba zituan asmo ugari, baita aurrera ateratzeko gogoa. Bere asmoak etziran nolanaikoak, kemena ere izugarria, etzan etxean gelditzeko jaioa. Gizon aurrerakoia genuan. Buruan bi gauza sartu zitzaizkion barreneraino; lendabizi lantokiak sortu bear zitula euskaldunentzat, gero gazteak ezi egin bear zirala. Asmo oiek betetzeko, bi lagun-

laguntzen diete. Bost oietatik iru leitzarrak ditugu, gainera ba dau-
de erritik kanpora beste bost erakasten. Naparroko euskal erri jator
onek andereñoak exportotzen ditu.

Gaur ikastola bete betea dago. Ura bai gauza polita. Gu sar-
tzerakoan Jose Fermin dantzan lasai asko zebillen.

Leitzan zeuden monjak joan dira eta aiek utzitako ikastetxe
zaarra moldatzekotan dabiltz antxe ikastola zabaltzeko. Ez da berri
txarra.

Inguruetako 400 aur guztiak eskola berri batzuetan biltzen di-
tuzte. Eguardiko janaria ta autobusentzat bost pezeta ordaintzen
dituzte bakoitxak.

Erriko enparantza onduan antolatu dute tokia nai dutenak le-
nengo mallako botxilleratua egiteko. Gaztetxo mordoxka bat ba
dijoakie ikastera.



Bigarren utsunea eskola ontan euskerari buruz sortzen zait. Klase guztiak erderaz dituzte. Amar erakasle datozte txandaka. Batek bakarrik euskaraz argitaratzen dizkie gaiak. Mutil oiek euskaldunak dira ta errexago egiten zaie euskeraz. Ez dira erderaz ikastera bakarrik etorri, baserriko gaiak ikastera baizik. Orduan zergatik etzaie bi izkuntzetan egiten? Euskaldun mutillen mentalidadea ondo ulertzeko euskaldun erakasleak bear dítuzte. Nola leiñke Erriberako zuzendaria jarri Leitzañ? Gainera euskal mutil oiei ez die banatzen Naparroko Diputazioak argitaratzen duan Prinzipe de Bianako aldizkaria. Artzen dituzte etxe ortan, banatu ez. Nola leiñke ori?

Norbaitek esan zidan erri mallako kulturari begiratuaz ez dala gouza aundirik egiten Leitzañ. Ba dauzkate tokiak. Dana asiera ematea da.

Etorkizunari Leizako erriak pozik begiratu dezaioke. Ba ditu mendi zabalak, baso galcmtak, lantegi berriak, ikastetxe ederrak, euskal giro iatorra... orain Mandoegi mendi aldean URANIO ere dagolakoañ, diote.



ALSASU AURRERAPENAREN BIDEAN

Gaur Alsasu garrantzi aundiko erria degu Naparroa'n. Errege bide nagusi ta burni bidearen kruze bat da. Tokia berexia dalako, olategiak ugaritzen dijoaz,

Arkutzeta'tik Gipuzkoa'ko mugan asita Bekobasoa'raiño ba daude lurrak ugari. Alzania ibaiak, Aizkorri'ko urak artuta, Arakil'era botatzen ditu Alsasu'ko lurretan,

Erria, Arakil ibaia gaiñean asita, Bekobasoraiño eratzen da. Len, Elizaondoa, Gurutze, Solana, Otadia, San Juan eta Zelai auzoak osotzen zuten erria.

Urrutixamar, Burdilatx, Baikolar ta Zuntaipe baserriak zeuden sakabanatuak. Gaur, berriz, Eztazio ondoa, San Juan kale atzean, Urbasaruntz ta Donosti'runtz, arront bere neurriak puxkatuta, zabal-tzen dijoa erria. Olategiak bi tokitan ari dira ugaritzen, Estazio ondoan Ibarna'runtz eta Iruña'ko bidean Ondarria'n. Burni ola zarrenak ba ditu 220 langille oraindik; gaur garbiaskak egiten ari dira. Gerra ondotik etorri dira lantoki ugari, batzuek Gipuzkoa'tik, Eguzki, Sunsundegi eta Iगतex bezela, ta besteak erbestetik. Era askotako lanak egiten dituzte; burnia, kimika, bagoiak, sukaldeak, larruak, jatekotresnak, eskuzapiak, kola eta abar. Gaiñera, ba daude lantoki txiki ugari ere.

Ogei sendiek ba dituzte errian bertan baserriak, eta iru daude, esan bezela, sakabanatuak.

Orain egin berria daukate erdimailako ikastetxe bat. Ba dago lekaimen ikastetxe bat ere, eta lekaidenak beste bi, baiñan auek berentzat, Korazonistak eta Kaputxinoak.

Jolastokiak ere ba daude, batez ere ostikoketan ibiltzeko eta pelota lekuak.

"Gure Etxea" alkartearen bidez, mendi ta kultura zaletasuna sartu nai dute. Zinea ta dantza itxirako bi etxe ere ba dira.

Oraindik irauten du urriko periak irugarren igandean.

Erri onek, 1940 garren urtean, 3.332 bizilagun zituan, gaur berri zortzi milla; 1.300 sendi, 1.500 langille ta 350 ikasle Institutoan.

Errikoetxeak, gaurko egunean, ez dauka baso aundirik.

Alsasu erriaren garrantzia ez da gaurkoa. Santxo Azkarrak eman zion garai artan, Biazterri'k (Laguardia) zituan legeak. Amabostgarren gizaldian, borrokak izan zituzten Agurain'goekin (Salbatierra). Naparroa'ko azken erregeak, 1498 urtean kendu zion "gailurdiruaren" zerga.

Karlisten garaiko gudatean, erri ontako inguruan euki zuten borroka latza Zumalakarregi ta Kesada'ren artean. Euskaldunak irabazi zuan.

Arte aldetik ba dago zer ikusirik emen. Eliza ederra, berritua ta ain garbia dagona, bizpairu zatitan egiña dago. Aldare aldea amaseigarren gizaldikoa da; gero, emezortzi garfenean eliza zabaldua izan da. Erretaula dute oso bitxi ederra. Peruzurgin'ek amazpigarren gizaldiaren asieran egiña. Berez artilaria au Arbizutarra zan. Bai, irudi ta egur lanak ere berexiak dira. Erdian Mariaren zerura jasotzea agertzen zaigu, benetan ederra. Eskui esker baztarretan ba daude bi aldare barrokoak, onak diranak, San Pedro batean, ikaragarritzko jantzi ederrakin eta bestean Santa Katalina.

Beste bitxi zoragarria ikustekoa dana, sarrera ondoan dagon Gurutze gotiko bat degu, amabostgarren gizaldikoa, oso liraña.

Iru baseliza ba ditu oraindik erri onek. Otadia'ko baseliza, amazpigarren gizaldikoa, kanposantu ondoan dcrukagu, arrilanduakin egiña; barrenean izen aundiko gurutze barrokoa ikusi bearra, ederrenetakoa. Aldare aurreko burni sarea ere ona da.

San Juan'en baseliza Zangitu'n bertan dago estazioko bide ondoan, zabala, arrilanduakin egiña, tellatuko egur sendoak agirian ditula. Tokia polita da, nere ustez amazpigarren gizaldikoa, Santuaren irudia bezela.

Erkunde'ko Amaren baseliza Donosti'ko bide ondoan daukate. Amabirjinaren irudi zarra ostu egin zuten aspaldi.

San Pedro'ren baseliza, berriz, Urdiaingo' muga, Aralar aldetik. Bi crte ditu ta bateko giltzak Alsasua'koak eukitzen dituze.

Baseliza auen inguruan erriak gizalditan bere jaiak antolatzen zituan eta esango degun bezela, ba dute zer ikusi aundia euskal giroarekin.

Erri ontako gizon ospetsuak ezin ditugu ixillik euki. Batez ere bat aipatu bearra degu, Konstantino Salinas. Bigarren maillako ikastetxean zegola asi zan idazten. Bere lanak Gazteiz ta Iruña irietako egunkarietan argitaratzen zizkioten. Sendagintza ikasten Zaragoza'n ibilli zan. Oso buru argia omen zuan. Sendagille bezela bere errikoei asko lagundu zien. Bere jaiotetxean bizi zan. Antxe artzen zituan bere gaxoak, batzuek ordainduaz, besteak gabe. Demokrata zan ta, 1931'garren urtean, Naparroa'ko Diputazioaren buru izendatu zuten. Erriaren ona nai zuan beti. Berak asmatutako lanak Naparroa'ko etorkizunari buruz orain bertan egiten ari dira, adibidez, bide konpontzailleak taldeka jarri nai zituan, baita Bardenas'en aldeko aurrerapenak ere. Geroago arrazoia eman diote. Gizon bezela, ona ta alaia zan. Ba zekin parra eraginazten eta argia ematen. Bere Ncrparroa'gatik miñez il zan Argentina'n, orain dala bi urte. Erbestean liburu bat idatzita utzi du Ncrparroa'ko mendietaz.

Beste idazlea Marino Ayerra degu, Alsasu'ko erretora izandutakoa. Alsasu'ko egunik illunenak gizon onek idatzita dauzka.

Orain, berriz, ereslari ospetsu batzuek erri ontakoak ditugu. Taberna degu organulari maixua. Bere ikasle izandutakoa Agustin Gonzalez Azilu'k aurten Espaiñi'ko lenengo eresi saria jaso du. Zelaia aize soñularia, ezin ohea dala diote, ia ludiko txapeldun atera zaiguna.

Erri eraketa aldetik, utsune aundiak egiñak daudela aitortu bearra degu. Gaur naspilduta agertzen zaigu.

Erri zarrak ba dauka nortasun aundia. Errege bidetik dijoanentzat ez dago ageri an. Oñez ibilli bear. Eliza aurreko enparantzak, eresi estalpeak ta Bergara etxeko armarriak ematen diote izugarrizko goxotasuna.

Solana auzoko etxe ta enparantzak oraindik garai bateko ezaugarriak dira. Zelai izeneko kalea ain zabala, garai batean nunbait etxe aurre aiek garia jotzeko egin zituzten. Ba daude nunai erri txoko ikusgarriak. Zergatik etzan erria zabaldu bear, bere nor-

tasuna xeetu gabe? Zati zarren kutsua gordetzen dala, zuzendu bear lirake berriak ta ez etxeak nunai ta nolanai eratu. Ba dago toki ugari ta zalai galantak erri ou zabaltzeko. Erri eratzeari edo urbanismoari asko begiratu bear zaio gaurko egunean. Ezin deguna da lenagokoak zapalduta utzi ta gaurkoak itsusituta. Errietan gizonei arnasa ta goxotasuna artzen utzi bear zaie. Erriak eratzean ez da dirua bakarrik nagusi utzi bear; orrela, diruzalepean danak galtzen uzten ditugulako. Urbanismorik gabeko erriak, arnasa ere galtzen dute. Urbanismo aldetik ba dago nun zuzendu Alsasu'n. Erri onek zillarrezko eskuak merezi lituzke bear dan bezela zaintzeko.

Esan degun bezela, oraindik gelditzen zaizkie erri barrenean eta inguruan toki zoragarriak.

Donosti'ko bide ondoan dauden aritztegietan agertu zaizkigun ostatu berriak ezin obeak, Ulayar, Lekuona, Alaska eta ab.ir; iza-diakin bat giten dutenak eta gizonentzat atsedeen diranak.

Ez lituzkete ajolagaben eskutan utzi bear orrelako erri ederrak, giza seme danak arduratu bear lirake bear dctn neurria billatzen.





ALSASUA TA BERE EUSKAL ZALETASUNA

Erri au azaletik ezagutzen zuanak, arront erdaldun tankera ematen zion; kanpotarrak ere ugari bai daude.

Beste aldera, Alsasuorrekin mintzatu ezker, konturatzen da bat Alsasu'ko erriak euskal nortasun sakona daukala, naiz gaur arte otzeraka joana izan. Gaur, berriz, berpizten asia.

Arrotz langille saila sartu zan orain dala irurogei urte bumi

bidea zaintzeko. Atzetik beste olategi batzuek. Eskolak dirala. Erdera San Juan kalean asi zan aurreneko, batez ere gazte jenden artean. Orain dala berrogeita amar urte Zelai auzoan egiten zan euskeraz. Auek dira azkenak Alsasu'n utzi dutenak.

Orain dala berrogei ta bost urte aurrak etxez etxe Eguberrietan euskeraz abestutzen zuten. Elizan azkenik euskerazko itzaldiak 1908 urte inguruan egin zituzten; Juan Migel Lopetegi erretora izan zan; geroago errosarioa erreztatzen zan oraindik euskeraz, eta ura. sakristauak. Azken euskal apeza zerbait euskeraz egiten zuna, Marino Aldabe zan, 1933 urte inguruan. Gerra aurretik etzegon batzokirik erri aundi ontan. Beste aldetik zijoazten orduko langilleak. Gerra ezkerotik, ia orain arte Luis Lezaun erretora izan dute ta etzekin euskeraz. Ez da arritzekoa giro ontan erri au ainbeste atzera-tzea.

Dana dala, ezin zañetik euskal kutsua kendu. Oraindik erriko zortzikoa dantzatzen dute egun berexi batzuetan. Zortziko au auresku sokaren antzekoa da. San Juan egunean erriko enparantzan dantzatzen dute. San Pedro bezperan, berriz enparantza eder ortan beste saio bat egiten dute eta festa egunean erromeritik itzultzerakoan atsaldeko seiretan berriro.

Urte Berri egunean errikoetxean eta jai guzti oietan, errian kontura banatzen diete daneri zillarrezko katilluetan ardoa.

Gaur oraindik, soldaduska egitera dijoazten gazteak Santageda garai ortan, danak ikasi bearra izaten dute erriko zortzikoa.

Txistulariak beti izan dituzte erri ontan. Errikoetxeak bereak lau ditu ta ba daude gaiñerakoan beste amalau. Gaur egun, berriz, ogei neska mutil txistua ikasten ari dira.

Azkuek ba dauzka emen bilduak kantu zar ederrak; "Santageda, Joxepe ta Maria, Amabirjina Erkuden'koa, Alsasu'ko Santo Kristori...".

Orain dala berrogei ta amar urte galdu zan oitura, urtean bein Erkuden'go Amabirjinaren irudia errira joan etorria egitera eramatea danak oñez; orduan kantatzen zioten euskeraz Mariari, Amabirjina Erkunde'ko izeneko abestia. Aita Riezu ere sartu du bere liburuan kanta zar au.

"Alsasu'ko Santo Kristori" abestia, azkeneko aldiz orain dala amar urte kantatu zuan Blasa San Erromanek Ostegun eta Ostiral Santuan, Aldare Santuko Sakramentuaren gurtza egiterakoan. Ta aurten, berriz, San Inazion abestia kantatu dute euskeraz, Ota-dia'ko elizatzooan.

Euskal kulturaren aztamak ez dira gaurkoak erri ontan. Orobe mendi inguruan ba daude antziña garaietako arrigarritzko tresna ta bizi lekuak; orduztik gctur arte euskera maite dute Alsasua'n. Orain esango nuke indar aundia artzen ari dala. Azkenean ber-piztuko dute.

Orain dala bizpairu urte, sortu zan gazte alkarte bat, "Gure Etxea" izenekoa. Mendira ateraldiak egiten zituzten, gaur ari diran bezela. Kultura aldetik lan ona egiten dute euskal dantza ta txistua jotzen erakatsi, euskal kultura zabaldu.

Jai berexi batekin eman zioten asiera euskal kulturari urfian, orain dala lau urte. Gero gabeko euskal eskola jarri zuten. Eundik gora ikasle zetozkien. Garai berdiñean erriko eskoletan, neska mutillei bertako maixuak ematen zizkieten egunero euskerazko ikas-taldiak. Geroxeago maixuak euskera ematea utzi zuten. Azkenean ezer gabe gelditu ziran. Orain erriko eskoletan Urdiáin'go maixu batek ematen du gabea jende azientzat. Aurten ogei neska mutil ibilli dira euskera ikasten. Oietako bizpairu neska mutil udaran joan dira bai Elizondo'ra, bai baserrietara euskera ondo ikastea-rran. Orain beren artean daudenean euskera bakarrik mintzatzea erabaki dute.

Egindako ekintzetarik bikaiñena, Aurraren eguna izan da, 1971 urteko agorraren 19an; igande batean ospatu zuten. San Juan en-parantzan bildu ziran amabost erriko euskal aurrak, danetara 450; talde bakoitza bere txistulariekin, ba zeuden eun. Kalez kale ibilli ziran, Luis Franzisko Billarreal danen alkate zutela. Gaztetxo onek, eresiarren aterpean Aurreskua dantzatu zuan. Milagros Bengoetxea neska lirañak agurtu zituan danak erderaz eta euskeraz. Talde guz-tiak agertu zituzten beren dantzak.

Gero banatu ziran auzo guztietara eta beren euskal poza bazter guztietan zabaldu zuten eguardiko biak arte. Erriko etxetara deitu

zituzten bazkaltzera. Zoritxarrez, etxe guztien deiei erantzuteko nai-ko aur ez izaki.

Atsaldian, berriz, txistularien eresialdia eta bostetan írontoian euskal dantzak. Asko sartzeko agiririk gabe gelditu omen ziran; onenetakoak Durango'koak kutxarekin, Lizarra'koak larrain dantza-ekin, Gazteiz'koa eta Urdiain'darra.



Berriz enparantzara etorrita azken agurra emcm zieten, urrengo uñean etortzeko esanaz. Ondorean Agur Jauna danen artean kantatu zuten: Alsasu'ko" aitonak txapela kenduta negarrez zeuden. Ezponda diputadoa ere malkoak jario zegoen. Egun ortan erri baten euskal seria azaldu zan eta danak zoratzen. Alsasua'rrak diotenez, egun au izan omen dute "urteko ederrena; Lagun Onak alkarteak asko lagundu zien.

Giro zoragarri ontan aurren ikastola sortzea ez da arritzekoa. Ikastolaren alde langillerik sutsuena Antonio Urtasun degu. "Gure

Etxea" lagun artearen bitartez asmoak ondu zituzten. Gero guraso talde bat sortu zan. Jose Maria Satrustegi'ren babesarekin, Principe de Viana batzordearen laguntzarekin eta errikoetxearen bitartez iriki dute.

Asiera ematea ez da errexia izan, Antonino Urtasunek zion bezela, "Ogeitamar urte gerra aurretik asi ziran atzerritarrak sartzen, aiekin batean erdera, euskera beti bera. Atzeraka onek irurogeita amar iraun ditu. Euskera azkenekotan zegolarik berriz berpiztea ez da aisa".

1971 urtean, agorraren 27an eman diote asiera ikastolari San Juan kalean; bi, iru ta lau urteko, 38 aur bildu dira. Andereñoa berriz, Mikaela Ayerbe neska jatorra dute, Olazti'ko ikastolari asiera eman ziona. Aur oietatik bederatziei bakarrik egiten diete euskeraz beren etxetan.

Orain, berriz, Alasuar jator batek esaten zidana ezin dut azutu: "Apaiz euskaldun bat bear degu erri ontan. Orain dala berrogei ta amar urte elizak emen ez du ezer jakin nai izan euskerarekin. Utzi ditzatela unibersalismoak alde batera ta lan geiago egin dezatela gure alde".

Erri ontako seme zíñezko ta gaztea dan Mikel San Erroman Iruñako Ikastolan ari da lanean gure kultura zabaltzen.

Alasua'n ni izcmdako aldian negua zcm ta Maria Albisturrek ala zion: "Barga'n elurra do ta orren atzeko aldean URBASA oso illun".



LIZARRA, EUROPA'KO KULTURA BIDETAÑ

Lizarra, edergallu aldetik, Naparroa'ko ninia degu, osasunari buruz legorra, aize garbientakoak dauzkanak gaiñera, begientzat, berriz, amets gozo bctt bainan gozoagoa.

Esaera zar batek dio, Lizarra ez dala ondo ikusten, iri bertaraiño sartu arte. Ibaia alai dijoa kantari sortalderuntz, ondoan lurrak *eta* zelaiak onak, aberatsak ditu; inguruan, berriz, egi zorrotzak ta atzeko aldean mendi sendoak agertzen zaizkigu, egoaldetik Jurramendi (Montejurra) ta Deio, ipar aldetik Andia ta Urbasa, bertago Arraiza, Lukin, Larraintza ta Eskintza. Ba du Lizarra'ko ikuspegiak indarra, kemena, ta garai berdiñean barnekoia da. Sartaldera begirotuaz, piñudi basoz mendi magaleak beteak ageri dira.

Bai, alderdi zoragarriak inguru guztietan. Arria zuria ta aberatsa, mendi, eliza, zubietan. Ibaia ederra, Ega izenekoa ta olio zugaitzak Puy gaiñeko aldean.

Lendabiziko errixka, Naparroa'ko erresuma zarrarekin batean jaioa dana; Lizarra'ko San Pedro elizaren inguruan sortu zan, "Puy" deritzan mendi egalean.

Gaurko iria, berriz, bere nortasun berexi orrekin, 1090'garren urtean jaio zan Santxo Ramirez erregearen bitartez. Onek ibaiaren eskubian eman zien egoaldeko franzesei aukera ta errestasunak bertan gelditzeko. Eliza bat altxa zuten San Pedro izenekoa ta kale luze bat jaso ibai ertzean, orduztik "La Rua" deritzaiona. Erregeak bi asmo izan zituan iri berri au egiterakoan. Lendabizi osasunarentzako tokia ezin ohea zalako eta bigarren Santiagoruntz erromeslarien bideari errestasun bat ematearren. Santxo Aundik zuzendu zuan bidea Gares, Zirauki, Zarapuz ta Iratxen barrena zi-joana ta orain Zarapuz alde batera utzita, Lizarra barrena egokitu zuan. Lizarra berria Santiago'ko bidearengatik jaiotzen zaigu ta Santiago'ko bide orreri errestasunak emateko; iri berria ortatik bizi zan. Gaiñera esan dezakegu bide ortatik sartu zala Europa'ko kulturarik ederrena ta aberatsena, oraindik gaur ugari ikusi deza-keguna.

Lizarra'ko lenengo auzo berria La Rua izan zan. Kale ortan naiko saltzaille jarri ziran ta gaxotegiak ere ipiñi zituzten.

Erromaniko garaiko edergalluak ikusi ditzazkegu oraindik. Kale orren bukaeran, gaiñeko aldean, San Pedro eliza degu, bere torre luzearekin gaztelu baten antzekoa; iriaren babesa izateko dala iduri du. Gaur agertzen zaiguna bizpauru pusketan egiña dago. Asiera Santxo Azkarrak eman zion. Amabigarren gizaldikoak ditu, batez ere, elizburua ta iru aldare erdi borobillak. Aterpe barruan ba daude arri landuak oso onak, batez ere Kristoren bititza dabil-kitenak. Ba ditugu zurazko irudi zoragarriak ere; oso liraiña San Nikolas'ena gotikoa, beste bat Amctbirjiña eserita beranduagokoa, gurutze bat ere bai egokia. Sarrera amaíugarren gizaldikoa, treku moruen kutsukoa du. Gizaldi berean ekarri zuan Patras'ko gotzaiak San Andres'en errelikia, baita gotzaiaren makilla Limoges'ko es-

malte-lan onenetakoa. Ezin degu aztu bataio pontearen erromanikogotiko garaikoa, sendoa.

1521 urtean mendi gainean zegoen gaztelua botatzerakoan, asko ondatu zuten eliza.

Elizatik jeixterakoan, aurrean, jauregi bikaina amabi garren gizaldikoa, Napparroa'n bakarra, Santxo jakintsu erregeak egin arkitzen da. Sarreraren arkupe bat dauka eta abe buruan irudiak, "Errolan eta Ferragut" burrukan, Logroño'ko Martin argiñak eginak, izenpetua dago. Orain bertan Gustavo Maeztu margolariaren erakusketa dago. Artilleria au Lizarra'ko maite-mundu bat genuen. Bere Gasteiz'koa, 1888 urtean jaioa. Bere azken urteak, Lizarra'n igarotzen 1947 urte arte eta ondorean iri onerik utzi zizkion bere ontasun guztiak, berreuneri bat arte lan. Margolari bezala ona da. Zere lanak, mailla desberdinetan, bizpauz garaikoak azaltzen zaizkigu. Iru zatietan erdibitu dezakegu bere bizitza, Espainia, Paris, Lizarra; edo, ijitua, Paris'ko moruak eta emagalduek, eta Euskalerriko gaiak. Grabadore ona degu, emen saltzen dituzte bere lanak oraindik eta gure zorionerako. Orain etxe au era bat berritzekotan dabil.

Jauregi onen ondoan, enporantza paregabekoa eta kutsu aundikoa dago. San Martin du izena; amaseigarren gizaldiko iturria du erdian, eliza aldera bide ertzean, berriz, errikoetxe zarra "frankoen" izeneko guztiz ederra bere armairarekin.

"La Rúa" kale asieran beste eliza degu ikusi bear dana; Illobi Saindu eliza. Etxe aurrea amalaugarren gizaldikoa dauka irudiz betea, ezin ohea. Sarrera arkuz zabaltzen dana bi alderdietara eta errenkan irudiak ditu. Aldare burua erromanikoa du eta eliza ontakoak dira San Pedro'n dauden Gurutzea eta Amabirjina eserita erromanikoak. Emen arri zarren erakustoki berexia antolatzekeotan dabil. Eliza onen atzeko aldean mendi aldera dago "Santa Maria Gaztelu ondoko" eliza; arpegia ezik, ia dana amabigarren gizaldikoa da.

Elizburua da interesgarria, arrilanduak dituzten lanetatik. Barrenean Amabirjinaren irudi gotikoa dago. Eliza au 1145 urte arte judutarren sinagoga zan. Urte ortan eliza au Garzia berrizaleak Iruña'ko eliza nagusiari eman zion.

Emen inguruan bizi ziran judutarrak. Garai ortan Lizarra'n ugari omen zeuden, geienak saltzailleak. Emen jaiotako judutar ospetsuak ba daude, batez ere idazleak; ezagunenak, Aben Serak idazlaria amairugarren gizaldikoa ta Rabi Dabid "Dabid'en Torrea" liburua idatzi zuana. Amalaugarren gizaldian aita Olloyoien prantziskotoxrak egindako itzaldi boten ondorean, auzo ontako judutar asko il zituzten kristauak.

Eliza onen ondoan ezker aldera ageri da Santo Domingo eliza gotikoa ta lekaide etxe berria. 1254 garren urtean Teobaldo Napa-roa'ko erregeak altxa zuan. Teologia ta arabea erakusten zuten. Iose Maria Sert margolariak emen jarri nai izan zuan bere lantokia. Etzuen bere asmo au aurrera eraman. Bi eliza auen inguruak eskutik utziak daude, ta naiko zikiñak, zoritxarrez.

La "Rua" kalea zoragarria degu; bi aldetara aspaldiko etxeak ditu, gotikoak beren armariekin, batez ere errenazimientu garai-koak. Ederrena aita Diego Lizarra'koarena; etxe aurrea, sarrera,



balkoia ta leioak zillar antzera landuak daude. Bi irudi eder ba daude balkoi gaiñean. Neretzat buru oietatik Pierres Pikard'en eskua ez dago urruti. Etxe barrenak aterpea dauka ta balkoiak abe lirañak eusten dituztela, benetan lcn zoragarria, ariña ta neurritsua. Arte agerketak eta eresialdiak emateko berritu dute etxe au. Berritze au ezin ohea izan da. Europa'ko kultura-etxe gutxi izanen dira ain ondo ipiñiak. Etxe au bakarrik ikustearren merezi du Lizarra'ra joateak. Etxe ontan jaio zan 1524 garren urtean idazle ospetsua ta Jainkozale ziñezkoa, Lizarra'ko Diego. Bere liburu eza-gunena "Jainkoaren maitasuna" erderaz idatzia da. Toulouse ta Salamanka'ko ikastetxe nagusietan erakasle izana. Etxe onen ondoan dago beste jauregi bat "gobemadores" izenekoa, aurre ta barne ederrekoa, baiñan oso utzia. Orain larruak dolatzeke daukate.

San Martin enparantzara ematen du, berriz, amaseigarren gizaldiko etxe eder batek; sarrera eroso du. Amaikagarren gizaldian, emen biltzen ziran bertako frantzesak. Barrenean ageri dira oraindik San Martin elizatzoareen arri batzuek.

La Rua kalea San Martin enparantzan iltzen da. Andik aurre-ra San Nikolas kalea asten zaigu, amaseigarren gizaldiko arrizko ate zarraraiño. Andik kilometro batera, Iratxeko bidean dago "Rokamador" eliza. Aldare burua sendoa ta erdiborobilla amabigarren gizaldikoa du. Barrenean Amabirijinaren irudi erromaniko bat dago. Eliza ondoan zegoan erromeslarien ostatua. Santxo Azkarrak begikoa zuan Amabirjinaren elizatxo au.

Urrengo auzoa ibaiaren beste aldetik egin zuten Scm Migel elizarekin batean, eta bere inguruan amabigarren gizaldian. Egi batean, gaztelu baten antzera agertzen zaigu eliz au. Beko kaletik ikusita, orma galanta batzuen gaiñean jaso dago. Ipar aldeko atea, ezagutzen diran erromaniko irudi onenetako ikusgarriekin apaindua degu. Eskubi aldean dago San Migel'en irudia nortasunezko arpegi ta erropa bikaiñekin jantzia. Eliza barrena, iru sartaldekkoa, gotiko garaikoa da. Bazter batecm daukagu Santa Ele-naren ola margoztua, 1406'garren urtekoa, Martin Perizek egiña. bizitasun aundikoa ta alaia. Ibillialdietako zillarrezko gurutze bat

gordetzen dute, amalcai garren gizaldikoa. Baita sakristin margo eder bat ere, San Gregorioren mezcrrakin eta bertan Egia Jaso sendia agiri dala bere 26 seme alabekin.

Ego aldera dago erromaniko gotiko bitarteko ote bat, oso li-raiña ta andik lorategi baten barrena San Jorge'ren elizatzora iristen da. Barrenean sainduaren irudi gotikoa agerí da, aundia, erensuge ikaragarri bat zaldi azpian daukala. Lorategi ortatik, Lizarra'ko ikuspegia zoragarria agertzen zaigu. Elizaren aurrectn, ipar aldera dago enparantza zabal bat, etxe zar bakan batzuek ditula ertzean ta zugaitz galantak erdian. Aspalditik orixe da Lizarra'ko peri toki zarrena.

Eiizaren beko aldean, kale zar batean dcruce bi etxe ikusgarriak; bat elizapean amaseigarren gizaldikoa; barrengo malladian ageri dira oraindik irudiak plateresko garaikoak ta aurrexeago bestea emezortzigarren gizaldikoa. Emen jaio zan, Espaiña'n egatzez Ameriketara lenengo aldiz joan zan gizona, Julio Ruiz Alda. Etxe orren sarrerak merezi du ikustea barrendik.

Amabigarren gizaldian sortu zan beste auzoa, San Juan'ena. San Migel'tik joanta bean arkitzen da, sartaldera. Enparantza eder baten ertzean dago eliza; etxe guztiak arkupeak dituzte. Enparantzako elizaren sarrera erromanikoa da; nere iritiz, baita atea ere, garai artako burni ederrak ditula. Eliza au Santxo jakintsuak 1187 garren urtean altxa zuan. Ibai aldeko kaiera dagon beste sarrera gotikoa da. Eskubiko aldare bcrtean jaso dute Amabirjína erromaniko bat, zillarrez inguratua daukatena. Kuru azpian gurutze eder bat ikusi leike, gotikoa amabostgarren gizaldikoa. Baiñan aldare nagusian arkitzen da erretaula zoragarri bat, amaseigcrrren gizaldikoa, Pierres Pikarrek egiña; lan ontan Juan Becruvaisek lagundu zion. Naparroa'ko iru onenetako bcrí degu. Irudiak arnasa dutela dirudite, oso zaindunak. Tarteko kaletan irudi txiki taldeak dcruce bizitasun aundikoak. Arnasa galdu gabe egon leike begira.

Fueros'ko alderditik bertan dago Santiago enparantza, iru cryekakin, etxeak arkupeak dituztela, erdian iturri alaia zugaitzez ingurutua.

Mendiruntz San Pedro izeneko eliza dago, bere torre luzeakin,

burua gotikod du. Orain zutik ikusten deguna amalaugarren gizaldikoa da, dorrea, berriz, amaseigarrengoa. Barrenean ba dauzka bi erretaula amaseigarren gizaldikoak, bat Juan Intertorena, bestea Pedro Dbrerena. Eliza onen inguruak utzi xamarra daude.

Lizarra'ko San Pedro'ren gaiñeko aldean dago Puy Amabirjiñaren eliza; ataria zabala dauka, zumardi eder bat ere bai. Eliza oso berria da, 1951'garren urtekoa. Amabijinaren irudia gotikoa degu, zóragarria, zillarrez inguratua. Irudi onen kutxatilla ikusi leike, margoztua, oso polita eta garai berdiñekoa.

Ondartzako Salvatore auzoa (San Salvador del Arenal) Iruña'ko bidean, iritik ateratzekoan zegoen, amabigarren gizaldian egiña. Ofduko eliza erori zan ta orain aren ondotik zijoan zubia ta karlisteri'gerratean eroritakoaren antzekoa jaso dute berriz, arriz egiña.

San Migel'en enparantzatik San Jucm'enera dijoan kale erdian dago gaxotegi zarra. 1524 urtean amaika zeuden. Oraingo au amazpigarren gizaldian altxa zuten; kutsu aundiko etxea degu.

Gaur, errikoetxea, Donosti'tik Logroño'ra dijoan kale nagusian dago ibai ondoan. Emen, frantziskoarrak zeukaten len lekaide etxea, amairugorren gizaldikoa. Karlsten garaian ondatu zuten ta oraingo etxea berria da, 1907 urtean jasoa.

Ba daude, nola ez, bizpairu lekaime etxe; San Benito'rena iri atzeko aldean, ibai aldera, amazpigarren gizaldikoa; Amabirjinaren erromaniko irudi bat daukate. Onen ondoan, Santa Klerra emezortzigarren gizaldikoa; nunbait aspalditik ia emen zana, San Luis Frantzia'ko erregearen alabak jasoa. Donosti'ko bidean, Errekoletasen lekaime etxea, emezortzigarren gizaldikoa.

Aspadiko kutsu au, atzo bertaraiño gorde du iri onek, bizi-bizirik. Erriberako kutsua, ta usaia oneraiño igotzen zan, baita mendikoa ere jeixten. Orregatik ez da arritzekoa bere maite-min-duak izatea. Sert eta Zuloaga margolariak maiz etortzen ziran. Amarika arabatar margolariak ba du bere lan bat Lizarra'ko margoak jasotzen dituna ta amets bat bezela agertzen digu iri au, ain arrigarria dalako. Len aipatu degun bezela, Gustabo Maeztu bertan gelditu zan bizitzen; etzan arritzekoa.

Lizarra'ren alde ez dira denak aibeste arduratu. Aspaldi egin zituzten Puy mendi magal azpian, guda mutillen etxe galanta ta itxusiak, gero, zoritxarrez, Santo Domingo'ko lekaide ebcea...

Orain bizpairu urte, errextasunak eman dituzte olaberriak jar-zeko. Ortarako Nobeleta alderdia, Tafalla'ko bidean izendatu dute. Giro berri onekin gure iri zarra toki guztietatik lertzen ta aunditzen dijoa.

Gaur ba ditu 10.375 bizilagun ta udaran amabost milla. Emen-go saltzailleak inguruetako erri txikietatik bizi dira: illero peria le-nengoko ostegunetan dute eta urteko berexiak maiatzecm. Ba dau-de sei lantegi berrogeita amar langilletik goragoakoak; oitan ba dabiltz 1.600 langille.

Etzan orain bakarrik lana egiten Lizorra'n 1365 urtean Kar-los II bidez sortu zituzten oial olategiak emen. Berak aginduta joan zan Lizarra'ko gizon bat Zaragoza'ra teknikoen billa ta bizpairu ekarri zituan. Lenengo irarkola ere Migel Egiak iriki zuan, gero Anvers'ko Adrian'ek. 30 liburu argitaratu zituan emen, batez ere bat oso ezaguna, Gaula'ko Amadis. Ikasleak ere ugaritzen dfoaz; erdimallako ikastetxetan, 841 ikasle daude; olcrttegiko ikaskintzak egiten beste 210 ta idazkaritzako 99.

Goi maillako kulturen ere ari dira lana egiten. Santiago bi-deko lagunak, urtero, erdi garaiko ikasketen astea antolatzen dute, 1962 urtetik asita, baita eresi zarrenak ere. Ikasleak ludi osotik da-tozte onera.

Bainan gaurko iri zabaltze ontan, Lizarra zarra lertzen ari zaigu. Ustekabeko toki zoragarrietan, etxe berriak egiten ari zaizkigu; le-nagotik guda gizonen kucrrtelak. Santo Domingo'ko lekaide etxea-rekin asi ziran eredu trarra ematen, gero Puy'ko ikastetxeak. Liza-rra'ko San Pedro aurea etxez josi dute. Beste San Pedro'ren atzea itsusitu dute. Azpian, irian bertan, etxe luzeak altxatzen ari dira, bear bezela ta bear aiña egiteko tokirik ez ba litz bezela.

Nai ta naiez, Lizarra'ri daukan nortasuna kendu nai ez ba diote, iri ingurua asko zaindu bearko dute. Oraindik ez dago arront ondatua, baiñan bai naiko itsusitua. Europa osoan iri inguru ipin-tzeari edo urbanismoari asko begiratzen diote. Etxe berriak bere

tokian bear dira. Alderdi ontalik ba dago lana nun egin, len bai len. Ez litzake gaizki etorriko etxe guztiak bear bezela garbitzea. Zarrak diralako, ez du esan nai zikiñak bear dutela izan. Ortarako errikoetxeak artu ditzake bere erabakiak.

Ezin dezakegu esan gabe utzi, Lizarra'ko ingurua, izan diran borroka nagusiagatik, oso ezaguna dala ludi osoko gudaikastetxe nagusietan; Montejurra, Lakar, Muru, Monteskinza eta beste borrokak joan dan gizaldian ementxe gertatu ziran. Orregatik, Bohe-mia Morabiako urralden garrantzi berdintsua ematen diote.

Borrokak gizartearen gaitzak dira,- bere ikuspegiagatik maite degu Lizarra. Ezin ditugunak aztu eguzki sartaldeak dira; mendiak urdin ubel biurtzen diranean, zerua gorri, mendi muturreko arri ta arkaitzak zorrotz. Lizarra'ko edertasuna ez da ixillik eukitzeko.

Lizarrak, naiz Europa'ko kulturaren ixpillua izan, napar kutsua ta nortasuna dauka.



LIZARRA, NAPARROA'KO BULARRA

Aurreneko Lizarra, zarrena, Naparroa'ko edestiaren asieran agertzen zaigu. Antziñako berriak diotenez, Yerri, Deio lurraldeak, Naparroa'ko nortasunaren sortze ortan zer ikusi aundia daukate. Moruak sartutako garaien mugak bezela Aibar, Uxue, Orba alderdi batetik agertzen zaizkigu eta bestetik, berriz, Yerri ta Deio. Lizarra zarra, mendi magalean, bigarren lurralde ortan babesa ta zaindari bezela arkitzen degu. Noíz ori? Gutxiñaz bederatzigarren gízaldian. Muga zabaltzerakoan, guda eraso garaiak baztertzen diranean, toki erosoagoak billatzen dituzte, iriak bear bezela aunditzeko. Lizarra zarra aldapan zegoen ta ibai ondoko lurrak obeak izaki.

Santxo Ramirez erregeak, 1090 urtean errestasunak eman zizkien atzerritarrei ibai ondoan bizitzen asteko. Tokia osasunarentzat zoragarria iduritu zitzaion erregeari, eta Santiago'runtz zijoan bidea errextatzeko egokiena.

Geroztik Naparroa'ko erregeak beti maite ta lagundu duts Li-



zarra iria. 1197 urtean Santxo jakintsuak lege berexiak edo fueroak ematen dizkie. Geroago oiek berak emango dizkio Donostia'ri. 1236 urtean Teobaldo I'k, San Migel elizaren aurrean merkatua egiteko eskubidea ematen dio. 1237 urtean bildu zan emen Naparroa'ko biltzar nagusia edo korteak eta batu egin zituzten lege zar guztiak. 1264 urtean Teobaldo H'k zin egiten du lege zar guztien alde emen eta asko laguntzen dio Santo Domingo'ren lekaide etxeari. 1266 urtean, errege onek berak batutzen ditu Lizarra'ko erritaldeak. 1307 urtean Luis erregeak Naparroa'ko biltzar nagusia Lizarra'n biltzen du. 1390 urtean, Karlos IH'k izendatzen du Lizarra'tar bat, erregea ericrri aurkeztu beax diotenean, amabi napar gizon talde ori osatzeko. Errege au Lizarra'ra maiz etorrira, Santo Domingo lekaide etxean gelditzen zan. 1436 urtean Juan H'k urteko peri askatua egiteko eskubidea ematen dio.

Iriari emandako eskubide, laguntza, ardura guzti cnien bidez ikusten da, Naparroa'ko erregeak asko maite zutela Lizctrra. Garai berdiñean esan bearra degu LizaiTatarrak beren errege ta Naparroa'ren alde lana egiteko gogoa agertu zutela ta askotan bizia eskcrñi ziotela. Lizarra'ko semen jokabidea beti Naparroa'ren aldekoa izan da.

1024 urtean emengo gaztelua, Jimeno Orgaiz'en ardurapean agertzen da. 1090 urtean gaztelu ta babesa ikaragcrrriak ditu Lizarrak. Arretxe oien izenak ere alaxekoak dira; Belmecher, Atalaia, Zalatanbor. 1200 eta 1206'garren urtetan gogor egiten diete kasteillanoei. Bigarren aldi ortan batez ere Diego Lopez Aro'koari. 1378 urtean babesten dute beren iri eder au, batez ere Kastilla'ko Enrike Ilgandik. 1463 urtean, Kastilla'kin lotuta gelditzea, beaxtzen dituzte Lizarratarrak, baiñon bat batecm Pierres Paxalta'ko laguntzaxekin danak erabaki onen cmrka altxatzen dira ta beren napar zale-tasuna agertzen dute.

Naparroa'ko erresuma zarrak bere askatasuna galdu zuanean, 1512 urteko gerratean, Lizartarrak oso gogor jokatu ziran beren betiko erregen alde. Kastilla'n cmrka borroka latza egin zucm Naparroa'ko nortasun askatuari euste arren. Ezin ditugu aztu garai ortako guda gizon ospetsuak azkeneraiño ekin zutenak, Juon Belaz eta Juan Ramirez Bakedano.

1521 urtean, berriz altxatzen dira Kastilla'ko erregearen aurka eta iri ontatik botatzen dituzte bere gudamutillak. Askatasuna arkitu ondorean, bereala idatzi zioten beren egizko erregeari, deituaz Naparroa'ra len bai len etorri zedin. Kastillanoei salduta zegoen bertako semea Nikolas Egia zan, Lizarra'ko saltzaille bat.

Billalbak, Kastilla'ko guda gizon gaiztoak emengo gazteluak eta eliz sapaia desegin zituan. Ikaragarritzko miñekin il zan emen bertan, geroxeago.

Bere naparzaletasunagatik, íueroen alde atera zan Lizarra'ko iria, joan zan gizaldian, Karliten gerratean eta erregeak agertu zion maitasun berezia. Karlos VII garrenak ementxe ezarri eta aukeratu zuen bere bizi toki nagusia. Oraindik bere etxea zutik dago Fueros'en enparantzan.

Nai ta naiez, aipatu bearra degu Lizarra'n Euskalerriko alka-teak bilduta 1931 urtecm, garagarrillaren 14'an Estaruto berexi bat eskatu zutela Madrid'era. Egun ori bezelakorik ez omen dute emen beinere ezagutu; kaleak alaitasunez cmaitasunecm lertzen.

Bere napar zaletasunagatik, Lizarra'ko ordezkariak Iruña'n erregeak berritzen zituztenean, elizkizunetan bigarren maillan izatea, Iruña'koen ondorean egokitzen zitaien. Gure azkeneko guda ondorean, eliz nagusiko Amabirjiña koroiatu zutenean, berriro beren eskubide ori eskatu ta eutsi zioten.

Gaur berriz Naparroa'ko nortasuna ezagutu arazten dabillena ta bere edestiaren idazlerik onena, Lizarra'tar bat degu lose Maria Lakarra. Aurten argitaratu du gizon ospetsu ta jakintsu onek Naparroa'ko edestiari buruz liburu berri bat guztiz ona. Bere bizitza osoan Naparroa'ko paper zarren bílla dabil, erresuma zar onen muiña ta arnasa nolakoa zan obeto jakiteko. Gizon argi onek bere lanen bitartez, Naparroa'ko jakintza asko aberastu du, garai berdiñean euskal kultura maita arazi ere.

Lizarra degu Naparroa'ko lenengo erría, beti jaietcm errikoe-txean Lizarra'ko ta Naparroa'ko ikurriñak agertzen dituna.

Ez bakarrik napar zaletasuna, euskal arnasa ere bizi da oraindik iri zoragarri ta jator ontan.

LIZARRA TA BERE EUSKAL BIZIA

Gaur oraindik aspaldi garaietako aztamak billatzen dituzte ugari Lizarra irian eta bere inguruan. Toki zoragarri ontan gizonak ba daramazki millaka urte bizitzen. Nunbait orko aizeak atsegin zaizkio.


Erromatarrak ugari ibilli ziran ta nunai aien tresnen puxkak arkitzen dituzte. Erdigaraian, berriz, bai judutctr, prantzes ta arrotz asko bizi ziran iri ontan.

Baiñan gauza bat ageri da garbí; Arrotzak naiz ugari izan, beti euskaldunak euskaldun bezela bizi dirala tartean.

Lodosa'ko bidecrn arkitzen da toki bat euskal izenarekin, —Merkatondoa—, Lizarra zarratik urruti xamar dagona. Or erromatar garaiko gauza asko billatzen dituzte. Batzuek diote, itz zar ori garai berdiñekoa dala.

Geroago, Naparroa'ko erresumaren asierako garaietan, zer esanik ez. Lizarra'n euskaldun ugari zeuden ta euskera asko egiten zan, joan dan gizaldia arte; Naparroa'ko erresumaren asieran gizaseme geienak artzaiak ta euskaldunak ziralako. Joan dan gizaldian berriz ematen digute oso berri polita. Orain dala eun ta berrogei urte etorri omen zcm San Juan parrokira euskeraz ez zekien erretore berria. Nunbait euskaldun kistauak ez omen zuten ontzaz artu, beren izkuntza ez zekielako. Orduan oraindik lurgintzctrik bizi ziran gizasemeak euskaldunak ziran Lizarra'n, ta jakiña, beren izkuntza euskera izaki; saltzalleak eta aberatsak edo jauntxoak, berriz, ez.

1877 urtean, Iruña'n sortzen dute Euskara alkartea Iturralde ta Kanpionek. Alkarte ortan Lizarra'ko gizon bat arkitzen degu, Bizente Gonzales.



Karlisten gerrate ondorean, S. Aranak su berri bat pixtu zuanean, esan dezakegu aren atzetik oso laister sortu zala Lizarra'n euskal zaletasuna ta gogoia. Su berri ori Lizarra'n Irujo'tar sendiak sartu zuan. Daniel Iruio legegizona, Deusto'ko ikastetxe nagusiko erakaslea zan. Auzitegían, S. Aranaren laguntzalea ta babesa izana. Bein Gernika'ko aritzaren txertu berri bat ekarri zuan Lizarra'ra ta orregatik bidali zuten karlisten biltokitik. Irujo'tarren artean eza-gunena ta ospetsuena Manuel degu, napartar sutsua ta euskalzale argia. Bere aita bezela lege gizona. Gerra aurretik Naparroa'ko ordezkari izana. Naparroak zor aundiak dizkio. Berori esker dituzte, Barcmiain gaxotegia, Aurrezki kutxa, mendi ta baso askoren jabetza, euskal kulturaren zabalkundea, mugako eragozpenak berdintzea eta abar. Orain Frantzia'n bizi da. Irujo'tar sendiaren inguruan jaio zan napartarren taldea.

Joakin ta Adolfo Nabaskues, berez, Tafalla'koak izan ziran garai artako euskalzale sutsuak. Primo Ribera'ren agintaritzia ondorean iriki zuten euskaletxe eder bat. Biltoki oneri Lizarra'k zor ugariak

dizkio. Ekintza ta bizitasun aberatsak zebilzkiten. Orduan asi zircm jolas berriak Lizarra'n zabaltzen, adibidez txirrindulariak, ostiko jolasa, mendigoizaleak eta abar.

Gaiñera, zorionez, dantza zar baten doñua jaso zuten ta orre-gatik ez da il; "Larrain dcntntza" degu. Dantzariak sortu ziran. Alfonso Ugartek abesbatza eder bat egin zuan ta euskal kanta asko abestu arazi. Larunbatetan itzaldiak izaten zituzten. Langillentzat laguntza billatzen saiatzen ziran ta sozial ikastaldiak antolatzen. Izarra jolas elkarte orduntxe egin zan. Aita Goena ere euskera eraskasten asi zctn erriko eskoletan. Lenengo ikastola 1933 urtean iriki zuten, eta ortarako Leiza'ko Petra Azpiroz andereñoa etorri zitzairen. Baita 20 aur asi ere. Illunabarretan aziak ere joaten zi-tzaizkien ikastera.

1934 urtean maiatzaren ogeita zazpian euskal jai eder bat egin zuten Lizarra'n.

Abeslariak eta dantzariak izan zituzten ta Iruñatarrak zetor-zkien laguntzera. Maria Puy Ruiz Aldak, ala esaten zidan; "Giro ortan nai ta naiez nere euskal zaletasuna zuzpertz bear". Aita Uranga'kin ikasi zuan euskera ta Euskeraren Adiskideak alkar- tectn sartu zan ondorectn. Paz Zigandak deituta, Principe de Viana batzordekoei laguntzen zien euskera Naparroa'n indartzen. Orain Euskalerriko Adiskideak alkar-tearen kide laguntzaille degu.

Guda aurretik, batez ere bi gizon aundi ta ospetsuei dizkio zor aundiak euskal giroak Lizarra'n. Bat Manuel Iruio da, bestea berriz Fortunato Agirre.

Manuel Irujok euskeraren gogoa ta gosea berak erein zuan errietako giroa ikusita dana esana dago. Fortunato Agirre, kopu- txino ikasten izana degu. Aita Ibero'n bidez zuzpertz zuan bere euskal nortasuna. Errepublika garaian bera degu Lizarra'ko alka- te. Bere erriaren alde gauza on asko egiten saiatu zan. Gaur oraindik bere lanak aipatzen dituzte. Guda asierako ugoideak era- man zigun orrelako gizona ta orduan il zuten.

Bi gizon oiek onak ziralako ta jokabide zuzenekoak ta garai berdiñean oso euskal zaleak, Lizarratarrak zioten, "euskal zaleta- suna ezin leike txarra izan".

Orduko euskal giroaren sakontasuna ezagutzeko, Luis Larunbe'kin itz egin bear. Euskalzale porrokatu onek ala dio: "Euskal kulturaren ezaguera baiño, biotzkada ta griña geiago dut".

Gudaren ondorean euskeraren giroa arront ixildu zan. Euskalzaletasunaren oiartzuna etzan geiago entzuten.

Dantzari taldea asi zan aurrena lanean. Orain dala urte batzuk, Franzisko Beruetek, Lizarra'ko idazkari argiak talde bat sortu zuan ta "Larrain dantza" erakatsi zien, erri osoak ikasi arte, Gaur erriko jaietan ordu berdiñean Lizarra'tar guztiak biltzen dira ta errikodantza berexi au dantzatzen dute. Dantza aberatsa ta eder au, 1903 garren urtean erregeari dantzatu zioten. Geroztik galduta zegoen. 1931 urtean berritu zuten dantzari taldeak ta gaur erri osoak daki.

Gaiñera, ba dituzte beste iru dantza berexiak, maitasunaren dantza (desmayo de amor), Lizarra'ko kalejira ta íandango bat; eresia Luis Usua'rena du ta jauziak Franzisko Berueterenak. Lizarra'ko idazkari ta euskalzale jator au idazlea degu. Bere erriari buruz ba dauka liburuxka zoragarri bat idatzia.

Erri ontako eresi tresna berexia gaita izan da. Gaur oraindik eresi tresna onen taldeak emen bakarrik daude. Bi talde dira, talde bakoitxa bi gaitero ta tuntun batekin. Emengo gaita ez da Errioxa'koa bezelakoa, zuloak ditu. Gaiñera, ba daude txistulariak. Txistularien berpiztallea, Jose Migel Agirre, alkate izandakoaren semea degu. Guda ondorean txistua gaizki ikusia zegoen. José Migel 1949'garren urtean bere txistuarekin Urbasa'n ezagutu nuen, euskal sutsu ta mutil alaia. Katoliko ekintzan asi zan txistua gaztetxoei erakasten. 1963'garren urtean agertu ziran lenengo aldz Lizarra'ko kaletan. Urrengo urtean ba ziran amalcm. Geroxeago emeretzi. Bere arrazoia auxa izan da beti, "Legearen bidez jokatu".

Ekintza ezin ohea egin zuten; Aita Olazaran erriko seme ospetsu, txistulari argiari omenaldi bat antolatu zioten. 1971 urtean, maiatzaren 23an, egun zoragarri bat igaro zuten Lizarra'n. Iruña'ko txistularien bitartez antolatua izan zan. 450 txistulari bildu ziran, batez ere naparrak. Lizarra'ko urrezko domiña eman zioten. Orrela, azkenian, egun ontan zerbaiten bidez Aita Olazaran'eri Naparroa

osoak bere errian, egindako lan guztiengatik eskerrak ematen zizkion. Ba zan garaia. Txistua ikasteko ikasbide bat idatzia dauka la berian biltzen ditu Naparroa'ko dantzarik ezagunenak; ba ditu eresi zatiak berak egiñak ere. Liburu onen bitartez, txistulariak berpiztu ditu Naparroa osoan, batez ere.

Jose Etxarri gizon gazteak zion; "Txistuak ta dantzak eman digute euskal giro bat". Ikusten degu edesti ta bizitza berexi berr daukagula. Ez dakit zergatik, baina ortaz gure mendietan konturatzen gera. Gure erria ez dago geldirik, bizi da. Euskalzaile jator cru, Lizarra'ko mendizalen alkartearen buru zegola, asko ibiltzen zan Naparroa'ko mendietan ta alkar ezagutzen ziran beste napar euskalzailekin ta an entzuten zituzten Etxarri, Tafalla ta Iruña'ko ikastolen berriak. Zerbait egin bear zula buruan sartuta, bere etxean diskoen bitartez ogeiren bat lagun asi ziran euskera ikasten; danak mendizaleak ziranak. Txomin Errazkinekin asi zan lenengo urratsak ematen aurrentzat ikastola bat ere jartzeko. Ortarako jom ziran Tafallako ikastola ikustera ta ondorean Jose Maria Satrustegirekin arremanak izan zituzten. Onen iritzia ondo artuaz, bildu ziran ikastolataz arduratzen ziran gurasoak, danetara berrogeitamar. Auen izenpekin, Principe de Viana euskal batzordekoei eskatu zieten laguntza, bai lortu ere. Lizarra'ko errikoetxeak eskeiñi zizkien gelak Ederrena frontoian. Ikastolari buruz gertu zuten gurasoentzat itzaldi bat eta larogei bildu ziran eta egun ortan bertan sortu zuten ikastolako gurasoen batzordea. San Mígel alkarteak asko lagundu zien, baita gelak eskeiñi ere.

1970 urteko ikasturroan iriki zuten ikastola, 22 aurrekin ta andereño bat, Ana Berriozabalgoitia bizkaitarra, Garai'koa, 22 urtekoa; beste bi laguntzaillekin asi zan lanean. Urrengo ikasturroan ba zituzten 80 aur. Orain ba dabilte iru andereño, bi bizkaitarrak eta gipuzkoar bat. Aur guzti oien bi aitek dakite euskeraz,

Andereño auek ematen dituzte, gainera euskal ikastaldiak auzientzat iru aldiz asteen. Aurreneko urtean eun asi ziran eta berrogeik bukatu zuten ikastaroa. Aurtengoan berriz larogei zituzten. Irutik bat aziak dira.

Orain emengo gurasoak beste ikastolara gurasoekin arrema-

nak nai dituzte izan. Lendabizi Iruña'koekin astekotan dabiltz.

Ikusten da emendik urte gutxira asko zabalduko dala ikastola berri au. Egokiena izango litzake, Santo Domingo lekaide etxea no-la utsik dagon, an sartzea.


Ez naiz batere arritzen egindako lana berexi ta sakona au ikustean, Jose Etxarrik esatea: "Ikastola aurrera eramate onek bitzita betetzen du".

Azkeneko bi urte auetan Santageda taldeak ta Olentzero ateratzen dituzte. Oitura au indartzen dijoa. Berreun gazte atera ziran Olentzeroarekin.

Lizarra'ko euskalzale guztiak ba dute laguntzaille argi ta benetakoa, Esteban Irigoien, Berroeta'ko semea, San Juan parrokiako erretora berria. Aranaz'en, euskal kultura ta euskeraren alde makiña bat lan egiña da; irrati bat ere jarri zuan. Lizarra'n asko-zez geiago egin dezake. Azken berria artu degu, mezak euskeroz ematen asi dala.

Esan bear degu, kaikua artilezko txamarra, Lizarra'n sortua dala, naiz gaur Euskalerrria osoan erabili.

Lizarra irian, izarra berri bat jaiotzen asia da, egitazko Euskalerrria bere edertasun osoan. Lenengo aziak etziran alperrik lurrean usteldu.





ETXARRI ARANAZ

ETA SAN ADRIAN'GO ERROMERIA

Bein batean, 1.971'garren urtean, Etxarri ezagutzeko aukera ederra izan nuan; etzaitana errex aztuko, San Adrian eguneko erromeria zan. Jose Maria Satrustegui apaiza, nere adiskide miñakin nintzan. Goiz, Etxarri'ko kaletan txistu doiñu ezitia entzuten genuen. Giza seme mordoxka bildu zan eliza atarian, San Adrian' en 17'garrengo irudia eskuan txingurriakin, artu zuten bi gizonen artean. Danak errenkan jarri giñan; txistuloriak aurretik, gure san-

tua, erretora, erria ondorean. Gipuzkoa'ko bidea artuta, kare ola ondotik, basoko bidea artu genuen. Egun oietan, mendi bidearen inguruak ezin ditezke egokiagoak izan. Danbolin Txulo'ko ariztegiak ikusteko modukoak dira. "Leñua" erreka ondotik dijoa gure bidea, marrubiak baztarretan dituala. Urbia zubia igarotzen da, Santuaren atzetik lasai ibilliaz, txistu doiñua entzunez. Aldapatxo bat, iratzez betea dagona igota, egi batean zugaitz galantaz inguraturta arkitzen da San Adrian'en basiliza.

Santuaren irudia bere etxean utzi zuten gizonak eta goraxeago aritz tartean SANADRIN zelaian giñan danak. Aiuntamentuaren izenean gizon batek aragi prejitua antolatu zuan eta aren saldarekin zopak egin. Ardoa, erriko bi kalen pitzerretan banatzen dute. Danak, zerbait jateko aiña ba zegoen. Ardoa ere naikoa. Erriko etxeak ordaintzen ditu.

Gosaldu aurretik alkateak euskeraz agurtu zuan erria eta ondorean "Gernikako Arbola" gizonak txapela kenduta abestu genuen. Orain berrogei urte aurretik bezela, ba dira lau urte orrela egiten dutela. Azkenean inguru eder bat eginta "Dantzakia" dantzatzen dute. Aurreku antzekoa da, baiñan naparra. Orrela sakanarren artean bakarrik dantzatzen dira. Bereala basilizan meza eman zuten; abestiak, otoitza ta itzaldia, dana euskeraz. Gero txistuaren ondotik erriruntz itzuli giñan. Toki jakin batzuetan bizpauru "arin, arin" dantzatzen dituzte. Alaitasunean dijoaz errira. Len, Jose Maiza'k esaten zidanez, erromeria bukatzerakoan, enparantzan ematen zuten azken itzulia ta mutillek neskei txokolatea eskeintzen zieten.

Ariztegi aien aurrean, txistua entzutea ta dantza eder aiek ikustea, zoratzen uzten dute euskalduna. Aritz oietaz, zerbait esan nai nuke. Goraxeago ba-dago bot, gerri inguruan bederatzi metro dauzkana eta beste bat ia ustelduta, erditik iurgoneta igaro lekio-kena. Guk izan genuen eguna ezin leike ordaindu. Ango giroa ezin degu errez aztu. Orrelako oiturak egiten dute erri baten aberastasuna ta bere nortasuna azaltzen dute. Orregatik bear ditugu oitura oiek gorde ta indartu.

ETXARRI ARANAZ, SAKANA'KO erri buru dugu; erri ederra,

bere 2,200 bizilagunekin. Errege bide nagusia gaiñetik drjoakiola, erdian enparantza luze ta zabal bct dauka. Bost kale ditu; Fueros' ena, Txikia, Ualde, Mundiño, Maiza. Enparantza nagusian, erriko etxea gaillurrean, burnizko kanpai txiki batekin, ertzean eskola zarrak ta atzean frontoi itxia. Eliza arri landuzkoa, ederra, galanta, 16'garren gizaldikoa, erri muturrean Aralar aldera daukagu; sapia arrizain ugariakin. Erretaula barrokoa, ikusgarria, 18'garren gizaldikoa, lau abe aundi biurrikin mats mordoak ditula txintxi-Uik. Erdian Maria zerura igotzen dala, oso polita; bi saindu alde-tan, beste bi azpian ta bi aingeru polit goien dantzan bezela. San Juan ta Maria'ren erdian, gaiñean, Gurutze bat dago. Bi irudi oiek, oso ederrak, barrokoak dira, baiñan neretzat gurutzea 15 gizaldi-koa. Bi bazterretan, bi aldara barrokoak daude ta botean Arrosa-rio'ko Ama 17'garren gizaldikoa. Koru azpian irudi bat Aita Jain-koa, bere seme illa besoetan daukala, itxuraz gotikoa, izan leike 16'garren gizaldi asierakoa izatea. Ekaitzetan, arria egiteko beldu-rra dutenean, berealaxe ateratzen dute errogatibak egiteko.

Eliza erdian, euskeraz idatzita dago: "Pakean sinisten dut Sal-batzallea bizi dutela ta azken egunean lurpetik jeikiko naizela". Sarrera ederra du eliza onek, 16'garren gizaldikoa, oterpe bezela erantsita dauka 18'garrengo jauregi antzeko bort; Dorre inguruan Arkupe eder bat berriz. Erri gaiñeko aldean, Lizarra'ko bidearen bi alderdietan bizitzako etxekin auzo berria egin dute.

Orain Diputazioak ola toki berexia izendatu du Etxarri. Ba-daude lau ola koxkor, bi telleri, bi zerreri ta egurrena, 300 langi-Uentzat gutxi gora-bera dago lana. Lurgintzan ere etxe askotan la-na egiten dute. Batzuek egunero Goierri'ra dijoaz.

Baso ta lur asko ditu erri onek, Lizarrusti'tik asita Andimendi'raiño. Ba-ditu bizpairu baserri. Gipuzkoa'ko bidean, Bekola ta Ur-basa'pean Artxulo. Ba-douka beste auzo bat Gipuzkoa'tik Arbizu'ra dijoom bidean; zazpi sendi bizi dira, Lizarraga-Bengoa du izena.

Antziñako garaietan ere ba zeukan erri onek garrantzia. Na-parroa'ko batzar nagusian ba-zuan bere eseri leku izendatua. Gi-puzkoa'ko bide ta muga ondoan zegoan. Bi auzo zeuden; Etxarri'n Gaztelua zan ta Aranaz'en gizasemeak. Santxo Azkar'ak aska-

tasun aundia eman zion. Gero bi zatiak batu ziran ta aurrerapen aundiak eskuratu zituzten Luis Utin beren errege aldetik.

Karlisten lenengo gerratean, joan dan gizaldian, Zumalaka-rregi'k artu zuan Etxarri. Sartu zan erri barrenean, baiñan libera-lak gaztelutik (gaur eskola zarrak dauden tokian zegoen) gogor egin zioten. Azkenean lur azpitik guda tresna bat sartu zien ta arek lertu zuan gaztelua. Orrela nagusitu zan erri ontaz.

Euskera, Etxarri'ko kaletan asko entzuten da. Gaztetxoak ez dute asko egiten, mutillak geiago, neskak oso gutxi, eskolako au-rrak gutxiago. Zortzi urtetik emezortzi bitartera ia dena erderaz egiten dute. Ori monjen emaitza omen da. Lantokietan, gazteak euskeraz egiteko bidea berriz artzen dute. An jabetzen dira azke-nean.

Len ere, euskera indartzeko egiten zituzten lan ederrak 1.923' garren urtean Euskalzaindiak antolatuta egin zuten jaia eder bat; abestiak, antzerkia, olerkiak, euskal aurrei sariak.

1961'garren urtean urrillaren 29'an berriz, erri ontan ospatu zan Naparro'ko Bersolarien lenengo txapelketa. Goizuetar, Andres Narbarte'k jaso zuan saria. Frontoia leporaiño betea zegoan.

Baiñan euskera indar berritzeko, gaurko iturritik ur goxoa eman diote; ikastola iriki dute. Berri onek asko esan nai du. SA-KANA'KO erri guztietatik ETXARRI degu buru, beste guztiak be-rari zer egiten dun begira daude. Orain dala iru urte asi zan mon-jetan. Urrengo urtean Eskola zarretara aldatu zuten. Aurten gela berri batzuek egin dituzte. Lenengo urtean 25 asi ziran; 1.971'ga-rren urteko ikastaroan, berrogei ta sei daude. Ba zan garaia, bai-ñan egiña dago.

"Udaberri" gazte mendizalen alkartetik jaio zan asmoa. Pe-dro Lizarraga ta Juan Maria Artieda izan ziran, asmo zoragarri au sortu zutenak. Lendabizi, euskal abeslariak ekarri zituzten. Ge-ro Urdiain'en, Satrustegui'kin arremanak izan ondorean, euskera irakaslentzat ikastaro bat antolatu zuten Jon Oñotibia etorri zi-tzaien ikastaro ori ematera ta etxarriarrak, bi neska ta bi monja bidali zituzten. Joan dan urtean berriz euskal jaia antolatu dute.

Poliki poliki lenengo urratsak emanaz zijoazen. Orain dala

iru urte monjetan Mikelatxo lauregi'k ordu bat ematen zien aurrei egunero; Azientzat, berriz, Tomas Lizarraga erretora launak. Urte ori bukatuta, euskeraz zekin monja, urrutiko beste etxe batera bidali zuten. Aurren lau guraso, lau Patxi (Patxiko, Imaz, Karasatorre ta Barandaiba) joan ziran monjengana bear bezela ikastola jartzeko eskatzera. Euskerari buruz, monjen artean giro txarra zegola ikusi zuten; "Euskera zertarako?", esanaz. Orduan Aiuntamentuaren baimenarekin eskola zarretan jarri zuten.

Aurten gela berriak eraberritu dituzte, irailaren 15'an, Alka-teak eta Erretorak an zirala bestekin batean. Gurasoak 50 pezeta ordaintzen dute illero, Aiuntamentuak 1.500 eta gelditzen dana "Principe de Viana"ko euskal batzordeak.

Asiera ez da errexia izan. Guraso askok uste dute, euskerarekin aurrak atzeratu egiten dirala. Gaur ikastola babesteko, 30 guraso alkartuta daude ta buru bezela bost gizon ta bi mutil jarri dituzte. Euskalzale jator auek nai dutena da, beste eskoletan ikastolentzat tokia egitea. Asmo au ontzat artzen duan irakasle bat ba omen dago. Orain bi andereiño daude ikastolan, luana Maria etxarriarra, ta Nati Aranburu elorriotarra.

Erriko eskoletan, 14 urte bitarte aurrei bi taldetan ordu bat egunero ematen diete euskeraz. Azientzat, berriz, aurten ziran euskerazko ikastaroa jartzeko. Gaur ba daude erri ontatik lau neska andereiño; bi Iruña'n, bestea Leitza'n ta laugarrena bertan. Ikastolara joan nintzanean poza ematen zuan ango garbitasuna ikusita. Azken agurra ematerakoan, aurrean gizon bat babarrun aleak jotzen ari zan. Argazki bat ateratzerakoan esan zidan: 'Atera guapo. Otsoan ipurdia baiñon zakarragoa atera ninduten bein'. Aurten, erretorari, ikastolako aurren gurasoak kristau ikasbidea ematea eskatu diote ta berak ontzaz artu du.

Elizan igandetan sei mezetatik, bi euskeraz jarri dituzte, zazpitan ta ordu batean. Bigarren meza ori, euskeraz emateko, Iruña'ra gotzaiarengana joan zan erriko gizon talde bat. Agindua goitik etorri ezkeru, meza euskeraz emango zula, esan bai zien erretorak.

Euskalzale jator batekin topo egin nuen, Urbano Ijurrekin. Alkarrizketa artaz, oroituko naiz luzaro. Urteak ditu, gizon au gaztea

da; "Jainkoaren izketaren ordeztu, ze eman bear digute bestek?" zion. Gerra aurretik euskalzale sutsua zan ta Naparroa'ko Erriberan barrena ibiltzen zan, gure kultura, dantzak eta kantak zabalitzen. Gero etorri zan gerra ta aizeak astindu zituan bazterrak. Garai artan, iru edo lau aldiz "Zeruko Argia" izparringira bidali zituan idazlanak. Gizon onek esanta, jakin nuen nola Etxarri'n orain dala 60 urte, sartu zituzten elizan euskal kantak, kaputxinoak. Iru-garren ordenekoen bidez, egin zuten lan ederra. Langillerik aundiena aita Ladislao Donosti'koa zan. Garai artakoa omen da, "Kristorenak-gera" eliz kanta. Principe de Viana euskal aldizkaria danak artzen dute. Erri aberats onek, bere diruarekm gauza asko egi-ten ditu. Sei txistulari ta banda dauzka. Urtero monjei 80.000 peze-ta ematen die... Ba-dago abeslari talde bat ere eta bi mutillek eus-keraz kantatzen dute.

Ainbesteko indarra duan erri au, bere nortasun jator ta azkar ori bear bezela agertzeko, buru baten bearrean arkitzen da.



LAKUNTZA TA BERE PERTZA

Arbizu ta Arruazu tartean, erregebide nagusi ondoan arkitzen da Sakana'ko erri eder au. Aspaldi erantsi diote "Pertzaren" ipuia. Juan Bautista Olasagarrek, Arrosaren etxeko aitonak kantatu dituen berso zarrak ala dio:

Amezketako Pernando ta Lakuntza'ko pertza
Munduan barna dabil euskaldunaren izkuntzan
Ez degu galdu bear Jaigoikoaren borondateko
Euskaldunaren izkuntza.

Aizpatzen duten ipui au politenetakoa degu. Garai batean bertako seme alabak oso aserre gelditzen ziran esan ezkeror, "Lakuntza'ko pertzak ze pin egin zuan". Gaur berriz sortu dute bertan Lakuntza'ko Pertzaren alkartea. Orain lau urte asita berriro dute oitura zarra, baita urtero indartu...

Abustuko Amabirjiñaren jasokunde urrengo igandean, goizeko zazpitan ateratzen da gazte multzo bat oñez San Migel'runtz; tripotak egiñak eramaten dituzte asto gaiñean. Esaera zarrak dion toki berean Aralar'ko malkorrean, pertza tripotaz betea erori zan lekuan, an berriz berotu ta jan egiten dituzte. Gero San Migel'en gauza berdiña egiten dute. Adiñakoentzat autobusak jartzen dituzte; Orrela 1971 urtean, 65 aiton-amonak ígo dira ta amar tripe garbitu zituzten danen artean, zar ta gazte. Ez diote itxuli txarra eman

Pertzaren ipuiari. Orixek berak Euskaldunak poema liburuon aipatzen du: Ara zer dion idazlari ospetsuak:

"Mutillak burura du Lakuntza'ko pertza
—an gutxi gora-bera nun dagon arkaitza__
"Pertzak pertz egin beza, emen da tripotza'
esaten bota du eskuetako otza:
poztu ordun ere Lakuntza'rrak ortza".

Oar bct ipintzen du Orixek berak esanaz: "Pertzak pertz egiñen ba du ere, eutsi tripotzari". Baztan-pertza berotzen ari zirala, zutikaia erre ta pertza irauli omen zitzairen lakuntzorrai. Pertza Lakuntzaraiño joan omen zan amilka, baiño tripotza eskuan gelditu omen zun lakuntzerr batek. Euskalerri guzian entzuna da Lakuntza-ko Pertza".



Orrelako gertaera zoragarriak ematen dio erri bateri euskal usai sakona.

Erri eder au aldapan dago. Elizatik asita beraiño kale zabal bat dauka, enparantza eder baten antzekoa. Ertz batetik bestera di-joakio erregebide zarra. Etxeak, arrilandutakoak ugari ageri dira. Azpiko aldean olategiak daude ta Arbizu aldera, "langintzako erdi-mallako ikastetxea". Ba daude lau olategi; Cerrajera San Antonio, Naparroa'n dagon olategi zarrenetako bat, Saxa sukaldeak egiten ditunak, Tot-Garais burni ola, urontzietako tornuak, bustingintza ta Orbegozo. Oraindik oso gutxi itxi dute Saxa sukaldeak egiten zituan olategia. Len 180 langillekin zebillen, azkenean 108'kin. Lantegi onen nagusitza ez omen zuten langilleak bere gain artu nai. Ez ote litzake gaizki langilleak Arrasate'koen (Mondragon) laguntzarekin, kooperatiba bat egitea?

Nekazari bezela, lurratik bakarrik bizi diranak bost sendi daude.

Erri onek danetara, 1010 bizilagun ditu ta 300 langille, baita 325 ikasle erdimailako ikastetxean. Erri onen garrantzia ez da gaurkoa. Erdigaraian bazeukan bere alxia Naparroa'ko batzar nagusian. 1411 urtean erri dana ia erre zan. Ezin degu aztu Luis Fuentes jauna, berak egin bai zuan aspaldi lenengo olategia. Kale bateri bere izena eman diote.

Eliza arri landuakin egiña dago. Ba douka aterpe ta dorre sendoa. Salvatore izena eman diote. Sapaia gurutz erlatzez betea agertzen zaigu. Erdian erretaula amazazpigarren gizaldikoa, iru kale eder ditula. Ikusi ezkerro begiak ezin kendu gaiñetik. Irudiak ederrretetakoak daude, batez ere San Pablo ta San Sebastian. Bazterretako bi aldare barrokoak ederrak dira. Arrosario Amaren irudiak ba du bere balioa. Sarrera bere sei abetxoekin ta bataio pontea gotikoak ditu. Ur bedeinkatuaren arria arrigarria da, neretzat erromaniko-gotiko garaikoa.

Ta euskera nola zegoan azkeneko urte auetan? Oso eroria. Azkeneko 32 urte auetan il arte erretora bat izan dute Nemesio Azurmendi, Iturmendi'ko semea, oso gizon ona, baiña dana erderaz egiten zuana. Jaietan sartzen zituan kanta batzuek euskeraz. Erderaz etzekitenak bakarrik aitortzen zituan euskeraz.



Atzerritarrak, eskola ta eliza naikoak euskera galtzeko. Aurrei etxetan euskeraz egiten zieten, bainan kanpotarrak etorri dira ta kaleon danak erderaz.

Euskeraren atzeraka orren arrazoiak agertzen etzan motz gelditu bertako gizon bat; "Euskeraz egiteko eragozpenak izatea ez da arritzekoa. Lanerako tresna danak aldatu dira. "Ekaitzu idiak", esaten genuen.

Gaur, berriz, traktoreakin gabiltz. "Tori zatak", len esaten zan, orain zapato. Idiari euskeraz egin bear, ala ikasi genuelako; traktoreari, berriz, erderaz. Danetarako euskerazko itzak ba lira, geiago egingo litzake".

Euskeraren alde asko esan nai dute Parrokiako artxiboetan bildurik dauzkaten paper multzoak. Ondo gordetzen dituzte ta ez dira nolanaikoak; joan dan gizaldian bertako erretorak idatzitako elizarako itzaldiak. Ura aberastasuna! 1830'an asita, 1901 urteralño egindako euskerazko lanak dira; Juan Migel Gastesi, Mariano Perkaz eta Martin Otermin erretorak idatziak.

Gure azkeneko gerra aurretik, Blas Alegria erretoraren euskeraz idatzitako paperak ba omen dauzkate jasota Dendaberriko etxean. Euskalzale porrokatua omen zan. 1928 urtean Euskeraren Adiskideak alkarteak zuzendutako antzerki lanen sariketan lenengo saria jaso zuan.

Azkuek emen bildu zuan konta polit bat "Kuku piku naparra" izenekoa, Elbira Turunbaien'ek emana.

Idazki polit batzuek ere ba daude Umeen Deia liburuan Jose Franzisko, Maria Reyes eta Milagros Flores'ek egindakoak.

Orain, berriz, apaiz gazte bat dago, alegiñak egiten ditunak euskeraren alde. Bearrezkoa zan. Luis Igeltz, oraingo orpaizak jarri du ikastola. Joan dan ikastaroan, 1971 urtean asi da lanean. Elizaren atzeko aldean, parrokiako gela batean iriki dute. Maria Karmen Garmendia lenengo andereñoa Umieta'tarra da, Izagirre base-rikkoa. Asieran 22 aur bildu dituzte. Aur geienak ez dakite euskeraz.

Asiera ematea etzaio lana errexia izan apaiz gazte oneri; "Pena ematen zidaten aur txiki oiek ikusita, euskeraz ulertu bai ta itz

egin tutik ez. Garbi ikusten nuen orrela galdua zegola. Nai tcc naiez emengo jendiekin itz egin bear.


Bakar batzuei agertu nien nere asmoa nolakoa zan. Bestiei izketan ari giñala alkarrekin itzak botatzen nituan-konbeni izango litzake ikastola-esanaz. Kolpean ez nuen agertu nai. Guraso nai-koak asi ziran erantzuten-umea bidaliko genuke. Pincipe de Viana batzordekoekin, batez ere Atxaga'kin itz egin genuen eta dana iraillako prestatua zegoen".

Orain euskeraren iturria berriz ur jario dago. Amabost amazapi urteko gaztetxo talde batek euskerazko klaseak ematea eskatu dio andereñoari.

Gure apaiz jator au ba dabil berriz euskera elizan sartu naian; "Elizan dena kendurik zegon. Orain mezak euskeraz sartzen saiatu bear". Jarri dute igandeko lenengoa ta bestetan euskerazko kantak abestutzen dituzte.

Txistua ikasten ari diran gaztetxoak ere ba daude. Onek esan nai du giro berri bat jaiotzen ari dala.

Ez da arritzekoa emakume batek enparantzaz esatea: "Ikastolakin orain oso pozik gaude. jZeiñen poliki ematen duan aur txikiak euskeraz!".





ARBIZU BERIAIN PEAN

Bederatzireun biztanleko, euskal ern jator au Beriaincean (San Donato) dago, Etxarri Aranaz eta Lakuntza bitartean, erregebide nagusi ondoan.

Arbizu'k bi gauza egoki ditu; erna oso euskalduna ta erretora Juan Goikoetxea zíñezkoa.

Ba'nuen Juan Goikoetxea'rekin mintzatzeko gogoa. Esan zidaten, gaiñera berari esker zegola, euskera bizirik erri ortan. Jakin nai nuan nola apaindu zan gure izkuntzari eusteko. Lanean arkitu nuan. Gizon argia degu, begiratu zorrotza, izkuntza gozoa, nortasuna zi-

ñezkoa. Nere lenengo galdera auxe izan zan. "Zugatik ez omen da euskera galdu emen, bai ote? "Ez da ala, bere erantzuna. Erria oso euskalduna dalako iraun du Arbizu'n euskerak. Etxe guztietan aurrei euskeraz mintzatzen zaizkie. Aur guztiei beren sendietan, lenengo izkuntza erakasten dietena euskera da. Ba daude etxe askotan, gurasoetan bat ez dana euskalduna, ala guztiz ere aurrari aurreneko euskeraz erakatsiko diote. Erritik alde egindakoak, naiz Iruña'n edo erdaldun errietan izan, aurrei lendabizi euskeraz egiñen diete. Orrek esan nai du, erria oso euskalduna dala. Dorrau'n ere ez du pauso bat atzera eman euskerak, erria euskalduna dalako. Ango erretorak egin dezake au edo ura, euskera ez da orregatik atzeraka joango".

Juan Goikoetxea idazle trebea degu. Principe de Viana aldizkarian ale geienetan, eta asieratik orain dala zortzi urte, Elizaren Deia atalean argitaratzen ditu bere lanak. Eliza munduan nola dijoan da, erabiltzen duan gaia; euskera garbia, asmoak zuzenak "Itza ematean, betetzea guztatzen zait". Gure eliz gizon onek ba daramazki Arbizu'n 33 urte erretora bezela. Orduztik egunero kristau ikasbidea aurrei euskeraz eman die. Lan ontan ikusten du euskeraren irautea. "Apez batek nai ba dio euskerari eutsi, egin dezake lana Doktrinari eustearekin. Ortan dago dana". Berari gertatutako gauza eder bat esan zidan; "Aurten gertatu zitzaidan gauza polita. Mutil erdaldun batek euskerako Doktrina eskatu zidan. Zertarako diot? Euskeraz besteak bezela egiteko, bere erantzuna. Sakana'n euskera galdu da, Doktrina euskeraz ematen utzi dutelako. Errexkeria Olatxea gotzaiaren bidez sartu zan. Letra erderaz ikas-teko ta euskeraz gaiak azaltzeko agindu zuan". Juan Goikoetxea];: bide ori etzulako ontzaz artzen gogor egin zion gotzaiari. Orduan Olatxeak, nor berak nai zuana egitekotan utzi zuan.

iCristau Ikasbidea euskeraz emateko aitzakiakin, etzala batere ikasten uste zuan qotzaiak. Bein gotzai onek esan omen zion gure erretorari, galdetzeko Dotrina aurrei, batez ere galdera au: Espiritu Santuaren emaitzak zanbat diran. "Neronek ere ez dakit zenbat diran", erretoraren erantzuna.

Garai artan beste zerbait gertatutakoa jakin nuen gure erreto-

re onen bidez. Arroazu'ko erretoiari galdetu omen zion Olatxeak, nola ematen zuan Dotrina. "Euskeraz", onen erantzuna. Ba erderaz ikasi dezatela letra, jarraitu zuan gotzaiak". Erderaz ikasi ezker ez dago euskeraz ematerik, eta bide ortik ogei urte baiño len illa dago gure izkuntza"; erantzun zion apaizak. "Nere gain ez dut artu nai ondamendi ori", esanta joan zitzaion alde gotzaia. Erretora ori Imaz, Auritz Berrin orain dagona degu.

Orrelako artzaiakin ez da arritzekoa, Arbizu'n aurrak parra parra euskeraz kalean egitea.

Igandetan lau meza ematen ditu, danak euskeraz bat ezik.

Erriaren euskal nortasunari buruz naikoa esan digu erretoiak; aundia dala errex da ikusten.

Arbizu gaiñeko aldean, San Juan'en baseliza dago ta len auresku bat santuaren egunean dantzatzen omen zuten. Gero eresiarrentzat banda ekarrita etzekiten jotzen eta galdu egin zan.

Orain, berriz, San Juan aurretik bezperak izaten dituzte, gero dantza illuntze arte. Urrango egunean meza nagusia goizean. Atsaldean enparantzan, beste jaietako egun guztietan bezela ardoa ematen diete danei zillarrezko barkilloetan. Maite zituzten bersolariak, baña orain ainbeste ez.

Lendik Pazko goizean, aurora bezela, kantatzen dute karrikan kanta luze xamar bat. Kanta au aberastuaz irabazi omen zun Ugarte organistak sari bat. Orain neskak, Pazko egunean Alleluia esan ondorean, kantatzen dute:

I

Zer esaten didazu, bis
Magdalena,
Resuzitatu dela
Beroren semia.
Ai au gozua! Ai au gozua!
Pazko eguna data
gloriosua.

II

Anas'en etxetik
Pilatos'enera, bis
andik eraman zuten
Erodes'enera.
Ai au gozua! Ai au gozua!
Pazko eguna data
gloriosua.

III

Resuzitatu izan zan bis
Pazkua goizian;
Igo zan zeruetara
Asinzio egunian.
Ai au gozua (bis)
Pazko eguna data
gloriosua.

Beste kanta luzea auxe da; Gurutze Santuaren izenekoa.

I

Gurutze santuaren,
bai misteriaua,
ongi akusa bedi
jende umcrnua.

II

Kalian gora bera,
baiñan nere semia
soñian deramala
gurutze beria.

III

Ekatzu gurutze ori,
bai nere semia,
ez dizut bada emanen
Birjiña Maria.

IV

Emen pasa bear det
nik eriotzia,
eriotzearekin
pasio guzia.

V

Eriotziarekín
pasio luzia,
nerorrek salba bear det
bai mundu guzia.

VI

Goian tenpluan dago
Amandre Santa Ana,
Iru arrosa eder
eskuan dauzkana.

VII

Iru eskuan eta
bai zazpi buruan,
amabi krabelintxo
korona santuan.

VIII

Uso zuria ederra,
zeruan zer berri?
Zeruan berri onak J
orain eta beti. (

IX

Amaika milla aingeru
koruan kantatzen,
beste ainbeste ta geiago
musika ere jotzen.

X

Jesukristo zeruan
mezaren ematen,
San Pedro apostolua
mezaren laguntzen.

XI

Maria Santisima
Mezaren entzuten,
Maria Magdalena
Ari akonpañatzen.

XII

Kristo nork ikusi du
bai gorputz utsian,
rezuzitatu izan zan
Pazkua goizian.

XIII

Josepe, ikusi dezu
bai nere semia?
Ez det bada ikusi
Birjiña Maria.

XIV

Erramo urbil data
iñora ez ba leki,
oiek igertzen ba dira
ekarri beste bi.

XV


Ez da ez igartuko
zeruko gauzarik,
zeruko gauzarikan
Birjiñak emanik.

XVI

Aingerua, zer daukazu
zerutik gauzarik?
Oliba adartxo bi
Birjiñak emanik.

XVII

Kanta au akabatzen da.
Jendiak aditu,
obeki dakienak
aurrera segitu.



Azkuek erri ontan dauzka bilduta, Maria Aldasoro-ren bitartez "Zer esaten didazu Madalen" kanta zarra eta Juan Aldaz'eri "Pre-fazíoa", Baíta "Arantzu'ra ta kalea gora" ere.

Gerra aurretik ez omen zegoen txistularirik, orain gaztetxo batzuek ikasten ari dira.

Azken irulea bizi da oraindik, Jose Joakin Errazkin. Ba dituzte euskerazko itz berexi batzuek ere, adibidez: "furringera", "amurraia furríngeran dago", ur korrientean esan bearrean, ala diote.

Erria aldapa xamarrean daukate. Etxeak kale luze batean edatuak daude, Lizarraga'ko bidean. Atzetik Lezeiza ibaia dijoakie, jauzi ta kantari; ibai oneri Leziza deitzen diote bertan.

Arnaz eta Utzuar mendiak ditu gaiñeko aldean ta Beriain (Bergain bertakoentzat) danen gidari ta zaindari bere gaillur zorrotzarekin.

Emengo jendeak diru asko ekarri dute Gipuzkoa'tik. Lanik orain ez da falta. Ba dituzte bizpairu olategi ere. Lizarraga aldera laminazio olategia ogei langillentzat, Arin prefabrikatuak 25 langillekin; erri azpian, berriz, bustinerre olategia ta zerreriak. Baita olategi txikiak ere.

Etxe geienak arrizkoak, sendoak dira. Errikoetxe aurrean enparantza, frontoia eta bere iturriarekin dago; tellaíuan ba dauzka bur-nizko kanpaia ta burni lan lirañak. Errikoetxearen azpiko aldian dago etxerik zarrena, gotikoa, bere leio txikiekin, "Oyan ederra" ízeneko etxeko andrearen gaztelua.

Eliza sendoa, zabala, erriaren azpiko aldean degu. Sarrera gotikoa du. Baztarreko aldare batean ba dauka amazpigarren gizaldiko gurutzea oso ona. Erdiko erretaula amaseigarren gizaldikoa du; erdian Santa Ana eserita dauka oso liraña, eskubira San Pedro'ren irudi ederra. Ba daude, gaiñera, San Mígel polit bat, bi argibeso zillarrezkoak eta ibillialdietako gurutzea emezortzigarren gizaldikoa.

Alde bateko aldarean, goian San Blas gotikoa oso liraiña ikusi genuen. Bataio ponteak gotikoa, arrizkoa puxka batean egiña degu.


Erri ontakoa zan Migel Peruzurgin, Alsasu ta Urdiain'go erre-
taulen egillea.

Naparroa'k bere askatasuna galdu aurretik, 1415 urtean, Maria Fernandiz'en agintaritzapean bizi zan erri au. Etxekoandre onen izen goitia oso polita zan, Oyan eder. Bere ondorengo bezela, illoba utzi zuan, Gil Sarasa Beunza.

Napoleon'en gerratean sua eman zioten erri oneri.

Joan dan urtean, berriz, 1971'ren urriaren 23'an gabeen amabi etxe erre ziran.

Aipatu bearra degu erri ontako semea dan Felipe Araña apai-za, orain Argentina'n lanean dabillena, euskal idazlea degula. Maiz irakurtzen ditugu bere lanak Principe de Viana aldizkarian, baita Diario de Navarra'n ere. Bere erria ta euskera maite ditula barren-dik ezagutzen da. Naiz oso urruti bizi, beti euskera erabiltzen du. Bere jokabide jator au Naparroa'n ezin dute aztu...



IRUÑA'KO ERRESUMA

Moruak Espanian sartzen diran garaian, berriz, Iruña iria arkitzen degu bi etsaien aurka, bere askatasunaren alde borrokan. Ipar aldetik, Frankoen erri indartsua du ta egoaldean Afrika'tar gizase-me sartu berriak, jakiña, moruak.

Naiz iri txikia izan, ez du bere burua menderatzen uzten.. Ba du nortasun berexi bat, baita bere askatasunaren gogoia ere. Batzuen edo besten pean erortzen da, baina ez du etsitzen eta azke-nean bere buruaren jabe gelditzen da. Borroka ontatik eta daukan askatasunaren zaletasunatik, jaiotzen zaigu iri nagusi bat, IRUÑA. Bere askatasuna maite du ta lortu arte ez da pakean gelditzen. Bere nortasun berexia dauka ta naiz burruka ikaragarriak izan, eutsi egiten dio.

714'garren urtean, moruak indorrez artzen dute Iruña ta bertako gotzaia iges dijoa. Gotzairik gabe gelditzen dira gizaldi osoan. 732'garren urtean, Abderramon moruen aurrelaria, Frantzi'ko biotzaraño sartzera dijoanean, bere gudamutillentzat egon tokia beze-la Iruña izendatzen du. Bafñan Frankoak Poitier iri ondoan erasotzen dituzte Afrikatarak. Moruak xautuak daudela, berriz Iruñak bere askatasuna lortzen du.

Ukba moruen guda gizonak, osteria 775'garren urtean menderatzen du.

Tudela'ko moruen erregea ta Iruña, oso ondo alkartzen direla, Frankoen errege nagusia Karlomagno berbera 778'garren urtean Zaragoza'ra dijoala bereganatzen du Iruña ta bere aberrira itzul-

tzerakoan iriaren babesak, arretxeak xeetzen dizkio. Orreaga barena bere guda mutillekin sartzen dala, ikaragarrizko zigorra ematen diote euskaldunak, jakiña, naparrak. Iruñatarrekin naiko lana artu dula ikusten da, Akisgran bere iri nagusiko elizan jarri arazten duanean aldarean Iruña'ko arresiak Frankoak puskatzen dituztela ta Jainkoaren eskua babesa eskeñiaz.

Abderraman I, 781'garren urtean indarrez sartzen da Iruñan eta eskuratzen du 799'garren urte arte. Mutarrif guda gizona bertan iltzen dute Karlomagno Frankoen erregearen aldekoak. Iñigo Aritzak askatasuna ematen dio Iruñari 803'garren urtean, baina berriz Karlomagnon aldekoen menpera erortzen da 806'garrenean.

Ludobiko Frankoen erregeak, bere ordezkari bezela uzten du Iruñan Belasko jauna 812'garren urtean.

Moruak, Frankoen ordezkari Santxo il ta Belasko gallendu ondorean, Iñigo Aritzak Iruñako agintaritzat artzen du 816'garren urtean.

Euskaldunak, Naparrak jakiña, ta Tudela'ko moruak alkartuta, Frankoen guda mutillak xetu ondorean, 824 garren urtean, Eblo ta Aznar buruzagiak atzematen dituzte. Iruñako buruzagi bezela Iñigo Aritza dago.

834'garren urtean, Abderraman H'ak Iñigo Aritza Iruña ondoan erasotzen du ta indarrez sartzen da irian. 848'garren urte inguruan, berriz, Iruñako askatasuna lortzen du Iñigo Aritzak. Urte ortan, San Eulogiok Billesindo Iruñako gotzaiari idazten dio ta esaten, "Zu, zoriontsu bizi zera Iruñan, Jesukristo gurtzen duan zuzendari baten babesean".

Iruñako askatasunaren alde ainbat lan egin zuan buruzagi Iñigo Aritza 852'garren urtean il zan.

Europa Iparraldeko itsasoko lapurrak, 859'garren urtean Imñan sartzen dira ta lapurtzen nai aiña. Garzia Jimeno, Iñigo Aritzaren semea eraso ondorean, atzematen dute.

865'garren urtean, moruak dira oraingoan Iruñan sartzen diranak eta Fortun Garzia Iñigez'en semea atzematen dute. Diru saria arturik, utzi zuten iria. Berriz, 872'garren urtean menderatzen dute Iruña ta zerga jartzen len bezela.



882'garren urtean iltzen da Garzia Iñigez erregea ta Fortun Santez bere semeak jasotzen du agintaritza. Gizajo au, Itsaslapurrak ta moruak, biek menderatu zuten. Azkenean, Leireko lekaide etxean igaro zituan gelditzen zitzaizkion egunak.

Fortun Leire'ra dihoanean lekaide bezela, zerbait oso garrantzi aundiko gauza gertatzen da Iruñan 905'garren urtean; beste buruzagi bat agertzen zaigu errege bezela, Santxo Garzes I. Onek, Iruñako erregetza artu ezkeru, moruei lurralde ugari kentzen di.zkie. Deio'ko gaztelua, Lizarra egoaldean Jurramendi ondoan dagona artzen dula, Ebro ibaiaren bidea irikitzen du. Deio artu ondorean, Iruñako ta Deio'ko erregea deritza.


924'garren urtean, Abderraman IH'ak, Gesolaz'en, Iruñako ta Leon'go erregekñ borroka egin ondorean zapaldu zituan ta Iruñan sartu zan. Eliza nagusia ta etxeak xetu ondorean ondatua utzi zuan. Bainan aguro altxa zan Iruñako erregea ta azkar indartu ere.

Amargarren gizaldian, Iruña zarrean, Fernan Gonzalez eta bere semeak giltzapetuta euki zituzten. Ementxen ikusten da nolako garrantzia zeukan garai artan.

Burruka aundiko bi gizaldi auetan, nabaitzen deguna da, iri onek bere burua menderatzen ez dula uzten ain errex. Bere nortasunari eusten dio. Pixkanaka etsai guzien aurka borrokan jarraitzen dula, bertan, erresuma bat jaiotzen da, Iruñako erresuma. Jakin bearra degu Naparroko erresuma aurretik, lendabizi, Iruñako erresuma jaio zala. 987'garren urtean, lenengo aldiz, Santxo Abar-kak izendatu zuan bere burua, Naparroko erregea.

Iruñak Naparroko sustraia ta muña izatea, ezin dezakegu esan, nolanai lortu dula, asko nekatuta baizik. Bi gizaldi luze oietan, bisigoduak, moroak, frankoak, itxaslapurrak dirala, amabi aldiz Iruñako jabetasuna bereganatu dute. Bainan iri azkar onek ez du etsitzen. Aldiro, al duan bezela, lokarri guztiak askatzen ditu.

Gaiñera iri ontan, borroka luze ortan sortzen da, berez gouza arrigarri bat, Iruñako Erresuma, ta orrekin Naparroko nortasunaren lenengo urratsa. Orregatik, bi gizaldi auek naiz oso illunak izan, oso garrantzi aundikoak dira Iruña ta Naparroarentzat.



IRUÑA. NAPARRO'KO BURUA

Toki berexia dalako, aspalditik gizona bizi zan bertan, eta diru-aleak ere egiten zituzten, gainean "Bascunes" izena idatzita; mendi zelaia da ta, ibaiak ondo babesten ditu ipar aldeko inguruak; ego aldetik, berriz, malkorra ta sakona da.

Ponpeío, erromatarren lendakaria, Sertorio'ri Oska'n, 75'garren urtean (Kristo'n aurretik) zigorra ematerakoan, onera dator. Ondo babestua dagolako ta gaiñera agirian, toki au aukeratzen du, bere guda mutillak lasai egoteko ta inguruetako bazterrak ondo zain-tzeko.

Toki egokia izaki, mendi ta Ebro bitartea begipean eukitzeko, baita Aragoi zelaia ta itsaso bide erdia ere.

"Castra Pampelonensis" izeneko erromatarren iri au asko in-


dartu zan ta orduko errege-bide nagusi ederrenatakoak bertaraiño sartzen zitzaizkion, bcr Tarragona'tik Oiason'eraño dijocna ta bes-tea Burdeos'tik Astorga'raño. Erromatarren iriaren aztamak billatu zituan aspaldi Nikasio Landa sendagille argia ta euskalzale jatorrak; kctpitolioa katedralaren ondoan, garbitokia kuria kalean ta Diana'ren elizatzoa San Zernin inguruan.

Bertan bizi ziran erromatarrak eta euskaldunak; batzuek goimallako bizi bidean, besteak lurrakin artu-eman aundiak zituztela.

Erromatarrekin, Iruña iria indartsua ta ederra dala, bostgarren gizaldiaren asieran, egoaldera Europa'ko ipar aldetik, erri basati batzuek datoz, bazterrak erasotzen eta ondatzen. Erromatarren lurraldeak bereganatzen dituzte ta iriak xeetzen era bat. Iruña irian ere sartzen dira 468'garren urtean, Euriko kontea buru dutela. Gerotik Iruñatarrak agertzen zaizkigu Espani'an agintzen duten godotarren nagusiekin borrokan. Godotar errege asko ibilli ziran Iruñatctrak menperatu naictn, adibidez Txilderiko, Klotario, Leobigildo ta Banba. Errege auen edeslari askok esaten digute gauza aundi bat bezela, "Euskaldunak menperatu zituztela". Orrekin esan nai digute menperatzen zaillak zirala.

Bisigodoak, Toledo'ko eliz batzar nagusiaren bidez beren erre-suma zuzentzen dute ta Iruña menderatua zeukatenean, bertako gotzaia ere biltzen zan, gaiñerakoan ez. Toledo'n iru aldiz bakarrik agertzen zaizkigu Iruña'ko elizaren agintariak; 589'garren urtean Liliolo gotzaia, Rekaredok agintzen dula; Atilano gotzaiaren ordezt Binkomalo 681'garren urtean, amairugarren batzarran, Erbiñok agintzen dula,- ta berriz Binkomalo, Marziano gotzaiaren ordezt, 688'garren urtean, amaseigarren batzarran, Egika erregearen garaietan. Ikusten degunez, Iruñatarrak oso gogor egin zieten Bisigodoei. EiTodrigo, azken erregea, moruak Espani'an sartu aurretik, 711 urtean, apirillaren 28'n, iri au indarrez artu naian zebillen. Iruña alderdia utzita moruekin borrokan ilko da Guadalete'n. Ordutik Espaiña moruak eskuratzen dute.

Bisigotiko garaiko aztarna asko orain dala gutxi zezenplaza berriaren ondoan billatu dituzte.



Morua*k* Iruña'rekin euki zuan borroka aldiataz naikoa esan degu.

Iruña etxe ondoko buruzagiak eta bertako lenengo erregeak altxatzen dute berriro. Abderraman IH'ak desegintzen du ostera ta Santxo Aundiak 1032'garren urtean jasotzen du eliza nagusia ta ekartzen gotzaia Leire'tik. Lizarra Inguruetako lurraldetik ekortzen ditu bizitzera gizasemeak. Iruña'n altxatzen duten auzo berriari, Napar erri izena ematen diote. Santiago'runtz dijoan bidea Iruña barrena zuzentzen du erregeak eta laguntza aundiak ematen dizkio gotzaiari.

Iri erromanikoa, esan dezakegu, Napparoko etxe garaiko erregeak altxatzen ta sortzen dutela. Garai ontan asten dira egiten Eliza nagusi berria erromanikoa. Pedro Roda'ko gotzaiak dirua biltzen du, artistak billa asten da eta 1107'garren urtean ematen dio asiera. 1114'garrenean erregeari laguntza eskatzen diote ta 1127

urtean Alíonso Burrukalariaren aurrean sagaratzen. Arrizko ibiltokia bere estalkiarekin 1142'garren urtean bukatzen dute. Estebe artilaririk irakasle ospetsua emen ibilli zan lanean; Konpostela'n ibilitako argiña bera degu.

Erromaniko garaian gauza bat dago garbi ta agiri an. Iruña Iriak naiz erregearen itzala euki, gotazien agintaritzapean bizi dala. Santxo Ramirez'ek 1087'garren urtean lotzen du Iruña iria gotzaia-kin eta kalonjeak batutzen ditu alkarrekin bizitzeko San Agustin'en araupean. Pedro Roda'ko gotzaiaaren garaian datoz frantzesak Iruña'ra bizitzera.

San Zernin auzoa Alfoso burrukalariak laguntzen dulako, gotzaiak San Nikolas'ena sortzen du.

Santxo Jakintsuak gotzaiaaren agintaritzapean jartzen ditu judutarrak eta berak altxatzen du ibai gainean eliza nagusiaren urrean egi batean erregearen jauregia. Aspalditik, erregea Iruña'ra datorrenean gotzaiaaren etxera biltzen da. Santxo Azkarrak ematen dio berriz gotzaiari bere jauregia diruaren truke. Enrike III (1270-1274) gotzaiaaren jauregian iltzen zaigu.


Auzo guztientako agintariak gotzaiak izendatzen ditu.

Xetasun askoren bitartez, ikusten degu Iruña iria gotzaiarekin lotua. Noiztik dator gotzaiaaren itzal aundi au? Izan leike Iruña'ko erresumaren aurretik. Iduritzen zaigu, Iruña iria Erromatarren ondorean, gotzaiaaren inguruan bilduko zala ta berak egingo zula giza elkartearen batasuna. Iruña'n gotzaiak zeuzkan eskubideak zerbait esan nai dute.

Amabigarren gizaldian jaiotzen da San Zernin eliza inguruan beste auzo bat. Alfonso Burrukalariak ematen dizkio 1129'garren urtean askatasuna ta Jaka'k zituan lege berexiak. Asieran frantzesak bizi ziran bakarrik.

Auntzaxeago, gaur San Nikolas eliza dagoen tokian sortzen da beste auzo bat izen ori bera daramakina. Emen eskulangilleak ta saltzalleak bizi dira, naparrak ta frantzesak alkarrekin. Auzo au bere buruaren nagusitzarekin agertzen zaigu ta bere lege bere-iekien.

Iri ontako auzo auetan, amairugarren gizaldian ikaragarritzko



borroka berr asten da. Naparerria zabaltzera dijoa. San Zernin'goak ez dute ori ondo ikusten. Enrike I iltzen danean, San Zernintarrak Frantziko erregearen aldekoak agertzen dira. Naparrak, berriz, ez dute nai errege berdiña, Kastilla'koa baizik. Frantzesak Artoiz'ko kontea buruzagi dutela Iruña indarrez artzen dute ta desegiten iria 1277'garren urtean. Iria altxatzeko baimena, 47 urte geroago ernaten du erregeak. 1366'garren urtean, 968 sendi zeuden Iruña'ko auzo guztietan; 166 Naparrerian, San Zernin'en 452 eta San Nikolas'en 350.

Evreux etxe garaiko Naparroko erregeak egin zuten Iruña gotikoa. 1312 urtean, Arnaut Barbazan'go gotzai jauna asi zan eliza nagusia berritzen eta bere izeneko elizatxoia egiten.

Amairugarren gizaldian asita daude Iruña'ko eliza nagusian sagaratuak Naparro'ko erregeak.

1390'garren urtean erortzen da era bat eliza erromanikoa ta

Karlos III erregea, berria egiten asten da; amaseigarren gizaldian bukatuko dute. Naparro'ko zortzi errege daude eliza ontan obiratuak.

Karlos III erregeak altxa zuan guda gaztelu berri bat bere enparantzarekin, gaur oraindik izena gorde duna, naiz aspaldi ondaturatuak.

Garai ontan, Karlos III erregeak 1423'garren urtean alkatu zituan iri batean Iruña'ko auzo danak.

Geroxeago, Zuri izeneko Naparro'ko erregeiak, erregearen jauregia bereganatu zuan azkenik, 1427 garren urtean.

1492'garren urtean argitaratzen dute Iruña'n Naparro'ko lenengo liburua; Esteban Maspharranthak egiña, Arnaldo Guillermo Brokaron moldiztegia, "Regulae" izenekoa.

Ikastetxe bat jartzeko, erregeak Sinagoga ematen dio Erriko Etxeari, 1499 garren urtean.

Amabostgarren gizaldian, Agramonte ta Beamonte taldeen artean burruka aundia sortzen da Naparroan. Iruña'n ere izan zituzten beren eztabaidak. Kastillako erregea sua gero ta geiago astintzen ibiltzen zan ta azkenean Naparrak erdibitu ziran era bat beren askatasuna galdu arte.

1512'garren urtean uztaillaren 22'an, Alba'ko Dukea indarrez sartzen da Kastilla'ko erregearen izenean eta Naparro'koa iges dioa. Beren ordezkaria jartzen dute gaur arte.

Naparroak, bere askatasuna galtzearekin, Iruñak Europa'ko nazio artean zeukan garrantzia ta indarra betiko galtzen du.

Austria etxe garaiko, España'ko erregeak Kastilla'ko kutsua ematen diote Imña'ri. Karlos V'ak berriz egiten du gaur Diputazioa dagoen tokian zegoan gaztelua. Or zauritzen dute 1521'garren urtean Loiola'ko Iñigo, Naparro'ko erregearen aldekoak. Karlos V 1542'garren urtean dator ta arreseak indartzeko ta ondoan zeuden etxeak botatzeko agintzen du.

Felipe H'k altxatzen du 1571'garren urtean gaur oraindik zutik dagoen "Ciudadela" edo Gaztelu berria, Anberes Flandes iriaren antzekoa. Lanak Jakobo Paleazo'n eskuetan uzten ditu. Errege onek

ikusi zuan Iruña Españiko atea zala ta Frantzi'ko sarrefa au ondo babestako, ikaragarritzko gaztelu zabala altxa zuan.

1568'garren urtean Adrian Anvers'ko liburu egille ospetsua Iruña'ra dator lanera, baíta 1583 urtean Pedro Borgoña'koa ere. Antxieta artilaria gipuzkoar ospetsua garai ontan Iruña'n ari da lanean; eliza nagusian obiratua dago.

Amaseigarren gizaldiaren bukaeran, jesuslagunak ikastetxe bat irikitzen dute. Aita ospetsu asko bizitu dira etxe ontan: Aleson. Katalayud, Isla, Moret eta abar.

1621'garren urtean ikastetxe nagusi bat egiten dute Dominiko-tarrak beren eliza ondoan, Teologia ta artea ikasteko; 1775 urte arte irauten du. Amazazpigarren gizaldian jaiotzen zaigu Iruña'n Aita Moret (1615-1682); Naparro'ko edestirik onena idazten du. Beste Iruñ seme ospetsua, Tiburzio Redin degu. Guda-gizona bitarte luzean izandakoa (1614-1638), gero kaputxinoa egin ondorean Ameriketan Berri Ona zabaltzen ibilli zan.

Emezortzigarren gizaldian altxatzen dute Erriko Etxe berria, 1760'garren urtean. Gaur oraíndík ikusten degun etxe aurea, ordukoa da.

Abe aundiko aterpeakin ta bi dorrekin apaintzen diote Eliza Nagusiari atari aurea; Bentura Rodrigez'en lana degu, 1783 urtean egiña.

Gizaldi auetakook dira jauregi eder batzuek; Ezpeleta ta Gendulain eta abar. Iturri eder batzuekin apaintzen dute iria ta argia kaletan jartzen.

Orduan ugaritzen dira seda ta ardille saltzalleak ere.

Gizaldi onen asieran, 1706 urtean datokie agurtzera Felipe V, Españiko erregea.

Gages'ko kondea, erregearen ordezkaria, asko elegindu zan Iruña apaintze arren; bide berriak ere egin zituan, batez ere Taía-lla'tik zetorrena. Bere illobi ederra eliza nagusian dauka.

Gizaldi ontakoa degu Irun seme ospetsuna, Jose Ezpeleta, Mexiko'n eta Naporroa'n erregearen ordezkaria izana.

1808 urtetik 1813'garrena arte, Napoleon'en gudariak, Iruña bereganatzen dute zakurkeriz.

1829-1839 bitarte ortan sendagintza ikasteko aukera ematen diete, Imña'ko gaxotegian.

Karlisten gerratean (1833-1839), Iruñcarrak fuero zaleak dira ta karlisten aldekoak. Zumalakarregi, Imña'n dagola dijoa iges ta karlisten bum jartzen zaigu. Iruña eskuratzea ez dute lortzen. Karlistak gerra galdu ondorean, Imñak daukan garrcmtzi pixka ura kentzen diote.

Liberalismoak, emeretzigarren gizaldian, Naparroa Espaiñiko probintzi batean aldatzen dute ta Iruña probintziaren iri buruan. Erregearen ordezkaria kentzen diote ta onen ordezkari Komante Generala jartzen, gero, berriz, Gobemadoreak.

Erresuma berexiko nortasuna, 1841 urtean abuztuaren 16'an galtzen du Naparroak probintzi batean biurtzeko, ta Iruña bere iri buruan bakarrik. Korteak ere kentzen dizkiote. Oiek danakin indar aundia ta bere garrantzi berexia galtzen du Imña'k eta alargunduta bezela gelditzen da. Azkeneko Korteak, Eliz nagusiko "ederra" gelan biltzen dira.

Ain aulduta agertzen zaigu Naparroa eta erremindata gelditzen da.

1846'garren urtean amabost milla bizi lagun ditu ta Gazteluan im milla guda mutil daude.

Gizaldi ontakoak dira Angel Sagaseta ta Joakin Inazio Menkos, Imñseme ospetsuak eta Napar ziñezkoak, Fueroen alde eten gabe lana egin zutenak. Gizaldi ontan ere eresi zaletasuna zabaltzen da Imña'n; gaiñera ereslari oso onak sortzen dira Naparroan. Errenkan jarriko ditugu izenak, Eslaba, Arrieta, Gaztanbide, Iñigez, Zabalza, Sarasate ta Gaiarre. Auei erantsi bear zaizkie, Laserna, Gorriti, Gelbenzu, Mariano Garzia eta abar. Danetan ospetsuana Pablo Sarasate degu, Imñsemea biolin jotzallea, 1908 urtean illa. Gizaldi ontan eresi ona toki askotan entzuten da, batez ere Kanpionen etxean (1843) eta Gendulainen jauregian. Aipatu bearra degu nola Iruña'ko abesbatza 1892 urtean sortu zan; Remigio Mugika zuzendari zula.

1860 urtean, lenengo aldiz burni bidea Imña'n sartzen dala.

Diputazio'ko etxe berria gaur oraindik zutik ikusten deguna 1877 urtean altxatzen dute.

Felipe H'ak egindako gazteluak galtzen du garrantzia ta espe-txe gogor batean biurtzen da. Takonera gaineko lorategía ordun-txe egiten dute, arrese gaineko aldean.


Madrid'ko ministro Gamazo'n asmo okerren aurka, Naparro'ko erri osoa biltzen da Iruña'n 1893 urtean, ekainaren 4'n, bere nor-tasun berexia azalduaz. Iruñseme talde jator bat ere ikusiko degu euskeraren alde ta Napar zaletasunagatik irrikatzen. Ez dira az-tutzekoak.

1910'garren urtecm, Iruñak, 31.000 bizi lagun ditu.

1915'garren urtean, uztaillaren 25'n, xeetzen dituzte arrese za-rarak, íri berriarí etorkízun ederragoa emate arren.

Eskubitarak, Gazteluko enparantzan Iruña'n biltzen direla, 1936 urtean uztaillaren 18'n iraultzari Iruña'n ematen diote asiera.

Gaur, berriz, aldaketa crundiak nabaitzen ditugu ta íruña berri bat sortzen ari zaigu.



IRUÑA GAUR, IRI NAGUSIA

Orain dala ogei urte, Iruñak berrogei ta amar milla bizilagun zituan, gaur berriz 147.168 ditu. Gure iri au alderdi guztietatik lertzen dijoakigu. Len, bere inguruan auzo txiki batzuek zituan, orain erri aundiak biurtzen ari zaizkigunak; Arrotxapea, San Pedro, Txantrea, Madalena ipar aldetik ta sartaldera San Jorge, San Juan, Ermitagaña, egoaldera berriz Etxabakoitz, Sario ta abar. Auzo aundi auek beren nortasunaren billa dabiltz, alkarteak sortzen ta ekin tzak betetzen ari zaizkigu.

Gaurko Iruña'n berexitasun bot daukate; giza aldetik azitze onek esan nai du industri aundi bat sortzen ari dala. Len oso gutxi zegoen, gaur berriz indar aundiagoa du.

Iruña'ri egitazko sillua Diputazioak ematen dio. Diputazioak bere etxea iri erdian dauka ta Naparro osoan agintzen du. Eskubide sakonak ta indar aundiak dauzka. Dirua berak jaso ta ibiltzen du ta ez España'ko estaduak. Naparroa'ko bideak Diputazioaren gain daude. Eskolen erakundeak ta maixuak aukeratzea Diputazioaren babesean egiten dituzte. Olaberriak jarri nai izan ezker, ez dago Madrid'era joan bearrik. Diputazioak erabakitzen ditu Iruña'n Naparro'ko buruaustek, baita gai asko zuzendu ere. Orregatik Naparro osoak Iruña'ri begiratzen dio ta zernai bear dutela onera itzuli bear.

Diputazioko agintaritza zazpi ordezkari osotzen dute. Naparroa bost talde edo merindadetan zatitua dago. Zati oietatik bakoitxatik ordezkari bat dator Diputaziora, Iruña'tik berriz bi.

Gizon oien eskuetan dago antziñako Naparroa'ren izen aundia ta gaurko agintaritza.

Gaiñera gai batzuentzat ba daukate konseju bat aolkoa emateko, gauza zaillak obeto zuzendu nai diranean.

Naparro'ko etorkizunari buruz Diputazioa 1964 urtean asi zan Industriaren erakunde berexia egiten. 28.200 lantoki eratu zituan ta oiategi berriei errestasunak eman zien Naparro'ra etortzeko. Danetara 292 olaberri sortu ziran zazpi urte oietan.

Orain datoztean iru urtetan, beste 17.500 lantoki berri eratu nai dituzte. Egitarau edo programa onekin ikusten deguna da, Naparroa argi dabillela; olategiak, errege bideak, egazkin tokiak, ikastetxeak eta eskolak, urrutizkiña eta abar, gero ta geiago ugaritzen dijoaz.

Erakunde ontan Iruña ez dago lo. Lenengo urratsak ematen ari dira, iriaren egoaldera, 90.000 biztanlentzat, auzo berriak egiteko.

Iruña'ko Diputazioaren etxean Naparro osoko semeak lana egiten dute. Baillara ta erri guztietakoak Iruña'n biltzen direla, beren etxean ba lira bezela alkartzen dira. Beren errietan nagusi daudela agertzen zaizkigu berriz. Diputazioak egiten du Iruña'n Naparro'ko batasuna. Napar senaren galbaia Iruña degu.

Gaiñera Diputazioak Iruña'n Naparro'ko kulturari, egitura bat eta lenengo oñarriak eman dizkio.

Gerra aurretik aipatzen ditugu beste atal batean Iturraldek egindako lanak; euskalzale jator au asi zitzaigun Naparro'ko edergalluei balioa ematen. Gure anai arteko gerra ondorean, 1940'garren urtean Diputazioko buru Rodezno'ko kondea zegoen ta orduan sortu zuan Principe de Viana kultura ekintza. Urte ortan bertan atera zan izen orren aldizkariaren lenengo zenbakia. Principe de Viana autapen orren bidez, lana ugari egin da Naparro'ko kulturaren alde. Ia asieratik orain arte buru bezela J. E. Uranga dago.

Geroztik edergallu ugari berritu dituzte; Noain, Eunete, Leire, Ironzu, Muskaria'ko eliza nagusia, Aralar'ko San Migel, Iruña'ko katedrala, Olite, Artajona, Fitero eta abar.

Liburu ederrak ere argitaratzen ari dira.

Kultura ekintza onek ba ditu iru saila; eresia, leizezaletasuna ta euskera. Eresi taldei ere asko laguntzen die.

Ogeitazazpi milloi dituzte saritan ordaintzeko.

Gaiñera bere babesean dago Museoa, arrigarria, ederra ta oso ondo antolatua.

1956 urtean eraberritu zuten gaxotegi etxe zarrean. Europa'n gutxitan bezela antolatua dago; Mezkiriz andrearen lana da. Gauza ederraskoak gordetzen dira etxe ortan, ikusgarriak diranak. Batez ere ezin dira ikusi gabe utzi; Kortes'ko erromatarren aztamak, Muskaria'ko mosaikoa, Leire'ko marfilezko kutxatilla 1005'garren urteko moruen lana, Iruña'ko erromaniko katedralaren ibiltokiko amabost abeburu eta San Adriango markesaren margoa Goyak egiña. Elizan daukate Burleta (Burlada)'ko erretaula nagusia izan leiken gauzik ederrenetako bat, Esteban Obraik egiña; baita katedralako eseri leku batzuek artilar berdiñak egiñak ere.

Aipatu bear ditugu, nola ez, Diputazioko artxiboak. Ba dituzte gauza batzuek munduan ederrenetakoak diranak. Idazkirik zarrena amargarren gizaldikoa daukate. Bitxi bikaiñenak berriz; Inglaterra'ko erregen sagaratzeko liburua, amalaugarren gizaldikoa ta Iruñako errigizonak zin egiteko liburua.

Ba dago idazkolako liburu zarrenetakoetik sail bat ere. Ondo gordeta dauzkate idazki guzti auk.

Gaiñera Diputazioak asko lagundu dio, Iruña'ko Ikastetxe Nagusi Berriari.

Diru etxe zarra ta museoa utzi zien asieratik. Gero Sadar ibai ondora joan ziran etxe berria altxatzera. Ba dabiltz gaur 5.930 ikasle, oietatik 2.237 naparrak.

1952 urtean sortu zuten lenengo azia. 1960 urtean jaio zan egitazko ikastetxe nagusia, zati askokin; legea, sendagintza, filosofia, elizako' legea, osakintza, teologia, ingenieria, etxegintza, olategi zuzenketa, egunkarintza, eziketa, liburutegintza, A. T. S. eta abar.

686 erakasle dituzte lanean; ze aberastasuna dan ori iri batenzat; oietatik asko oso ospetsuak diranak. Naparro'ko gaierei buruz ere jakintza berexia eratzen ari zaigu; Martin Luke erakasleak amalaugarren gizaldia sakontzen dabil, Markos Pous Naparro'ko arkeologia, Maria Luisa Lopez Naparro'ko loreak.

Osagintzako taldeak, berriz, Erriberako igaliak ta konserbak nai ditu zaindu ta eraberritu.

Sorio erreka ondoan, altxa dute 1969 urtean Ingeniero Teknikoen ikastexe berria; 1972 urtean 428 gazte zeuden ikasten. Aurten aterako dira lenengo 43 ingeniero berriak.

Erakaskintza aldetik Iruña'n ba daude erdimailako bi ikastetxe Estaduenak (lau Naparroan), ta emezortzi elizarenak (33 Naparroan).

Gaiñera beste iru ikastetxe teknikoak (amaika Naparroan).

Ezin ditugu aztu izparringiak; iru ateratzen dira egunero Iruña'n, bí naparrak ("Diario de Navarra", berrogei milla ale egunero ta "Pensamiento Navarro" amar milla ale egunero), bat Estaduarena da, Arriba izenekoa.

Ba doude iru irrati (Errekete, Naparro'ko otsa ta Erri irratia).

Iruña'n ba dauzkate, Orkesta ta abesbatza ospetsua "Orfeon Pamplones" izenekoa. Urtero Diputazioaren laguntzarekin eresaldi ederrak ematen dituzte. Jabier Bello Portu zuzendariak, urtean bi aldiz, Aste Santuan ta Azaroan eresialdí egokíak eta mailla aundi-koak zuzendu nai lituzke.

Ba ditugu izen oundiko alkarteak ere, Iruña'ren alde asko esaten dutenak. ANAN alkarte 1969 urtean sortua ta 1970' garrenean lanean asia. Naparro'ko izadia zaindu nai luke, sakondu ta ezagutuerazi. Ontza bat daukate alkartearen agiria bezela, irian nunai agiri dagona. Orain 260 kide ditu ta egazti arrapatzaillentzat jantokiak ipiñi dítuzte. Ogeitalau egazti arrapatzaílle motak, Europa'n ditezken ederrenetakoak zaindu nai dituzte Naparroa'n. Izadi aldetik Naparroak dauzkan aberastasunak ere ondo babestu nai lituzkete.

Iri aundi guztietan bezela, ba daude jolasteko edo lasaitzeko alkarteak. Gauza berexia iduritzen zaigu jakitea alkarfe oietako amabost batu dirala jolasetxe ta toki egokiak egiteko. Amaia ize-na eman diote ekintza berexi oneri. 1965 sortu zan ta gaur 7.300 kide ditu. Ba dituzte toki ugari igeri, ostikoketan, esku baloientzat, pelotan eta abarretan ibiltzeko.


Alkarte ontan ez da sartu indar aundia daukana, Anaitasuna

alkartea, ezta Oberena ere danetan zarrena bere frontoi, dantzari ta txistulari taldeak eta abar dituna.

Katedralak, Diputazioak, Ikastetxe Nagusiak eta eresí zaletasunak, Alemania'ko iri aundi ta eder askoren antza ta kutsua ematen diote Iruña'ri.

Lenagoko aberastasunak gaurkoekin egiten dute Iruña iria egokia. Iruña'iriaren nortasunari, bere agintaritzaren eskubideak ematen diote buruaren jabetasuna. Orregatik esan dezakegu, Iruña Naparro'ko buru bezela, Iri Nagusia dala, Iri Estadua. Ortaz iruñatarrak ondo konturatu dira.





IRUÑA IRIAREN EDERTASUNA

Ikusmira zabalako tokian dago Iruña'ko iri nagusia. Egi eder baten gaiñean arkitzen degu iri zarra, aurrean alderdi danetan sakona dauka ta inguruetan galdu arte mendiak itsaso arrotuaren antzera desberdiñak, zutik daudenak, nortasun aundikoak.

Eguzkiak berotzen dula, egun ederrakin, Victor Hugo'k dio, Iruña'ko iriak Oriental kutsua, sortalde lurraldeko irien antzekoa artzen dula. Argiak bizitasuna ta indarra ematen bai dio.

Egun onarekin orientala ba da, euria, kazkabar ta elurrarekin euskalduna biurtzen zaigu.

Toki erosoan degu ta alaitasuna bat dauka, bestetan arkitzen zalla dana.

Iria bezela, ederra degu; kaleak luzeak, zabalak ta garbiak ditu. Enparantza ta zumardi batzuek ederrenetakoak dauzka, lorategiak ezin obeak eta Arga ibai ondoa zoragarria. Ez da iri itxi bat, oso irikia baizik. Ura ere nunai azaltzen da.

Gauza eder asko ere ba ditu ikusi gabe ezin utzi diranak.

Iria iristerakoan, Arga ibaia gaiñetik zubi zar batzuek egeritzen zaizkigu; San Pedro Ribas'koa erromanikoa, Madalena erro-meslariena ta Miluze garai berdiñekoak.

Lendabiziko gauza ikusten dana, Iruña ondora urbildu ezker, arresiak dira. Urrutitik agertzen zaigula Iruña, ormaz inguratua azaltzen da, gaur ipar aldetik bakarrik eta orretzek ematen dio iriari indarra. Arrese gaiñeko aldean Eliza nagusia daukagu gotikoa, Naparro'ko etxerik bikaiñena, arri landuz egiña.

Au degu Iruña'ko bitxirik ederrena. Santa Maria izena darاما. Izen onen irudiak nunai ikusten ditugu ugari ta ederrak. Iruña'k Dona Maria'ren iria dala ematen du. Irudi oiek ez dira nolanaikoak, oso lirañak baizik; Ekintza Onen Ama, Babesaren Ama ta Sagrario'koa Eliza Nagusian, "O"n Andra Maria gotikoa Santo Andian, Bideko Ama San Zernin'en, Ibaiaren Ama amabigarren gizaldikoa Redin lekaime etxe berrian, Zoragarritzko Ama 17'garren gizaldikoa Errekoletosetan.

Eliza nagusiak ba ditu erromaniko aztarna batzuek. Eliza buruko aldare nagusian Amabirjiñaren irudi gotikoa dago zillarezko jantziakin apainduta. Azpian lauki bat ikusi degu gotikoa, Jesus gurutzean agertzen duna, oso ederra, baña bear bezela ezagutua ez dana. Barbazan elizatxoa amalaugarren gizaldiaren asierakoa ta eliza ia geiena amabostgarren gizaldikoa. Ibillialditako aterpe zoragarria du, Europa'n onenetakoa. Aterpe onen inguman daude bizpauru gauza arrigarri; Barbazanen elizatxo zoragarria, "ate ederra" izenekoa, kalonjen jan gela zabala ta argitasun aundikoa, sapaia arri zain bikaiñekin egiña ta sukaldea ezagutzen dan zarrenetako bat.

Eliza onek ba ditu garai berdiñeko arrizko irudiak, ate gaiñean estalkipean eta beste batzuek barrenean. Irudi oietan Amabirjiña agertzen zaigu geienetan, arpegi ta gorputz lirañakin.

Elizaren erdian dago Naparro'ko errege ta bere emaztearen illobia; Karlos III ta Eleonor bere emaztearena. Berak altxa bai zuan eliza au. Illobietan izan leiken ederrenetakoa degu, Brujas eta Dijon'en maillekoa, Jean Lomme Tournais'koak egiña. Baztarretako aldaretan ba dauzkagu erretaula batzuek zoragarriak. Danetan ederrrena, Kaparroso'n Santo Tomas'ena, ola margoztuekin, Diaz Obiedo'koak egiña. Ba dago beste bat Kaparroso'n Gurutzearen izenekoa; gurutzea nere iritziz erretoula bainan zarragoa da, gotikoa amalaugarren gizaldikoa, margoak berriz amabostgarrenenak. Itoitz erriko aldarea onera ekarria, San Juan'ena, margozkoa, arrigarria da. Gurutze eder bat ere ba dago Bazkardo'rena.

Kalonjen eseri lekua, amaseigarren gizaldiaren asierakoa, zillar antzera landutakoa, izan leiken ederrenetakoa da, Esteban

Obray'ek egiña; bere tokitik aidatu zutenean puxka asko galdu ziran.

Gaur kalonjen antziñako jantokian, museo edo agerketa bat antolatu dute. Ikusteko jarriak ba dauzkate gauza batzuek oso onak. Gaiñera, Santuen errelikiak eukitzeko zillarrezko kutxatillak, bizpairu; San Luisek Naparroa'ko erregeari emanak dira. Baita erretaula bat amabostgarren gizaldikoa ere zoratzeo aiñekca, Bor-goña'ko artearen kutsukoa. Ta gero erri txiki askotik bildu dituzten Amabirjíña erromanikoak, baita gotikoak ere. Ba dago bat zutik luzea ta mea, Suezia'n daudenen antzekoa.

Eliza nagusi oneri sarrera emezortzigarren gizaldian ipiñi diote besteakin batean egoki ez dijoana.

Eliza onen inguruan, atzeko aldean, ba daude kale baztar batzuek oso politak eta garbiak; arrese gaiñean amabostgarren gizaldiko etxe bat ipiñi dute, "zaldi zuri" izenekoa, ondoan bere arrizko bidegurutzearekin.

San Nikolas eliza, gaztelu antzeko dorrearekin, erromaniko-gotiko' bitartekoa degu. Ba dago zurazko San Pedro'ren irudi gotiko bat ere oso liraña.

San Saturdi eliza, berriz, gotikoa degu, amalaugarren gizaldikoa, oso zabala ta goitsua. Eliza sarrera ta aterpea, irudiz apaindua, bikaiña da. Barrenean arrian egiña San Jorge bat doukate oso ona. Dorreak itxura oundia ematen diote eliza oneri.

Diruetxe zarra, Ansoleaga kalean, gotikoa da amalaugarren gizaldikoa; ba du bere ibiltokia ere.

Iruña'ko gaxotegi zarraren elizak sarrera platereskoa dauka, armarri aundia ageri dula, amaseigarren gizaldikoa. Gizaldi berdiñekoak dira gaztelu berria "La Ciudadela" izenekoa ízar baten antzekoa bere bost alderdiekin, baita orretxen sarrerak ere.

Ba dago gizaldi berdiñekoa, beste aldare eder bat, Bidart'ena, eliza nagusian zegona ta orain San Migel eliza berrira eraman dutena.

Errekoleten lekaime etxeak oso neurri egokiak ditu, amazpigarren gizaldikoa da ta gaiñera enparantza polita dauka aurrean.

San Lorenzo emezortzigarren gizaldikoa degu. Emen gordetzen

Obray'ek egiña; bere tokitik aldatu zutenean puxka asko galdu ziran.

Gaur kalonjen antziñako jantokian, museo edo agerketa bat antolatu dute. Ikusteko jarriak ba dauzkate gauza batzuek oso onak. Gaiñera, Santuen errelikiak eukitzeko zillarrezko kutxatillak, bizpairu; San Luisek Naparroa'ko erregeari emanak dira. Baita erretaula bat amabostgarren gizaldikoa ere zoratzeko aiñekca, Bor-goña'ko artearen kutsukoa. Ta gero erri txiki askotik bildu dituzten Amabirjiña erromanikoak, baita gotikoak ere. Ba dago bat zutik luzea ta mea, Suezia'n dctudenen antzekoa.

Eliza nagusi oneri sarrera emezortzigarren gizaldian ipiñi diote besteakin batean egoki ez dijoana.

Eliza onen ingurucm, atzeko aldean, ba daude kale baztar batzuek oso politak eta garbiak; arrese gcriñean amabostgarren gizaldiko etxe bat ipiñi dute, "zaldi zuri" izenekoa, ondoan bere arrizko bidegurutzearekín.

San Nikolas eliza, gaztelu antzeko dorrearekin, erromaniko-gotiko bitartekoa degu. Ba dago zurazko San Pedro'ren irudi gotiko bat ere oso liraña.

San Saturdi eliza, berriz, gotikoa degu, amalaugarren gizaldikoa, oso zabala ta goitsua. Eliza sarrera ta aterpea, irudiz apaindua, bikaiña da. Barrenean arrian egiña San Jorge bat daukate oso ona. Dorreak itxura aundia ematen diote eliza oneri.

Diruetxe zarra, Ansoleaga kalean, gotikoa da amalaugarren gizaldikoa; ba du bere ibiltokia ere.

Iruña'ko gaxotegi zarraren elizak sarrera platereskoa dauka, armarri aundia ageri dula, amaseigarren gizaldikoa. Gizaldi berdiñekoak dira gaztelu berria "La Ciudadela" izenekoa izar bcrten antzekoa bere bost alderdiekin, baita arretxen sarrerak ere.

Ba dago gizaldi berdiñekoa, beste aldare eder bat, Bidart'ena, eliza nagusian zegona ta orain San Migel eliza berrira eraman dutena.

Errekoleten lekaime etxeak oso neurri egokiak ditu, amazpigarren gizaldikoa da ta gaiñera enparantza polita dauka aurrean.

San Lorenzo emezortzigarren gizaldikoa degu. Emen gordetzen



dute San Fermin'en irudia. Atzeko aldean, lorategi alaia dago, ta bertan abe lirain bcr Amabirjiñarekin, orain dala ogei urte egiña.

Jauregi eder batzuek 18'garren gizaldikoak dira; eta itxura aundia daukate Gotzaiarenak eta Gendulain kondearenak.

Errikoetxeak kutsu aundiko etxe aurea du; au ere emezortzi-garren gizaldikoa degu.

Ezin ditugu aztu garai ortan egindako iturriak, ain barrunkoiak, Luis Paret'ek egiñak; Errekoletas, Aolku enparantzakoa, Karmen'goa, danak 1788 urtekoak. Gazteluko enparantza, Naparro'ko Karlos IH'k urratu zuana ta Karlos V'k egiña, emeretzigarren gizaldian berriz ethez ingurututa ibiltoki ederrenetako bcr utzi digute.

Ondoan dago Diputazioaren etxea joan dan gizaldian egiña, galanta ta itxura aundikoa. Ba dauka loretegi polita bat eta bertan "Sekoia" zugaitz ederra; Tiburzio Okabiok eman dio izen polita, "Iruña'ko arbola". Bere aurean Sarasate zumardia luzea ta bikaiña daukagu, asieran Fueroen oroitarri ederra dula. Or, edergallu orrek asko esan nai du.

Loretokiak, Takonera aldera ta Uarte'ko bidean daude eratuak. Iruña asko jazten dute, erosoak, argiak, pinpiñak ta irudi ederrekin apainduak daudelako. Bi iturri beren askekin, naiko zabalak, Principe de Viana ta Mola enparantzan egin zituzten orain dala amabost urte.

Diputazioa'tik asita, azkeneko berrogei urte auetan, asko zabaldu da Iruña. Erakunde au, azkeneko guda irabazlentsat altxa duten elizaraiño dijoa. Karlos III kalearen bukaeran, 1953-1959 bitartean altxa dute gudan alde batetik erori ziranentsat, oroigarria, eliza aundi bat arrizkoa, enparantza zabal bat aurean daukala. Or bertan dago Eresietxea ta barrenean iriki dute Sarasate'ren oripenez museo txiki bat, bitxi ta ikusgarri askorekin.

Iruña'ko kale geienak, zarrak beintzat, lanbide izenak zeramazkiten. Beste askok ereslarien izenak dituzte ta ederrenetakoak Iruña'ren alde ainbeste lan egin zituztenenak, batez ere Karlos III Naparroa'ko erregearena.

Gaur arte bizi ta iraun duan iri zar au agiri berexi batzuekin, azaltzen zaigu, bereak diranak eta bere nortasuna osotzen dute-

nak; Amabirjiñaren irudien aberastasuna, Gaztelu ta arretxeak, ereslarien izenak nunai ta jakiña lanaren otsa. Gaurko gizasemeak ez dakite zer dan geldirik egotea.

Urtean bein, ori bai, San Fermin'en eguna dala ta, kaletako zarata, gorri ta zuri margoa, zezenak ere alkate ditugula agertzen zaizkigu. Jai oiek, sua, indarra ta irrintzi dira, aste baterako nai-koak. Gorputzaren griña ezin kontu nunbait eta len ezpatekin neur-tzen zituzten indarrak, geroago zezenekin jolasean asi bear. Asie-ran, zezenak kalean utzita atzetik joka eramaten zituzten. Orain berriz adar aurretik dijoaz gazteak.

San Fermiñetako giroa, kaleko arrokerietan bakarrik gelditu ez dedin UARTE jaunak, Diputazio'ko zuzendari izanak laguntza berexi bat utzi du Iruña'n garai ortan arte azalketak ere egin ditzat-en. Aurten euskal artegillean agertu dituzte beren lanak.

Zugaitza ta ura, arria ta lana, alaitasuna ta indarra da lendik asita oraindik nabaitzen dana iri ontan.



EUSKERA AINTZIÑAKO IRUÑA ZARREAN

IRUÑA izenak, berak bakarrik zerbait esan nai du. Euskal izen ori, 1006 eta 1027'garren urtean arkitzen degu lenengo aldiz. Ikusten degun bezela, aspaldiko papera zarretan ageri zaigu.

Gogoan eukitzekoa da gaiñera, Iruña'ko gizasemeak ez dutela esaten Iruñatarrak diranik, Iruñsemeak baizik. Gaur oraindik, Iruñseme itz ori atsegin zaie.

Iruñako toki zar askoren ízenak, euskaldunak ditugu ta gaur arte iraun dute. Elias Martinez Lezea'ko gizon ospetsu ta txistulari

trebeak egindako lan batetik, artu ditut batzuek; AIZAGERRIA (Donapea ondoan), AIZPEA (Barañain inguruan), ARANZEDI (Zumalakarregi ta Madalena bitartean), ARGARAI (Billaba'ko bidea ta San Nikolas artean), ARRASKO (Guarda zibillen enporantzan), ARRIASORANZA (Karmen elizatik Santo Andia'ra), ARROSADIA (Sador erreka inguruan), AZPILAGAÑA (Sadar gaiñean), BERITXITOS auzoa, BIURDANA auzoa, BURULLERIA (San Lorenzo kalean), BUS-TINTXURI (Santa Luzia aldetik), ZUGARRONDO (San Jose aldean), ZIZURTIXIALDEKOLARREA (Kordobillako mugan), DONAPEA (Ezkiroz aldean), ERLETEGIIETA (Ezkorozko zubi aldean), ERMITAGAÑA (San Juan ondoan), ERROTAZAR, EZPONDANDI (Sonta Luzia aldapa), GARITON (Mustilla'ko mugan), GOROABE (Prinzipearen gaztelu ondoan), GURUTZEUZURIA, IRUBIDE (Madalena ta Txantrea tartean), IRUNLARREA (Gaxotegi nagusiaren tokia), ITURRAMA (Sadar eta Ezkiroz bitortean), LANDABEN, LANDABERRI (Arrotxapea ondoan), LARRABIDE (Prinzipearen gaztelu ondoan), LARRAINA (Takonera aldapa ondoan), LEZKAIRU (Pilarika ondoan), LINDATXIKIA, OBIETA (Argarai ondoan), OBIETAGAIÑA, PORTALAPEA (San Satumino ta Santo Domingo bitartean), APIROTXAPEA, SANDUANDIA, SANDUBIZKAR, SANDUZELAI (Orkoien'go bide ondoan), SOLTXATE, UGALDETA (Mutilla bidean), UNZUTXIKI, URRANINDA, BIRUGARTE (Labrit gaztelua), ZAKUNINDA (Karmelita lekaiden tokia), ZANDUA (Santa Luzia elizatxoan), ZUGARRONDO (Nabarrerria eta Karmen kale inguruan), ZUBIPUNTA (San Pedro zubi inguruan).

Izen guzti oien zerrenda luze onek esan nai digu, noizbait gogotik euskeraz egiten zala Iruña'n. Bainan euskeraz asko mintzatzen zala pensatzeko ba ditugu garrantzi aundiko beste berri batzuek.

Naparroko azken erregeak, Juan Albret'ekoa eta bere emaztea Katalina, eliz nagusian sagaratu zituztenean, 1494 urtean, ilbeltzaren 12'n, Iruña'ko kaletan Beamontetarrak kantatzen omen zuten euskeraz:

"Labrit eta Errege
Aita, seme dirade
Kondestable Jauna
Arbitzate anaie".

Arazurik esaten digu, 1560'garren urtean, erdera zala izkuntza oíiziala Iruña'n, bainan euskeraz askok egiten zutela ta bizpairu elizetan garizumak euskeraz izaten zirala.

Aspalditik euskal liburu asko argitaratu izan dituzte Iruña'n; lenengoa esaera zarrekin, 1596'garren urtean.

Arotzen auzoan, geienak euskeraz bakarrik zekiten eta 1608 urtean, abuztuaren 31'n, Martín Lekaun bertako zuzendariak euskeraz itzuli zien Erriko Etxetik bidalitako agindua.

1609'garren urtean, dominikotar apaiza bat izendatzen dute, Estebe Beriain'goa, garizumako igandetan euskeraz San Zernin elizan itzaldiak egiteko. Orrela, garizuman urtero euskeraz zuzentzen zituzten itzaldiak.

Aipatu degun azkeneko urte ortan bertan, Iruña'ko auzoen agintariak etzuten ontzat artu Trinitario lekaiden eskaera; auek gaxotegia bere gain artu nai izan zuten. Aurreratu zieten, gaxoak euskaldunak zirela ta lekaideak gure izkuntza etzutela ezagutzen.

1609'garen urtean, Antonio Benegas Figeroak, Iruña'ko gotzai jaunak Korpus egunerako, euskal olerki txapelketa antolatzen du eta Pedro Ezkurak irabazten du lenengo saria "Aldareko Gorputz Sanduari" lanarekin eta bigarrena Migel Aldaz'ek "Gorputz Sanduari" olerkiarekin.

Gotzai ziñezko ta argi onek, bigarren txapelketa gertu zuan 1610'garren urterako.

Axular gure napar idazle aundiena garai ontan subdiakono egin zan Iruña'n eta emen argitaratzen du 1621'garren urtean "Meza Entzuteko" liburua. 1626 urtean argitaratzen dute Juan Beriain'en euskerazko "Doctrina Christiana".

Felipe IV, Españiko erregea 1665'garren urtean il zanean, ai-pamenak egiteko olerki txapelketa antolatu zuten. Aita Jose Alen-

zon'ek bere euskerazko "Gure Errege Filipe Andiaren Eriotzean" olerkiarekin irabazi zuan saria.

Emezortzigarren gizaldian, 1735 urtean, napar euskeraz argitaratzen dute Iruña'n Elizalde aita jesuslagunaren kristau ikasbidea "Apecendaco Doctrina Cristiana uskaraz" izenarekin egiña. 1742 urtean, berriz, Juan Irazustaren kristau ikasbidea.

Gaspar Miranda ta Argaiz Iruña'ko gotzai Jaunak pastoral bat ateratzen du euskal dantzen aurka.

Autxuela izeneko Iruña'ko irakorlan, 1761-1766 bitartean dago argitaratua Aita Kardaberaz'en lan multzo bat.

Iruña'n bizi zan garai ontan Aita Mendiburu ta ogeita amar urte egin zituan emen. Garizumako igande askotan euskeraz egiten zizkien itzaldiak San Zemin'go elizan. Iruña'n bizi zala, Naparroko erri geienetan ibiltzen zan euskerazko mixioak ematen. Ementxe ere argitaratzen ditu bere liburu aipagarri batzuek; 1759 urtean "Jesusen amore nekei" ta 1762 urtean "Euskaldun onaren biziera".

Joakin Lozen apaizak gaxotegiko kapellau izan nai du 1791 urtean. Euskeraz ez dakilako gogor egiten dio Otxotorenak.

Mogel'en "Confesio ta Comunioco" liburua emen egiten dute. Urte berean bere gain argitaratzen du Iruña'ko gaxotegiak Aita Añibarro'n Asteten itzulpena, "Cristcru Dotrina... Nafarroaco euskeran" izenarekin ateratzen dana.

1810'garren urtean, general Reille'k Iruñako Gobernadore frantsesak euskaldun bat jartzen du pasaporteak emarteko. Bere erabaki onen arrazoia aurreratzen du: "Euskaldun asko pasaporteak eskatzera datoztelako". Iruña'ko Gobernadoreak 18H'garren urtean, euskerazko bandoa, argitaratzen du, "Nafarroco Generala eta Gobernadoreac" izenarekin, dirua eskeniaz, Ezpoz ta Mina, Krutxaga, Gorriz, Ulzurrun ta Txolin iltzen zituztenentzat.


Iruña'n argitaratzen du bere liburua dantzen aurka Aita Santa Teresa'ko Bartolomek. 1816'garren urtean.

Euskal kulturari ikaragarritzko bultzada emango diona Napparroan, Iruña'n jaiotzen zaigu 1854'garren urtean; Arturo Kanpion degu, Naparroko euskaldunetan gizonik ospetsuena ta idazlanetan trebenetakoa.

Ezin degu aztu xetasun txiki berr, bainan garrantzi aundikoa dana.

Aita Frorez'ek dionez, 1766'garren urtean San Ferminetan laro-gei tuntuñero bildu omen ziran. Zerbait esan nai du orrek; euskal kutsua oso bizirik zegola Iruña'n.





EUSKAL KULTURA IRUÑA'N LEN

Euskal kulturaren jokabidea ondo jakiteko ezagutu bearra degu Iruña'n emezortzigarren gizaldiaren bukaeratik gure gerratearaiño gertatu ta egindakoa. Lan asko ta ugari agertzen zaizkigu.

Esan dezakegu, 1877'garren urtea garrantzi aundikoa izan dala euskerarentzat Naparroa'n. Iuan Iturralde Suit'ek bere etxean biltzen ditu amalau lagun euskalzale. Ba ditu 38 urte. Lagun oien artean Kanpion zegoen. Billera ortik sortzen da "Euskara" alkartea. Lendakari bezela Esteban Obanos apaiza jarri zuten ta idazkari berriz Juan Iturralde. Obanos apaizak euskeraz lantxo bat egiña ba dauka. Asmo bat zeukaten buruan, euskerara itzulpenak egitea, euskal kantak biltzea, soriak aurrei banatzea. Aldizkari bat sortu zuten, bizi motza izan zuana (1878-1883); bere izena "Euskara". Aldizkari onen zuzendaria Nikasio Landa zan, sendagillea ta antropologoa berez. Euskeraz, geienetan aldizkari ortan olerkiak argitaratzen zituzten.

Alkarte au Naparroa naikoa ondatua zegola jaio zan. 1833-1839 garrengo guda ondorean, bere nortasunaren eskubide geienak galdu zituan. 1841'garren urtean, Lege Berriarekin diruaren askatasuna utzi zioten bakarnk Naparroa'ri. 1871-1874 urtetan, bigarren karlisten gerratean, Madrid'en Fueroen aurka indar berriak jaio ziran. Giro ortan sortzen da Iruña'n gure alkartea. Juan Iturralde degu aurrenetik arduratsuena. Berez Iruñarra, 1840'an jaioa; margolaria ta idazlea, Paris'en margoa ikasten ibillia. Etzuan eus-

keraz idazten. Napsrroa'ko nortasunaren alde indar guztiekin lan egin zuan.

Karlisten bigarren gerrate aurretik, euskeraren alde alkarte bat sortzekotan ibillia zan. 1877'garren urtea arte etzuan bere asmoa bete.

Duke Mandas'ko ministroak, 1880'garren urtean, eskola guztiak Madrid pean jortzekoton lege bat sortzen dula, Iturraldek euskeraren galbidea ikusirik ala dio, "Nere anima ostu nai didate".

Iruña'ko errikoetxeko kide izendatzen dute ta 1881 urtean bi taldetan agertzen dira, bat euskalzalena ta bestea ezkertiarra liberala. Gure Iturraldek ala esaten du, "Naparro'ko' nortasuna ez dago oraindik arront galdua". Aiuntamentuari eskatzen dio euskeraren alde zerbait egiteko. Beragatik, Errikoetxeak 1883'garren urtean antolatzen du, San Fermin jaia dala ta, euskerazko sariketa bat. Karmelo Etxegarai, Felipe Arrese ta Kludio Otaegik eraman zituzten sariak. 1884'garren urtean bigarren sariketa ontolatzen dute ta K. Etxegaraiek irabazten du txapelketa.

Iturraldek ere sortzen du Naparroa'n edergalluak edo monumentuak babesteko batzordea, baita asmo berdiñakin aldizkari bat argitaratu ere. Amairu'ko gaztelua erosi nai izan zien museo bat egiteko.

Mendiz asko ibiltzen zan, batez ere Aralar'en, jentil arri ta illo-bien billa. Amairu treku arri edo dolmen ta menir bat arkitu zituan. Eunka idazki ditu egiñak ta euskeraren alde lanean zebíllen. Hueska'ko maisuen aldizkariak euskeraren aurka egin zualako, erantzun ederra bota zion. 1909'garren urtean il zitzaigun.

Naiz Iturralde lenengo langillea izan, aundiena Naparroan eta aundienetakoa Euskalerrian Arturo Kanpion degu. Euskalzale onekin dauzkagun zorrak ez ditugu ondo ordaindu. Iruña'n jaioa 1854'garren urtean, legea ikasten Oñate'n ibilli zan. Madrid'en bukatu zituan ikasketak. Gero Iruña'n euskera ikasten asi zan. Elizti bat idatzi zuan 1884 urtean, euskal idazle askorentzat argi berexia izan dana. Naparroa'ko euskal kulturari buruz, idazki geienak erderaz egiñak utzi zizkigun. Baiñan ba ditu bi lan euskeraz idatziak; "Orrega ta Denbora anchiñakoen ondo esanak" izenekoak. Naparroa'ko

diputado edo ordezkari bezela, lurralde onen eskubideak zaintzen alegíndu zan.

Berak idatzitako lanak ezin konta dira, batez ere "Euskara, Euskalerria, Euskal Erriaren alde, Euskal Esnalea" aldizkarietan. Donostia'n il zan 1937 garren urtean.

Erminio Oloriz degu talde ontako beste gizon ospetsua, 1854 urtean jaioa. Fuero zalea genuen ta Auritz'en bizitzen zan asko. 1919 urtean il zitzaigun.

Ezin degu aztu Estanislao Aranzadi, 1841 urtean jaioa. Madrid'ko agintaritzari, euskeraren alde laguntza eskatu zion 1884 urtean. Berak zuzendu zituan Gamazada egun sutsuak Iruña'n.

Esan ditzagun itz bi gertaera oneri buruz. German Gamazo Aziendako Ministroa zala, 1893-1894 urtetan, beste probintzien presupuestoak jarri zizkiori Naparroa'ri. Naparroa osoa altxa zan ta millaka gizon Iruña'n beren fueroen zaletasuna agertu zuten 1893-6-4'an. Gertaera onengatik jaio zan Iruña'n Fueroen alde edergallu bikain bat altxatzeko asmoa. Gizaldi onen asieran bukatu zuten oraindik ikusten deguna. Abe eder orren oñarrian euskeraz ere ipiñi zituzten itz batzuek. Ala diote:

Gu gaurko euskaldunok,
gure aitaren illezkorren
oroipenean, bildu gera emen
gure legea gorde nai
degula erakusteko.

Narbarte'ko Lakoizketa apaizak 1888 urtean argitaratzen du Iruña'n bere landaren euskal izenen liburua.

Gipuzkoa'kori Naparroa'ko Diputazioak 1896 urtean, idatzi bat bidaltzen dio alkartzeko eskatuaz, euskal eskolen alde lana batera egin zezaten.


Galdetu dezakegu garai berdiñean, Iruña'ko erria euskalduna ote zan? Karlisten bigarren gerra ondorean erruz galdu zan euskera Iruña'n baita inguruetakoko errietan ere. Itzak gordetzen dituzte baiñan solas egin gutxi.

Iruña'ko Errikoetxeak Grañon'goari 1865 urtean emandako erdal agiri batean esaten du Paulino Alonsok "Orzaya" bezela amasei errial illero irabazten zituala. Orrek esan nai digu garai ontan oraindik, euskeraren aztarnak sakonak zirala Iruña'n.

1907'garen urtean Santo Domingo elizan, errosarioa ta Gurutzebidea garizuman euskeraz egiten dituzte, baita kantuak ere. Gaiñera jendea ongi xamar biltzen omen zan.

Bera'ko Aita Erromanek, 1908 urtean Iruña'n argitaratzen du bere "Euskal Iztegia", baita Kaparroso'ko aita Bemardinok bere "Euskal irakaspidea". Julio Altadil Iruña'ri buruz bere lurederti liburuan mintzatzen zaigunean, 1910 garren urtean, garbi dio erriak era bat galdu zula euskara. Batzuek egiten dute oraindik, erriak ez.

Urte ortan bertan, Iruña'ko gaxotegian Gurutzbidea euskeraz erabiltzen dute, Karlos Esain'en ardurapean.



Azkeneko gizaldiaren bukaeran ta onen asieran, Iruña inguruan, euskera etzan era bat galdu. Marzelino Iribertegi Illarregik, Anzoain'en jaioa 1870 urtean eta Iruña'n 1936 urtean illa, oso ondo egiten omen zuan euskeraz.

Jolasetan aurrak euskal izen asko erabiltzen zituzten; txulo, irulario, baita gixasemeak ere; zezenzusko, patxarra, txistor, burute, alperzear.

Euskal giroa etzegon arront illa 1910 urtean. San Fermiñetan jiganteakin batean Arrieta'ko Franzisko Jabier Etxeberriak txistua jotzen zuan. Arrieta'ko ijitua deitzen zioten eta San Fermiñetan jotze arren, bere erritik oñez joaten zan.

"Navas de Tolosa"ko burrukaren zazpireungarren urte-betetzea ospatzen zutela 1912 urtean, idazki txapelketa bat antolatu zuan Naparro'ko Diputazioak. Euskeraz bi olerki eraman zituzten.

"Irugarrengo Prantxiskotarra" izeneko euskerazko aldizkaritxoa Iruña'n sortzen da. Illero zortzi orrialdeko aldizkaria ateratzen dute ta sei urte buruan ia zazpi milla ale ateratzen dituzte.

Aita Damaso Intza'koaren ardurapean jaiotzen da 1919 urtean Iruña'n, "Zeruko Argia", euskal aldizkaria.

1925 urtea gogoan artzekoa da. "Euskeraren Adiskideak" izeneko alkarte sortzen da Iruña'n. Alkarte onen aurreneko batzordekoak, Jenaro Larratxe, Aita Damaso Intza'koa, GerardO' Balkarlos, Migel Intxaurren (Asko idatzi zuan euskeraz, berez Araiztarra zan), Migel Esparza, Jose Maria Uarte ta Domingo Beunza ditugu. Buru bezela, Bera'tar Jenaro Larratxe dago, Iruña'ko alkate izana ta laguntzalle bikaña Leandro Nagore Errikoetxeko artxiberoa. Apaiztegiko' iru euskal irakasleak ementxe daude sartuak, aipatu degun Migel Intxaurren, Arraiotz'ko apez Esteban jauna ta Blas Fagoaga gizon ospetsua. Gaiñera Naparroa'ko apez asko daude kide bezela; Markos Etxarri'koa San Migel'ko kapellaua, Irañetatik Etxarri arteko apez danak, baita Ergoiena, Imotz, Basaburua, Arizkun, Garzain, Erratzu, Lekarotz, Simon Urtasun Gerendiain'goa Agapito Ibarra Auritz berrikoa.

Alkarte onek, lan asko egin zuan Iruña ta Lizarra'ko ikastolak babestuz ta Lekarotz'ko ikastetxeari lagunduaz.

Txistuak ere banatuaz dabiltz erri askotan; Auritz, Betelu, Etxarri Aranaz, Etxalar, Auza, Olague, Lanz, Narbarte, Lekunberri, Labaien, Etulain eta abar.

Euskal jaiak antolatzen dituzte ugari, Olague, Etxaleku, Otsagabia, Auritz, Erro, Arakil, Iriberrri, Auza, Iruña, Saraitsu'ko Esporza'n, Abaurrea gaiña. Jai oietan euskeraz dakiten aurrei sariok banatzen dizkiete. Ekinza berexi ontan asko lagundu zuten Fermin Irigarai ta Maria Paz Ziganda andereñoak.

Urte auetan ugaritzen dira Iruña'n euskal elertien txapelketak. 1925 urtean bat antolatzen dute alkarrekin Diputazioak eta Euskalzaindiak, Iruña'n. Amctr aur saritzen dituzte; amar aur Etxelar'koak, sei Lekaroz'koak, bost Arraiotz'koak ta iru Uitzi'koak biltzen dira.

1926 urtean beste txapelketa bat gertutzen du Iruña'ko Errikoetxeak. Gaiarre antzokian banatzen dituzte sariak ekainaren 2'an. Manuel Argaña, Prudenzi Etxabide, Irene Meoki ta J. M. Goenaga izan ziran sarituak. 1928 urtean Errikoetxeak San Fermin jaietan antolatzen du sariketa berria. Irabazleak, Orixe, Aita Oyeregi, Aingeru Irigarai ta Juan Garbizu pasaitarra izan ziran.

Urte ortan beste antzerki idazlarien sariketa bat egiten dute Euskeraren Adiskideak alkarteak. Lakuntza'ko Blas Alegria Alegria apaizak irabari zuan saria.

1929 urtean, Olabe liburutegiko alkargoak, 2.500 eta 2.000 pezetako sariak eskeintzen dituzte euskal lanen alde.

1930'garen urtean, Agorraren 27 eta 28'an Euskeraren Adiskideak euskeraren eguna antolatzen dute Iruña'n. 27'an San Inazio'ren elizan meza Aita Damaso'ren itzaldiakin dute ta atsaldean jai berexia, Kortes, Aldaz ta Leiza'ko dantzariekin, Euskotarra alkar-tearen ezpata dantzariak ta Iruña'ko dantzari txikiak. 28'an, Aniz'ko Justo Azkarate'ren itzaldia ta Iruña'ko euskal aurrei sariak banatu zizkieten.

1931 urtean Kanpion'eri omenaldi bat eskeiñi zioten euskal etxean.

1933'garren urtean Euskeraren adiskideak erri olerkien txapelketa zuzendu zuten. Blas Fagoagak liburu eder batekin irobazi zuan saria.

1930 urtean, bere etxean, beste omenaldi bat egin zioten Kanpion'eri, larogei urte betetzean, Iruña'ko ikastolen aurrak. Maria Jesus Urmenetak olerki bat esan zion Kanpion'eri.

Euskeraren alde lanik ederrena, ikastola, aurrentzak iríkítzea izan zan. Maite Miren Saizar Tolosar andereñoa artu zuten erakasle bezela bere emezortzi urtekin. Ikastolari laguntzeko batzorde bat sortu zan. Danen buru Pablo Artxanko jarri zuten. Fermin eta Aingeru Irigaraiek asko lagundu zioten. Kanpion'en eta Jose Agerre'n babesa aundia zan. Amalau aur, bost urtetik bederatziz bitartera iñokoak Karlos III kalearen azkeneko muturrean, iriki zuten ikastolan, asi ziran.

Urrengo urtean Eginola etxegilleak beste toki erosoagoa utzi zien Karlos III kalearen eskubian. 40 aur eta bi andereño zeuden. Bigarrena Albertina Azkarate zan. Azkenean Eskoiapioen ikastetxera bildu ziran, Olite kalean 1-2.^a; 180 aur eta iru andereño bildu ziran. Urte ortan, azterketak egitera Estaduaren ikastetxera bidalitako aur guztiak ontzaz artu omen zituzten. Iruña'ko lenengo andereñoak orrela esaten zidan: "Nekez aztuko zait ikastola ura ta Iruña'ko jendeak. Maífasun aundiakin aríu ninduten". Andereño¹ onek berak, gabeaz azientzat ematen zituan euskerazko ikastaldiak Benigno Arbearen etxean, Bergamin kalean.

Jesus Aranzadik berriz euskerazko ikastaroa ematen zuan maisuen ikastetxean eta erdimailako ikastetxean. Maisuak erakasle onen bitartez asko ikasi zuten.


1934 urtean abenduaren 5'an euskal literaturaren ikastaroa asi zan ematen Ateneon Jose Agerre; etxegintzarena Leonzio Urabayen ta arkeologia Franzisko Iñiguez erakasle ospetsuak.

Euskeraren alde lan asko egin zuan Iruña'n ta Naparroa'n Euskeraren Adiskide alkarteak ta merezi du agertzea bere azken batzordeko kide guztien izenak; Fermin Irigarai, Maria Paz Zigan-da, Pablo Artxanko, Maria Biskarret, Bemardino Tirapu, Aingeru Irigarai, Inazio Baleztena, Aita Damaso Intza'koa, Aita Iruarizaga, Joakin Zarrantz, B. Arbea (Orontz'en jaioa, Saraitsuarra, euskeraz idazten zuana).

Ezin ditugu aztu, Iruña'ko guda aurreko lenengo txistulariak; Arraras, Olazaran, Argaz eta Frutos.

Guda aurretik Iruña'n zeudenetik idazle onenetakoa, Larreko genuen, Pablo Fermin Irigarai, berez Auritztarra, sendagille ebakuntzalaria, Iruña'ko gaxotegiko zuzendaria. Bere idazlan asko Ipar Euskalerrian argitaratzen zituan.

Naparroa'n, Iruña'tik euskera zabaltzen asko alegindu zan. Euskera xamurra, errikoa, garbia, Baztan aldekoa zeukan.



EUSKAL KULTURA IRUÑA'N GAUR

Anai arteko guda ondorean esan dezakegu, euskerarentzat etzegola girorik Iruña'n. Ikastola itxi zuten eta euskalzale jator asko alde egin bearrean gelditu ziran.

Kalean, euskeraz mintzatzen entzun ezkeru, ba zeuden gale-razten zutenak. Eskoletan, berriz, erderaz etzekitenei parra jasa egi-ten zieten. Erderaz gaizki zekienei auxa kantatzen zieten.

Vasco ser
orejas no tener
ir al escuela
y no aprender.

Guda aurretik, Euskeraren Adiskideak alkartearen kide sutsua zan. Erriz erri euskal aurrei, sariak emanez zebillsn. 1936 urtsan Txistulari alkartearen zuzendaría genuen. Arront eskubitarra zan. Guda ondorean, Olaetxsa Iruña'ko gotzaiak zuzndu zusn olerki sariketa bat. Eusksrazko saria Maria Paz'ek irabazi zuan. Euskal-zaindikoa izsndatu zutsn.

Gsndulain kondsarsn ezkontzara Saraitsu'ko jantziarskin agsrtu omen zan. Ludi ontan iru maitasun zituan; lege zarra, euskera ta sinismena. Izadiaren alde ers asko sgin zuan; San Kristobal mendia piñuz bets zigun.

Batsz ers biotz onsko emakumea genusn. Merszi zutsn gauza guzien alde, laguntzeko prest zsgosn; izadia ta ikuspsgia zaintzsko, Iruña'ko arrssi zarra sz botatzsko' ers naiko lan egin zuan. Amabirijiñarsn maitasunari oso lotua zagoen, orregatik askotan Fati-ma'ra joatsn zan, baita Xabir'sn urratxak ospatzsko India'raiño sre. Bein bsrari gertatutako gauza batek naikoa esaten digu. Piño basoa zoukan Saraitsu'n sta erre sgin zioten. Norbaitek ssatsn dio: "Lsge gizonsn bat artu bsarko dezu zurs sskubidsa agertzeko!". "Zsrtarako?, dio bsrak. Nsrs piñuak itzuliko al dizkidats berean? Orduan utzi ezazute pakean errstzaillea". 1966'garrsn urtean, il zanean bers ontasunak, ikastola, txistulariak, apaiztsgia eta India'ko mixioak laguntzeko utzi zituan.

Iruña'n ofizialki euskera erakastsn 1952'garrsn urtsan asi ziran "Salsroskstako Ikaststxean". Astian lau aldiz smatsn zituztsn sra-kastaldiak. Franzisko Tirapu suskalzals jatorra ta Psdro Diaz ds Ulzurrun apaiza ziran smsngo erakasls trebsak. Bsrrrogsi ikasle ba zstozkisin.

Fagoaga apaiza, bsrriz, il arts apaiztsgian ibilli zan susksra erakasten. Pedro Diaz Ulzurrun'go apaiza, euskaldun jatorra ta euskeraren alde lan asko egin duna degu, batsz srs srakasls bs-zsla; Salsroskstako ikaststxsan 1969 urtsa arts, apaizisgian 1965-69 bitarts ortan. Euskalsrriko adiskidsak daukatsn biltokian, bsrriz, 1960-69 arts. Oraindik bsrs etxsan smaten ditu ikastaroak.

"Zsruko Argia" aldizkarian lsn idazlansn garbitzallsa bezela ibillia degu.

batzuekin batean asiera eman zion. Bere asabak euskalzaleak ziran eta aien bitartez eskuratu du euskal liburu zar multzo eder bcr. Bere aitonak Zildoz'tarrak (Ezkabate) zituan, Perutxene etxeokak. Emen zegoen bilduta euskal liburu zar multzo ori.

Joan dan gizaldian, Mendizabal agintariak, 1835 urtean, lekai-de etxeak itxi zituanean, Perutxeneko seme bcr, Isidoro Diaz de Ulzurrun kaputxinoa, bere errira joan zan erretore bezela. Onetxek bildu zituan euskerazko liburu eder batzuek; bat naiko bakana Makirriain'go aurren Kristauikasbidea eskuz egiña. Garai artan Ezkabarte'ko aur guztiak Makirriain'ko eskolara biltzen ziran. Kristauikasbidearen liburu au Makirriain'go maixuak idatzi zuan, Jucm Franzisko Goñik, aipatutako kaputxino onen anaiarentzat. Aita Isidoro 1880 urte arte erretore Zildoz'en egon zan eta itzaldi asko utzi zituan euskeraz idatzita. Pedro Diaz de Ulzurrun sendagilleak Makirriain'go kristauikasbide ori oar batzuekin berriz argitaratu du Euskera aldizkarian.

Gaur gure sendagille euskal langille onek Principe de Viana euskal aldizkaria ta Diario de Ncrvarra egunkariaren euskal orria zuzentzen ditu.

Euskal kulturari aurrerapen aundia eman dio Iruña'n "Euskalerriaren Adiskideak" izeneko alkarteak. Karlos Klaberiak sortu zuan 1960'garren urtean eta Jose Agerre izan zuan aolkulari berezia. Idazle trebe au oartu zan azkeneko gizaldian alkarte au Napparroa'n bizitu zala. Bizitza botza izanik 1842-1849, garrantzi aundikoa; Fray Jose Larunbe'koak sortu zuan. Orain berriz alkarte aren antzekoa pixtu dute iru elburuekin; Euskera, Ekonomia ta Fueroak.

Olerki saria ere antolatu dute Jose Agerre izenarekin. Lenengo saria Aita Adrian Latasa'koak irabazi zuan. Bersolariaren omenaldia ere egin zuten, baita euskerazko lenengo meza Iruña'n jarri ere, San Jose izeneko karmelita lekaimen elizan.

Iruña'ko lenengo ikastola alkarte onek berak irikia da. Gaiñera Europa'ko eguna ospatzen alegintzen dira. Euskalzalen Biltzarra ipar aldeko euskaldunekin batean egiten dute. Axular aldizkaria argitaratzen, iru illetik bein saiatzen zaizkigu. Santageda'ko koruak 1963 urtea ezkerotzik eta Olentzero 1969 urtetik atercrizen asi

da'ren ametsa onekin bete zan. Bigarren urtean Mikaelak bere lengusu bat artu zuan laguntzalle bezela. Berrogei aur biltzen direla, billatzen dute toki berria Katedral inguruan Karmeliten lekaimen etxean. Ikastolaren sailla, Euskalerriko Adiskiden alkartean eramateko, Jorge Kortes Izal aukeratzen dute. Baiñan berriz ikastolan toki erosoagoren baten billa dabiltz eta Baiona izeneko kale nagusian arkitzen dute. Emen 1969 urtean, irurogeiraiño ugaritzen dira aurrak. Urte ortan bertan, txikientzat fceste bi toki berri irikitzen dituzte, bat Irrintzi dorrean eta bestea Kartxela'n.

Pazko inguruan, 1970'garren urtean, ikastolaren zuzendarien artean eztabaidak sorten direla, apaiztegian billera nagusia egiten dute.

Ikastola erdibitzen da ta bi berri oso ederrak jaiotzen dira. Bat sinismenarekin lotua dagoen eziketa sakonaren aldekoa ta bestea kristautasuna iriki baten aldekoa.

"Verbo Divinok", Zizur Txiki'n daukan lekaide etxe berrira dijoa Jorge Kortes Izal, guraso ta laguntzaille geienak biltzen ditula. Ikastola oneri San Fermin izena jarri diote. Aurten emezortzi erakasle dauzka, oietatik amairu andereño ta ia lareun aur. Zuzendari bezela Atxa jauna dago, Aretxabaletarra, gizon langillea ta ona. Ikastolei laguntzekotan Iruña'ra deitu zuten. Juli Yarza bere emazteak, Irrintzi dorrean aur txikiei euskera erakasten die. Ogeita ama bi ditu bi urtekoak.


San Fermin ikastola ikusten ibilli nintzanean, biotzkada aundia egin zidan; gela ederrak, jolastoki zabalak, eskulanleku erosoak. Ezagun batekin topo egin nuen, Alsasuar gazte batekin, Migel San Erroman, euskaldun berria; udaratan euskera ikastearren Aranaz'ko baserri batera joaten zana ta ango neska batekin ezkondua, gaur andereño laguntzaille bezela bertan dagona. Gure Mikel San Erroman'ek eskulanak zuzentzen ditu, txistua erakasten du ta igandetan gaztetxoentzat ateraldiak antolatzen ari zaigu. Gaiñera illunabarretan euskal ikaskaiak ematen ditu bizpairu tokitan.

Ikastola au Principe de Viana batzordekoak babesten dute.

Beste ikastola, Kaputxino irugarreneko lekaidetxean, Aita Amigó ikastetxean, Tajonar bidean iriki dute. Izan leiken ikastetxe be-

rrienetakoa degu, itxuraz etorkizunari begira egiña, osasunarentzat toki zoragarria, Alaiz mendia aurrez aurre dula. Ikastola au etxe berri ontan 1970 urtean maiatzan iriki zuten, ogeita amasei aur ta sei andereñoekin. Gaur ba ditu 210 ikasle, bost andereño ta iru laguntzaille. Zuzendari bezela, Mikaela Gastesi dago, ezitzaille argia ta emakume sendoa. Eziketa ta euskera ezagunak ditu andre gartsu onek. Larunbatetan ikasle zarrenak biltzen dituzte danetara amabi.

Ikastola ontako aurren gurasoak, eundik bik bakarrik dakite euskeraz. Aita Amigó etxe ortako zuzendaria, Aita Pedro Korella'koa, Kastilla'tarra, erdalduna, zoratuta dago ikastolako giroa ikusita ta esaten zidan: "Geroari begiratuaz, berak etxe ortan bi ikas-



taro jarri nai lituzkela, bata dana erderaz ta bestea euskera utsean".

Ikastola oneri Maria Paz Ziganda izena ipiñi diote. Jakin dut azken egun auetan, Tajonar ikastetxea uztekotan dabiltzala, beste aundiagoa artzeko San Juan de Dios lekaidetxean. Ikastola au Euskalerriko Adiskideak alkarteak babesten du. Paz de Ziganda ikastolaren laguntzaillerik ziñezkoena Marzelino Garde apaiza degu. Urraul baillarako bizpairu errietako erretorea, euskaldun sutsua, berez Zaragaztelu'tarra (Carastillo). 1925 urtean jaiotzen da ta euskalzaletasuna 1932'garren urtean sortzen zaio. Bere aitangandik xurpatu zuan euskal zaletasun ori. Bere errian, gerra aurretik, Florenzio Lazkano Betelu'tarra asi zitzaion euskeraz erakasten. Kanpion irakurtzen du gogotik. Gerra ondorean gaizki ikusia da Obispadoan, dantzan dabilkite toki batetik bestera aldatzen dutela; Gaztelu Berri (Castillo Nuevo), Urtarrotz, Genebilla, Urraul.

1953'garren urtean argitaratzen du "Pensamiento Navarro" egunkarian Erronkariko Txorinoa izenarekin idazlana. Matias Labari Erronkari'ko azken euskaldun artzaiaeren eriotza agertzen digu. Erronkaritar onek esaten omen zion "uskaraz" gure Marzelino'ri, "Zu artzai ona zera". Itz oiek esanaz il zan Erronkari'ko azken euskalduna.

Lan onen erantzunak ludi zabaletik artu zituan. Apaiz euskalzale onek ondo ikasi du euskeraz, ala berean idazten du. Naigabe aundiak izan ditu bere euskalzaletasunagatik. Napar euskal konzienzia bizia ba dauka, bere sinismena oraindik gorago josotzen du. Bere asmoa, sinismena ta euskera indartzea da. Langille porrokatua degu; Iruña'ko ikastetxe nagusian bi karrera bukatu ditu, azkena aurtan oraindik. Euskalzaindikoa da.

Ezin deguna aztu, Angel Hermoso Mendoza apaiza da, napar euskalzale ziñezkoa, gizona. Bere laguntza bearrezkoa izan du ikastola onek aurrera ateratzeko.

Diputazioko Principe de Viana kultura ekintzak daukan euskal batzordean, 1972 urtearen abuztu arte, Jorge Izal izan da ikastolen arduraduna. Lan ortarako, 1968 urtean, azaroan izendatu zuten. Berez Otsagi'koa Saraitsutarra, oso gizon azkarra ta langillea degu.

taro jarri nai lituzkela, bata dana erderaz ta bestea euskera utsean".

Ikastola oneri Maria Paz Ziganda izena ipiñi diote. Jakin dut azken egun auetan, Tajonar ikastetxea uztekotan dabiltzala, beste aundiagoa artzeko San Juan de Dios lekaidetxean. Ikastola au Euskalerriko Adiskideak alkarteak babesten du. Paz de Ziganda ikastolaren laguntzaillerik ziñezkoena Marzelino Garde apaiza degu. Urraul baillarako bizpairu errietako erretorea, euskaldun sutsua, berez Zaragaztelu'tarra (Carastillo). 1925 urtean jaiotzen da ta euskalzaletasuna 1932'garren urtean sortzen zaio. Bere aitangandik xurpatu zuan euskal zaletasun ori. Bere errian, gerra aurretik, Florenzio Lazkano Betelu'tarra asi zitzaion euskeraz erakasten. Kanpion irakurtzen du gogotik. Gerra ondorean gaizki ikusia da Obispadoan, dantzan dabilkite toki batetik bestera aldatzen dutela; Gaztelu Berri (Castillo Nuevo), Urtarrotz, Genebilla, Urraul.

1953'garren urtean argitaratzen du "Pensamiento Navarro" egunkarian Erronkariko Txorinoa izenarekin idazlana. Matias Labari Erronkari'ko azken euskaldun artzaiaren eriotza agertzen digu. Erronkaritar onek esaten omen zion "uskaraz" gure Marzelino'ri, "Zu artzai ona zera". Itz oiek esanaz il zan Erronkari'ko azken euskalduna.

Lan onen erantzunak ludi zabaletik artu zituan. Apaiz euskalzale onek ondo ikasi du euskeraz, ala berean idazten du. Naigabe aundiak izan ditu bere euskalzaletasunagatik. Nopar euskal konzienzia bizia ba dauka, bere sinismena oraindik gorago josotzen du. Bere asmoa, sinismena ta euskera indartzea da. Langille porrokatua degu; Iruña'ko ikastetxe nagusian bi karrera bukatu ditu, azkena aurtan oraindik. Euskalzaindikoa da.

Ezin deguna aztu, Angel Hermoso Mendoza apaiza da, napar euskalzale ziñezkoa, gizona. Bere laguntza bearrezkoa izan du ikastola onek aurrera oteratzeko.

Diputazioko Principe de Viana kultura ekintzak daukan euskal batzordean, 1972 urtearen abuztu arte, Jorge Izal izan da ikastolen arduraduna. Lan ortarako, 1968 urtean, azaroan izendatu zuten. Berez Otsagi'koa Saraitsutarra, oso gizon azkarra ta langillea degu.

Euskal kulturari buruz Naparroan, berak dituan asmoak argitsuenetakoak dira. Berak dionez, ezjakintasunaren bidez galdu da euskera Naparroa'n. Bere ustez euskaltasuna, euskalkulturan oñarritua izan bear luke. Urrats asko eman ditu Naparroa'n ikastolak zabaltzeko. Berak egindako lanak ikusita Naparroa'ko lenengo euskal eziketoren ministroa deitzen nuan. Etorkizunari buruz ba ditu asmo aberatsak. Andereño laguntzailleak sortzeko ikastola berexi bat Iruña'n antolatu nai luke. Onen bearra bai daukala Naparroak! Orrela napar euskal neska askok izango lukete bizi-bide bot ta gaiñera euskal kultura errexago zabalduko litzake. Nai-ko laguntzaille, eziketan ondo jantziak izan ezkeru, eun ta ogei ikastola berriak irikiko omen lituzke Naparroa'n bizpauru urtean. Bide ortatik txikinenzat sortuko lituzke ikastolak erri geienetan ta estaduoren agiria dutenak jarriko lituzke baillaratako eskola aundietan euskera erakasteko. Gizon onen asmoak aberatsak dira ta oraindik gaztea da.

Ez da arritzekoa, Elias Martinez Lezea, Iruña'ko artxiberoa, txistulari ta euskalzale iatorrak, ikastolei buruz, neri esatea beste Iruñ seme askok bezela: "Ez nuen uste Iruña'n ainbeste aur ikastolara joaten ziranik". Gizon on oneri esker Iruña zarrako berri asko jaso ditut.

Aurren ikastolak ikoragarritzko indarra artu ba dute Iruña'n, gztetxoak, gazteak eta adíñekoak gero ta geiago arí dira euskeraz ikasten.

Arratsalde ta illunabarretan mendizalen alkarte askotan euskal ikastaldiak ematen ari dira, adibidez Nabarra, Irrintzi, Orhi mendi, Mutiko alaíak, baíta langille alkarte bat. San Juan auzoan ba dago talde bat ikasten. San Fermin'eko ikastolako gurasoei Jesuslagunen etxean ematen die Mikel San Erromanek astean iru aldiz; ogei ta bi ikasle datozkio. Gaiñera Aita Azkue Jesuslagunak ematen du Euskalerriko Adiskideak alkarteko biltokian; ba ditu berrogei ikasle.

Orrela azientzat euskera gabetan erakasten ba dabiltz amabost erakasle gutxinaz. Azien gabeko ia erakasle geienak ta andereño multzo bat, Patxi Zabaletak astero bein biltzen ditu euskal

alfabetizazioa egiteko. Gazte au Leitzak'koa degu, apaizgaia izandakoa, orain lege-gizon egin berria ta idazle zorrotza. Urte batzuek dirala, euskal irakasleak gertutzen Jorge Kortez Izal'ek deituta Yon Oñatibia gramatikoko ospetsue ibilli zan eta Iruña'n eman zituan bere ikastaroak. Gaiñera beste bigarren maillako lekaide ikastetxe askotan ematen dituzte euskerazko ikastaroak; Jesuslagunak, Klaretarrak, Maristak (azkeneko ikastaroko amabi mutillek eskatu zuten), Eskolapioetan (ikastaro guztietan ta auzoko azientzat gabeen).

Ikastolak bear dituzten gaiak errez billatzeko ta aurrak euskal liburu ta jostalluak izateko denda berri bat iriki dute, oso poliki antolatua; bere izena Kide da ta Gorriti kalean arkitzen da.

Euskal aldizkariak ere ba ditugu Iruña'n eta ez nolanaikoak, interesgarriak baizik.

1959'garren urtean sortu zuan Aita Felipe Murietakoak, Euskalerriko aur guztientzat "Umeen Deia" aldizkaria. 1965 urte arte iraun zuan. Danetara 330 Orrialde, 65 zenbakietan atera zituan ta 885 aurrek beren lanak azaldu zituzten. Etxalekutik (Imoz) Iruña'ra zijoala jaio zitzaion aldizkari au sortzeko asmoa. Principe de Viana euskal batzordeak lagundu zion ekintza au aurrera eramaten. Aita Felipe Murieta'koa, Lizarra inguruko erri txiki batekoa zan, 1897 urtean jaioa. Oso gazterik Lizarra'ra eraman zuten. Alsasu'n sartu zan kaputxino izateko. 1922 urtean apaiztu ondorean, Argentina'ra Berri Ona zabaltzera joan zan. 1936 urtean Espaiñi'ra itzulita, batez ere bere Naparroa'n bizpairu tokitan lana egin zuan. "Apakia" ezizenarekin euskeraren alde, eten gabe jarraitzen zuan. Bereak dira, Mendizaleen Meza, Kontu Zarrak eta Berriak, Naparro'ko Bersolaríen txapelketa eta batez ere "Umeen Deia" aldizkaria. 1966'garren urtean il zan Iruña'n.

Urte ortan bertem jaio zan Principe de Viana illeroko euskal aldizkaria. Lenengo zenbakia, Orreaga izenarekin atera zan. Diputazioak banatzen die Naparroko euskal sendi guztiei ordaindu gabe. Ortxen idazten dute Naparroko gaurko euskal idazle geienak.

"Diario de Navarra" egunkaria, berriz urte berdiñean, 1966'

garren urtean, asi zan amabostero lenengo aldiz Euskalerriko egunkarien artean orrialde osoa euskeraz argitaratzen. Itxuraz, gaiñera, orrialderik ederrena izaten da. "Napar izkuntzan" izenburua-kin, Santxo Jakintsuak Naparro'ko erregeak emandako izenarekin argitaratzen dute. Ba daramazki zazpi urte aurrentzat Axular saria antolatzen dula ta lanik onenak argitaratzen dituzte egunkarian.

Euskal kulturari buruz beste bi goi maillako aldizkariak argitaratzen ditu Principe de Viana Diputazioko kultura saillak. Bat izkuntzari buruz egiña dago, "Fontes Linguae Vasconum". Bestea euskal gizarteari buruz, Cuadernos de Etnografia. Biek 1969'garren urtean, ilbeltzan sortu zituzten. Ludiko jakintsuak diotenez, Internazional maillako aldizkari bakanak ditugu Espaiñian.

Euskal kulturako aldizkari auetan zer ikusi aundia dauka Jose Maria Satrustegik, Urdiaingo erretorak.

Beste napar euskaldun idazle argia Aingeru daukagu. Bere ezi-zena Apat-Etxebarne, aldizkari guzti oietan ezaguna zaigu. Larreko, Fermin Irigarai Auritztar idazle ospetsuaren semea degu. Berez Beratarra da, Alzate'n Xantenegarai etxean jaioa, 1899'garren urtean. Bi urtekin Irurita'ra eraman zuten. Bere aita bezela sendagillea egin zan eta Iruña'n lanean asi zitzairen. 1943'garren urtean Donosti'ra etorri zitzaigun bizitzera.

Ogeita lau urtekin gerra aurretik asi zan idazten, batez ere R. I. E. V., "Argia" ta "Yakintza" aldizkarietan. Berak dionez: "Biotzak agintzen ninduelako asi nintzan idazten. Pensatu nuan altxatu bear zala euskal kulturaren neurria ta indar bat egiten al nuela orren aldera" .

Euskeraren Adiskideak alkartearekin lana asko egin zuan Naparroa'n; errietan euskal jaiak antolatu, sariak banatu eta abar...

Berari esker, Naparroa'ko euskerazko paper zar asko ez dira galdu. Erriz erri billa ta jasotzen ibillia da, garaiz. Bere liburutegian egitazko bitxiak ikusten dira, batez ere Dotrina zar asko; Eulate, Amezkoa, Osakar, Txulapain, Aezkoa aldekoak, Uterga erretorena ere bai. Gaiñera apaizen elizetako itzaldi asko bildu ditu, batez ere Ezkabarte'koak. 1943 urtean euskalzaindikoa izendatu zuten.

Ba du liburu mordoxka idatzia; azkena aurtengoa, Naparroa'

ko euskal idazti batzuei buruz egiña. Ezin ditugunak aztu dira bere Euskalerriko Ipuinak ta Jostatuaz Mintzaira Ikas, liburuak.

Naparroa'ko idazle oneri Auñamendi aldeko euskal baillarak zor aundiak ordaindu beararak dizkiote. Ango itzak, adítza ta euskal joskera erabiltzen ditu berak.

Gaiñera idazle gazte askorentzat laguntzaille jatorra izan da, lanaren bide garbiak erakutsiaz.

Bere semeak, Jose Angel Irigarai, sendagillea, Iruña'n jaioa ta Donosti'n bizi danak ere idazten du Principe de Viana euskal al-dizkarian, Anko Sendo ezizenarekin, "Ez dok amairu" taldekoa de-gu.

Iruña'ko Ikastetxe Nagusian ere euskal kulturari arrera ona egiten diote. 1962 urtean Jose Migel Barandiaran deitu zuten eta geroztik asteen bi aldiz etnografia erakasten du. Bere erakasketatik sortu dira Naparroa'n ETNIKER taldeak. Diputazioak laguntzen die ikaslei ta oso lan interesgarriak egiten ari dira, Naparroa'ko bai-llara askoren gizanortasuna agertuaz. Dagoneko emaitza ugaria biltzen dute.

Orain dala iru urte, berriz, Basterretxea Bizkaitar erakaslea, eus-kera izkuntzaren jakintza banatzen ari da, goi maillako ikasketen bidez.

Aurten Naparroa'ko Aurrezki Kutxak bere jaiotzaren 50 urte be-tetzea ospatzen dula, Naparroa'ri ta euskerari buruz liburu interes-garriak argitaratzen ditu, batez ere Lakarra, Karo Baroja, Iñigez eta beste jakintsu batzuek egiñak.

Iruña'ko Eliza ere ez dago lo. Jaunari esker esnatu da. Len esan degun bezela, lenengo euskal meza 1966'garren urtean Kar-melitetan jarri zan; 1970 urtean Jesuslagunen etxean, 1971 urtetan kcrputxinoetan ta aurten "Damas Apostolicas" lekaime etxean. Orain larunbata altsaldetan bi meza esaten dira, igande goizetan beste bi ta atsaldean bat. Datorren ikastaroan Jesuslagunetan egu-nero jartzekotan dabiltz.

Euskerazko pastoralara batzorde bat arí da Iruña'n lana zuzen-tzen. 1972 urtean, martxoaren amaseian iru apaiz, lau gizaseme ez-konduak, bi gazte, lekaime bat eta bi neska bildu ziran. Talde on-

tako langille sutsua Aita Aginagalde jesuslagun Azkoitiarra degu. "La Verdad" elizaren aldizkarian, azkeneko urteterdi ontan ia as-tero idazten du. Gaiñera kristau gazte talde bat zuzentzen du illean bein euskal mezak erri txikietan egiteko. Berak dion bezela, "lenengo gauza apaizei bildurra kentzea da".

Naparroa'ko euskal errialdeko eliz ordezkaria ere Iruña'ko euskal elizagaz asko arduratzen da. Iruña'ko euskal elizaren batzordea izendatzekotan dabil ta euskaldunak zuzpertz egin nai ditu. Iruña'n egiten dan lanari garrantzi aundia ematen dio ta ala da. Berez Bera'tarra degu, Atalabordako semea. Len Illarregi'n (Ulzama) erretora bezela egona, aspalditik Naparroa'ko baserri gaztediaren arduraduna. Orain dala bi urteterdi ezkeretik Auza'ko (Ulzama) erretora, baiñan Iruña'n bizi dana. Naparroa'ko gotzalak izendatu du, apaizak biltzeko ta apaiz euskaldunak bear diran parrokietan jartzeko. Berak dion bezela, Iruña'tik bear degu lanean asi. Esan dezakegu asi dirala ta ongi gaiñera. Antolatu ta egin dituzten euskal mezak aurrera dijoaz; lenengoa Auza'n gero Illarregi'n, Juarbe'n, ekainaren 25'n Eaurta'n (Jaurrieta) ta Uztaillaren lenengo igandean Orreaga'n. Garai labur ontan ikusten degunez, ez dira lotan egon, eten gabe lanean jarraitu dute.

Pedro Maria Zabalza, Iruña'ko Eliza barmtiko Bikario Jeneralak asko lagundu die ta bere itzala onuragarria izan da. Esan nai nuke gaiñera, berak eman ditula toki batzuetan bai mezak eta itzaldiak euskeraz, eta onek gaurko Naparroan sinbolismo aundia dauka; 1971 urteko Garralda'ko festetako meza nagusian, Abaurrea gaiñe'ko eliza berritzea, Orreaga' ko euskeraren egunean meza nagusian. Gizon onen ekintza jator ta berexi auek indar aundia ematen diote euskerari ta euskaldunei Naparroan.

Euskera aurrera ba dijoa Iruña'n, txistua ez da atzean gelditzen. Errikoetxeak ba du bere txistulari taldea 1952 urtea geroztik, orain dala ogei urte egiña ta Patxi Arraras'ek antolatua.

Olaetxea gotzaiak egindako idazki nagusi baten ondorean, Oberena alkarteak txistulariekin jaialdi eder bat zuzendu zuan 1942'garren urtean, ilbeltzaren amalauean.

Toki askotan daude txistulariak ta berriak ere ikasten ari dira,

batez ere Errikoetxean. Oberena alkarteak daukan txistularien ikastolan ba dabiltz irurogei ikasle; Anaitasuna alkartean beste ainbeste, ikastoletan, ikastetxe ta abar. Iruña'ko eresi etxean edo konserbatorioan Garai eraskasleak ere erakasten du.

Orain dala amabi urte San Fermiñetan asi ziran, urtero Euskalerriko txistulariak biltzen.

Naparroa'ko euskal dantzetan gizonik jakintsuena Patxi Arraras izango da. Iruña'ko alkarte askori erakatsi die dantzatzen, batez ere Errikoetxean, Oberena, Mutiko Alaiak, Sección Fememinan eta abar.

Ba ditu bilduta irureun Naparroa'ko euskal dantzen doñuak. Txistua jotzen 1927 urtean asi zan. Bere ustez, dantza asko euskal ereslariekin batean galdu dira. Txistulariak joan ezker aiekin batean atzetik beste gauza asko galtzen dira.

Orain Iruña'n egiten dan lanari garrantzi aundia ematen dio Patxik. Iruña'ko talde batzuek Naparroa'ko errien dantzak ikasten dituzte ta gero erri oietara dijoaz erakustera. Erri oietako dantza asko nola galduak dauden, ikusirik nolakoak diran bertako semeak arriiurik gelditzen dira. Erronkarin, adibidez, Iruñsemeak erakutsi diete beren dantza zarra ta orain berak ikasten asiak dira.

Patxi Arraras'ekin giñala buruauste aundi batekin arkitu genuen. Oroitzen zan, bera txikia zalarik ikusia zeukelako, Iruña'ko Madalena auzoan, San Lorenzo egunean larrain dantza nola egiten zan. Dantza ondorean "txurita beltz" jaten zuten. Orain dala berrogei ta amabost urteko kontuak dira. Geroztik arront galdua zegoen. Dantza orren eresia billatzen zebillen larritasun aundiakin. Fermin Benanzio Salanueba gaiteruaren paperetan arkitu du azkenean. Ondotik dantza berritzen errexa izango zaio. Ingurutxo da, Patxi Arraras'entzat Naparroa'ko euskal dantzen artean ezaugarriena.

1971'garren urtean, San Fermiñetan asi ziran Naparroa'ko dantzari ta abesbatzak biltzen. An abestu zuten Agur Jauna, Iruñsemeak ezin dute aztu ta billera ori indartzera dijoaz.

Ezin deguna ulertu da nola leiken Iruña'ko konserbatorioak, 1971'garren urteko ikastaroaren bukaerako jaialdian dantza klasiakoak eta ilamenkoa agertzea ta Naparroa'ko dantza bat bakarrik ere

ez egitea. Ori Diputazioaren diruarekin antolatzen dula Ba da zerbait.

Azkeneko urte auetan, Aralar'ko San Migel Iruña'ra dijoala, gerota geiago euskeraz abestutzen diote ta txistua joaz agurtzen dute. Aralar'ko aingeruak dakarkie euskal kutsu sutsua.

Ikusten degunez, euskal kultura ta giroa indartzen dijoa Iruña'n. Gaur egun euskerak prestijio aundia dauka, ikastolak lerturik, alkarte askoren izenak euskaldunak (Donibane, Anaitasuna, Kirol, Oberena, Iruña'ko Beti Gazte, Aldapa, Beti Lagun, Gaztedi, Errotazar), aurrei kutsu aundiko euskal izenak jartzen dizkiete, bazter guztietan gure ikurrina ba litz bezela kaikua ageri da...


Naparroa osoa Iruñari begira dago ta Iruña'n egiten danak zerbait esan nai du. Euskerak burrukarik latzena irabazi du, ondo ikusia ta maitatua dago ta eunka gizasemeak berea bezela artzen dute.



AURITZ BERRI, ERRI TXURIA

Eri garbi ta polit onek, euskeraz Auritz Berri du bere izena, Espinal erderaz. Erro ibarko erririk aundiena da. Kale luze baten inguruan daude eratuak etxe txuriak, tellatu gorriekin eta erriaren mutur batean Aezkoa aldera eliza berria, galanta, liraina, arrosa margozko arriekin egiña eta arbelazko tellatu luze batekin. Elizaren gaineko aldian Santiago auzoa dago.

Berrau mendi babesean sortu da gure erri alai au. Ázkeneko aldian, an nintzala, "Mendi txuri" eta "Mendi aundi" elurrez be-teak ikusten ziran. Erri inguruan zelai zabalak, urrutirago mendi ederrak, nunai baso galantak. Izan leiken pagotegirik onena erri



onek dauka, bere izena ere alaxekoa Oianzabal; Arzilo ta Itolegin eratua degu. 1.140 ektareako basoa dago.

Gaur Auritz Berrin 325 ta 73 sendi bizi dira. Geienak larreko beiak izaten dituzte. Oraín berriz, lur sagarrekin asi dira jota ke. Gainera erriko etxeak banatzen dizkie sendi bakoitxari basoekin ateratzen dituzten diruekin, 10.000 pezeta jaietan eta beste amar milla Eguberritan. Ez da laguntza txikia. Basoko diru orrekin Paris txiki bat egin dute erriarekin: kaleak berritu, etxeak apaindu, eliza ta frontoi berria. Eliza au, Naparroan dagon ederrenetakoa da, merezi du gelditze ta ikustea. 1961'garren urtean altxa zuten. Iru zati ditu; elíza, dorre luzea ta ataria bere arkupe ta iturriarekin. Frontoi berria 1948'garren urtean egin zuten; bear bezela, alaxeko izena jarri diote, "ederrena". Iruñaruntz goazela badago bei kope-ratiba bat. Bertan 14 baserritar batuta daude. Arrotz etxe berri ta on bat, etorkizun aundikoa izango litzake erri zoragarri ontan.

Erri ou ez da gaurkoa. 1269'garren urtean, sortuazi zuan Teobaldo II, Nafarroko erregeak. Gudan indartsua zan errege au, aolkuak ematen argía eta beartsuai laguntzen esku zabala.

Santiago bidean dagota, erromeslariei, makiña bat mesede egiña izango da.

Parrokian daukate gurutz eder bat 16'garren gizaldikoa, zillare-zkoa, "Luisek" egina ta Migel Santesteban Zatarenak emcma.

Auñamendi muturreko erri ontan euskal usaia artzen da. Eliza barrenean euskeraz idatzita dago izki aundiakin: "Nor Jaungoikoa bezela" eta illerrian ere "goian bego". Orain dala 60 urte, biz-pairu aldiz urtean, itzaldiak elizan euskeraz egiten zituzten; 1915'garren urtean, gogojardunak azkeneko aldiz egin zirala. Oraindik gure azkeneko anaien gerrate arte gizaseme guztiak euskeraz mintzatzen ziran. Txistulari oso ona ere bazeukan erri onek, "Silverio Villanueva" bere izena. Txistulari onen bidez aita Olazaranek "Katedra dantza" altxatu zuan. Silberiok gure azkeneko guda arte, txis-tua jo zuan. Gero mututa gelditu zan.

Erri ontako gizasemeak, arremen aundiak zituzten baztanda-rrekin. Belarra ebakitzera zetozen eta danak euskeraz mintzatzen ziran.

Europako lenengo guda nagusi garaian, euskal frantsez asko itzuli zijoazela, onera etorri ziran eta aien euskal kantak entzuten pozik zeuden Auritz Berritarak.

Gure guda aurretik aurrak eskolaren bidez, erderaz mintzatzen asi ziran. Silberio txistulariaren emazteak, bere aurrei, atsaldeko gosaria eskatzerakoan, euskeraz egin azten zien... gaiñerakoan txokolaterik gabe gelditzen ziran. Eduardo Iriartek berdin esaten zidan, "Nere aita etzitzaidan bein ere erderaz mintzatu".

Gaur oraindik, adiñako gizasemeak mintzatzen dira euskeraz, danetara 62. Ba dira bi sendi ere aurretik asita, dana euskeraz egi-ten dutenak; bat Auzatarra (Ulzama), bestea Luzaidetarra.


Oraingo erretoa, euskaldun jatorra daukate Raíael Imaz, Etxarritarra. 1932"garren urtean Z. A. gian, "Bordari" ezizenekin olerki bat argitaratu zuan. Etxean ba dauzka idatzita beste lanak eta argitaratu gabe. Elizkizunetan euskal kantak ere batzuetan kmctatzen dituzte, bainan itz egin ez.

Gaur berriz euskal giroa esnatzen ari da. Ekintza bikain bat egin dute beste toki askotako eredu bezela geldituko dana. Joan dan urieko agorran ospatu dute erriko jaiotzaren zazpigarren gizal-dia. Aitzaki onekin jai berexi batzuek antolatu dituzte, euskal kul-tura sartuaz.

Batez ere esku liburuxka bat argitaratu dute, oso ederra ta on-do egina, euskal usaia jario dula. Ekintza eder au iru gaztek era-man dute aurrera, Pello Urtasun, Siberio ta Narziso "Villanueva" anaiak. Osaba Simon apaizarena omen zan asmoa. Diputaziora "argi" billa joan ziran. Pello Urtasun filosofia ikaslea dugu ta txis-tularia.

Erriaren jaietarako aurrak biltzen zituan eta dantzak erakasten zizkien, adibidez, "Arin arin, Txangarrakua". Aurrak bai gogotik ikasi ere. Euskal jotaren txapelketa antolatu zuan orain dala bost urte. Pelota jokua ere indartzen ari da. Gauza guzti auen bidez, euskal giroa esnatzen asi zan ta azkenean erri jaiotzaren urte be-tetzea ospatu dute giro berri batean.

Jai oiek euskal kutsu aundia izan dute eta liburuxkan, erriko etxe guzien izenak ere sartu dituzte. Izen oietan, batzuek ba dute



nortasuna ta indarra: Zibur, Llarena, Perkain, Eneko, Androt, Antxandoi, Yanborin.

Pellok orain euskera, bere gogoz, ikasi du eta gaztei erakaste-ko asmoakin dabil. Euskera ez da ain errex iltzen, ba dauka arriaren bizia. Zarrak naiz il, zerbait bizirik gelditzen da. Bere bi aitona zurgiñak omen ziran eta aietako bat Aibarren, Sangoitza inguruan lanean ari zala, Korpus egunean urtero, erriko prozesiora etortzearen etxera biltzen omen zan. Aitonon semeak esaten zidan: "Egun on ta gabonak beti euskeraz eman dizkiot nere aitari". Gaur euskera naiz utzia izaki, maite dute. Pellon aitak zionez. "Azpeitin ikastaro batean nengoela, danak euskeraz ari ziran. Antxen geldi-

tuko nintzan gogotik". Orrelako giroa dagoen tokian euskerak pixtu bearko du.

Erri onek ikastola bat bear luke. Jakiña, ikastola izateko, erri txiekiegi degu. Bainan zelai ortan dauden iru irientzat, bat ez litzaieke gaizki etorriko. Gaur mikrobus txiki batekin bildu litezke iru errietako aurrak. Erri oiek diruakin ez dute buru austerik. Baso' galantak antxe dauzkate. Euskera bezin bearrezkorik ez dute beste ezerrik.

Ikastolaren zaletasuna sortuazteko ez litzake gaizki etorriko, udaran belar garaian andereño jator batzuek, gurasoak lanean ari diran bitartean, aurrak biltzea, euskera erakastea eta gure abesti alaiak zabaltzea.

Gaurko euskal gazteak ba daukate lana nun egin eta baita nun gure kultura zabaldu.

"Euskera oraindik Auritz Berrin belarrietan dago..." Silberio "Villanuevak" zion bezela.



AURITZE TA AUÑAMENDIKO AIZE OSASUNGARRIAK

Euskalerrian atseden toki zoragarri bat balin ba dago, erri au da. Euskeraz Auritz bere izena, Burgete erderaz. Zelai galanta batean agertzen zaigu, mendi ederrez inguratua. Auñamendi tartean dagon zelairik aundiena ementxe arkitzen degu. Baso galantak bertan eta iturri goxoak nunai. Aizea bai bikaina, tokia alaia, laiño zuria ateratzen danecm Auñamendiko usaia bertaraiño ekartzen du. Belarra ere ez da bakarrik polita, baita usai gozokoa. Erri atzetik igarotzen da Urrobi ibaia, lasai ta ixillurik gabe. Elurra asten danean, luzaro irauten du; batzuetan illabeteak berton gelditzen da, lo ba lego bezela

Erria, kale luze batean degu eratua. Etxeak arrizkoak, tellatu

luzekin jantzita, zapel eder batzuen antzekoak dituzte; tellatu ba tzuek arbelazkoak eta besteak tella gorrikoak. Ia etxe guztien arpegiak desberdiñak ditugu, ez eso zabalak bainan atzeko aldera bai, luzeak; etxe barrenak bai erosoak; sukaldeak Euskalerrian dauden ederrenetakoak. Irigarai etxeak adibidez, ba du ikusteko moduko sukaldea, lenago zan bezela gordetzen dute.

Eliza ta frontoi itxia, erri erdian daude. Gaur 72 sendi ta 400 biztanle bizí díra. Lurgíntza, baso ta kanpotarretik ateratzen dute bizi bidea. Ba daude bi ostatu, lau jantoki, zazpi edantoki ta ogeita amazazpi sendi aberedunak. Orain arte, aragia ta basoa ziran lurgintzaren oñarriak. Gaur, berriz, lur sagarrekin asi dira lanean, jo ta ke. Garo lekutan patata soroak aldatzen dituzte. Bertako erreto-rak, lur sagarraren koperatiba bat sortu du. Lan elkarte ortan, 37 sendi sartu dira.

Erriko Etxeari eskatu diote lurra eta orrela, zazpi lur zati ederrak artuta dauzkate, bat 300 errobadakoa eta bestea 80 koa. Joan dan urtean, 420.000 kilo patata bildu zituzten eta 4'20 pezetetan saldu. Garbi ikusten dana da, lur oiek oso egokiak direla lur sagarrentzat.

Erretoraren bitartez ere kulturaren gosea sartu da erri ontan. Ia gazte danak ikasten ari dira. Leizako nekazari eskolan lau mutil ba daude izanak. Burladako lan bide eskolan ari dira ikasten geinak; danetara 40 gazte.

Eliza berritu dute eta ez nolanai. 1612'garren urtekoa degu. Ikaragarrizko buruaustea zeukaten, ezetasuna edo umedadeakin. Ormak usteltzen zijoazten. Azkenian, Frontziko inbento baten bidez, ormetan ur bide batzuek sartuaz legortu dituzte arront. Dorrea, berria da; 1948'garren urtean egiña, Erretaula zarra bota zuten, ustelduta ezertarako etzala geldítu zalako, Bariko San Nikolasen íduri eder bat bakarrik daukate, Santu onen izena daramaki elizak.

Erri zoragarri au, udaran arrotzez bete betea egoten da. Etxe geienetan artzen dituzute kanpotarrak. Atzeritarrentzat agertzen duten zaletasuna ez da gaurkoa. Santiagora zijoazten erromeslariak, beren etxetan artzeko oitura ba zuten aspaldiko artzaia. Gaurko kalean barrena zijoan galtzara zarra. Gaur ostatuak dauden

tokietan, orduan gaxotegiak zeuden. 1794'garren urtean, erreak izan ziran Frantziakin izan genuen gudan.

Erri onek ba du euskal usaia. Sartu ezkerro, bertako jendiakin euskeraz asteko gogoia ematen du. Ba euskera ia galdua dago. Zarrak ba dakite eta bizpairu sendietan oraindik egiten da. Gaztzentzat eta aurrentzat, arrotza da gure izkuntza. Ortaraño iritsi dira, poliki, poliki, konturatu gabe. Ez da gaurkoa euskeraren aldapa bera au. Erdera, aspaldi elizetan sartu zuten; euskera gutxiegi iduritzen zitzairen nunbait. Orain dala irurogei urte, itzaldiak euskeraz egiten zituzten. Udarako kanpotar geienak, nola erderaz mintzatzen ziran, erritarrak aiei begira zeuden eta aiek bezela egin bear.

Oraindik 1948'garren urtean frontoia berritzean, bersolariak ekarri zituzten, baita pozik entzun ere. Azkeneko anaien borroka nagusia arte, txistua jotzen zuten eta dantzak erakastera Aoitzetik Paternain etortzen zitzairen.

Esan dezakegu, oraindik, etxe batzuetan maite dutela euskera. Auek, gauza txar bat, inguruko giroa, dana arrotza. Nunbaitik sua ekarri bearra dago, berriz pixtutzeko.

Napar euskalzale aundi bat, bertako semea degu. Bere izena jaiotzez, Pablo Fermin Irigarai Goizueta ta bere idazle izena "Larreko". 1868'garren urtean jaio zan, Martin Zurginenea etxean. Senda gille egin zan. Beran, Iruritan eta azkenean, Iruñako gaxotegi nagusian lana egin zuan. Gizon bezela, oso ona ta ziñezkoa zala esaten dute, kristaua egizkoa gaiñera. Sendagille bezela egindako lanegatik Naparroak zorra aundiak ditu berari ordaindu bearrak. Gaxotegi berria gizon onen bidez egin zan eta ango zuzendaria izana da. Ebakunzlari edo zirujano bezela lana egiten zuan eta esan dezakegu Naparro osoa bere eskuetan igaro dala. Bere gaxoak ez dute aztu; oraindik gutxiago beartsuak. Bere seme alabak ba lira bezela artzen zituan. Bere lanbidean oso argia omen zan. Gainera, nola ez?, euskalzale sutsua genuen ta idazle benetakoa. Euskera ondo zekin eta nafar euskeraz idazten zuan. Euskal elertia aberastu zigun. Beste askoren artean ortxen ditugu bere bi lan bikaiñak, "Euskaldun Bioztuna Mexican" eta "Feminismoaz". 1948'garren urtean il zan. Euskaldunak pozik mintzatzen ziran berakin

euskeraz, Iruñako gaxotegian eta gure Fermin aspertu gabe jarduten zan solasean. Ez dakigu oraindik ondo zenbat balio duan euskeldun sendagille batek. Udara garaian, Aragoira Pantikosa alde-ra joaten zan. Ango aize ederretaz ba ditu lan batzuek egiñak.

Udajende artean ere ba zetozen Auritzera euskalzale berexi batzuek. Oloriz senar emazteak urtero agertzen ziran. Etxe polit bat egin zuten, oraindik zutik dagona, Orreagaruntz goazela azkena ezker aldean. Oloriz emazteak, il zanean ikastola bat egiteko utzi omen zuan, bertako aurrak euskeraz ikasi zezaten. Asmo ou bete gabe gelditu da. Idazle ta gizon ospetsu onek, Ermilio Olorizek baditu idatz lan ederrak egiñak, Naíarroko askatasunari buruz eta Azpilkueta jakintsuagaz. Gaiñera olerkaria zan. Euskeraz gutxi zekin bainan aurrei, gauzen, ta euskal izenak galdezka ibiltzen zan.

Olorizen etxera askotan etortzen zan Arturo Kanpion. Naparroak izan duan euskalzalerik aundiena eta etxe ortan idazten ibiltzen zan. Orregatik ezagutzen zituan ain ondo' orko bazterrak eta ain ondo ere eman digu lur oien usaia. Oloritzen etxeak ba du Euskalerriarentzat berexitasun aundi bat.

Erri onek ere ba ditu bere dantza berexiak, S. Juan bezperan oraindik dantzatzen dituztenak. Xeetasun aundiagoak izatearren, Aita Riezuri eskatu nizekion ango berriak eta euskalzale jator onek baita eman ere. Aita Donostiren idazkitegitik utzi zizkidan, papera batzuek. Dantza oiek "liturgi" baten antzekoak dira.

Aspaldi, gerra aurretik, Almandozko txistularia, Jose Angel Dorremotz etortzen zitzaien urtero erriko jaietara mendiz. Gazteak bere billa, Ipetea iturriraño ateratzen zitzaizkioten. Andik txistuakin "karrika doñua" joaz sartzen zan errian. Lendabizi agintariak agurtzen zituan. Suak etxe aurretan piztu ondorean, mutil dantza jotzen zuan. Gero San Juan iduriari, ogi bat jartzen zioten eskueton. Ondorean "eztai" doñua joaz, erre kara arpegia bustitzera zijoazten danak eta andik ekarrita, etxe atarietan elorri adarrak jartzen zituzten. San Juan egunean, ogia, gazta ta ardoa banatzen zieten. Atsaldean "eskila fraile" dantzatzen zuten ta ondorean "pañulu ta andre" dantza.

Jaietako irugarren egunean, kalera ateratzen zituzten aria ta

antzumea. Ari ganean zatarrezko gizontxo bat zeramaten. Iduria erre ondorean, aria gazte guztien artean jaten zuten.

Azken egunean Erri Etxeko maia gainean jaien buru ibilli zan mutillak eskuan edontzia ardoz betea artuta ta zapi bat zitula, mutur batetik bestera dantzatzen zan eta urrengo urteko jaien zuzendaria aukeratzen zuan. Ikusi bear da, xeetasun guztiekin nolako maitasunakin aipatzen dituan bere idazkietan, jai auek Agustin Irigaraiek.

Uste dugu, orrelako euskal bizitasuna izan duan erriak, ezin duala betiko euskera baztertu. Lo ba dago, pixtuko da.

Lenengo gauza egin bearra errí ontan; Pablo Fermín Irigarairi omenaldi bat ondo antolatu. Orrelako gizon jatorrak, sendagille ospetsu ta idazle onak oroitarri bat merezi luke bere errian. Aitzaki orrekin ez litzake gaizki izango, Olorizen etxean ikastola bat iri-kitzea. Ba dakit ez dala errexia izango. Jakín bear lutekena da orrelako erri batentzat euskera oñarri berexia dala ta bere nortasunari indarra ematen diola. Erria aberatsa da; basoak ezin ederragoak. Merezi luke ba diru orrekin ere euskerari laguntzea.



ABAURRE GAINA. NAPARROA'KO "FAR-WEST"

Ez dago Naparroan, beste erririk au ainbeste, diru aldetik, aurreratzen dijoanik. Erri osoa berritzen ari dira,- kaleak, eliza, etxeak. Arrituta gelditu nintzan ikusita nola berritzen zituzten baserritarren etxeak; ateak eta leioak, danak aluminiozkoak jartzen zituzten. Dirua ba dagola ageri da. Aberastasun orren oñarri lur sagarra da. Ateratzen duten lur sagarra ereiteko balio du. 56 sendi bizi dira ta ba daude 36 tratore; danetara 260 bizilagun. Aberastasun berri onek eta ango zelai zabal aiek ematen diote Abaurre gainera Ipar Amerikako "Far West"en itxura. Naparroan dan erririk goiena dugu 1.012 metrokin. ORHI mendi ta Auñamendiko tontor ugari ageri dira. Ikustepegi edo paisajea espektakulo bat bezela azaltzen da. Mendi aiek ikusi bear dira aizeguakin. Ez da bat ongi konturatzen, zer dan politena, goizea edo arratsaldea. Bainan geiena zoraturik utzi nauena da, an Auñamendiko mendi mutur artan ikustea euskera bizirik dagola. ORHIko mendira igo ezkerro, Naparro aldera ez da beste erririk ikusten Abaurrea txuri txuri baizik eta toki zoragarri ortan Iruñutik ain urruti dagona mendi mutur batean eratua, euskera ez dago illa. Egizko mirari bat da. 80 urtetik gorako zarrak ez dute bein ere elizan entzun euskeraz egindako itzaldirik. Kristau ikasbidea beti erderaz eta berdin abestiekin. Orrelako giroan euskerak irautea egizko mirari bat da.

Galdetu nuen nola deitzen zituzten euskeraz, an urrutian sortalde aldetik agertzen ziran Auñamendiko mendiak. Bai erantzun

polita eman ere: "Anso bortuetako kaskoak". Berez, ia beti "Anso-ko Bortuak" deitzen dituzte.

Etxeetan ta kalean entzuten da euskera. Nortasun aundikoa dute. Bizpauru sendietan aur txikiak ere mintzatzen dira euskeraz. Gazte danak ulertzen dute, bainan askok erantzunak erderaz ematen dituzte. Orrela galtzen dute euskeraren oitura. Eskola garaian euskeraz egitea lotsa ematen die eta andik aurrera ezin dute geiago kendu.

Eusebia Legaz, 85 urteko amona batekin egon nintzan eta esan zidan bera aurra zala, Agoizko tuntuñeroa etortzen zitzaiera ta inguruka dantzatzen ibiltzen zirala, garai artako gazteak.

Gabonetan, "Jubilar egunean", mutillak makillak bizkarrean artuta etxez etxe ibiltzen omen ziran, abarka txatarrekin jantziak, kanta zar bat kantari, orain galdua dutena.

Kixket etxeko, larogei urtetik gora dituzten bi izeba zarrei entzun nien, berak txikiak zirala nola 12 neska, Kandelaria bezperan biltzen ziran, Zerealde'an zan elizatzxoan eta an Zeruko Amari kantatzen zioten kanta luze bat. Ementxe agertzen dut zati bat. Arri-tzekoa da aztu gabe amona aiek aiiñ ondo jasota eukitzea. Merezi luke doñu ta guzti ondo altxatzea.

"Amabirjina zegonenean, gabera illuna batean
illuna argitzen zion, illuna zegon lekuan.
San Gabriel jarri zitzaion, belauniko aurrean
espantu aundia, artu zuten ura an ikusi zutenean.
Ez espanta, ez Maria, ni naiz mandataria,
mandataria, nundik nundik?, zeruko koronetatik.
Mandataria zer dakarrazu zeruko koronetatik?,
Berria berrik, berriak eta berriak guztiz tristerik.
Judio marrano traidore aiek, eman zidaten edari,
edaria dolorea, ospinarekin edanea.
Ark erretzen zuan ene biotza, atzeirun ura bezela,
ene seme onezia, oi zer da zure merezia.
Obenik eta kulparik gabe, oi zure llaguen ixuria.
Amai andrea zaude ixillik, ez egin otoitz, arren nigarrik.
Ene gaurko odol ixurik, ez daukazula konturik.

Amen, amen, egarri naiz egarri, biotzean dut ageri.
Amen, Amen, dela Jesus guzien salbatzallea,
zure izenean erranen dugu, gogo onez Ave Maria,
baita ere Pater Noster, Jaunak dakigun balia
eta bertze munduan Gloria".

Kanta zar onek ba ditu beste lau zati luze batzuek. Basilia Arostegi bere 82 urtekin geíegi ez nekatze arren, pakean utzi nuan. Doñua ere oso zarra da, merezi luke osorik artzea.

Kixket etxera urbildu nintzan, baita egin ere egon aldi zoragarri bat. Aur txikietatik asita zarretaraiño, etxe artan, danak euskeraz egiten dute. Arrituta gelditu nintzan. Bertako alabak, Nelida Arostegik, bere 25 urtekin, nai duan bezin ondo mintzatzen da euskeraz eta maite du benetan. Aita etxean beti erderaz ari zaio, ama berriz euskeraz. Bitxi aundi bat bezela jasota dituzte bertako bi semeak, Melida ta Karlose Diputazioak emandako diplomak. 1959ko abenduaren 31an sarituak izan ziran euskeraz egiten zutelako. Gauza aundi bat bezela erakusten dituzte agiri oiek.

Orain sei urte ditun anai txikienak ondo daki euskeraz bainan asi da eskolan ta lotsatu egiten da. Fantxuriko seme tipiakin beste ainbeste gertatzen zaio. Etxean euskeraz egiten diote, gero eskolan asita dana utzi. Aur onen amak ala zion: "Eskolan, gutxinaz, izan ba gindu egunero ordu bat euskeraz?". Ikusten dan bezela aurrak ba dute naiko lan euskeraz iarraitzeko. Eliza aldetik itz bat ere ez. Eskolan ibilli bear berriz 14 urteak arte. Orrela euskerak ezpañetik alde egiten die. Orain gutxi galdu da aurren artetik. Lenago bear zala, aziendak zaintzeko eskola uzten zuten. Alorretan ta etxean euskeraz egin bear. Gaur, berriz, aurtzaro osoan eskola bakarrean daude eta an dana erderaz...

UMEEN DEIA liburuak ba dakar, berriz Juan Jesus Landa Lareak, aurra zalarik idatzitako ipuitxo bat.

Dana dala, ba dauka erri onek nortasun aundia ta euskera

jatorra. Gaur arrazoiakin jendea minduta dago. Ala zion andre batek: "Gaur ari dira euskera jaso bear dala esaten. Gu Iruñera joan-ta burla ederrak artuak gaude euskeraz ari giñalako. Euskeraz egi-tea gaizki ikusia zegon garai batean".

Erria eratua dagon tokia, gaiñe batean, ezin leike alaiagoa izan. Baigura zabalaren babesean, Mentortz gaineko aldean dula, San Migeleko arkaitzak ipar aizetik laguntzen diola. Etxeak sendoak eta ederrak ditu. Sortalde aldera bi landa zabalak eta ede-rrak daude. Alkimear aldean dauzkate bordak abelgorrentzat.

Ura ezin ohea, Aranbeltz iturritik datorkie.

Jendea lana eginez, bainan oso ondo bizi da. Sendi bakoit-xak, zortzi milla kilotik amabost millaraño lur sagar ereiten ditu. 6,50 pezeta kiloa ordaindu izan diete. Ereiteko patata bakarñk bil-tzen dute.

Arrobi bat ere ba dago San Migeltxo lepoan, ipar aldera.

Eliza ederra, arrizkoa, gotikoa, XV gizaldikoa. Orain berritzen añ dira. Sarrera aurrean ba zegon 16'garren gizaldiko gurutze eder bat. Elizako atea, iru abetxo ditula alde bakoitxean, polita da. Sa-kristian gordetzen dute zillarrezko gurutzea, amaseigarren gizaldi-koa, ederrenetakoa. Korua ere arrizkoa gizaldi berdiñekoa. Bumi ixtura bat ikusi nuan 15'garren gizaldikoa sendoa ta dotorea.


Erri gainean, San Migelen baseliza galanta eroria dago. Bost arku erromaniko gotiko bitartekoak ditu eliza barne bakanekoan, arri landuakin egina ta eguzkiak ematen dionean zillar antzekoa da. Orain dala irurogei ta amar urte eman omen zan azkeneko meza. Ondorean apez bat ormatik arriak artzen asi zan bere etxea kon-pontzeko. Orrela dago erdi erorian eliza galanta ta eder oñ. Ba-tzuek altxa zuten, besteak lurrera botatzeko.

Eliza au eroria ikusita nere miña agertu nion oraingo erreto-rari. Ez da Abaurrean bizi Eaurtan baizik (Jaurrieta). Andik etortzen da bizpairu aldiz asteen. Bere izena Julio Esandi. Esan zidan: "San Migelen eliza altxa aurretik beste gauza bat garrantzi aundikoa egin bear dut. Abaurreko euskera berpiztu". Ortarako ez daki nun-dik nora jo. Orduan oartu nintzan naparrak zeinen gaizki ezagu-

tzen duten Naparroko euskal giro bizia. Laguntza billa dabilz. Az-
kena da erri oiek bakarrik uztea. Itxaropena ba dute oraindik. An-
dre batek ala esaten zidan: "Euskera elekatu ezkeru, gero ere erde-
ra apainki egiten da".



tzen duten Naparroko euskal qiro bizia. Laguntza billa dabilz. Az-
kena da erri oiek bakarrik uztea. Itxaropena ba dute oraindik. An-
dre batek ala esaíen zidan: "Euskera elekatu ezkeru, qero ere erde-
ra apainki eqiten da".





URDIAIN ETA JOSE MARIA SATRUSTEGUI ERRETORA

Urdiain ta bertako erretora Jose Maria Satrustegi, biek batean jartzea bearrezkoa deritzaigu. Bi izen oiek betiko lotuak gelditzen dira.

Urdiain, Sakanako erria degu, Labarga ondoan, Urbasa'pean dagona. Iruña'tik Gazteiz'era dijoan errege bide nagusia beko *al-*detik igarotzen da.

Bertaraiño sartu arte ez da bert konturatzen nolakoa dan erria. Errege bidetik kabi soilla dirudi. Bertara joan ezker, berriz, ustekabe aundia artzen da; erria lasaia ta alaia, aldapan, eliza beko aldean, lau enparantz ederrak, iturri bikaiñak, kale garbiak, etxe sendoak arrilanduzkoak. Ia 800 biztanle ditu. Alsasu'tik iru kilometrorra dago.

Ba dauka Urdiain'ek beste bitxi berr jakin bear dana aurretik, ikusteko; amets toki zoragarri bat, neretzat Naparroa'n dagoan politenetako berr, Aitziber izenekoa. Errege bidea ber burni bidea igaro bear dira, aritztegi zoragarri batean sartzeko. Aritz galantak, zarrak antxe daude zelai batean, ta belar xea luroial bat bezin apaiña. Aitz tarte batetik sartuta agertzen zaigu ur basatia, arkaitza larrugorritan ber bakardadea mendi tartean. Gain batean dago baserri bat ta urrutixeago Amabirjinaren elizatxo, Santa Andrea deitzen zioten aspaldi. Amabirjinaren irudia eserita bere aurrarekin belau-nean, amalaugarren gizaldikoa degu. Elizatxo dagoen tokiari Urri-tza deitzen diote, beko aldeari, berriz, Sarabe edo Basaerreka. Elizatxoaren aurrez aurre egoaldera ba daude arkaitz batzuek zulo batekin, begi baten antzera. Toki oneri Jentillen baratza deitzen diote ta zuloari Jentillen leioa. Izen oiek zer esan nai aundia daukate ta ikusten danez aspaldiko garaiekin lotuak daude. Alderdi oneri buruz, erriak esaten zituan ipuiak, urte asko dirala Jose Migel Barandiaran euskalzale ta jakintsu ospetsuak bilduak zituan, baita argitaratuak ere. Bere euskal mitolojiaren iztegian, toki oneri buruz mintzatzen zaigu.

Ez da arritzekoa, Resurrezion Maria Azkue euskal jakintsuetan argiena, gaia asko biltzen ibiltzea erri ontan. Antziñako kutsu aundiko kantu batzuek ementxe jasoak ditu; "Ur goiena, Ur barrena" kanta zarra Maria Martina Goikoetxeak emana eta "Pazkoetan" Maria Ondarrarik.

Eliza ederra, arrilanduzkoa, barne batekoa degu, sapaiaiko arri zaiñak lorategi bat dirudi. Nere iritziz amaseigarren gizaldikoa. Ba dauka erretaula bat oso ona, amazazpigarren gizaldiaren asieran Migel Peruzurgin Arbizu'tarrak egiña Antxieta eskolaren sellua dararama. Eslcubi aldera lenengo alkian dago irudi bat Migel Angel'en Moises'en antza daukana, batez ere arpegia indar aundikoa. Baiñan dana da oso ona.

Erri onek ba zituan len lau basiliza. Orain bi gelditzen zaizkio, Santa Andrea ta San Juan'ena. Len aipatu degun aritztegian San Pedro'rena dago, bidearen gaiñeko aldean. Basiliza onen ardura-pena Alsasu ta Urdiain'goak dabilkite.

Alsasu inguruetako errietan, euskaldunena Urdiain genuen aspalditik. Baiñan danetan bezela, galtzen zijoan. Beldur ederrakin esan zion azkeneko erretorak oraingoari: "Emengo euskerak egin du...".

Bainan erri oneri zoriona urbildu zaio. 1964'garren urtean etorri zitzaion erretora berria. Geroztik ba dauka eskertsu egoteko arrazoia. Gaur euskal bizitasuna ta giroa esnatuta dabil; bere euskal nortasunaren ugaritasunagaz nabaitzen da sartu bezin aguro. Emen egunero, Jose Maria Satrustegi'rekin euskal jaia da. Orrelako gizonak merezi dute ezagutzea. Berez Arruazu'n jaioa Sakandarra degu; 1955 apaiz egiña. Apaiz berri Luzaide'ra bidali zuten. An egon zan 1964'garren urte arte. Luzaide'n lana asko egin zuan. Ango dantzak ezagutu araztera eman zituan. Aldizkaritxo bat argitaratzen zuan noiz beinka. Urtero egin zuan Luzaide'ko egutegia, geienetan Utrilla margolariak apainduta.

Andik Urdiain'era ekarri zuten. Emen berriz gaurko elizaren artzai bat bezela agertu zaigu; langillea, argia, ona ta benetan euskalduna. Naparroa'ko apaizekin gutxitan gertatu dana. Siñismenaren ezitzalle baten antzera jokutzen ari zaigu. Erri ta gizartean arkitzen ditun aberatasunetik asita, Kristo'ren Berri Ona agertzen die. Bere lana guztia, berri on bat biurtzen du; alkartasuna, laguntza, aurrerapena, alaitasuna sortzen dakizki ta ortik Kristo'ren azia ta itza ereiten dizkie. Zer geiago esan leike apaiz batengatik?

Erriaren etorkizunari buruz, Naparroa'n dagoen olategirik onenetakoa ekarri die; Magotteaux-Luzuriaga 1968'garren urtean lanean asia, ba ditu orain eunta ogeita amar langille. Altzairu berexiak egiten dituzte. Orrelako olategiarekin, erria aurrera dijoa azeitzen eta indartzen.

Kulturari asko begiratzen dio. Orain dala bost urte egin zuten sozioloji ikastaroa gaztენტzat. Bertan eta inguruetako errietan, gure izkuntza zabaltzearren, euskal irakasleak gertutzeko Jon Oñatibia jakintsua deitu zuten eta bertan ikastaro bat eman zuan. Gero eziketeta ta pedagogiari buruz egin dute beste itzaldi mordo bat. Aitziber izeneko aldizkari bat argitaratzen du. Amabi txistulari gazte sortu ditu, baita dantzariak ere. Bertako dantza berexia, galdua zegoena,



giza dantza izenekoa, orain dala berrogei urte aztua zeukatena, 1971 urtean San Pedro egunean berritu zuan Patxi Arraras'en laguntzarekin. Ikusi bear zan nola zebiltzen gazteak dantza zarra au ikasten. Egunero, gabetan, ura zan íesta gaztentat, txistua jo ta dantzak ikasi. Errira urbilduta etzan besterik ikusten eta entzuten. Egunero erri ontan jai, egunero euskaldun...

Gazteak ezitzen era askotara saiatzen da gure lose Mari; dantza dala, ostikoketa eta abar. Ba dute talde bat futboleko Napparroa'n onenetakoa, bai joku ta zintzotasun aldetik. Bere gaztekin Aitziber toki basatian igeri aska aundi bat egin du, oso leku gutxi-

tan ikusten dan bezelakoa. Iru kilometroko bide egokia ere berak egin dute. Erri ontan ez daude lo, alajaña.

Orain gazten biltokia antolatzen ari dira. Billeretan ez dute astia alperrik galtzen, beti zerbait egin bearra; jaiak dirala, Gabonetak, ostikoketa edo udaran ateraldiak. Bai, eguraldi onarekin ateratzen da Jose Mari bere gaztetxoekin lurra zulatzeraz, euskal endarren aztarna zarrak billatzeko. Jentil baratzean ibilliak dira, baita tresna zarrak billatu ere. Orain ekintza berexi orren berriak ematen lanak. Itxuraz azkeneko lan au, danetan egokiena gaztentxoentzat izaki, ostikoketa baiñan atsegiñago zaiena.

Urdiain'go jaiak, mezak, billerak ba daukate bizitasun bat gutxitan ikusten dana. Urtero udara asieran egiten dute, bat guztiz zoragarria, Artziber'ko aranan, Amabirjina bere elizatzora eramatekoan, ez dana galtzekoa. Millaka gizaseme biltzen dira. Aurten San Pedro ondorengo igandean antolatu dute ta erri txiki ontan ba zituzten Euskalerriko abeslaririk onenak.

Esan bearra ere urte onen asieran, German txistulari zarrari egin diotela omenaldi berexia. Aritz zarraren ondoan ikusi dute nola jaio diran zugaitz gazteak.

Erri ontan euskal sena bizirik dago eta nola? Jose Marik dienez, ba omen dute errian beste gizon bat Lukas Zufiaurre, omenaldi bat merezi lukena; esaldi zar aberatsak dituan gizona.

Jose Mari erretora, erriaren eginkizunak aske uzten diotenean, bere gelan biltzen da, eten gabe idazten iarraitzeko. Idazlea degu, euskeraz onenetakoa. Napparroa'n bizi diranetik onena. 1963 urtean euskaltzaindikoa izendatu zuten. Orixe zanaren alxia eman zioten. Liburu bat idatzia dauka euskeraz, Bordel Luzaide'ko bersolariari buruz. Bere idazlana luze ta laburrak ezin konta dira. Euskalerriko aldizkari guztietan idazten du, batez ere "Principe de Viana", "Diario de Navarra" egunkarian euskal orria sortu zan ezkeror, gero Cuadernos de Etnografía eta "Fontes Linguae Vasconum". Etnologo on bat degu. Billera ta batzar nagusi askotara joan bear izan du, Oporto, Madrid, Deusto eta abar. Ba ditu lan batzuek arrigarriak ta berexiak, berak arkitutakoak eta ludiko kultura aberastutzen dutenak, adibidez egurra arriarekin eusteko teknika edo uraren

neurria bereixteko garaiak, Luzaide'ko etnoloji lana, euskal izenen zerrenda, eta abar. Begi ernea dauka Jose Marik eta besteak ikusten ez dutena, berak arkitzen du. Ez da arritzekoa bere etxea arrotzez eta gizaseme ospetsuz betea arkitzea, berriak jakitera ta biltzera dijoaztenak.

Naparroa'n euskerari buruz ez da ezer egingo Jose Mari'ri galdetu gabe. Askotan Diputazioatik deitzen dute. Principe de Viana batzordekoa izan degu aurtengo udara arte. Jose Marik euskerari Naparroa'n arnas berri bat, eman diola esango nuke.

Oartzen danean, Naparroak ezin ordaindu izango dizkio guztiak. Naparroa berri bat jaio zaigula ezin degu ukatu ta Jose Mari da ekintzalletan azkarreneko bat, odol biziko gizona.

Nai ta naiez aipatu bearra Jose Marik daukan laguntzalle benetakoa, Maria Dolores Luzaide'tarra, adiñeko emakumea, sukaldaria, euskaldun ziñezkoa ta emakumetan Naparroak eman duan onenetakoa. Gutxi izango dira berak bezin ondo jendea etxean artzen dakitenak, ain alaiak eta irikiak. Euskera gozoa erabiltzen du. Egunero eskutitzak multzoka idazten ditu, asko euskeraz. Ziur nago, idazki guzti oiek bilduta egunen batean argitaratuko dituztela* Bere euskera errikoa ta goi maillakoa da. Maria Dolores ezagutzea merezi du; andre bat degu. Eta Jose Mari'ntzat nolako laguntza? Esker asko eman bearrak dizkiogu, ba dakizki egiten esneko bazkal ondorengo batzuek ezin direnak beste iñun arkitu. Goxoki oien berriak euskeraz eman gabe ez luke ludi ontatik joan bear. A ze aberastasuna izango litzakena gure kulturarentzat...

Naparroa'ko euskalzaleak eta elizak, arazo askorentzat erantzun jatorrak arkitu nai ba dituzte, ez daukate ain urruti joan bearrik... Urdiain ez dago ain urrun. Nere asmo au batzuentzat geiegi izango, nik ezin besterik aurreratu, nere barrendik ateratzen dan otsa bai da.


neurria bereixteko garaiak, Luzaide'ko etnoloji lana, euskal izenen zerrenda, eta abar. Begi ernea dauka Jose Marik eta besteak ikusten ez dutena, berak arkitzen du. Ez da arritzekoa bere etxea arrotzez eta gizaseme ospetsuz betea arkitzea, berriak jakitera ta biltzera dijoaztenak.

Naparroa'n euskerari buruz ez da ezer egingo Jose Mari'ri galdetu gabe. Askotan Diputazioatik deitzen dute. Principe de Viana batzordekoa izan degu aurtengo udara arte. Jose Marik euskerari Naparroa'n arnas berri bat, eman diola esango nuke.

Oartzen danean, Naparroak ezin ordaindu izango dizkio guztiak. Naparroa berri bat jaio zaigula ezin degu ukatu ta Jose Mari da ekintzalletan azkarreneko bat, odol biziko gizona.

Nai ta naiez aipatu bearra Jose Marik daukan laguntzalle benetakoa, Maria Dolores Luzaide'tarra, adiñeko emakumea, sukaldaria, euskaldun ziñezkoa ta emakumetan Naparroak eman duan onenetakoa. Gutxi izango dira berak bezin ondo jendea etxean artzen dakitenak, ain alaiak eta irikiak. Euskera gozoa erabiltzen du. Egunero eskutitzak multzoka idazten ditu, asko euskeraz. Ziur nago, idazki guzti oiek bilduta egunen batean argitaratuko dituztela* Bere euskera errikoa ta goi maillakoa da. Maria Dolores ezagutzea merezi du; andre bat degu. Eta Jose Mari'ntzat nolako laguntza? Esker asko eman bearrak dizkiogu, ba dakizki egiten esneko bazkal ondorengo batzuek ezin direnak beste iñun arkitu. Goxoki oien berriak euskeraz eman gabe ez luke ludi ontatik joan bear. A ze aberastasuna izango litzakena gure kulturarentzat...

Naparroa'ko euskalzaleak eta elizak, arazo askorentzat erantzun jatorrak arkitu nai ba dituzte, ez daukate ain urruti joan bearrik... Urdiain ez dago ain urrun. Nere asmo au batzuentzat geiegi izango, nik ezin besterik aurreratu, nere barrendik ateratzen dan otsa bai da.



BURLETA TA ARGÁ IBÁI INGURUAK

Biztanlez, Naparroa'n irugarrena degu. Iruña'pean, Bíllaba bí-tartean sortu zaigu Arga ibaia ondoan ikaragarrizko erri aundi au. Gaur amasei milla biztanle ditu. 1963 urtean 4.632 zeuzkan. Orain ogeita bost urte, berriz, irureun. Egues ibarrako erri txiki bat genuen. Bi urte ezkerotik du bere errikoetxea. Iruña'tik bi kilometrorá dagoen erri oneri Aoitze'ko auzitegia egokitzen zitzaion orain dala bizpairu illabete arte.

Nola joan dá azitzen? Lendabizi lurgintzatik bizi zan errixka bat zan; eliza txiki baten inguruan etxe zar batzuek, batek "gaitero" izena du. Erri zarra bere kale luzearekin ortxen degu oraindik errelikia bat bezela. Elíza zarra, berríz, gutxí dala bota dute.

Gerra aurretik, sendi banakaentzat etxe polit batzuek egin zituzten. Gerra ondorean, bizitzako etxe merke batzuek altxa zitzaizkien. Orain, berriz, Billaba'ra dijoan errege bide ondoan, etxe galantaz josita, giza eultzien antzera utzi dute; iri aundiaren inguruko lo egiteko erri batean biurtu arte. Olategi gutxi ditu ta biztanle asko; garrantzitsuenak, txorixua egiteko iru olategi ta ur soiñentzat edo inpermeablentzat beste bi.

Yesa'ko urgeldia egiteko ustu zituzten erri txiki aietatik, Aragoi'tik alegia, asko aldatu ziran onera. Naparroa'tik ere ba daude ugarí ta gero Espáiñi'ko alderdí guztíetatik. Geienak lurgíntza utzita datoz. Ba dituzte alkartzeko eragozpenak ta kaiola oietan ez dute nolanaí etsitzen.

Erri onek bazter zoragarri batzuek ba dauzka, Arga ibaia on-

doan, aipatzea merezi dutenak. Arrizko zubi eder bat dijoakie ibai gaiñetik, erdigaraiko zati zar batzuekin. Ur inguruan zelaiak gelditzen dira, zugaitzez beteak, egurasteko beti toki paketsua ta udaran batez ere atsegiña. Ura, gaiñera, beti neurri berdiñean datorkie. Egoaldetik malkorpean dago ibaia ta larrututa gelditzen dan mendi oneri Ripa izena ematen diote, eguzkiak zillarrezko margoan aldutzen duala.

Erri aundi onek, ain bertan toki paketsu bat ta zoragarria izaiteak ez daki nolako aberastasuna dan. Ondo zaintzea ta apaintzea merezi luke. Orduan bai izango litzakela gauza aundi bat. Zoritzarrez, ez dira oraindik bear bezela konturatu; ibai ertzean daude etxe zarren arriak irauliak.

Aurten errikoetxeak zubi zarretik Iruña aldera, jolastoki ta igeri leku berriak aitxa ditu; danak eraberrian ondo lasaitzeko.

Orain dala amalau urte, eliz berri galanta egiña dute enparantzababalarekin, erri zarraren atzeko aldean, ipar aldera. Eliza berri onek ba ditu bizpairu erretaulu oso onak, bat eliza zarratik ekarria ta beste bi nolanaikoak ez diranak, Arze errixkatik ekarria bestea ta irugarrena Barbazana Iruña'ko katedralaren elizatzotik. Iruak amaseigarren gizaldiaren asierakoak.

Eliza zarran zegoen aldare nagusia Naparroa'ko onenetako bat, Esteban Obraik egiña ta Juan Boskek margotua, Diputazioari saldu zioten, eliza berria egiteko. Santa Katalinaren aldarea museoan dago, Bernat Flandes'koak egiña. Eliza zarraren inguruan zegoen, etxe sendo bat, Naparroa'ko erregearen zaldi estalkia izandakoa.

Lasaitzeko, amabosgarren gizaldian, Burleta'n biltzen ziran guda jauntxoak beren borroka jokoak egiñaz.

Erri zarrean erdi erorian antxe dago, Ilarion Eslaba ereslari ospetsuaren jaiotetxea. Bertan 1807 urtean, urriaren 21an jaio zan. Madrid'ko etxe nagusiaren zuzendaria, idazle ona, eresi egillea ta ereslari on askoren irakaslea genuen. 1878 urtean, uztaillaren 23an illa.

Berri on bat ere jaso genuen. Ikastola iriki dute Burleta'n. 1971 urteko ikastaroan asi dira ogeita amar aurrekin ta amaitu dutenean

berogeita bost ziran. Etxetxo bat oso polita bere jolastoki ederrakin utzi diete, kaputxino irugarrengo lekaimeak, bere ikastetxe ondoan. Maria Luisa Gorostiaga dabil aurrekin ezitzaille bezela. Ezkondua da, berez Ezkurtarra. Sigues'koa dauka senarra, aragoitarra. Ba ditu lau seme alaba. Maestra bezela Burleta'n zegoen ta jakin zuan ba zeudela ikastolak. Bat bertan irikitzeko gogoia sartu zitzaion. Jakiten du garai berdiñean Burleta'n bi milla euskaldun bizi dirala. Ikastola nork nai dun galdezka etxex etxex dijoa. Ondo artzen dute. Gutxina arduratu diranak bere asmo zoragarri onengatik, erderaz etzekitenak. Irikitzen dun ikastola berria, Paz Ziganda Iruña'ko ikastolaren itzalean jaiotzen da. Naparroa'ko ikastoletan, euskera geiena ikasi duten aurrak ementxe arkitu ditut. Aurtengo aur oien bost gurasoak bakarrik dakite euskeraz. Illabete batzuetan aur geienak ulertzen dute euskera, itz asko dakizkitez ta esaldiak egiten arduratzen dira. Andereñoak eten gabe esaten dizkie ipuiak, batez ere txorienak. Izadiaren inguruan ezitzen ditu. Txoriak, adibidez, ikastolako ondora datoztenean, ba dakite aurrak agurtzera urbiltzen direla. Gogotik abestutzen dute ta orrelako giro jatorrean euskera ta euskal usaia sartzen zaie barne muiñetaraiño. Ez dut iñungo ikastoletan orrelako arrakastarik ikusi. Ura zoriona!


Maria Luisa Gorostiaga'k zion; "Neretzat euskeraz erakastea, nere aurtzaro garai zoragarria berritzea da". Ala jarraitu zuan; "Ilarion Eslaba'ren etxean bear genuen iriki ikastola au". Izena ori ere eman bear lioteke.

Aur bokoitzak berreun pezeta ordaintzen ditu. Orain arte Principe de Viana batzordeko laguntzarik ez dute jaso.

Neska batzuek eskotu diote andreñoari euskarazko ikastaro bat illunabarretan emateko. Etzitzaien oraindik erakasten asi.

Kalean euskaldun dendari batekin topo egin nuen eta galdetu nion: "Ez al diezu zure aurrei euskeraz erakasten?, gour bearrezkoa da saltzaillentzot". "Euskaldunak diru aldetik zakarrak dira", bcre erantzuna.

Len parroki bat, orain iru dituzte Burleta'n. Meza euskeraz ematen ere asi dira. Pedro Maria Zabalza Bikario Jeneralak esanta ematen dituzte, goizeko San Blas elizan igandero. Berrogei kristau bil-




tzen zaizkie. Jose Antonio Perez Balda Baraibar'tarra ta Martin Azpirozek ematen dute.

Gazteak mendizalen alkarte bat sortzen ari dira, "Beti Lagun" izenekoa. Asmo on asko dauzkate. Txistua ikasten ere ba dabiltz batzuek.

Emen, bizi da txistulari zarra, Bergara izenekoa.

Aurten, San Juan egunean, erriko festetan, lenengo aldiz txistulariak atera dira enparantzara. Joakin Kanpion, Pedro Arraiza ta Jose Martinez bertako txistulariak, gure doñuak agertu dituzte euskal biotzak alaitzeko. Txistuarekin batean erri galanta ontan giro berria ere sortzen ari zaigu.



ELIZONDO BAZTAN'EN

Elizondo Baztan'go biotza degu. Baillara erdian dago ta bere iriburua degu.

Elizondo ez da Baztan, baiñon bai arana orren galbaia. Berriro arte amalau erri batuta zeuden. Oso gutxi dala Amaiur alkartu zaie ta orrela amabost dira. Ibarra au, Naparroa'n dagoen berexinetako bat degu, lurretan aundiena, izen aundikoa, garai berdiñean baillara, unibersidadea ta errepublika; iri burua alaxe-koa ere, bitxi eder eder bat, zelai batean ezarria, mendiz inguratua ibai lasaia ertzetik dijoakiola ta errege bidea erditik. Toki goxoa ta atsegiña benetan. Armarri berexi bat ba dauka, Baztan guztian berdiña, xoxtaula edo ajedrez ola, etxe geienak dutena, Santxo Garzia IV Naparroa'ko erregeak emana.

Asmo zoragarri berriz izan dute erri ontan, benetan aberatsa ta sakona, bere emaitza ematen ari dana. Izena bera, indar aundi-koa da Euskalerrian, "Baztandarren Biltzarra". 1962'garren urtean egin zuten lenengo aldiz. Gazte talde baten asmoa zan. Gero aziak artu zuten bere gain. Asieran, urtean bein Baztandar guztiak biltzeko asmoa zuten eta aitzaki onekin jai bat zuzentzeko. Gaur Euskalerrian ezagunena da ta euskal jaietan ederrena.

Asieratik Ana Maria neskak zuzentzen du. Azkena ta zortzigarrena 1971 urtean egin zan. Goizean meza, itzaldia ta abestiak euskeraz. Ondorean karrozak, danen aurretik, Maurizio ta Pelix txistulariak Baztan'go ikurriñarekin. Eguardian, gazte ta zarrak mutil dantza. Merkatuko enparantzan bazkaria 1500 gizasementzat. Mai ondorean, naiko mutil dantza, fandango, arin arin eta biribilketak: eunka gazte, jauzi ta irrintzika.

Illunabarrean, Oskarbi abeslari taldea ta Tolosa'ko Udaberri dantzari taldea aritu ziran.

Egun ontako gauzik aundiena euskal kutsu aldetik, Baztan'go mutildantza izaki. Baillara onek dantza aberatsak dauzka eta bizirik daudenak. Emen sortua degu mutildantza bere emezortzi zatiekin. Gizonak inguruka dantzatzan dituzte. Mutildantza era oiek, geienak txorien ta bizidunen izenak dauzkate; txoriarena, biligarroa, añara, zozodantza, xeribegi, mandozarraya, ardogiña, muxi-koa, tellerin, zartaindantza, sagardantza eta abar. Emengo biribilketak, indar aundikoak ta oso ezagunak ditugu.

Aita Olazaranek dio, Arizkun'go Maurizio txistulariaren aitari esker (eta Euskalerrian onena daukaguna omen zan), iraun dutela gaur arte dantza guzti auen doñu zarrak. Eunka gizon batean mutil dantza ari dirala dantzatzan ikustean, euskal dantzen edertasunez jabetzen da bat.

Baztandarren Biltzarra, Naparroa osoarentzat eredu bat izan da batez ere. Naparroa'ko muiña ta zaña bere baillara luze, sakon ta ederrak dira. Naparroa ez da Iruña. Tamalgarria gertatzen ari zana, iri burua indartzen zijoan, erri txikiak ustutzen gizonez eta asmoz. Naparroak bere nortasunari eutsi nai ba dio, baillarak zuzpeltu bearrean daude, asmo ta ekintza aberatsak aurreratuaz.

Bide ontzirik, Baztan eta Elizondo izan dira aurrenekoak. Beste baillara guztiak ementxe daukate eredua ta ejenplua. Naparroa'ko sena ta bizkar ezurra, bere baillarak ta larraldeak Iruñakin batean osotzen dute, ez Iruñak bakarrik edo iri aundiak. Uste dut bide ontatik jo beax lukela Iruña'ko Euskalerriaren Adiskideak alkarteak; Naparroa' ko baillarei beren nortasuna azaltzen lagundu, Elizondo'n egiten dana beste toki guztietan egin dezaten. Orrela Naparroak bere egitazko arpegia azalduko luke.

Elizondo, Amezti, Legate ta Oketa mendien begirapean dago. Kale nagusi bat dauka, Jaime Urrutia izenekoa, An zegoan len eliza, amazapigarren gizaldikoa, errikoetxe ederraren ondoan. Elizarekin batean emen zeukan bere tokia arrizko gurutze gotikoak, orain illerrian jarri dutena. Naiz eliza ez izan emen, errikoetxeak bere arkupe zabalarekin ematen dio bazter oneri jatortasuna; ondoan dago Arizkun-enea jauregia, etxe guztiz ederra, egitazko jauntxoan bizitokia. Emen ezagutu ziran lenengo aldiz Zumalakarregi ta Karlos V erregea. Kale bikain ortan, bi aldetara etxe sendoak, arriak arrosa kolorezkoak ageri dira. Kale onen atzetik muga aldera, Baztan ibaia dijoakie ta ibaiaren beste aldean Txokoto auzoa. Ego aldetik errege bidea, berriz, Santiago izenekoa, erdian parroki berria orain dala irurogei urte egiña, galanta, bi kanpai dorrekin, bat eliza zarrarena dauka. Bide orren bi alderdietara daude eratuak etxe polit ta lirain batzuek, Ameriketara izandako bertako semeak egiñak. Al zutenak beren ametsa orrela betetzen saiatzen ziran. Urruti dirua egin, Elizondo ingurura bizitzera etortzeko.

Orain berriz, Iruña'ko bide ondoan egin dituzte etxe aundi batzuek, erria ondo itsusitzen dutenak. Ez bai dago naiko tokirik etxeak egiteko! Ez dakit zergatik uzten dituzten Naparroa'n orrelako toki politak ain errex itsusitzen.

Ustekabeko erria degu, 2.500 biztanle gaur, 1.139 zituan 1910'garren urtean. Ba daude bost diruetxe ta ibillialdientzat agenzia bat. Gaiñera denda ederrak ditu, inguruetakoa erriak eroatera datoztelako eta Frantzira bi bide dauzka. Orregatik arrotz asko datozkie. Lantegi ikastetxe eder bat ere ba dute, orain dala zortzi urte

ezkeroztik asia, Julian Mitxala apaizaren zuzendaritzapean dabilena.

Ikustekoa dauka erri onek zarren etxea ta gaxotegia, Bartolome Iturralde'ren laguntzarekin egiña. Lurralde askotan gutxi daude ain egokiak. Bertako beartsuei iaguntzeko, erri ontako semeak esku-zabalak dira, iñundik ere ez zekenak.

Seme langille ta ospetsu asko izan ditu, batez ere Estaduaren ta Elizaren serbitzari ibilli diranak; danetan azkarrena, Karlos IV Espaiñiko erregearen ministroa Ormaza'ko Markesa.

Olcrtegi berriak ere ba daude; Zapatillera eun langillekin eta Punto Abartan berrogeikin, gaiñera beste lantegi txiki asko ta bailarako serbizioak, leiatillak edo ofizinak eta abar.

Urrian peri ikusgarria egiten dute. Jende asko biltzen zaie.

Etxe berrietan izango dira aisa milla ta bosteun biztanle berriak, geienak Baztan'go errietatik onera bizitzera etorriak.

Aipatu bearra degu biblioteka edo liburutegi berria, errikoe-txeak 1971'garren urtean jarria; zaindari bezela neska bat dago.

Ba dauzkate bi baseliza, Santa Garazi ta San Pedro'renak.

Irurogeien bat baserri eratuak daude Bearzun, Berro, Etxaide, Antzanborta ta Ezponda auzoetan.

Euskal kutsu aundikoa degulako, erri ontan egiten ziran aspalditik, euskal jai geienak Naparroa'n.

1877'garren urtean "euskera" Iruña'ko euskalzalen alkartean agertzen da Elizondo'tar bat, Benanzio Imaz.

D'Abbadie iparraldeko euskalzale sutsuak ta "euskara" alkar-teak batuta 1879'garren urtean zuzendu zuten olerkarien lenengo txapelketa ta euskal jai zoragarria bat.

Bildu ziran euskalzale aundienetakoak; Abbadie, Duvoisin, Manterola, Adan Yarza, Bruno Etxenike ta Damaso Zabalza. Iparragirre ere etorri zitzairen bere gitarratxoakin eta baita zortziko berri bat egin ere.

Uztaillaren 25'an, txuntxuneroen txapelketa egin zuten, 26'an pelota ta 27'an lasterkariak. Egun ortan bersolariak izan zituzten, Otaño ta Elizegi. Olerkarien artean, Felipe Arrese ta Erramon Artola izan ziran txapeldun.

1932'garren urtean ospatzen dute euskaldun aurren eguna. Apaiztegiko erakasle ospetsu Fagoagak, mezan itzaldia egin zien. Zugarramurdi ta Ziga'ko aurrak irabazi zituzten saririk geienak. Dantzarien artean, Errazu ta Aritzkun gelditu ziran txapeldun.

Euskal idazle onak ere eman ditu Elizondok. Bruno Etxenike, Bonaparte Prinzipearen laguntzallerik aundiena, naiz Urdazubitarra izan, Elizondo'n bizi zan, Datuegarai jauregian. Bibliaren zati batzuek Bastan'go euskaraz ipiñi zituan; "Euskara" alkartekoa genuen.

Aita Franzisko Elizondo, kaputxinoa, Paskual Bernardino Ozta izenekoa, 1870 urtean Elizondo'n jaiotzen da. 1922'garren urtean, "Lore usaidun mamitsuak" liburua argitaratzen du; 1926 urtean Eliza kanta, 1932 urtean Loretegi berria. Ta urte ortan bertan Utzen da Donostin'n. Ipui asko idatzi zituan aurrentzak.

Jose Tadeo Biela Lopez (1875-1935), Dolatxea'n jaiotzen da. Apaizgaia izan ondorean abeslaria egiten zaigu. 1895 urtean ezkontzen da ta Elizondo'ra dijoa bizitzera. Bere olerkiak ezagunak dira; Euskaldunak, Aunitz urtez, Amaia Maitea.

Elizondo'n lan asko egin zuan R. M. Azkuek. Emen bildu zituan kanta zar asko; "Alegatu giñan, Atzo zen igandea, Emen ba gaituk, Emen eldu naiz, Konbeni diran", izenekoak batez ere. Oiek danak Paz Salaburu jostunak emanak dira. Leonzio Iturralde berri, beste batzuek eman zizkion; "Neska zarrak, —A a a ardo gorri naparra".

Aita Donostiak ere lan asko egin zuan emengo kanta ta esae-rak jasoaz.

Ta gaur euskera nola dijoan, galdetu dezakegu. Alderdi bate-tik ondo dabillela ta bestetik gaizki esanaz, eman leike erantzuna.

Erriko gaztien artean ia illa dago. Baserritarak bakarrik egiten dute beren artean. Bertakoak kalean ez dira euskeraz jarduten, lo-tsatu egiten zaizkigu.

Ba daude amarren bat sendi oso jatorrak. Auei esker gauza aundi bat egin dute, ikastola iriki. 1970"garren ikastaroan asi zan. Markos Irigoienek egin zuan lanik aundiena. 28 aur bildu ziran Maria Karmen Goñi Lekarotz'tar andereñoakin. 1972'garren ur-

tean, 56 aur zeuden bi taldetan, Miserikordiako gela eder batzuetan; bigarren laguntzalea Maria Sokorro Iñarrea, Almandoz'ko neska dute. Migel Alberro erretore berria ta euskalzale jatorra di-joakie kristauikasbidea ematera. Esaten dutenez, etzuten Elizondoko sendi askok ontzat eman ikastola, geienak aurka zeuden. Maite dutenak berriz diote, "bidalitzen ditugu aurrak euskera ikas-tea polita dalakoz".

1971'garren urtean asi ziran aundiak euskera ikasten, ogeita-mar bidu zitzaizkien, oitatiek amarren batek amaitu zuten ikastaroa. Migel Plaza Arraioz'ko erretorak ematen zizkien ikaskaiak, beste laguntzaille batzuekin.

Elizondo'ko eskoletan ere ematen dituzte euskerazko ikastaldiak, 1970 urtean 22 mutiko ta 29 neskato biltzen ziran; eskola profesionalean ere asiak dira ikasten.

Doneztebe'n bezela, emen ere Jon Oñatibia gizon argia ta idazle trebeak ikastaro bat eman zuan, euskera erakasteko irakasleak gertutzeko.

Txistua erakastearren, Maurizio Elizalde datorkie astian bein; iru ikasle ditu. Danera ba daude amabi txistulari.

Elizan bederatzitan jarri dute meza euskeraz eta geinetan Jeronimo Irigariek ematen du. Bearzun Elizondo'ko auzoan, igandero atsaldeko lauetan dute berrogei baserrientzat. Santa Garazi baselizan bi meza izaten dira urtero ta aiek euskeraz.

Euskal kulturaren alde lana guzti au ez da berez sortu. Príncipe de Viana euskal batzordea aspalditxo asi zan azi ona ereiten. 1958 urtean bersolarien eguna Elizondo'n zuzendu zuten. Berriz 1960'garrenean eta Perurena atera zan txapaldun. Geroztik urtero egiten dute. Aurten, maiatzaren 21an, Mattin, Lasarte ta Agirre eka-rriri dituzte ta jaia ikastolen alde antolatu dute. Lareun gizaseme bil-du ziran ta zazpi milla pezeta atera.

1961 urtean Príncipe de Viana euskal batzordeak Bearzun'go erreka-ko aur guztiak saritu zituan.

Urtero egiten dute Elizondo'n, Baztan'go aurrentzat idatzsari-keta.

Len, naita, ez ditugu aipatu, Elizondo'ko idazle guztiak, Azke-

nerako utzi degu bat, Mariano Izeta. Euskalerrian euskal periodisten artean onenetakoa. Bere berriak eta erreportajeak bizitasun aundikoak dira ta berari esker, Baztan'ko euskera idazkietan goi maillan agertzen da. Elizondok ba ditu zor ederrak Mariano Izeta-rekin. Gizon atsegiña ta ona degu, emen 1915 urtean sortua, ordularia bere bizibidea. 1957 urtean asi zan "Zeruko Argia" aldizkarian idazten, gero "Herria'n", "Principe de Viana" eta "Diario de Navarra" egunkarian. Auspoa saillan eleberri bat dauka 1962 urtean argitaratua, "Dirua Galgarri" izenekoa. Euskalzaindian laguntzaille bezela 1964'garren urtean sartu dute. 1966 urtea ezkerotik Principe de Viana batzordekoa degu.

Gizon erri zale au maite dute Baztan'en. Pelota atsegin zaio, mendizale porrokatu onek ezagutzen ditu Baztan'go bazterrak. Idazle bezela, baillarako gaiak erabiltzen ditu. Ez daki ondo Elizondok zenbat aberastutzen duan orrelako gizon batek bere erria. Berari esker gero ta geiago ezagutuko degu Baztan'go euskera aberatsa; berak erabiltzen duan iztegia oso aberatsa da. Jaunak eman dezaizkiola urte asko ta osasuna. Naparroa'ko baillaretan orrelako gizonak ba leude...



OLAGUE BELATE'KO BIDEAN

Aita Aginagaldek berri arrigarri bat eman zidan, Olague'n ikastola iriki zutela. Ezin nuen siñetsi, ta bertatik bertara berriak jakin naian Iruñe'tik Ulzama'ra dijoan bidea artu nuen, oso atsegiña zaitena. Erri politak ikusten dira bazter ortan, batez ere Sorauren eta Ostiz. Gero basoz josita dauden mendi batzuek datoz. Indar aundiko mendiak aiek dira. Tontor batean Gaztelua ageri da. Etxaide du bere izena. Orain gutxi berritu dute ta Jose Luis Los Arkos diplomatikoa bizi da.

Bertan, errege bidea erditik dijoakiola Olague erria dago, Zabalabarta ta Kapana mendi azpian. Anue ibarrako iri burua degu. Euskeraz Olau ere batzuetan deitzen dute.

52 sendi, 350 biztanlekin bizi dira. Eliza San Juan izenekoa bere dorrearekin, itsura polita dauka; etxe zarrak ugari ondoan. Parrokian daude gurutzea platereskoa oso ona ta bataio ponteababala, erromanikoa.

Gizaseme geienak lurgintzatik bizi dira; batez ere beiak dituzte. Egunero amairu gazte Ulzama'ko olategi berrira dijoaz lane-ra. Erri ondoan 30.000 milla ollorentzat toki berri bat egin dute.

Erretora Luis Baigorre etorri berria daukate, gizon ona, argia, bizia ta euskalzalea, Lerate'ko semea (Gezalaz). Euskera atsegin zaio ta maite du. Egun batean José Luis Los Arkos diplomatikoa etorri zaio esanaz euskeraren alde errian zerbait egin bear zala ta... Iñarbe idazle ospetsuak emengoa du emaztea eta azientzat zerbait egitekotan zebillen. Alkartuta mintzatu dira ta erretorak

esan die, "ementxe ditugu gela berriak apaiza etxean, goazen ikastola jartzera". Ortarako, batzorde bat sortu dute ta zuzendari bezela alkatea jarria daukate ta idazkaria, berriz, erretora. Azkenean, ikastolari asiera martxoan eman diote ta aur txiki danak sartu dira, baita guardazibillenak ere; danetara 25. Gurasoak pozik daude ezitzaile batek bear bezela zaintzen ditulako. Illean amar duro ordaintzen dituzte. Andereñoa ere alaxekoa dute, Kontxi Pedroarena, Garralda'koa, Aezkoarra, oso neska alaia. Bere osabarekin ikasi du euskera Oronoz'en eta Irun'en. Ogeitabat urte ditu. Aladío, "euskera nerea da".

Olague degu orain, Naparroa'ko erri txikiena bere ikastolarekin.

Euskera oso eroria zegoen. Belarria egiña zeukaten, mingaiña ez ainbeste. Bost sendietan egiten zuten oraindik euskeraz eta be-





rrogeita amar urtetik gorakoak ba dakite. Euskera polita dute; aiona ta amona, berak amutxi ta aitutxi esaten dituzte.

Gerra aurretik, Luis Goiburuk egiten zituan itzaldiak mezetan euskeraz. Garai artan kantuetako liburuak nola saltzen zituzten garizuman mezalaguntzailleak eliza sarreran, oraindik oroitzen dira: "Mixio kanta zorzikoena". Gerra ezkeror erori aundia izan du.

Beren dantza berexi bat ere dantzatzen zuten, "esku dantza". Ba dira amar urte galdu dala. Doñuari eskuakin ioka, laguntzen zioten. Azken txistularia Julian Erbiti joan dan urtean il zan. Bere anai Martin'ek Bilbo'n aizesoñu ikasketak ematen ditu. Emengo dantzaren doña ondo ezagutzen omen du. Erretorak au jakiteakin batean pozik zion, "orduana gure lenengo gauza da, dantza ori len bai len ikastolako aurrei erakastea...".

Gure erretore au ez da lo egiteko iaioa. Bi baseliza dauzka erdi eroriak, San Martin eta San Nikolas ta oiekin bat Olague'ko An-

dra Maria'ri egitekotan dabil. Gaiñera erriarentzat ere liburutegi bcri ari zaie altxatzen. Orrelako gizonarekin urruti joan ditek.

Errikoetxeak iaz, basotik 700.000 pezeta atera zituan. Gizon azkarrak eta dirua batean alkartzen diranean, erriak zuzpertz bear. Naparroa berria gizon ziñezkoak eginen digute.

Erri ontatik ezin iocm Arizu'ri begiratu bat egin gabe, ain polita ta txuria dota... Errixka onek ba zuan txistulari bcri guztiz ospetsua.

Nai ta naiez, Etxaide gazteluko nagusia ezagutu bear genuen eta atsalde batectn urbildu giñan gizon ospetsu ta azkar au agurtzera.


Zalabarta mendia aurrean daukala errege bide aldetik, eskubi Olague'ko ibarra ta atzeko aldean Egozkue'ko zelaiak, egi batean arkitzen da orma lodiko etxe zar au, basoz inguratua, batez ere artez; aspaldiko guda gizonen jauregia izaki. 1425 urtectn Xuri erre-giñak izendatzen du Migel Alegi ibar ontako zaindari bezela. Ama-seigarren gizaldian Baztan'dik sartzen dira Etxaidetarrak eta gctur arte gelditzen da izen au. Emeretzigarren gizaldian karlisten gerra ezkeroz, ez dira geiago nagusiak emen bizi. 1958 urtean arront ber-ritu du Jose Luis Los Arkos'ek, eliza gaietan ministerioan Direkto-re Jenerala danak. Gaztelua ederra garbia ta indar aundikoa gel-ditu zaio. Arria ta egurra daude agirian.


Arrituta gelditu nintzan ikusi nuanean zenbaiteraiño ardura-tzen zan Jose Luis Los Arkos euskal kulturcrtaz. Asko irakurtzen du ta izkuntza aldetik jakintsua degu. Euskera maite du ta ikastolak Naparroa'n bearrezkoak iduritzen zaizkio. Berak dio: "Españolak gera, baiñan Naparrak bezela". Naparroa'ren sena, euskal enda berexiak eta edestian erresuma zarrak egiten dute, jakintsu onen-tzct.

Gaztelu azpian, guk baserria ikustea nai zuan ta bertako eus-keraz ezagutzea. Sartu giñan sukaldean, enbor aundiekin beko sua egiña zuten, inguruan sei gizon eta emakume bat bildu giñan. Gi-zon aien poza, euskeraz mintzatu giñanean. Berri asko eman zizki-guten. Batez ere Margarita Ibarrolak. Zarrak Anue ibarra nola ikus-ten zuten jakitea, berari zor diogu.

Zopaiale Esain'go
Pertikeluze Burutain'go
Landakeder Etulain'go
Kutrillo de Leazkue
Txirimonea de Egozkue
Once casas de Arizu
Villa de Lanz
Fut Olague, fama ala du.

Gurekin genuen Astiz'ko euskaldun bakarrak ala zion: "Euskera ez da len bezela, gaur jende aundiak maitatzen dute...".






GARAÍOA TA AEZKOAN EUSKERAREN ESNATZEA

Garaioa erri paketsu bat degu, Abaurrea'ko bidean dagona; toki erosoan ondo bilduta, lasaitasunean. Kale zabal ta luze baten inguruan daude etxeak, goitik asita elizaraiño beko aldean.

Itxuraz erri ontan ustekabeko gertakizun bat izan zan, ondorio aundiak eman dituna. Gertatutako ipuia polita da. Bertan dau-den euskalzale batzuek merezi dute ezagutzea.

Intxausti'tar aizpek, euskalzale jatorrak, Etniker Iruña'ko ikas-tetxe nagusiko taldearekin etnologia lanean ari ziran eta erabaki zuten, Aezkoa'ko Aria erriaren azterketa egitea. Orain dala lau urteko kontuak dira. Eta jatetxea bezela, Garaioa'ko Aragoinea etxea aukeratu zuten. Azkeneko urte auetan Aria'ra datozenean, or biltzen dira. Ainbeste urte igaro ondorean etxeakoak bezela dituzte Aragoinean eta asko ibiltzen dira, Maria Karmen Marzelan berta-ko alabarekin. Beñ baiño geiagotan, Intxausti'tar aizpek berekin batean eraman dute Uztaritz'era. An aurkeztu zizkioten "Ez dok amairu" taldekoak. Nunbait askotan biltzen omen ziran zikiroa ja-tera. Batez ere Jose Angel Irigarai ezagutu zuan. Abeslariak en-tzuten ditu eta arremanetan agertzen diote, zerbait egitekotan urbil-duko lirakela Aezkoa'ra. Mari Karmenek Garaioa'ko jaigelaren na-gusiari eman zion aukera zerbait antolatzeko. Iose Angel Irigarai' ren bidez dator Garaioa'ra Ez Dok Amairu taldea 1971 urtean mar-txoan. Neska onek bere gain artzen ditu baimenak eta inguruetakoa gatziei deitzea. Neska mutil asko biltzen dira. Arrakasta aundia ja-sotzen dute Ez Dok Amairu'koek. Batez ere emen ezagutzen dituzte



Garralda'ko gazte argiak. Aezkoa'ko euskal txingarraren asiera emen billatu bearra dago. Ondorengo Garralda'ko gazten lana da.

Erretore berria daukate, 1971 urtean abenduaren zazpian etorria; Aita Inazio Odriozola, euskaldun jatorra ta euskalzale porrokatua. Eskolan iru aldiz astean aurrei iru ordu laurden euskera ematen die. Ilbeltzan asi zan ta amairu aur izan ditu. Elias Agorreta, Mezkiriz'ko erretora laguntza eskatzera etorri zitzaion. Gaiñera Abaurre gaiñera iru aldiz astero joaten zaie euskera 30 aurrei ta gabetan gaztei, ogei biltzen zaizkio. Oso ondo erantzuten omen diote. Euskal kankak ere erakasten dizkie. Abaurrepean, eskola garaian, dauden bost aurrei ere ematen die.

Gaiñera bere bitartez, aurtan Aita Aranzadi Aria'ra ekarri du garizumako itzaldiak ematera. Euskeraz egin ditu. Ba omen dira erri ontan berrogei ta amar urte elizan euskera ez dutela entzun. Orain arrituta gelditu omen dira.

Beste euskalzale jatorra, berriz, bertan izandako maisua degu. Goxaioa'n 31 urte egin ditu erakasle bezela ta orain dala sei urte Oroz Betelu'ra izendatu zuten, bainan emen gelditu da bizitzen. Berez Aoitiz'tarra degu. Txikitan mezalaguntzaillea izana, gero erriko eresibatzan edo bandan sartu zan ta amasei urtekin txistua baka-
rrik ikasi zuan. Aurretik ezpata dantzoxia zan. Emezortzi urtekin euskera ikasteko asmoa sortu zitzaion. Adiña orrekin Kanpion ira-
kurtzen du. Gerra ondorean ixildu zaio era bat bere euskal sena. Noizbeinka txistua jotzera bakarrik mendira joaten zan. 1971 ur-
tearen azaroan Jorge Kortez Izal erretorarengana Oroz Betelu'ra di-
joa, euskerazko ikastaldiak eskolan emateko eskatzera. Erretorak maisu euskalzale onen zuzenbidea ematen dio ta geroztik, Simeon
Laurenzek ematen die mutillei egunero euskera ordu erdi bot. Amalau asi zitzaizkion ta danak bukatu dute ikastaroa. Gaiñera
amar gaztetxo ditu txistua ikasten. Garralda'ra ere txistua erakaste-
ra negu osoan joaten zan. Irurogei urteko euskalzale jator onek dio, euskal giroa era bat pixten dulako, txistuak garrantzi aundia dau-
kala.

Goxaioa'n len etzegon txistua jotzerik eta lau aizesoñujotza-
Ueak sortu zituan.

Gerra aurretik ere saiatu ziran erri ontan euskal giroa zabal-
tzen. Euskeraren Adiskideak, 1933 urtean jaialdi bat antolatu zuten
euskal aurrei sariak emanaz.

Garaioa erri alaia degu, txukuna ta garbia. Pixko bat aldapan
dago. Inguruan mendi sendoak ditu, Argibeltz, Iturta, Sanagra, Ar-
peiku, Nikozelea; Koba Artetxe mendi zulo galoxita ba dauka. Men-
diz, Aezkoa'ko erririk aundiena degu. Basoetatik ontasun aundiak
ateratzen dituzte; orrekin mendi bideak, aberen askak, baso ixtu-
rak, edateko ura ekartzea ta elizaren eraberritzea egiñak dauzkate.

Elizak, dorre aundia, sendoa du, arrilanduzkoa. Erromaniko az-
toxnak ba ditu, batez ere sarrera iru abetxoekin alde bakoitxean.
Barrena amairugarren gizaldikoa dauka. Bazterretan bi elizatxo di-
tu arrizko mensuletan irudiekin. Erretaula nagusia amazpigarren
gizaldikoa, bi erreliebe ta bost irudiekin, Abaurrepe'koaren antze-

koa da. Lanak bukatzerakoan oso eliza ederra arkituko dute. San Andres'en izena darama emengo parrokiak.


Gaiñera erri onek seme jatorrak ere izan ditu, onegilleak, erriari maitasuna agertu diotenak. Errikoetxea, garbitokia, eskolak eta abar Ziriako Morea ta Franzisko Txikirrin gizon jatorren lanak dira. Gazte garaian Ameriketara joan ziran eta sosa aunitz irabazi. Gero sorterriaz oroitu zaizkie. Gaur bertan ba daude amar gazte artzai Ipar Ameriketan.

Sendiak oso ondo bizi dira; batez sre ereitsko lur-sagar sta abelgorriekin. Etxe batean ba omen dauzkate ogeita amabost buru.

Berrogei ta zazpi sendi daude ta amairu aur eskolan. Euskerarik ez da kalean egiten, bakarrik adiñekoak dakite, besteak ez. Euskeraren zaletasuna esnatzeko orain lenengo urratsa ematen ari zaizkie.

Azpiko bidetik, arrizko gurutze sder aren ondotik, gure Jainkoari sskatzen nion. "Aita Odriozolak iraun dezala urte askotan oraindik". Lanik zailena berak egiten du.





GARHALDA TA EUSKERAREN BERPIZTEA AUÑAMENDI'N

Bizpairu urte dirala, Aezkoa aldea ezagutzeko asmoa sortu zitzaídan. Ango euskal giroa ezagutu naian, así nintzan erri aietara urbiltzen, nai ta naiez galdera asko egin bear. Berealaxe esan zidaten, "erri euskaldunenak, Aria, Abaurregaiña ta Iriberrí dituzu. Garralda, Aribé ta Garaioan dana galdu da. Udarán arrotz asko sartzen díra ta era bat erdaldunak dituzu". Orrelako erantzuna artu ondoreán, jakíña, erri oietan ez nintzan gelditzen ere, nere erruz. Eta orra nun iakiten degun, Pilarika Amabirjinaren egunean, 1971 urtean, euskal jai eder batzuek aniolatu dituzíela Garralda'n, gero debekatuak izan dírala eta egun gorri oien emaitza bezela euskal ikastaroak antolatu dituztela erri txikí guzti oietan, Garraldan asita, Zubiri'tik (Esteribar), Eaurta'raiño Saraitsu'n. Orrelako lana egokirik

ez da bein ere ikusi Naparroa'n eta Euskalerrian naiko lan. Etzan ba nolanaikoa albistea izan. Nai ta naiez urbildu bearra berriak jasotzeko.

Gazte talde bat arkitu det gutxitan bezelakoa, euskal giro ta kulturaren egarriarekin eta euskeraren gosearekin. Bizpauru gauza batean egokitu dira ta ikaragarritzko sua pixtu dute zorionez.

Ara nola erantsi diran gertakizunak. 1971'garren urtean, martxoan Garaioa'ko jaietako gelak, euskal kanta berriaren eresialdi bat gertutzen du. Gazte asko biltzen dira ta an daude Garralda'koak. Ez Dok Amairu taldekoekin arremanak dituzte. Udarán Garraldakoei oietako abeslari batzuek datozkie agurtzera. Jose Angel Irigarai Auritz'en dagoela alkarturik dijoazkiote itz egitera. Udara ortan, Pablo Mandazen lekaide ospetsua, Garralda'tar jatorra ta euskalzale sutsua bere sorterrian dago, Venezuela'tik etorria. Bertako gaztekin batean dabil. Erriko íestak alkarrekin gertutzen dituzte. Euskalmeza antolatzeke Elias Agorreta, Mezkiriz'ko apaiza deitzen dute. Abesti saio bat egitera, Ez Dok Amairu taldea ekartzen saiatzen dira. Iruña'ko dantzariet ere ots egiten diete. Pilarika egunean euskal meza oso ondo ateratzen zaie. Ondorean, asi dirala, agertzen dira zibillak eta galerazten dituzte. Eresi aldea enparantzan egin bearrean, Pablo'n etxean kantatzen dute Ez Dok Amairu taldekoak. Errua norena? Nunbait gazteak baimenak garaiz etzituzten lortu.

Gazte talde au, danetara amabosten bat, tartean Santiago ta Kontxi Pedroarena, Pablo Mandazen ta Jose Angel Irigarai dauzkatela, maiz solasa sakonak egiten dituzte alkarrekin. Gazte oiek konturatzen asten ari dira, zerbait balio aundiko gauza il zorian dagoa Aezkoa'n eta alegindu bear dirala berpizten, euskera jakiña. Elias Agorreta berekin batean dute. Ikastaroak antolatzeke asmotan dabilta eta Jorge Kortés Izal'eri babesa ta laguntza eskatzen diote. Garralda'tik asita lana egitekotan gelditzen dira. Azaroan asten zaizkigu gazteak euskera ikasten eta 20 biltzen zaizkie; Elias Agorreta erakasle bezela artzen dute. Baiñan garai berdiñean Aunamendi'ko euskeraren erakundea antolatzen dute. Asten dira erakasle billa eta azkenean egitarau edo programa eder baten jabe



dira. Zubiri'n (Esteribar) Silberio Billanueba, Auritz berriko euskal-zale jatorrak ematen die aurrei; 1972 urtean ikastola bat sortuko da. Eugi'n (Esteribar) Martin Azpiroz asten da. Auritz eta Auritz berrin Agustin Ezurmendia Orreaga'ko organista. Mezkiriz, Gerendiain, Linzoain eta Garralda'n Elias Agorreta apaiza. Garaioa, Abaurrepea ta Abaurregaiña'n Aita Odriozola jesuslaguna. Aria'n Orbara' ko erretora Angel Erburua Auzperri'ko semea. Eaurta'n Lorea Abaurregaiña'ko andereñoa. Oroz Betelu'n Simeon Laurentz txistularia.

Erakasle guzti auek, Kortes Izal ta Iñarbe gazetariarekin illero biltzen dira alkarren berriak jakiteko ta alkarturik lana egiteko. Patxi Zabaleta Leitza'tar mutil gazteak bein erakatsi zien euskera nola eman.

Billera oietan argia sortzen da. Ikastaroa bukatzerako pensa-

tzen dabiltz erri guzti oietako euskal ikaslekin jai zoragarri bat antolatzea. Azkenean erabakitzen dute Orreaga'n euskeraren eguna ospatzea napar euskalzale ta ikastola guztiekin. Ala asmatu ta baita egin ere.

Euskeraren eguna ospatzera, Naparroa osotik bizpairu millaka gizaseme bildu ziran Orreaga'n, aurtan 1972 uztaillaren lenengo igandean. Kortese'tako eresia jotzen zutela sartu ziran Orreaga'ko elizan agintariak. Diputazioaren izenean Jesus Ezponda etorri zan. Euskal meza batuta Aita Azkoitia, Etxeberria, Odriozola, Sagaseta eta eliza barrutiko bikario generalak Pedro Maria Zabalez eman zuten. Elias Agorretak otoitzak zuzendu zituan eta Ezurmendiak organoa jo. Itzaldia Iruña'ko Bikarioak egin zuan. Ondorean kalonjen etxe aurrean eresaldi eta dantzaldiak izan ziran. Ez dok Amairu taldea antxe zegoen, Oberena alkarteko txistulariak ere bai, Garmendia ta Muñoa bersolariak, baita napar abeslari gazte berriak Lekunberri'ko Juan Migel Etxarri, Bera'tar Jesus Goia ta Fermin Balenzia iruñsemea. Gero Aotiz, Muskaria (Tudela), Lizarra ta Baigorri'ko dantzariak gure dantzak agertu zituzten. Jose Angel Irigaraik zuzendu zuan eresaldi zoragarri au. Orreaga'n gertatutakoa, antziñako urtetan ezin siñetsi genezakeana zan. Gauza, zorionez berria, garrantzi aundikoa, zerbaiten ezaugarria.

Orain Orreaga'n gertatutako au ta Garralda'n asitako ekintza aundi baten lenengo urratsak dira. Dana dala euskera ta euskal kultura indartzen dijoaz.

Garralda'n len aipatu degun bezela, euskera aurrei eskolan Elias Agorretak ematen die; gaztei berriz gabeen. Txistua ikasten talde bat ari da; erakaslea Simeon Laurentz datorkie Garaioa'tik. Dantzari talde bat ere ari da lanean, erakaslea Txomin iruñsemea dute. Artza anaia txalaparta jotzen erakasteko etortzekotan dabil-tza. Ori dana ez da zerbaiten asiera bakarrik, su aundi baten garr baizik. Iru edo lau euskal mezak izan dituzte lenengo urteontan.

Erri ontan uste zuten euskalzaletasun aundirik etzala bein ere izan Garralda'n. Arrituta gelditu dira esan dietenean, orain dala eunta berrogeita amar urte ba zeudela Garralda'n bi euskaldun

jator eta langilleak, Aezkoa'ko euskeraren alde lana asko egin zutenak. Luis Luziano Bonaparte Prinzipeak bi laguntzaille arkitu zituan emen Garralda'n, bat erretora ta bestea maisua. Joakin Jabier Loperena 1821-67 bitarte ortan erretore zegoan eta garai berdiñean Pedro Jose Minondo maisua. Bi aezkoar oien lanak Londres'ko liburutegi zarretan salgai oi dira.

1933'garren urtean, Euskeraren Adiskideak alkarteak, Garralda'n euskal jai bat antolatu zuan.

Aurten maiatzaren zazpian, amaren eguna ospatu dute, bertako ta inguruetako txistulari guztiak bilduta. Ureta'ko gaztetxoak irabazi dute saria ta txapel aundi bat. Orain berriz datorren ikastaroako aurrentzat ikastola bat irikitzekotan dabiltz. Etkez etxe asi dira aurren izenak artzen, amasei bildu dituzte. Apezetxearen gelan astekotan daude.

Erri au euskal kutsu aundikoa dela ezin ukatu. Joan Pedroarenak, Asteatxo etxeko gizonak seireun izen euskaldunak bildu ditu errian. Toponimia aberatsa dagola esan bear.

Eixe batean oraindik, Errotazain etxean euskerari eutsi diote, txikiak ere ba dakite. Orain arte aurrak euskeraz naiz ez jakin, urtero gabonetako kanta zarra EGUBERRI abestutzen dute.

Erria polita da, benetakoa, Saraitsutik Orreaga'ko bide ondoan dagoena, ipar aldera eratua. Auzo asko ditu, naiz danak alkaturik izan; Elizamendia erri gaiñean (len eliza zarra zctn emen), azpian Urepel, eskubira Xotoa, bertan Tofarreta, aldamenean Ezpilapeta, bidetik eskubira Bendizubia eta Soroa. Abelgorriak eukitzeko bordak ere ba dituzte; Zakarloa Auritz aldera, ba daude sei borda, Biarzilo, Berroandia, Beloiturrigain, Onanburu.

Garraldak 1910 urtean 412 bizilagun zituan, gaur berriz 398, 61 sendietan.

1898'garren urtean elizaiik asita erri guztia erre zan. Altxatzen lagundu zuten gizonak merezi dute ezagutzea, Domingo Elizondo, Antonio Arostegi ta Petra Matxin.

Erri aberatsa degu, baso galantak ditulako. Urtero irabazi aundia ateratzen diete, ia bi milloi, ta orrekin erria apaintzen saiatzen dira. 1960 urtean eliza berria jaso zuten erregebide ondoan; bi mi-


lloi pezeta sartu zituzten. 1965 urtean errikoetxe berria altxa dute ta zazpi milloi kosta da. Sendiak ba daukate nun bizia atera, lursagarrrak, aragia ta basotik.

Gizon berexi bat ezagutu dut Garralda'n, Jose Errota iduriegi-
llea, bertako semea, 53 urte ditu ta berez baserritarra da. 1945 ur-
tean asi zan irudiak egiten, arriakin eta zurakin; eliz irudiak, eus-
kal gaiak batez ere, kutxak... Bere lan oietan gauza bat garbi ager-
tzen da; edertasuna, egiaren maitasuna ta gure lurraren arnasa.

Garralda erriak, naiz txikia izan, Aezkoako nortasun berezia
agertzen digu. Gizonak, langilleak, argiak, gorbiak, azkarrak ditu.
Garraldaren bitartez Aezkoak eskeiñiko dio Naparroa'ri bere indar
berexia, euskaldun nortasun aundi bat. Aezkoak ba dauka bizita-
suna, indarra ta odol aberatsa. Bere kemen ori onuragarria izango
da Euskalerriarentzat, bai giza aldetik eta euskal kulturaren alde-
tik batez ere.

Ekintza polita, orain bearrezkoa izango litzake, bertako euskal
idazlen lana guztiekin eta Aezkoa'ko euskerazko idazlan guztiak
bilduta argitaratzea. Baita oso ona izango litzake, San Joakin'en
baseliza berritzea ta an urtero baillara osoa biltzea ta alkartzea.

Aezkoak alkartu bearra du, bere nortasuna ondo ezagutzeko ta
bestiei dan bezela azaltzeko.



ETA'KO JAUREGIA, MEZKIRIZ AURREAN

Toki atsegiñak baldin ba daude Naparroa'n, bat Ureta'ko jau-
ia Erroibarren degu; lurrelde ederra, eroso, alaia, ibai gai-
an zela inguruan baso galantak aurrean egoaldera ditula Ze-

emengo ondasun guztiak saldu zituan eta maisterrak erosi zizkio-
ten. Gaur sendi bakarra dago; auxek dira jauregiko nagusi berriak.
Sendi ontako il zan amandrearen aitatzia Ainzioatik bizitzera one-
ra etorri omen ziran. Gaur etxe indartsu bat egin dute. Ba dituzte
ikulluan berrogei buru aragitarako, baita basoak ederraskoak.

Baiñan gauzik ederrena ta aberastasunik aundiena, euskera
bizirik eukitzea da. Gure izkuntza zarra erabiltzen dute beren ar-
tuemanetan. Erroibar'ko sendi bakarra izango degu euskeraz orain-
dik egunero mintzatzen dana. Eta emen ez nolana; izkuntza abe-
ratsa daukate, bizirik dagona ta euskera bertakoa, aurrak, gazteak
eta zarrak egiten dutena. Senar emazteak beren artean zarrak eta
gazteak erderaz mintzaten dira, beren seme alabaekin euskeraz be-
ti. Beren arteko berezko bilinguismoa sortu dute.

Amcrr senide bizi dira; gurasoak sei aurrekin, aitona ta osaba
apaiza. Etxe ontako nagusi zarra berez Agorretakoa da, euskaldun
garbia, adiñeko gizona, gaztea zalarik dantzak larraiñetan inguruz
inguru egiten omen zituzten. Apaiza bertako semea, Elías Agorre-
ta, etxe ontara biltzen da. Ez degu nolanaiko gizona, euskalzale ar-
gia ta ziñezkoa baizik. Euskal zaletasuna beti euki du; etxean ikasi
ta bizi bai ditu. Asko ikusitako gizona da, Inghlaterra'n egona eta
Madrid'en ikasten ibillia. Orain erretore bezela iru erri ditu bere
gain artuak, Linzoain, Gerendiain (Biskarret) eta Mezkiriz. Berari es-
ker uste dugu emengo euskera ez dala ilko eta Erroibar'koa berpiz-
tuko dala era bat. Orain urtea bakarrik etorri zaigula. Onera iritxi
bezin laister Garralda'ko gazteak deitu zuten íestetako euskal meza
gertutzeko. Garralda'n azaroan euskerazko ikastaldiak ematen asi



re bi anaiei erakatsi zien. Igandero Eliasek meza ematera dijoanean berekin artzen ditu ta errietan banatzen, gaztetxoei txistua erakatsi dezaieten. Franziskok Mezkiriz'en ba ditu zortzi ikasle, Mi-

oraingoz erderaz emateko meza. Ezin deguna aztu da, erri oietan euskeraz dakitenak berrogei urtetik gorakoak dirala eta oiek beren izkuntzan analfabetoak edo ezjakiñak; aurrak, berriz, orain asi dira ikasten. Orregatik esan dezakegu euskeraz mezak ematea mirari bat dala.

Inguruetako erri euskaldunena, Mezkiriz degu. Ureta ourrean dago mendi babesean, Orrega'ra dijoan bidetik pixko bat baztertua, errenkan ezarria, txuria ta gorria. Eliza bere dorre luzearekin ertze batean daukate egoaldera. Amairugarren gizaldikoa degu; San Kristobal'en izena darama. Barrenean lau ola landuak daude amaseigarren gizaldikoak, oso onak, platereskoak; Pentekostes, Jaiotza, Igokundea, Erregen Gurtza, baita Donostiren irudia garai berdiñekoa ere. Bi auzo ditu erri onek. Txorrondo ta Biritxikar. Orain 35 sendi bizi dira.

1924 urtean, erri onen inguruan Silbestre Irigoienek treku arriak billatu zituan. Aztarna zarren billa T. Aranzadik eta J. M. Barandiaranek lan asko egin zuten edergallu zar oietan. Kantu zar batzuek ere R. M. Azkuek bildu zituan, Erroibarko beste errietan bezela.

Euskal giroa ba zijoan berriz zuzenean azken arnasaren bidetan. 1958 urtean sei aur euskaldun zeuden, gaur berriz berrogei urtetik gorakoak bakarrik dakite ta sendi bat bakarra dago arront euskalduna, Elias Agorreta'ren arrebarena.

Euskeraz elizan itzegiten, Kristau ikasbidea ikasten edo abes-tutzen etzuten bein ere bizi diranak ezagutu. Len, aspaldi, nunbait

uek ba dakizkinak. Erroibarren len asko ibiltzen ziran ber Emengoa bai zan Antxo bersolari ospetsua, aspaldi dala bizitua. Merezi luke bersolari onen bersoak biltzea. Uste dut, uskalerrian gure aldean baiñan zabalduagoak daudela gien olerkiak.

rendiain'en, auzoko errian ere ba omen dago beste gizon lestino Zalba bersoak dakina.

i guzti auek urtero ibillaldia Orreaga'ra egiten dute. Zori-orain arte aspaldiko berrogei urte auetan euskerazko kanzuten abestutzen. Orain sartzekotan dabiltz.

ezkiriz'ek ba dauka gauza polit bat; bi gizon eskulanetan daak bizi dira. Markos Saragueta Zubiri bat, bere aitona ta aielak kuxeta egillea, 63 urtekoa, Etxetxikin bizi dana. Egunero xeta ia bukatzen ditu ta gero azken ikutua ematera Kataluña'altzen ditu. Bere lan ortan iaioa da. Ikusi égin bear marraza, pikadera zilletzeko ta aizkora bereziarekin ezpela eskuan ebaki batzuek emanaz ze gauza ederrak egiten ditun.

stea, berriz, Manuel Billanueba da, 71 urtekoa, Zizilliarena bizi da ta aberen yoarentzat usteak edo egurrezko lepokoak ditu, baita otarra saskiak ere gero periak diran toki askotamateko saltzen dituzte. Sutan berotutako burni batekin masoillak egiten dizkio ustearen egurrari, geíenetan urritza edo zkoak dira.

usten degunez, Erroibarren euskal kulturak eta euskerak in z dijoaz, gure arnasa bizi da.



DANTZA

aren alderdiak atsegin zaizkigu. Bein barrena. Aburrea'tik dijoan bide edeta antxen ikusi genuen erri itxura onagalean. Etxeak aldapan daude, erre-erriz egal batean, bere enparantzatxoa

da ikusten erria. Txuri-txuria tellatu

ondorean, Julio Esandi bertako erreñan. Galdetu genion, Eaurta'ko dantza

Etzekin ba zegonikan ere. Disko berriena, aren ale bat bidaltzekotan gelditua dantza taldearen zuzendariari minstera etorri zedin. Esan bezela Jabier ali zion diskoa baita andik illabete ba-

Julio Esandi, bertako erretora ta eusJcalzaie jatorra, Beire'ko semea, zerbait aundiagoa egiten ari da. Euskera piztu nai du ta asi dira lanean. Martxoan ezkeror dator ikastaroaren gcrraian, Abaurrea gaiñeko alaba Rikarda Lorea, erdimailako ikasketako bost urteak egin zituan eta bere errian Aita Inazio Odriozola'ren euskal ikasketara joana da. Orain Eaurta'ko lau urtetik zazpi bitarteko aurrei smaten die ordu bat euskeraz, arratsaldetan. Euskal kanta asko ere erakasten dizkie. Aurren gurasoei ta erriarrei oso atsegin zaie Rikarda Lorea'ren lana au; ez da beti ain errexa izan. Elurte aunditan ere bere "jeep" artuta etorri da egun bat utzi gabe. Orrelako lanak ez dira urrearekin ordaintzen. Diputazioak lagundu bear lioke zuzenki.

Orain erretora txistulari talde bat ateratzekotan dabil. Ez litza-ke txarra izango.

Garagarrillaren 24an, igandean, Iruña'tik aita Aginagalde ta Azpeitiarekin euskaldun gazte talde bat etorrira, euskal meza abestu zuten ta baita itzaldiak egin ere. Mezan esandakoatik, eundik frurogeita amarrek ulertu omen zuten aiton-amonak, gazteak bat ere ez.

1972 urtea grazizko urtea izan da erri onentzat.

Esan dezakegu euskal giroa era bat eroria zegola. Zar batzuek bakarrik zekiten. Errian etzan iñun itz bat entzuten. Adiñekoak ez dira oroitzen elizan iñoiz euskeraz itz egiten entzun dutenik ere.

Ezin ukatu bestela, euskal kutsu aundiko erria degula.

L t i t k i t l i B t k 1815

Bonaparte prinzipiak izan zuan oraindik emengo beste seme
rt laguntzaille bezela, Franzisko Remondegi.

Euskeraren Adiskideak alkarteak, euskal jai bat antolatu zuan
34 urtean, garagarrillaren 24an; itzaldiak, dantzak eta azterke-
k egin zituzten.

Ezkarrotz'ko aita Mikeleiz'ek euskeraz abestutzen erakasten
men zien, baita Tiburzio Garraidak eta Andres Belzundegik ere.

Orain gutxi arte ourrak Gabonetan, Eguberri kantak euskeraz
estutzen ibiltzen ziran etxez etxe.

Blas Iriarte aitona zarrak egiñalak egiten zituan orain 25 urte
rrak euskeraz kantatu zezaten. Aurak Amabirjina txuriaren eli-
ra eramaten zituan, ta an euskal abestiak erakasten zizkien.

Mendi belarren izenak euskeraz, ugari ta aberatsenetakoak di-
gu erri ontan eta Saraitzuko alderdian. Merezi luke, baten batek,
raiz jasotzea.

Parrokia, Salvatore izenekoa, aldare nagusi aldetik, erdi okto-
nala, arrizkoa da ta ba dítu batzuek erromanikoak, atea, idi begi
tzeko leioak eta abar.

Bi pusketan egiña dago. 1880 urtean erriarekin batean erre
n. Berriz altxatzeko Donostia'n napar ereslariak konzierto bat
man zuten; Sarasate, Gaiarre, Arrieta Zabalza, Gelbenzu bildu
an, danak naparrak. Barbieri ere ekarri azi zuten. Geroztik errian
urrezko tellatuak galerazi zituzten. Orduan elizari dorrea luzatu
ten eta gelditzen zan arriekin dana konpondu zuten. Antxen
ian ezarri dute errenazimientoko Amabirjina, oso liraña.

Aipatu bearrak ditugu, dauden iru baselizak. Sartaldera, gain
tecm Amabirjina Xuriarena. Erromaniko-Gotiko bitarteko garai-
a da, galanta. Sarrera polita du ta gaiñean dorre soilla. Bear



Erriak urtero milloi erdi bat pezeta jasotzen ditu basoetatik.
Ez litzake diru ori ere gaizki etorriko orrelako bitxiak konpontzeko.

Santagedarena, mendi tontorrean berriz, Abaurre ta Eaurta do ikusten direla ezker eskubi, Erremendi gaiñean. Tellatua erodauka ta ateak autsiak. Erretaula barrokoa, soilla, antxe dago orik, Santagedan irudiarekin.

Erremendia alderdi au, sakonean dagoen zelai bateri deitzen ote, dana basoz inguratua agertu zitzaigun. Iruditzen zait emen ar dituztela izan eneolitiko garaiko oroitarriak. Diputazioak emene dauka jarria baserri bat eredu bezela izateko.

Lurralde eder oíetan, bordaz eta belazez beterik dagon zelai bal ortan, Gilko Saraitsu'tar gizon argia zebillen beiak zaitzen. ditu bi milla ardi, bei sailla, berrogei milla kilo patata ereiten u bertan... baita zazpi seme sendoak ere.

Erri ontako aberastasuna gaur, ereiteko patata da. 1927 urtean rtu zuten. 1947'garrenean bi milloi biltzen zituzten, jateko ta abe-n bazkarako orduan. Gaur, berriz, ereiteko bakarrik egiten dute.

470 bizi lagun bizi dira ta ikusten da, erri ta etxen aurrerapean, bizi bide indartsua daukatela.

Erregebide ederra Zatoya gaiñetik dijoan zubiarekin 1934 uran egin zuten, eta euskal arnas berria oneraño ere sartzeko izan dilla.



REAN

arte'tik rnendi aldera bidea artu ezkerro, berea-
Esteribar ibarran. Azkeneko muturraraiño igo
rtasun errixkak igaro ondorean, goian arkitzen
iño joan bear ikusteko. Orma lodi batek ixten
ela errekaeren gaiñean sortu da ur geldia, itsa-
oragarria, oso ederra. Itsaso berri onek aldatu
ia. Len basoko erria genuen, gaur berriz itsaso
onek luzean ba dauzka bizpairu kilometro. Joan
zuten ta oraindik berritu edo inauguratu gabe
ntan bildutako ura, Iruña'ra eramateko daukate.
nguratua dago ta mendi egalak basoz jantzita.
mendi oien izenak auxek dira; Ipete, Usuator,
ar aldetik Arga ibaiaraiño. Gero erria dator ta
muz mendia, ondoan Gurrutxagakolepoa ta ego-

Bide berria ere Frantziaraiño sartzen da. Ondoan arrobi gata iriki dute ta ango magnesitaren arria Zubiri'ko olategi berrira amate.

Gaiñera, orain dala gutxi erriko gaiñeko aldean beste olatexo berria egin dute, gomazko frenoak egiteko lantokia ogei lanentzat. Errikoetxeak lagundu die lareun milla pezetakñ eta iru loi itzultzekotan.

Erria aberatsa degu; basoak ezin obeak. Geienak estaduenak a. Erriak beretik urtero bi milloi ateratzen ditu. 1960 urtean, 9.600 zetako sukalde berriak banatu zizkien etxe guztiei. Ikusten deguz, basoko diruekin gauza asko egiten dituzte.

Gazteak ba daukate bertan lana naikoa, oso urrutira joan gabasoetan, arrobian ta Zubiri'ko olategi galantan.

Ur bazter onek, Suiza'ko errien kutsu aundia dauka.

Len aspaldi, garrantzi aundiko arma fabrikak zeuden, bi gunaz. Ezpatak egiten zituzten jauntxoentzat, oso bikaiñak.

Bertako semea ba daukate, Fray Garzia Eugi'koa, Baiona'ko zaia zana, gaiñera Naparroa'ko edestia idatzi zuana.

Garai batean, emendik Burdondogi'ra ta Orreaga'ra erronen joaten ziran.

Gure ustekaberik aundiena auxa izan da, Esteribar baillarako tur ortan euskera bizirik dagola oraindik ikustea, baiñan zorirez il zorian.

Bizirik esaten degu, etxe askotan mintzatzen dutelako. Arginen rda etxean eta Regeiro sendian aurrak ere danak euskeraz egi-



Jose Anjel Linzoain. Bersolari gazte au orain dala bi urte il zan, berebil batek Iruña'n arrapatuta. Onen anaia degu, Emilio Linzoain, gaur Muzkiz'en erretore dagona, Aragonea'ko bordan sortua, euskeraz ondo dakina. Apaiz onek noiz beinka idazten du Principe de Viana aldizkarian. Muzkiz'en elizkizunak euskeraz egiten ditu. Euskalzale jator onen bidez irakurri nuen Principe de Viana aldizkarian, Eugi'ra erretore berria euskalduna bidali zutela.

n; sillen ertetan pasatzen giñen, len manso, gero apureto, emakume batek.

1958'garren urtean ba zeuden 23 aur euskaldun, eundik berro-Gaur, berriz, iru bakarrik.

Orrelako errian, gerra ourretik euskeraren alde lana egiten atzea ez da arritzekoa. Euskeraren Adiskideak alkarteak, sariak atzen zizkien euskal ourrei.

R. M. Azkue ere euskal kanta zarrak biltzen ibilli zan. Besten an Mikaela Mendizabal'eri artu zion "Anaiai gaztigatu" izeoa.

Baiñan etsai oundiak zeuzkan euskerak Eugi'n eta laguntza xi. Gogor egiten zuten maixuak euskeraz entzun ezkeru ta ougorrotoa artzen zioten euskerari. Gurasoak ere uste zuten eusa traba bat bezela zala munduan bizitzeko; alde batera utzi r zana, aurrera joan nai ezkeru.


Eliza aldetik, berriz, emen orain arte oso gutxi arduratu da. rogei ta bi urte auetan ez dute euskal apezik izan. Len, berriz, a latíñez izaten zan ta itzaldia erderaz. Aspaldiko garai aietan, n bakarrik oroitzen dira, mixiolariak ibilli zirala, kalean "Atoz ataria" kantatuz. 99 urteko amona batek zion, berak beti dana eraz ezagutu zula elizan. Nola leike ori? Beti kanpotar asko izan alako eta eltzetzo aunitz, aiengatik egiten zutela, diote. Euskera agarria ez da oso goxotua izan.

Gaur egun, berriz erretore berria Martin Azpiroz egiñalak
i i k b i t k O i d l t b t t i

e ordu berrit geiago luzatu zuan. Jakiña azkenean, aurrak aspertzen ziran, beranduegi etxeratzen ziralako.

Gazteak berriz etzuten nai izan euskerazko ikastarorik.

Gure erretora euskalduna alegindu da lanean, alako ordaiñak ere artu ditu. Ala zion berak: "Ez ba dator norbait mintzatzeraz, azaltzeko zer duten eskuetan galtzen dute euskera. Esmatu bearrak ditugu. Ori da gure lana".



BEGIA

atozela, tente asko, zutik, erne agertzen
erri ederra, ur ontziaren antzekoa. Lur
ta ollar gallurraren antzera erria; atzean
kotan urdin, zerua urdin dagonean. Orre-
o geiagotan.

gain ortan, aspalditik gizona bizi oi da.
o VII Azkarrak erabakitzen du gaztelua
rresiz inguratua altxatzea. Bere erresuma
a zuzpertzeko zerbait egokía bear zuan
aren aurrean naita naiezkoa zitzaien Bia-

a egoki batetik, erromeslariak erdiga-

asita Biana beti oso gogor iokatu da

guruan.


1512'garen urtean nagusitzen dira azkenean kastellanoak Biana'z. 1521 urtean gaztelua urratu ondorean Kastilla'ri erantsi zioten, baiñan 1523 urtean Naparroa'kin bat egitea lortu zuten.

Ikusten degu bere barne muiñetaraiño Biana arront Naparra degula ta asko kosta zaiola izaten. Orregatik bere napar zaletasuna odolan darama. Gaur oraindik erbestean bizi dircm Bianatarrak urrutitik ekartzen dituzte beren aurrak bataiatzera. Onek agertzen du oso naparrak dirala.

Erria museo bat degu. Errege bidetik igaro ezker ez da ezer ikusten. Dan bezela ezagutzeko barrenera sartu bear. Ikusi ondorean arrituta gelditzeko aiña ba da.

Erria arresiz inguratua daukagu ta arrizko ate batzuetatik sartu bear. Bi enparcmtza ta bi kale nagusi nabarmentzen dira. Bata Naparroa aldera, zarrena, lau alderdikoa, oso zabala ta luzea, Koso izenekoa; an dago errikoetxe zarra, gaur erriko liburutegin biurtua. Beste enparantza askoz txikiagoa erri erdian, Fueros izenekoa; emen, ezker errikoetxe berria amazpigarren gizaldikoa bere armari aundiarekin ta eskubian Santa Maria parrokia.

Eliza au degu Bianako bitxirik ederrena. Iru barne ditu ta ormetan arrizko leioak sugarraren antzekoak amalaugarren gizaldian egiñak. Sarrera, egutera aldera, ederrenetakoa Juan Goiaz'ek asi 1549 urtean ta 1566 urtean Juan Orbara Biana'tarrak bukatua. Ba dauzka irudiak ederrenetakoak aldare nagusian Maria'ren bizitza agertuaz Juan Bazkardo'renak Errosario ta Santa Katalina'rena ere



agen zaigu beste zati batzuekin. Gotikoa zan, amalaugarren gizal-
dikoa. 1844 urtean erori zan Orain egontoki bezela ipiñia daukate.
Emendik ikuspegi eder bat ageri da; aurrean zelaia Ebro'raiño,
atzean Logroño ta Errioxa.

San Pedro'ra dñjoan kalean eta elizatik naiko urbil dago Ba-
kardadearen elizatxo gotikoa. Gaiñean gela eder bat dauka ta

kera, zeramika, Marbu, danetara zazpi olategi. Salzedo erreditza lantegian bosteun langillek lana egiten dute. Olategi guztietan ba daude orain milla lantoki ta Biana'n 3.500 biztanle bizi dira.

Len udaran euskaldun asko zetozen eta ezin degu aztu Ermua'ko gizon batek jarri dula aurreneko olategia, tornilleria bat.

Naparroa'ko irugarren erria degu inpuesto geienak ordaintzen dituztenen artean. Erriak berak aberastasun aundiak ateratzen ditu Ebro ibaitik; ura, ondarra ta abar.

Biana asko azi da ta kanpotarrak sartu zaizkio. Torrezilla Kameros'tik, ain zuzen 150 sendi etorri dira.

Aipatu bearrak ditugu emengo bi gizon ospetsu. Bat Juan Bazkardo da, artilaria. Bere lanak Bargota, Irun, Biana eta beste erri batzuetan ditugu.

Bestea, berriz, Nabarro Billoslada idazlea. Naiz erderaz idatzi, bere eleberri Amaya ta Naparroa'ko erregiña Xuri izenekoak, euskal kutsu aundikoak dira. Luis Larunbe, Lizartar ta euskalzale iatorrak dion bezela Nabarro Billosladak Naparroa'ko edestia Euskal-erriarekin lotzen iakin zuan. Euskaltasunaren esnatzaillea izan degu. 1895 urtean bere errian il zan.

Emengo jendea berexia dala, Naparroa osoan esaten dute. Eriotzak izanta ere ez du iñork itzik aterako. Bertako gertakizunetaz ixiltzen dira ta mututa gelditzen.

Ta zer dio euskal giroak Biana'n? Oso berria degula esan bear, baiñan indar aundikoa.

Gizasemen abizen geienak euskaldunak ditugu ta amaseiga-

zidun Kale Nagusia, 14, Biana Naparroa-Gazetaria ta frantses erakaslea da Logroño'ko ikastetxean. Bere euskal nortasuna Jose Ramon Ramirez Agirre Bargota'ko apaizari zor dio. Apaiz gazte onek ama Biana'koa zuan ta emen bizi zan, naiz Bargotarra izaki; il berria degu Erandio'n. Erbestean zegola ikasten, bere erriaren nortasunagaz gero ta geiago konturatu da. Berak dionez, Barojak eta Unamunok euskal zaletasun aundia eman diotela.

Ultreya alkartearen bitartez erriaren mailla ta nortasuna altxa ta esnatu nai dute. Ortarako errikoetxeko goraberetan sartzen dira garbitasunaren billa ta eske. Frontoi eder bat egin dute ta Yoar mendi izena eman diote.

Aurtengo neguan berriz seireun bat lagun bildu ziran ikastola jartzeko asmoakin. Eskutitz bat idatzi zioten Principe de Viana'ko zuzendariari. Pedro Diaz Ulzurrun sendagilleak Kortes Izal'eri eman zion ta or gelditu dira gauzak 1972 urteko asieran. Berak diote ikastola dala, "beren sena berriz arkitzeko bidea".


Daukaten euskal zaletasuna, Ultreya aldizkariaren azken zenbakian agiri da. Xabier Antoñanak argitaratu du lan bat aldizkaritxo ortan, Biana erriaren izenari buruz, oso aipatua izan dana bertan. Berak dio, Biana, bidegaiña izenetik datorrela. Ain zuzen biotzetik erriaren izena euskal kulturarekin lotu du. Itza batzuek ere euskeraz sartu dituzte aldizkari ortan; "aurrera mutillak", gutxi al da?

Aurtengo ekainaren lauean lenengo aldiz ekarri dituzte txistulariak Orain mendizalen batzordea sortzekotan dabiltz Gaurko be-

rrak esan dezakete ba dutela beren errian euskal idazle bikaiña.

-Gaur Naparroa'ñ aldaketa aundi bat dagola garbi ikusteko, emengo apaiza erdaldun bateri entzuna agertu bear, "Euskerak Nçtparroa'n gaur, prestijioa ta sentipena dauka bere alde".

Uste dut Biana ez litzakela izan bear Euskalerriko muga, zubia baizik. Beren euskalzaletasuna agertzearren, ez daukate Errioxata-rrenaurka jokatu bearrik. Gutxiago oraindik, "Ipar aldeko andaluzdk" deitu-bearrik. Bianak euskal kultura ta zaletasuna zabaldu beor lieke Logroño ta Errioxa'tarrei, jakin dezaten berak ere euskaldunen semeak dirala geienak ta euskal kultura berea dala. Urte auetan gaiñera, euskaldun asko joan dira Logroño'ra bizitzera ttraiei lagundu bear zaie euskaldun bezela azitzen. Berea egm bear luteke, Bianatarrak irrintzi jator au, "eman ta zabalzazu euskal nortasuna". Ebro ibaia ez dedilla izan muga, alkartasunaren bidea baizik.



GL AUÑAMENDIKO LOREA

sagi, erri zoragarri bat dala ezin degu ukatu. Ba du indarra asuna. Askotan etorri naiz oneraño, zerbaitek deitzen nino. Otsagi'ko nortasun berexia ez du gauza batek egiten, uk batean baizik; inguruak, iriaren alaitasunak, Muskildak, riak, euskal kutsua eta gizon berexiak.

naitik urbildu ezkeru, mendi buru galantak ikusi bear; Abote ta Ohri (2.026 m.). Mendi oiek ematen diote ikaragarritzko . Bi ibai ditu, Anduña ta Zatoia, Saraitsu ibaia sortzeko beko aldean batutzen diranak. Anduña Otsagi erditik dijoa en otsak ematen dio egitazko alaitasuna.

gurutako mendietan, larre toki ikusgarriak daude. Garai 80.000 buru zeuden.

rreran arrizko gurutze bat dago grazi aundia ematen dionari Erria bera Muskilda mendiaren magalean dago ezarria



Eliza, gaineko aldean, galanta, erria zaintzen ba lego bezela, bere dorre sendoakin ta íellatua zurezkoa. Barrena, ederra dauka ta aldare nagusia, San Juan Ebanjelistena, onenetakoa, Miguel Espinallek 1592'garren urtean egiña. Bere lana amaitzen Juan Beauvais'ek lagundu zion. Ba daude beste bi aldare, Santiago ta Santa Katalinarena, ertzetan, onak. Izlarien bi alkiak ere Migel Espinalenak dira.

Antziñako garaietan, gorriak ikusia dago erri au. 1794'garren urteko gudan erre zuten dana, zortzi etxe ta eliza ezik.

Erri au, 765 metro itsasotik gora daukagu tau gaur 1190 bizi-lagun ditu. Ereiteko patata, abelgorria ta basoak dira bere aberas-tasun egokienak. Gazteak batez ere, basoan lan asko egiten dute. Artaldekin ibiltzea, gero ta gutxiago etsegin zaie. Soroak eta artzai bordak ez dira erritik agiri; Abodi'ko bide ondoan Zatoja lurretan daude.

Dendariak lan asko egiten ari dira arrotzekin. ORHI'ko mugatik bide berri bat iriki dute ta udaran berebil asko gelditzen dira.

Eliza atzetik, mendi bide bat goraño dijoa ta bi kilometrora Muskildako baseliza ederra arkítzen degu, 1.070 metro goien, Na-

Ementxe ikusi nituen, 1971'garren urtean, agorraren zortzian, mabirjiñaren egunean dantza arrigarriak. Elizatxo onek aspaldi-bere dantzariak ditu ta eliza onen buru alkatea ta erriko gizonk dira. Agorraren zortzian erriko jaiak ospatzen dituzte ta meza gusia Muskilda'n izaten da. Goizetik, dantzariak agintarien billa oazte. Dantzatzuz goraiño igotzen dira ta aldapa ez da nolanaikoa. za aurretik dantza saioa egiten dute; "Emperadorea" makillekin da kutsuzkoa, "Katxutxa", "Modorro" makillekin lurra joaz, "Paelo dantza" ta "jota" dantzatu zituzten, "Gora Muskilda'ko ama-ña" esanaz.

Dantzarien zuzendaria BOBO izenekoa dute. Onek, zigor bat rama eskuan eta batzuetan buruan bi arpegiko zatar bat jartzen Emengo dantzak lan aundikoak dira. Azkenean dantzariak lera agertzen zaizkigu.

Gero Meza dute. Ondorean errian berriz dantzak eta agintak beren etxetara laguntzen dituzte.

Berak diote, Nabas de Tolosa'ko burruka ondorean, zorionak ren erregeari dantzatzuz, opa zizkiotela.

Ia 1666'garren urteko paperetan agertzen zaizkigu Amabirjiña-n dantzari auek ta gaur arte iraun dute. Antziñako garaiakoak a, ziur asko kristau garaiaren aurretik datoztenak. Mirari bat nola iraun duten gaur artean bertako ertilaririk ez izan arren. i kanpotik ekarri oi dituzte ereslariak. Bertan ez dute txistularirik n ere ezagutu

Azaroaren 8'an, aspaldiko garaietan, inguruetako bailleratik gizaseme asko zetozan, baita Baxanabarra ta Xibero'tik ere. Larrau'-ko artzaiak asko etortzen omen ziran ta gero etxetan bazkaltzen gelditzen ta Bornas tokian azkenean dantzartzen. Arrazoiakin, Otsagi Xiberoko Ateratze'kin anaitu da ta orain jaietan egun berexi batean oneruntz datoz.

Euskal nortasun aundia zeukan Otsagi'k oraindik gaur naiz asko galdu, nabaritzan dana. Dantzak eta beren doñu berexi oiek naikoa Jiote. Erri gutxi izango dira gure mendi bazterretan ainsbeste dantza ta doñu jatorrak dituztenak.

Orain irurogei urte erabat euskaldun utsa genuen. Iruñakin arremana gutxi zituan, geiago Iparraldeko Euskalerriarekin. Urruti gelditzen zan. Bideak txarrak eta bizitzeko gauzak bertan egin bear.

Izan ditu bere euskerazko idazlari ospetsuak eta ez nolanaikoak.

Luis Luziano Bonapartek euki zuan laguntzalle bat Saraitsutarra, Juan Marko Juanko. 1777'garren urtean ekainaren 18'an jai-oa, Anjel Juanko ta Maria Angela Eseberrin semea.

Garralda'tar sendiak ere eman ditu ugari. Ziriako Garralde,

Oso atsegin zitzaion euskeraz mintzatzea ta bein erriko andre ateri galdetu omen zion: "Zer egiten duzu?"; ta "Arika, Arika", rantzuna eman. 1923'garren urtean, Jose Migel etnologo jakintsua, erri ontan bere lanak egiten lagundu zion eta urte ortan billatzen itu onek lau dolmen Abodi mendian. 1929'garren urtean il zan.


Bere anaia Tiburzio Garralda, 1880'garren otsaillaren 19'an jaia. Orkoien'go erretora. 1918'garren urtean Euskal Esnale aldizarian argitaratu du lan bat. Euskaraz egiten zituan noiz beinka zaldiak.

Federiko'ren alarguna saiatu zan bere semek euskera ikasi zeten. Ziriako seme zarrenak, Iruñako sendagille ospetsua danak aki bakarrik.

Resurrezion Azkue'k ba ditu bizpairu gauza emen bilduak; Kristi on Batek", Fernando Rekalde ta Franziska Krutxagak emaa; "Yinkoak dizula Egun On" Simona Ibañezek ta "Ailargiña" okoa.

Euskal jaialdi ederrak ere egin zituzten gerra aurretik. Batez re 1926'garren urtean agorraren 12'an, "Euskal Adiskideak" elkar-eak antolatua. Tiburzio Garraldaren itzaldia mezan, dantzak, peloa ta euskal aurrei sariak izan ziran ekintza aipagarrienak. Aita amaso Intza'koa ere mintzatu zan euskeraz.

1934'garren urtean, berriz, ekainaren 24'an, "Euskeraren Adiskideak" antolatu zuten beste jaialdi bat; itzaldia euskeraz mezan, antzak eta aurrei azterketak eta sariak.



berriz euskeraz. Azkenean Salvador Napal erreterak utzi zion elizan eta kito.

Ain antziñako kutsu aundiko euskera zarra ia galduta dago gaur. 60 urtetik gorako batzuek mintzatzen dira oraindik. Erderaz egitea sartu zan ta euskera gutxitzen asi. Guraso batzuek, erdera bear zutela beren aurentzat... Batek zion bezela "nere aitak ez zidan mintzo nai". Besteak ajolagabekeriz galdu zuten. Ala dio beste

b t k " G t i l k

d. a t a z a r n t a b e r t a o s e m e a d a n
Mario Garralda sendagille ona ta idazle ospetsuaren bidez artu
degu. Erabiltzen duten euskera berbera azaltzen degu.

Danak

Kristo sortzen duzu gaur
alegra giten gutziok gaur (bis)

I

Natibitate gabea
ollarrak kantatu zuenean
Ama Semea maiterik zauden
bi beso sanduen artean.

Danak

Berrus karo natuse
Maria beti birjini (bis).

II

Kristo xinda mundura
gure reskatatzera
disponigiten kristionak
Jesusen adoratzer.

Danak

Danak

Berrus... eta abar.

IV

Beleneko portalea

Portale famatua

Zuren Kristo baita sortzik

gure Salbatzallea

gure Salbatzallea

eta munduko Redentorea


Denak

Berrus... eta abar.

V

Orienteko Erregeak

izarra giaturik



KARIA EBRO IBAIAREN ZAINDARI

Bere 21.721 biztanlekin, Naparroa'ko bigarren iria degu. Keiles a erditik dijoakio, baiñan ez da ageri. Iria, Ebro ibaiaren ondoan ipar aldera ta Santa Barbara'ko gaztelu zarraren azpian sorra. Amazazpi begiko arrizko zubi zarretik ikusten da iri zarra, kanpai dorrepean; zubi onek 370 metro luze ditu. Iri zarrean, batzuek besten ondoan estutzen dira ta iri berria ondoan sorzaigu etxe galanta ta luzekin inguruan. Urte batzuetik oneruntz azi da; 1910 urtean 9.072 bizilagun zituan. Bizpairu lantegik lanasko' dabilzkite; Enrike Jimenez'ek 268, Piher'ek 826, Sanyo'k Azukararak 114, S. k. F. izeneko lantegia da azkena etorria. Lan asiko danean seireun langillentzat tokia izango du, bukatuta z bi millarentzat. Eibar'tik dator. Iriak emen jartzekotan 400.000 o eman dizkio utsean. Gaiñera errikoetxeak autobusak jarri diz-Eibar'ko lantegi ontako langillen sendiak Muskaria ezagutu de-

Lurraren aberastasun au ez da gaurkoa. Orregatik ez gera arritzen jakiñaz aspalditik gizona emen bizitzea. Edesti egille zarrenak diotenez, emengo lurralde auetako gizona, "Vaskonum" deitzen zieten, euskaldunak izaki jakiña. Muskaria izena ordukoa da.

Erromatarrek lur auek borroka latza egin ondorean bereganatu zituzten. Zortzigarren gizaldian, moruak sartuta iri aundi ta indartsu bat sortu zuten. Beni Kasi izeneko sendia bederatzigarren gizaldi arte dago emengo nagusia bezela. Kasi (Kasius) izen ori mairu biur-tutako kristau baten izena omen da. Sendi au iru gizaldi oietan nai-ko ondo konpontzen zan Iruña'koekin,- ezkontzak, arremanak, sale-rosketak alkarrekin egiten zituzten.

Urrengo gizaldietan Naparroa'ko eregea ba zijoan lur berriak irabazten. Ipar aldetik, Bardenas mendietaraiño iritxi zan ta egoal-detik berriz, Kodes ta Naxera artu ondorean, Kameron'etik sartuta Monkaio mendia eskuratu zuan eta jakiña, lurralde guzti oiek, be-re gizonekin, euskaldunez betetzen zituan, geienak artzaiak izango ziran. Amargarren gizaldian mendi guzti oietan euskeraz mintza-tzen zan, orregatik daude ainbeste euskal izen.

Azkenean, 1119'garren urtean Alfonso burrukalariak Muskaria iri nagusia bereganatu zuan. Aberatsa zan eta moruak eusten zio-ten. Ezin degu aztu ipar alde ontan askozuz luzaroago iraun zutela Kastilla'ko egoaldean baiño. Toledo 1085'garren urtean eskuratu zuten kristauak.

Muskaria iri eder oneri asko lagundu zioten Naparroa'ko erre-

Tarazona'ko gotzaiaren pean egon da beti orain dala ogei urte arte. Geroztik Iruña'kin lotu dute.

Beti Naparroa'ko mendi aldeko gizonekin arremanak izan ditu. Erronkari'ko ta Saraitsu'ko artalde galantak ingurura zetozkion, orko mendietan negu guztirako Auñamendi'ko bortuetako elurrak garbitu arte.

Arte aldetik oso erri aberatsa degu, uste baiño geiago, gauza asko daude ikusteko. Bitxirik egokiena eliza nagusia da, erromaniko gotiko bitartekoa (1194-1234), iru barne ditu ta ondoan ibillaldi kalostratokia. Moruan eliza berberean egiña dago. Erdiko erretaula XV gizaldikoa Pedro Diaz Obiedo'k margotua (1494), onenetakoa. Ba daude beste bi txiki garai berdiñekoak, oso bikaiñak; Billaespesan illobia Juan Lomme'k egiña (XV gizaldian), kalonjen eseri lekua Esteban Obrai'rena. Ego aldeko sarrera irudiz betea dago; ba daude 114. Eliza barrenean Amabirjinen irudiz iosita arkitu genuen, danak ezin obeak, museo bat egiteko aiña.

Madalena eliza XII eta XIE'garren gizaldikoa da, erdiko alda-rea 1551 urtean Juan Ramirez'ek egiña. Ba daukate Santa Anaren irudi bat gotiko-flamenko antzekoa, oso egokia.

San Nikolas'en elizan daude Petro Pertus'ek egindako ola margoituak, onak. Oliamendiko Jesus'en otoitza ez da aztutzekoa. Emen euki zuan Santxo Azkarrak lenengo illobia.


Katedralaren ondoan daukagu gotzaiaren jauregia platereskoa, XVI'garren gizaldikoa.

zea arkítu zuana. Yanguas Mírcnda edestilari ona Muskariakoa genuen. Joakin Gaztanbide (1822-1870) emengoa zan; baita gotzai, guda gizon, agintari, ta lekaime ospetsu asko ere. Euskalerriko Adiskiden alkartea, Iruña'n egin aurretik, Muskaria'n 1778 garren urtean sortu zuten.

Jose Maria Iribarren, urte auetan Naparroak zeukan idazlerik onena ere emen jaioa da. Berari esker, Euskalerriko iakintza asko aberastu zaigu. Oroitarri bikaiña bat eskeñi diote enparantza eroso batean.

Ta euskal kultura nundik nora dabil?, galdetu dezakegu. Gerra aurretik ba zeuden Muskaria'n gizaseme asko begi onekin ikusten zutenak, batez ere industrialak eta erdi maillako gizonak. Garai ortakoa degu Jose Maria Iribarren idazle guztiz argia. La Voz de Navarra aldizkarian idazten zuan. Napar argi au euskalzaindikoa genuen eta Euskalerriko berri asko emanaz gure kulturaren alde lan asko egin zuan. Garai ortako beste idazle ospetsua ta euskalzale atorra Luis Gil degu. Onek emandako xetasun asko argitaratu zituan Iribarren'ek. Neri ere Muskaria'ko berri asko berak eman dizkit, ementxen azaltzen ditudanak. Gerra aurretik ba zeuden txistulariak Muskaria'n, aietako batzuek oraindik bizi dira, Akilino Gascon adibidez. Urtean bein Kristoren erromeria egiterakoan, antxe agertzen ziran txistuak Ebro'ko zelaiak alaituaz.

Erriak orduan ere ba zebilzkin euskal usaiko itzak. Adibidez zerbaiten billa aur bat zebillenean eta arkitutakoan "orio" zion. Aurren jantzi bateri "mandarra" deitzen zioten. "Orzaya" itza asko



ria'ri egitazko euskal kutsua. 1963'garren urtean sortu zan talde . Katoliko ekintzan ba zegoan eresi talde bct desegin zana. Janto Durand'ek eskeiñi zien tokia errikoetxean. Karmelo Llorente esbatzaren zuzendariak erakatsi zizkien euskal dantza batzuek. rosa Maria Azkona datorkie Iruña'tik beste batzuek erakastera. 67 urtean Manuel Martinez gazteak indar berritzen du talde au. ain ba daude 55 dantzari ta 44 euskal dantza ezagutzen dituzte on. . Asiera zaillak izan zituzten, bertako gizaseme gutxi biltzen zitzaizen ikustera. Gaur berriz aldiro enparantza nagusia betetzen zaie. Bi aldiz urtean egiten dituzte agerketak Muskaria'n, agorraren keneko igandean eta festetako bezperan. Asko ateratzen dira skalerriko jaietara, baita erbestera ere. Zuzendari gazte onek aten zidan, "naparra ta euskalduna naiz. Mapa ikusita oartzen ra ortaz. Erbestera goazela euskeraz ez dakigulako lotsatzen ge. . Euskalerrian berriz euskera entzuten degula ikasteko gogoia saren zaigu". Asarre xamar daude Diputazioako dantzarien ordezkarekin. Jotak bakarrik kantatzeko esaten bai diete Muskaria'koei.

Ba daude zazpi gaztetxo txistua ikasten ere. Gabero Fueroen parantzan ba dago euskal giroa, txistua besterik ez da entzuten.

Dantzari taldeko gazteak aurtan bertan euskera erakasteko esatu diote emakume bateri. Muskaria'n ba dago sendi bat arront skalduna. Senarra eta aita Jose Manuel Añon 55 urtekin orain ala bizpairu urte il berria dute. Gizon onek bere gurasoak emen-oak zeuzkan, baiña bera Errenderi'n jaio zan. An euskeraz ondo

nuel'ek ba dauka idazlan bat euskeraz argitaratua, Gaztañaga'ri erantzun bat emanaz.


Etxe onen sarreran idazki batek euskeraz ala dio:

"Zein eder ta goxoa dan
senideak alkartuta bizitza
amaren egapean ta
aitatxoren oroitzapenean".

Iri ontan bere euskal nortasuna gordetzeko kemena ta gogoia bear du. Merezi du andre onek, Euskalerriko emakumea deitzea ta izen ori ematea. Orain txistularien gelan errikoetxe berrian asi da euskera erakasten. Ba ditu 24 ikasle, 20 dantzarien taldekoak ta gaiñera beste lau. Bi ordu ematen dizkie astean. Berak dio, "Muskaria'n begiramen aundia daukate euskerarentzat".

S. K. F. lantegi aundia etorri zaie Eibar'tik ta baita batean gipuzkoar euskaldun mordoxka bat ere. Zerbait geiago egiten asiko dirala uste dut...

Jesus lagunak ba daukate ikastetxe eder bat, 1889 urtean egiña. Muskaria'n daude 1561 urtea geroztik; gipuzkoar mutil aberats asko datozkie ikastera. Orain aita Olariaga dabil euskeraren alde lana egiten. Batxillerko lenengo lau urtetan ematen dituzte euskerazko erakastaldiak. Irurogei ikasle datozkie. Iru urte dirala sartu zuten euskera. Bi urte ezkerotik beste gaiekin batean. Meza ere larunbatero ba dute euskeraz. Aita Olariaga Donostiarra degu ta idaz-



1956 urtean imrogei ta amar urtekin joan zitzaigun. Iturri berexi onen ura garbiak bildu naian dabilkigu geroztik gure Aita Riezu.

Lendabizi Aita Donosti'n lanak toki batera bildu zituan Lekarotz'en eta gero argitaratzen asi zan. Berealaxe liburuxka bat, Aita Donostiren bizitzarekin idatzi zuan. Andik gutxira Aita Donostiaren eresi lanak azaltzen asi zitzaigun. Lenengo liburua 1960 urtean atera zan,- gaur arte amar egin ditu. Sail ontan amabi agertuko dira danetara. Liburu bakoítxatik milla ale egiten ditu. Beren izenekin errenkan jartzea merezi dute: I Eguberria, II Pazkoa, III Jesukristo, IV Maria, V Santutegia, VI Lili eder bat, XII Goizean goiz, VIII Itsasoetan, IX Larre gorrian, X Piano, XI Organoa, XII Gela Eresia.

Liburu auek argitaratzen, dirua biltzen ta gero saltzen lan aundia artu du Aita Jorge Riezu. Berak dionez, naiz Aita Donostia ereslaria izan ba omen ditu beste gaiak interesgarriak, argitaratu bearra eta ortan dabil jo ta ke. Amalau kuadernotan Aita Donostiak bildu zituan etnologi gaia asko bearrezkoak diranak gure erria ondo ezagutzeko; oiturak, siñiskeriak, otoitzak, idazlanak eta abar. Gai guzti auek, Iruña'ko "Cuadernos de Etnografía"n argitaratzeko dabilta. Lau sailletan agertuko dituzte; idazlanak, itzaldiak, oiturak eta kanta zarrak. Alderdi ontatik lan izugarria egin zuan gure Aita Donostiak; bere nortasuna euskal langille bezela askozaz aundiagoa geldituko zaigu. Ez du lo artzeko astirik izan. Aita Riezu'k orain Aita Donosti'ren biziari buruzko liburu eder bat idatzi nai

Euskal Kanta Berexiak" 1948'garren urtean. Liburu au agortua o; ereslari guztiak bitxi bat bezela daukate gordeta.

Gaiñera bizpauru lan ba ditu euskeraz egiñak. Principe de Viadatzizuan Axularren ipuia, Juan Benat' ena bezela artua daa. Laffitte'ri ere egin zion eskutitza Txantxo'ri buruz.

Gizon bezela, luzea, argia ta ernea degu, arront gaztea, solan atsegiña. Danez gain kaputxinoa da ta eliz gizona. "Kaputxirrak dira nere jendia", maiz aitortu digu.

Euskal zalea izan ba degu, gure Aita Riezu, beste kaputxinotar on artean izan da. Zorionez napar euskaldun kaputxino talde ra ta langille porrokatua euki dute Naparroan. Beste lekaide iak baiño geiago esango nuke. Bota duten azi zoragarriak itza ugari emango du. Gizon guzi oiek izan dira beren bizitzakal Naparroa'ri eskeiñi diotenak, naiz estu bizi. Merezi dute beizenak aipatzea.

Joan zan gizaldian, Aita Iberok ukalondo aundia izan zuan, Arana gaztearen erabakietan, "Neri euskaldun" erderaz idatzin liburuarekin.

Aita Polikarpo Iraizoz'koak asko idatzizuan Zeruko Argian. Jestoren bizitza ere euskeraz egiña dauka. Erroman bizi da bere urtekin. Zurich'era euskaldunak bidali zuten izkuntzak ikastera.

Aita Buenabentura Oyoregi'koak orri bat argitaratzen zuan ar-entzat. Iztegi bat ere ba dauka bi aldiz ateria. 1956 urtean il zan.

Aita Erroman Bera'tarra, Ozeanian mixiolari izana aspaldi il



oak bilduko ditu. Liburu ori izango da Naparroarentzat bere eus nortasunaren arnas gartsua bezalakoa. Garrantzi aundikoa billa- n det liburu au. Euskal kantak ez ditu beste euskalkiak utzita- ak izango, bereak baizik, bere barne muiñetako bizitzatik ate- k. Liburu onek agertuko dio Naparroari bera dana, euskalduna.

Liburu onek gaiñera eskeñiko dio Naparroari, bere edestiaren l berri bat. Alaitasunez beterik, millaka txistulariak ta abesla- k irikiko dute liburu ori beren kanta zarrak abestutzeko; kantari arberrituko du Naparroak bere euskal nortasuna.

Aita Riezu'ren asmo jator onek ikaragarritzko garrantzia dau- Naparroarentzat ta nola ez Euskalerriarentzat.



EUSKAL KULTURA AUHRERA BIDEAN

Ikusten degunez, basokolare xea ta liraiñaren antzera ari zai-
gu sortzen Naparroa'n. Berez lore au basatia da, toki geienetan ez
du iñork lantzen, ostikoka zebilkieten askotan. Orain arte izkuntzak

Aipatutako eredu oiek baiñan geiago ba daude Jaunari esker aparroa'n, garrantsitsuenak, bearrezkoenak agertzen ditut; dan nak gaiñera lan batean ezin sartu. Beste aldi baterako utzi ar, Saldias, Ituren, Lizarraga, Sunbilla, Oronoz, Garzain eta bes-erri askotako erreitorak, euskerari euste arren egiñaletan dabii-anak. Nola aztu gaiñera Emilio Ezparza Lesaka'ko gizon argia ta alar'ko San Migel'en ministroa ta beste aunitz. Beste batean ertuko ditut gizon guzti oiek.

Irakurlea oartuko zan nere lan ontan, errietako bitxiak, arriak ko aipatzen ditudala. Euskeraren giroa bere inguruari lotua azal-nai izan det aintzinako gizonak utzi zizkiguten gauza eder as-rekin batean.

Gaurko gizartearen obena iduritzen zait dala, gurekin batean dia ta dauzkagun gauza ederrak lañotik erori ba zitzaizkigun be-la uste izatea. Joan ziranak bitxi asko utzi zizkiguten, gauza bat akarrik eskatuaz: biotz eskertsuak izatea. Guri utzitako ainbeste ertasun maitatu bear ditugu ta esan dezakegu oso aberatsak ge-la. Guk ikasi bear emandako gauzei balioa artzen. Euskera ede-ena degu, baiñan beste edergallu askoren artean. Danak iaso arrak.

Euskeraren berpizte ontan ikastolak agertzen zaizkigu Napa-oa'n egitazko euskal kulturaren bizkar ezurra bezela. Ementxen renkan jarriko ditut sortu ziran garaiekin batean.

1971-Alsasua

Aoitz

Burleta

Lakuntza

1972-Olague (martxoan).

Eri batzuetan, ikastola sortu aurreko garaiak aipatzen ditut, giro berexi baten jabe gelditu gaitezen. Esan dezakegu erri batean gure arremanen ondotik ikusi zutela ikastola jartzeko bidea. Idazleak orixe du; asmoak aurreratzen ditu eta idatziaz beldurra kentzen alegintzen da. Naparroa'n erri askotan auxe nabaitu degu ikaragarritzko beldurra, baita euskotar askoren artean ere.

Idazleak argia eman bear die, lan asko egin dezaten eta beldurra baztertzeko. Ortarako bide garbiak agertu ta asmoak aurreratu.

Ikastolen ondorean iduritzen zait lanik aundiena Auñamendiko erri txiki guzti oietan gure kultura zabaltzea izan dala. Ortxen ikusi dut euskeraren indarra Naparroa'n.

Ezin deguna aztu da, Naparroa'n beste zerbaitek agertzen digula euskeraren berpiztea; nunai erriak euskeraren alde azaltzen duan gogoa. Erriberan edo mendietan, naiz napar askok euskera

an guztiak beren goraberak eta buruaustek erriaren ordezkari-
in zuzenduko dituzte bat batean.

Orhi'ko mendi gallurrean izan ondorean, an sortutako asmoe-
etxera etorrira lantxo bat idatzi nuen eta 1971 urtean abenduko
cipe de Viana aldizkarian argitaratu. Ara zer esaten nuen or-
n: "An Orhi'ko gaiñean bururatu zitzaidan, euskal kulturari
parroa'n iru bide nagusi iriki bear zaizkiola. Garrantzi aundiene-
, Iruña'tik Gazteiz'era San Migel pean dijoana. Ura ikastolaz
bearra dago. Bestea Auñamendiko bidea dugu. Or ere ikasto-
eta euskal giroa eratu bearra dauzkagu. Gaiñera Xubero'ra,
parroa'tik, bide orren bitartez zabalduko da. Irugarrena Ebro
barrena sortu bearra. Ebro ere euskalduna dugu. Iru bide oiek,
parroa'ko euskal kulturaren írenteak izan ditezen, Jainkcari es-
u nion Orhiko tontorratik. Euskal usaia utsa artu nuan mendi
artsu artan".

An, ametsak eta asmoak ziranak, liburu ontan ikusten ditugu
biurtu dirala. Oso garai labur ontan, euskal kutsuak iru írente
azkoak iriki ditu Naparroa'n. Autopista deitzen dioten bezela
a'tik Gazteiz'era dijoan errege bide nagusia; ikastolaz josita
o *ta* urtero ugaritzen dijoaz. Bi íriburu oietan eta bitarteko bi-
n izango da euskal kulturaren muiña Naparroa'n.

Ipar aldeko menditartetan dauden ikastolak ta euskal ikaske-
sortzen dute Auñamendiko frentea, aurrera dýjoana gero ta
ago indartzen.

Ez gaitezen amets utsetan gelditu, ba noa arira.

Naparroa oartzen ari da, bere euskal idazle semetaz eta bear zan omenaldia eskeiñi dio aurtan agorraren Il'an Auritz bere jaio-terrian, Larreko, Fermin Irigarai Goizueta zanari. Auxe da Naparroak izan duan semerik garbienetako bat, oso ona, zintzoa, kristau ziñezkoa ta euskal idazle berexia. Antxen zeuden bildurik Euskalzaindia, Diputazioa, Auritz'ko errikoetxea ta euskalzale ugari Euskalerrri osokoak. Goizeko amaiketan euskal meza zoragarria amabi apezak eman zutena. Larreko'ren semeak egin zuan itzaldia[^]. Elizondo'n apaiz dagonak. Ondorean oroigarri bat ipiñi zuten idazlearen jaiotetxean.

Gero errikoetxean Larreko'ren goralmenak eta ospeak egin zituan Euskalzaindiak; aita Damaso Intza'koak agertu zigun euskalduna, Pierres Lafitte'k idazlea ta Eusebio Erkiagak gizona. Etziran galduta gelditu bertako alkateak esandako itzak, Auritz bere erriaren omenaldi berexia berriz euskera mintzatzea izango dala. Amadeo Markok, Diputazioko zuzendariak itz goxo batzuekin burutu zuan billera nagusi au. Auritze'ko kaletan txistu otsa ugari entzuten genuen. An zeuden Auritz Berriko txistulari gazteak ta Luzaide'ko dantzariak.

Bazkarian eunta irurogeitairu gizaseme bildu giñan, anaiartean eta lasaitasunean. Bazkari ondorean izlari ugari agertu ziran, Larreko'ren izena agurtuaz. Azkena Jose Angel Irigarai zan. Onek, Auñamendi'ko euskaldunen izenean, laguntza berexi bat eskatu

i D k d d d d

a ba dituzte, gauza aundi baten jabe izango dirala. Geroak esan beza...

Liburu onen asieran esaten genuen, Kanpion'en Erraondo'ko azken txistularia gaur berpiztuta arkitzen degula Naparroa'n. Nik ikusi dut txistua joaz txoraturik, euskeraz mintzatzen eten gabe Berak esandako azkeneko itzak agertu nai nituzke. Berak eskatzen digu Arturo Kanpion napar ziñezkoa ta euskalzale benetakoarentzat Naparroa osoak omenaldi ikusgarri bat eskeiñi dezaiola, ez nolanaikoa, ezta ere egun batean bukatzen dana. Orain da garaia. Gauza asko aztu dira. Gizon au genuen Naparroa'ko nortasuna obetona ezagutzera eman duna, gaiñera bere idazki oietan gure erriaren barrengo euskal muiña azaltzen digu. Berak ainbat lan ta negar ez du iñork egin Naparroa'n. Arrazoia du Erraondo'ko txistulariak; Kanpion'eri antolatu bear litzaioke Naparroa osoan urte bat irauten duan omenaldia ta urte orreri bere izena eman gaiñera.

Uste dut ekintza au aurrera eramate arren, Napparroa'ko lagunarteak, ikastolak, erriak eta Diputazioa bilduko lirakela. Biotza Napparroa'ri ukitzen ba zaio, ba daki lertu arte gauzak egiten.

